


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea


**EMAKUMEAREN IRUDIA EUSKAL HAUR
LITERATURA MODERNOAN. 1980KO
HAMARKADAKO ETA GAUR EGUNGO
EGOERA**

Doktore tesia

Eneko Fernandez Artigas

Bilbo, 2017ko otsaila

EMAKUMEAREN IRUDIA EUSKAL HAUR LITERATURA MODERNOAN. 1980KO HAMARKADAKO ETA GAUR EGUNGO EGOERA




Egilea: Eneko Fernandez Artigas

Tesi-zuzendariak: Xabier Etxaniz Erle eta Arantzazu Rodriguez Fernandez

Bilbo, 2017ko otsaila

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Familiari,
lagunei,
lankideei,
neska-lagunari
eta
berdintasunaren
alde
lan
egiten
duen
orori.

Eskerrak ematen:

Azkenean ailegatu da tesi-lan honi bukaera emateko momentua. Laguntza barik ezinezkoa litzateke horrelako lan bat egitea, baina zorionez, ezagunen eta ezezagunen laguntza izan dut, eta horrexegatik, lerro hauetaz baliatu nahiko nuke nire eskerrik zintzoena eta beroena emateko bidean egon diren pertsona guztiei.

Lehenik eta behin, corpuseko liburuak lortzeko beraien lana eta denbora eskaini didaten Uribe Kostako liburutegietako, bereziki Sopelakoak eta Berangokoak, eta EHUko liburuzainei. Izan ere, eskatu izan dizkizuedan liburu guztiak garaiz lortu dituzue eta zuen arreta handia izan da, eskerrik asko!

Bigarren, tesi-lan honen zuzendariei, Xabier Etxanizi eta Arantza Rodriguezi, eskerrak eman nahi dizkizuet zuen zuzenketengatik, aholkuengatik eta tartekatutako mezu guztiengatik, eskerrik asko!

Hirugarren, ikerketa lan honetan bidelagun izan dudana Felix Arrietari, bere aholkuengatik, animoengatik eta laguntzagatik, eskerrik asko!

Laugarren, urte hauetan nire lanagatik ardura erakutsi duzuen guztiei, “zer moduz tesia? Noiz bukatuko duzu? galdera sinple hauek eragile izan direlako lanarekin jarraitzeko, eskerrik asko!

Eta azkenik, bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkiet nire familiari, neska-lagunari eta lagunei, hor egoteagatik, eskerrik asko!

AURKIBIDEA

Sarrera.....	13
I ATALA. MARKO TEORIKOA ETA AURREKARIAK	18
I. KAPITULUA. Euskal Haur eta Gazte Literatura eta emakumea	18
I.1 Haur eta gazte literaturaren funtzioak	24
I.2 Ilustrazioak.....	27
I.2.1 Nola ikusi eta irakurri irudiak?.....	30
I. 3. Emakumea eta euskal literatura.....	33
I.3.1 Emakumea eta euskal haur eta gazte literatura.....	40
II. KAPITULUA. Korrante literarioak	48
II.1 Postmodernitatea	48
II.2 Postestrukturalismoa.....	58
III. KAPITULUA. Feminismoa eta generoa.....	61
III.1 Feminismoa.....	61
III.1.1 Feminismoa azken hamarkadetan	65
III.2 Mikromatxismoak	69
III. 3 Teoria kritika literaria feminista.....	72
III.3.1 Kritika Feminista Angloamerikarra	78
III.3.2 Teoria Kritika Frantsesa.....	81
III.4 <i>Queer</i> mugimendua	87
IV. Generoa.....	88
IV. 1 Genero identitatearen eraikuntza	94
IV. 2 Sexismoa hizkuntzan.....	97
IV. KAPITULUA. Sozializazioa	101
IV. 1 Familia eta eskola.....	104
IV. 1.1 Familia.....	105
IV.1.2 Eskola.....	107
IV. 2 Hezkidetza.....	110
IV.2. 1 Hezkidetza eta haur literatura.....	117
IV.3 Balioak eta haur eta gazte literatura	122
IV.4 Balioak eta beraien sailkapenak	134
V. KAPITULUA. Aurrekariak	138
IX. 1 Haur literaturari buruzko ikerketak	140
IX. 2 Haur eta gazte literatura eta balioak	142
IX. 3 Haur eta gazte literatura, generoa eta ideologia	147

IX. 4 Aurrekarietatik asago.....	160
II ATALA. IKERKETA ENPIRIKOA.....	164
VI. KAPITULUA. Metodoa.....	165
VI.1 Testuingurua eta tesiaren garrantzia	165
VI.2 Tesiaren garrantzia.....	169
VI.3 Helburuak	171
VI.4 Hipotesiak.....	173
VI.5 Corpusa	177
VI.6 Tresnak.....	187
VI.7 Ikerketa garatzeko prozedura	193
VII. KAPITULUA. Emaitzak.....	196
VII.1 Pertsonaien sexuen kopuruen eboluzioari dagozkion emaitzak	201
VII.2 Sexismoari dagozkion emaitzak	204
VII.3 Pertsonaien ezaugarriei buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak	253
VII.4 Parekidetasunari dagozkion emaitzak	292
VII.5 Idazlearen sexuari dagozkion emaitzak.....	314
VIII. KAPITULUA. Ondorioak	336
ERREFERENTZIAK.....	363
ERANSKINAK	398
I. ERANSKINA. Liburuak aztertzeko genero analisirako fitxa	398
II. ERANSKINA. Lanbideak.....	401
III.ERANSKINA. Lanbideen maiztasuna	404

Irudien zerrenda

1 irudia: Ikerketa Burutzeko Pausuak.....	194
2 irudia: Hiru Multzotan Indarrak duen Presentzia.....	208
3 irudia: Hiru Multzotan Edertasunak duen Presentzia.....	211
4 irudia: Aktibotasunak duen Presentzia	217
5 irudia: Pasibotasunak duen Presentzia	219
6 irudia: Etxeko Lanen Bilakaera.....	236
7 irudia: Zaintza Familiarren Bilakaera	239
8 irudia: Boterearen Presentziaren Bilakaera.....	243
9 irudia: Kolore Urdinaren Bilakaera.....	247
10 irudia: Kolore Arrosaren Bilakaera.....	250
11 irudia: Amantalaren Erabileraren Bilakaera	259
12 irudia: Ospearen Bilakaera	282
13 irudia: 1980ko hamarkadan, 2013an eta Liburu Saridunetan Sexu Bakoitzean Lanbide desberdinen presentzia	286
14 irudia: 1980ko hamarkadako Liburuetan Jabeen eta Zuzendarien Presentzia	289
15 irudia: 2013. urteko liburuetan jabeen eta zuzendarien presentzia	290
16 irudia: Aberastasunak Sexuetan izan duen Bilakaera	310
17 irudia. Familiak, famili errentaren geruzari jarraiki, hartzaile nagusiaren sexuaren arabera. Euskal AE. 2011. (EUSTAT, 2011).....	352

Koadroen zerrenda

1 koadroa: Ipuinetako Ilustrazioen Ezaugarriak.....	27
2 koadroa: Gizon eta Emakumei Atxikitzen zaizkien Estereotipoak	31
3 koadroa: Liburuetako Protagonisten Sexua.....	45
4 koadroa: Lanbide Motak.....	150
5 koadroa: Sinbologia.....	157

Taulen zerrenda

1 Taula Corpora.....	179
2 Taula: Protagonista Nagusiaren Sexua.....	201
3 Taula: Beste Pertsonaien Sexua.....	203
4 Taula: Ezaugarri Fisikoak.....	206
5 Taula: Mutil eta Neska Indartsua.....	207
6 Taula: Mutil eta Neska Ahula.....	209
7 Taula: <i>Mutil eta Neska Ederra</i>	210
8 Taula: Mutil eta Neska Itsusia.....	212
9 Taula: Ezaugarri Psikologikoak (izaera).....	214
10 Taula: Mutil eta Neska Aktiboa.....	216
11 Taula: Mutil eta Neska Pasiboa.....	218
12 Taula: Mutil eta Neska Menderatzailea.....	220
13 Taula: Mutil eta Neska Mantsoa.....	221
14 Taula: Mutil eta Neska Lehiakorra.....	222
15 Taula: Mutil eta Neska Sentikorra.....	223
16 Taula: Mutil eta Neska Ausarta.....	224
17 Taula: Mutil eta Neska Zitala.....	225
18 Taula: Mutil eta Neska Lotsatia.....	226
19 Taula: Mutil eta Neska Izaera Ahula.....	227
20 Taula: Mutil eta Neska Sortzailea.....	228
21 Taula: Mutil eta Neska Ameslaria.....	229
22 Taula: Mutil eta Neska Heroia.....	230
23 Taula: Mutil eta Neska Jakintsua.....	231
24 Taula: Etxeko lanak.....	233
25 Taula: Etxeko Lanak Bakarrik agertzen dituzten Liburuak (%).....	235
26 Taula: Zaintza familiarrak.....	237
27 Taula: Zaintza Familiarrak Bakarrik agertzen dituzten Liburuak (%).....	238
28 Taula: Lan Ordainduak.....	240
29 Taula: Boteredunak.....	241

30 Taula: Boterea Bakarrik agertzen dituzten Liburuak (%)	242
31 Taula: Esfera Publikoa eta Esfera Pribatua.....	244
32 Taula: Kolore Urdina	246
33 Taula: Kolore Urdina Bakarrik Agertzen dituzten Liburuak (%)	247
34 Taula: Kolore Arrosa	248
35 Taula: Kolore Arrosa Bakarrik Agertzen dituzten Liburuak (%)	249
36 Taula: Maletina.....	254
37 Taula: Betaurrekoak	255
38 Taula: Egunkaria	256
39 Taula: Amantala	257
40 Taula: Amantala Bakarrik Agertzen dituzten Liburuak (%)	258
41 Taula: Txakurra eta Katua	260
42 Taula: Etxeko Tresnak eta Kanpoko Tresnak.....	261
43 Taula: Lagunekin egon.....	264
44 Taula: Kirola Egin	265
45 Taula: Irakurketa	266
46 Taula: Telebista Ikusi	267
47 Taula: Zinemara joan	268
48 Taula: Museoa Bisitatzea	270
49 Taula: Zooa	271
50 Taula: Etxetik Kanpo Jolastu	272
51 Taula: Etxe Barruan Jolastu	273
52 Taula: Ikasi.....	274
53 Taula: Bidaiatu	275
54 Taula: Aita eta Ama Etxean.....	277
55 Taula: Semea eta Alaba Etxean.....	278
56 Taula: Beste Familiarrak Etxean	279
57 Taula: Ospea.....	280
58 Taula: Ospea Bakarrik Agertzen dituzten Liburuak (%).....	281
59 Taula: 1980ko hamarkadako Lanbideak eta Goi-Mailako Ikasketak	283

60 Taula: 2013. urteko Lanbideak eta Goi-Mailako Ikasketak.....	284
61 Taula: Liburu Saridunetako Lanbideak eta Goi-Mailako Ikasketak.....	285
62 Taula: 1980ko hamarkadan Gehien Errepublikzen diren Lanbideak.....	287
63 Taula: 2013. urtean Gehien Errepublikzen diren Lanbideak	288
64 Taula: Liburu saridunetan Gehien Errepublikzen diren Lanbideak.....	288
65 Taula: Ezaugarri Fisikoak, Psikologikoak eta Trebetasunak Deskribapenetan	293
66 Taula: Mutilen eta Nesken Ezaugarri Fisikoen Agerpena.....	296
67 Taula: Mutilen eta Nesken Ezaugarri Psikologikoen Agerpena	297
68 Taula: Mutilen eta Nesken Trebetasunen Agerpena	298
69 Taula: Nesken eta Mutilen Nortasunaren Ezaugarriak	300
70 Taula: Mutil eta Neska Salbatzaileak	302
71 Taula: Arazoak Gainditzen dituzte.....	303
72 Taula: Menpekotasuna	304
73 Taula: Autonomia	305
74 Taula: Erabakiak Hartu.....	306
75 Taula: Indarkeriaren Erabilera	307
76 Taula: Diru Asko.....	309
77 Taula: Aberastasuna Bakarrik Agertzen dituzten Liburuak (%)	310
78 Taula: Diru Gutxi	311
79 Taula: Idazleen Sexua.....	314
80 Taula: Idazleen Sexua eta Protagonista Nagusia.....	315
81 Taula: Idazlearen Sexua eta Ezaugarri Fisikoak	317
82 Taula: Idazlearen Sexua eta Pertsonaien Aktibotasuna eta Pasibotasuna	319
83 Taula: Etxekoa Lanak eta Zaintza Familiarrak Idazlearen Sexuaren arabera	321
84 Taula: Idazlearen Sexua eta Boterearen Banaketa.....	323
85 Taula: Idazlearen Sexua eta Espazioen Banaketa	325
86 Taula: Idazlearen Sexua eta Kolore Urdina eta Arrosaren Erabilera	327
87 Taula: Idazlearen Sexua eta Maletinaren eta Amantalaren Erabilera	330
88 Taula: Idazlearen Sexua eta Aisialdia	333

SARRERA

Feminismoa? Berdintasuna? Sexismoa? Patriarkatua? Estereotipoak? Euskal haur eta gazte literatura? Emakumea? Gizona? Irudia? Generoa? Hezkidetza? Zein izan behar da tesi honi hasiera eman behar dion lehenengo hitza? Zaila egiten zait egokiena aukeratzea. Hala ere, konturatu gabe edo nahita, ez dakit, jadanik hasiera eman diot.

Nolakoa izango da euskal umeek liburuetan ikusten eta irakurtzen duten emakumea? Eta gizona? Hortik abiatuta beste hamaika galdera egin daitezke: zer-nolako ezaugarriak izango ditu emakume eta gizon horrek? Ederra ala itsusia izango da? Indartsua ala ahula? Ausarta ala beldurtia? Ameslaria ala heroia? Sentikorra? Aktiboa edo pasiboa? Mendekoa edo independientea? Indarkeria erabiliko al du? Menderatzailea ala mantsoa? Erabakiak hartuko ditu? Non kokatuko da, esfera pribatuan ala esfera publikoan? Etxeko ardurak ala kargu boteretsuak? Zertan egiten du lan?

Azken batean, beste arlo batzuetan, esate baterako, telebistan (iragarkietan, filmetan...) emakumeen (eta neurri apalago batean, gizonen) irudien inguruan dauden kezka, euskal letretara ekartzea interesgarria eta beharrezkoa delakoan nago.

Sexismoa batzuetan begi-bistakoa da, baina sarri, liburuen barnean sexismoa ezkutuan agertzen da eta oharkabean pasatzen da irakurlearen begietatik. Horregatik, estereotipo tradizionalak indartuta geratzen dira.

Era berean, lehen sozializazio prozesuan parte hartzen duten bi eragile nagusiek (eskola eta familia) estereotipoak transmititzen dituzte eta hori egunerokotasunean erabiltzen diren zenbait tresnaren bitartez gertatzen da, besteak beste, haur eta gazteei zuzendutako liburuetan (Turin, 1995; Colomer, 1994; Reizabal, 2015; Etxaniz, 2004; Lomas, 1999; Davies, 1994). Pierre Bourdieu soziologo frantziarrak (1977) garatutako botere sinbolikoaren teorian oinarriturik, menderakuntza harremanak erreproduzitu, jorratu, indartu eta naturalizatu egiten dira hainbat eskuarteren bitartez. Beraz, eragile sozialak (eskola eta familia besteak beste) hainbat tresna desberdin erabiliz indarkeria

sinbolikoaren erreproduzizaile bilakatzen dira eta modu horretan zaila egiten da hezkidetzan eta berdintasunerantz aurrerapausoak ematea.

Bourdiek esaten zuenez, familia, eskola, elizak eta estatuak dira indarkeria sinbolikoaren betikotzean laguntzen dutenak. Tesi honi dagokionez, eskolek eta familiek gizarteratze prozesuan duten funtzioa eta garrantziagatik, premiazkoa ikusten da eragile horiek erabiltzen dituzten baliabide kulturalak aztertzea eta jomugan jartzea. Kasu honetan euskal eskoletan eta etxeetan erabiltzen diren haurrei eta gazteei zuzendutako liburuak aztertuko dira.

Gizartean baliabide gisa sortu den haur eta gazteei zuzendutako literatura, inguruan eta errotuta daukagun sexismoaz kutsatua eta zipriztinduta dago (Lluch, 2003). Gainera, mezu estereotipatuak helarazten dituelakoan nago. Izan ere, estereotipoek sexismoa bultzatzen dute (Mosquera, 2006) eta sexismoa dagoen bitartean ez da berdintasunik egongo, bereziki, emakumeen funtzioak, rola, espazioak eta izaera mugatzen dituelako. Horretaz gain, gogoratu beharra dago, oso arriskutsua dela femeninoa dena baztertzea zein gutxiatea eta maskulinoa, aldiz, orokortzeko erabiltzea.

Mendebaldeko gizarteetan haur eta gazte literaturak pisu handia du umeei munduaren ikuspegi bat zein ereduak eskaintzen dizkiolako eta errealitatearen hurbilketa bat egiten diolako. Modu honetan, nagusiek umeentzako zer-nolako mundua nahi duten liburuetan islatuta geratzen da, baita ere, argitaletxeen, idazleen eta ilustratzaileen izaera eta pentsaera, esplizituki eta inplizituki, transmititzen da (Turin, 1995).

Halaber, belaunaldiz-belaunaldi estereotipoen bitartez era fin batean irentsia izan delako eta inkontzienteki barneratuta dagoelako, indarkeria sinbolikoa, askotan, ez da kolokan jarri izan. Gainera, kontuan izan behar da emakumearen irudia kaltetzen denean gizarte osoari min egiten zaiola. Honenbestez, beste galdera hau planteatu daiteke: Euskal haur eta gazte literatura modernoak emakumeen kontrako indarkeria sinbolikoaren erreprodukzioan laguntzen al du?

XXI. mendeko hezkuntzaren oinarrizko helburuetariko bat, desberdintasunak aintzat harturik eta errespetua zein tolerantzia sustatuz, sexuen berdintasun aukera bermatuta egotea da. Hori lortzeko estereotipo tradizionalak eskaintzen duten eredua gainditu beharra dago. Beraz, gizarteak emakumezkoen eta

gizonezkoen arteko ekitatea hedatzen duen literatura beharrezkoa du eta hori lortzeko, umeen literaturak emakumezkoen nahiz gizonezkoen kulturalki atxikitako paper tradizionalak aldatu behar ditu. Sexismoarekin apurtu beharra dago eta *politikoki zuzena* izatetik urrunago ailegatu beharra dagoelakoan nago.

Hainbat ikerketek eta egilek erakutsi dutenez (Martinez, 2013; Turin, 1995; Cervera, 1994), heziketarako baliabide honek sozializazio prozesuan berebiziko garrantzia du eta horrexegatik, psikologian, pedagogian, soziologian eta irakaskuntzan kezka piztu du.

Umeen literaturak sozializazio prozesuan duen funtzioetariko bat eredu femenino eta maskulinoaren igorpena da (Barragán, 1989; Ramos, 2006) eta kontuan izanik, mutilei eta neskei helarazten zaizkien ereduak oso desberdinak izaten direla, oso garrantzitsua da liburu hauek aztertzea. Lehen hezkuntzako irakaslea naizen heinean, oso garrantzitsua iruditzen zait umek zer irakurtzen duten ezagutzea. Izan ere, *“zer irakurri, hura izan”*. Zer emakume eta gizon eredu eskaintzen du haur eta gazte literatura modernoak gure ikasle eta umeei (etorkizuneko belaunaldiei)?

Askotan, nahiz eta berdintasuna bilatzen dituzten legeak egiten diren, eskoletan literaturaren bitartez estereotipo sexistak transmititzen jarraitzen dira eta emakumearen irudia diskriminatzen da.

Hortaz, liburuek egitura sozializatzaileek abian dagoen eredu kultural menderatzailea mantentzeko erabiltzen dituzten tresnetariko bat izanik, azterketa espezifiko eta kritikoa merezi dute. Sarojini Bisariak (1985) esaten duenez, hezkuntza sistemaren parte diren alderdi guztietan agertzen diren estereotipo sexistak aztertu egin behar dira hauek gainditzeko.

Hau guztia dela eta, tesi honek euskal haur eta gazte literatura modernoan - 1980ko hamarkadan eta gaur egun (2009-2014)- genero ikuspegitik sexismoa detektatzeko emakumearen eta gizonaren irudiaren eboluzioa aztertu nahi du. Emakume eta gizon horiek zeintzuk ezaugarri dituzten, alegia, zeintzuk diren gure haurrek liburuetan topatzen dituzten gizon eta emakume ereduak eta irudiak ezagutzea. Baita 1980ko hamarkadatik hona izan duten bilakaera antzematea ere.

Helburu nagusi horretara ailegatzeko bestelako helburu batzuk bete behar dira:

- 1980ko hamarkadako eta gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan emakumeen eta gizonen irudiek izan duten garapena identifikatzea.
- Euskal haur eta gazte literatura modernoan estereotipoen bitartez sexismoa detektatzea.
- Egilearen sexuak euskal haur eta gazte literatura modernoan emakumearen eta gizonaren irudian duen eragina aztertzea.
- Euskal haur eta gazte literatura modernoan agertzen diren emakumeen eta gizonen irudiak identifikatzeko tresna praktikoa bat eskaintzea.
- Pertsonaia horien irudian atzeman diren berrikuntzen inguruan hausnartzea.
- Hezkidetzak euskal haur eta gazte literaturan eragina izan duen antzematea.
- Gaur egungo egoeratik ondorio batzuk ateratzea hezkidetzaren alde euskal haur eta gazte literaturan.

Egia da literatur kritikaren esparruan pertsonaia nagusien azterketaren inguruan teoria eta metodologia ugari egin direla, baina protagonista nagusiari bakarrik erreparatuz, gizonaren eta emakumearen inguruko erradiografia hankamotz geratzen da. Horrexegatik, tesi honetan, corpuseko liburu guztietako pertsonaiak aztertu egin dira fitxa betetzeko orduan.

Honetaz gain, haurren eta gazteen literatura irudiz beteta dagoela eta irudiak genero estereotipoak transmititzeko garrantzizko tresna izan daitekeela jakinik, helburuei begira eta informazioa osoagoa lortzeko asmoz, hauen irakurketa egitea nahitaezkoa dela uste du lan honek.

Hortaz, euskal haur eta gazte literatura modernoaz aztertzeko eta ezagutzeko, tesi honek ilustrazioei erreparatuz eta pertsonaien eta ekintzen azterketa eginez, 144 liburuetako corpusean emakumearen eta gizonaren irudia aztertu eta ezagutu nahi du. Modu horretan, gure liburuek genero estereotipoak transmititzen jarraitzen duten ezagutu ahal izango da eta baita ere, eskaintzen duten emakume

eta gizonen irudiak eta ereduak era sakonago eta zehatzago batean ezagutzeko aukera emango du.

Azterketa sistematiko hau aurrera eramateko genero-ikuspegian, estereotipoetan eta sinbologia sexistan oinarritutako *genero analisirako fitxa* batez baliatu naiz. Fitxa hau eskuetan dudalarik, detailetan arretan jartzen lagundu dit irakurketa analitikorako bidean.

Tesiaren egiturari dagokionez, lan honetan bost zati nagusi bereizten dira. Lehenengo atalean, tesi honen euskarria izango den marko teorikoa daukagu. Bigarreanean, tesiaren gaiaren inguruko aurrekarien errepassoa egiten da. Hirugarren zatian, ikerlanaren zati metodologikoa aurkezten da. Bertan, ikerketaren testuingurua deskribatuko da, ikergaia zein den aipatuko da, helburua eta hipotesiak zehaztu, corpusa zein den azaldu, liburuak aztertzeko tresna zein den eta nola egin den argituko da eta azkenik, ikerketa garatzeko prozedura ere esplikatuko da. Laugarren zatian, dimentsio kuantitatiboaren eta kualitatiboaren azterketatik sortutako emaitzak azpimarratuko dira. Azken atalean, bosgarreanean, ikerlanaren ondorioak izango dira irakurgai eta ikusgai.

Azken finean, bi galdera izan dira lan honen pizgarria: nolakoak dira euskal haur eta gazte literatura modernoak transmititzen dituen emakumeak eta gizonak? Eta nolako bilakaera izan du emakumearen eta gizonaren irudiak 1980ko hamarkadatik gaur egunera?

I ATALA. MARKO TEORIKOA ETA AURREKARIAK

I. KAPITULUA. Euskal Haur eta Gazte Literatura eta emakumea

Historian zehar eztabaida desberdinak egon dira haur eta gazte literaturaren kontzeptuaren inguruan (Etxaniz, 1997; López, 2000). Zalantzez beteriko eta hauskortasun handiko generoa izan da, baina lanen kalitatea eta kantitateagatik, aspalditik bazterturiko eztabaida dela esan genezake. Gainera, euskaraz badago esaera zahar bat esaten duena: “izena duenak izana du”.

Bi atalez osaturiko terminoa da Haur eta Gazte Literatura (HGL). Beraz, lehenengo eta behin, biak definituko dira:

Haurra eta gaztea: Bizitzaren lehenengo etapa. Gizaki heldugabea da, jaiotzatik nerabegarora. Etapa honetan pertsonak bere gaitasunak garatzen ditu eta ezaugarri psikologiko, adimen eta fisiologiko ezberdinak ditu (Piaget 1969; Vigotsky, 1979) eta literaturak prozesu horretan laguntzen du (Cervera, 1984; Colomer, 1999).

Dena den, kontuan hartu behar da haurtzaroa eta gaztaroa ez direla betidanik existitu diren kontzeptuak izan (Etxaniz, 1997; López, 2000), horren erakusle dago artea, non XVI. mendera arte ia-ia ez da egon margolan bat ere haurra protagonista zuenik. Helduak bezalakoak ziren jantzi, lan eta aisialdi aldetik, eta inork ez zuen uste behar bereziak izan zitzaketarik. XVII. mendetik aurrera, haurtzaroa giza garapenaren berezko alditzat ulertzen hasi zen eta, ondorioz, haurrei beren behar bereziak onartzen (jostailuak, liburuak, arropak). Ordura arte haurra pertsona heldugabetzat hartu izan da. Johann Amos Comenius-lehenengo haur liburu ilustratuaren egilea- izan zen haurtzaroaren berezitasuna aipatzen zuen lehena eta Rousseau –*Emile* (1762) lanaren egilea- izan zen lehena hezkuntzan haurraren nortasun propioa aplikatzen. Bere iritziz, haurra ez baita gizon txiki bat, haurtzaroak ikusi, pentsatu eta sentitzeko era bereziak baititu. Hori horrela delarik, hemendik aurrera botere publikoek haurtzaroa kontuan hartzen dute eta haurrentzat bereziki egindako literaturaren ideia zabaltzen hasten da.

“Helduen jokabidea onbideratu nahi zuen ikuspegi berri bat garatzen hasi zen, elizaren inguruko moralista eta pedagogoen artean: haurtzaroa aldi

berezia zen, bai, baina haurrak, xaloak eta garbiak izanik, eta Jainkoarengandik hurbil zeuden izakiak izanik, helduen grinetatik urrun gorde behar ziren. Horrela, haurrek hezkuntza eta diziplina behar zuten beren ongizate izpiritualerako, eta, ondorioz, haurrentzako bereziak ziren liburuen beharra sortu zen” (López 2000, 17. or.).

Helburu horiek lortzeko hezkuntza sistema indartu egin zen, eta horrekin batera haur liburuak gero eta garrantzitsuagoak bihurtu ziren, beti Etxanizek (1997) deskribatzen duenez helburu moralizatzailea eta hezitzaile batekin.

Bestalde, literatura hitza latinetik dator, antzinako hitza *litterae* da. Hitzaren bidezko adierazpenean, ahozkoan nahiz idatzian, oinarritzen den artea. Garai, herri, hizkuntza, genero, eta abarren ikuspuntutik sailkatu daitekeena.

Literatura kontzeptuari dagokionez Lopezek (2000) literatura kontzeptuaren definizioak hiru ikuspegi desberdinetatik bildu zituen.

Lehenengo ikuspegia kultura arauetan oinarritutakoa da eta horretarako Aguiar e Silva-ren (1972) definizioa aipatzen du, hau da, literatura garai bateko literatur produkzioaren multzoa izan daiteke “gerra osteko literatura” edo jatorria, gaia edo hartzaileagatik bereizten diren obrak “literatura beltza”, “haur literatura” edo gai jakin bati buruzko bibliografia “poesia erromantikoari buruzko literatura”; erretorika edo faltsukeria “esaten ari zareten guztia literatura da”; elipsia eginez, literaturaren historiaren orde; metonimia eginez, literaturaren historiari buruzko liburua; literatur fenomenoaren ezagutza organiko oro “literatura konparatua”, “literatura orokorra”. Hortaz, literaturaren barruan literatura desberdin ugari topa daitezke.

Bigarren ikuspegia, literaturaren autonomia semantikoa litzateke, alegia, bere zeinu linguistikoaren eduki logiko eta unibokotik harantzago irakurketa maila bat baino gehiago eskaintzen duena.

Eta hirugarren ikuspegia hartzailearen arabera aztertu ohi den literatura litzateke. Horren berri ematen digun teoria, 1967tik aurrera Konstantzako Unibertsitatearen inguruan sortutako Harreraren Estetika (Rezeptionsästhetik) izeneko da. Horrexegatik, testuek, orobat, irakurketa erregimen desberdinak izan ditzakete,

irakurlearen asmoen arabera eta garai bakoitzean indarrean dauden arau estetikoaren arabera.

Haatik, haur eta gazteentzat bereziki idatzitako idazlanak haur literatura dira, haurrek bereganatu dituztenak haur literatura dira eta baita folklorea ere haur literatura izan daiteke, hauexek dira Etxanizek (1997) seinalatzen dituen jatorriak. Beraz, haurrek irakur eta uler dezaketena sartuko da haur literaturan.

“Haur eta gazte literatura, haurrentzat edo gazteentzat idatzia izan ala ez izan, haiei atsegina sentiarazten dien testu multzoa da. Testu multzo horrek, gainera, hizkera berezia izan beharko luke” (Etxaniz, 1997, 69. or.).

Euskal haur literaturaren hasieran (Etxaniz, 1997) herri ipuinez gain, helburu moralizatzailea, hezitzailea eta didaktikoa zuten liburuak besterik ez ziren sortu euskaraz: alegiak eta testu didaktikoak. XX. mende hasieran euskal haur literatura folkloreak, itzulpengintzaren eta sor lanen bidez eraikitzen ari zen. Sorkuntza lan horretan umoreak, egoera barregarriak, txisteak, zuten pisu handia: umorea, baserri giroa, herri ipuinak... etengabe errepikatzen diren elementuak dira.

Laburbilduz, euskal haur eta gazte literatura berandu jaio zen didaktismoaren eskutik; eta 1980ko hamarkada arte ez zitzaion apenas garrantzirik eman balio estetikoari. Didaktismo horretan bi ideologiek izan zuten eragin handiena: alde batetik, erlijioa (kristautasuna) eta bestetik, abertzaletasuna; Euskal Herriaren kontzientzia hartzeko eta euskararen aldeko irakaskuntzarako idazlanak.

Hala nola, Shavit-en ustez (1986) haur eta gazte literaturak oso estatus berezia dauka, hezkuntza eta literatura sistemen artean mugitzen delako. Cerverak (1991) dio literaturak umeen beharraz erantzun bat eman behar diola eta Etxanizek (1997), berriz, haur eta gazte literaturak helburu hezitzaile eta moralizatzailea duela. Baina arestian aipatu den bezala, gaur egungo ikuspegitik, horrelako literaturak ez luke, batik bat, helburu hezitzaile edo ideologiko zehatzik izan behar: testu atsegina eta erakargarriak dira; hots, helburu nagusia plazerra ematea da.

Kontuan hartu behar da ere idazlea baldintzatuta dagoela bere ingurumen sozioekonomiko eta kulturalagatik eta horrek eragina izango du bere lanetan. Valderderentzat (1982) lan literarioa ez dago soilik idazleagatik idatzita, baizik eta bere sistema kulturalagatik, ekonomiagatik, botere militaragatik eta bere herriko aurreko eta oraingo tradizioagatik. Agerian geratzen da umeez irakurtzen dituzten liburuak baldintzatuta daudela idazlearen testuinguruagatik.

Haur eta gazte literaturan idazleak sortutako testuaren eta testu hori irakurtzen duen haurren artean "akordio" bat sortzen da, konplizitatea egon behar da. Betiere, kontuan izan behar da, haur literaturaz ari garenean hartzailea ez dela bakarrik haurra, bitartekaria ere, gurasoak eta hezkuntza komunitatea, kontuan izan behar direla.

Azken finean, idaztean komunikatzea bilatzen da eta irakurriz komunikazio horretan parte hartzen da. Idazten duenak zerbait esateko edo adierazteko idazten du, eta irakurtzen duenak zerbait jakin edo sentitu nahi duelako. Eta nahiz eta idazle eta irakurlearen artean harreman zuzenik ez egon, komunikazioa sortzen da. Hortaz, literatura, artea edota zinema bezala, norabide bikoitza duen komunikabidea da, hots, irakurlerik gabe ez legoke idazlerik. Idazle eta marrazkigile horrek kontzienteki eta beste batzuetan inkontzienteki ideologia bat transmititzen du, ondorioz, idazlanek zer-nolako informazioa izaten duen aztertzea garrantzitsua da, kasu honetan, emakumearen zer-nolako irudia transmititzen duten idazleek eta ilustratzaileek.

Etxanizek dioenez (1997) ideologia beti dago presente eta liburuetan ideologia mezuak hiru modutan aurkezten dira: egilearen ikuspuntuaren bidez, berezko egoeren bidez eta ideologia pasiboaren bidez.

Etxanizek (1997) hainbat faktore aipatzen ditu haur literaturak eboluzionatu ahal izateko: gizarte mailan, hurrenganako kezka handitzea (Haurren Nazioarteko eguna horren lekuko), ikerketa eta lanen zabalkundea; geletan, irakasleen prestakuntzan eta pedagogian eginiko aurrerakuntzak.

Euskarazko haur liburugintzari dagokionez, Etxanizek (1997) XX. mendeko lehen hiru hamarkadetan kokatzen du. Eta bereziki haurrentzat idatzitako testuek Iparraldean dute hasiera: Oxobiren *Haur elhe haurrentzat* (1945); eta batez ere

Marijane Minaberriren *Itxulingo anderea* (1963), eta *Xoria kantari* (1965); balio estetikoa nagusitzen da haurrentzako liburuotan.

Mitxelenak (1988) eta Etxanizek (1997) ere baieztatzen dute euskal haur literatura Europako eta inguruko literaturekin alderatuta atzeratuta, mugatuta eta berankorra izan dela; izan ere 1980ko hamarkadan ailegatu zen benetako hazkundera argitaratutako liburuen kopuruan, baina bereziki, gaietan eta balio estetikoetan gertatu zen hazkundera eta aniztasuna. Hau posiblea izan zen hamarkada horretan Patxi Zubizarreta, Juan Kruz Igerabide, Mariasun Landa, Bernardo Atxaga, Felipe Juaristi, Aingeru Epaltza, Gerardo Markuleta eta beste idazle askoren lanei esker. Bertan, nabaria baita edertasun bila eginiko lana, bide batez, idazlanen estetikotasunean aurrerapen handiak emanez. Beraiei esker irakurleak irakurgai atseginak, entretenigarriak eta aldi berean ideia sakonez eraikitakoak aurki daitezke euskal haur eta gazte literatura modernoan. Alde horretatik, esan daiteke gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan gai eta genero aldetik aberastasun handia dagoela, euskal irakurlegoari oso aukera zabala eskainiz.

“Tradiziotik datozen ipuinak oraindik egunean badaude ere, azkeneko hamarkadetan, batez ere 80ko hamarkadatik aurrera, korronte berritzaileak izan dira haur literaturan” (Urtxintxa, 2006, 9. or.)

Euskal sorkuntzako lanez gain, itzulpengintzari esker nazioarte mailako idazlan adierazgarrienak aurki daitezke euskaraz, beraz, aberastasun handia dago gai aldetik eta gero eskaintza handiagoa dago, eta Etxanizek (1997) aipatzen duen bezala euskarazkoa idazlanak gero eta zainduagoak eta literarioagoak dira, nahiz eta oraindik ere euskal haur literatura modernoan gabeziak dauden; nabarmenetako bat kritikarena delarik.

Egia da produkzio kopuruei edo kanporatze lanei dagokienez euskal haur literatura oraindik ez dagoela beste literaturen pare, baina literarioki, korronte ezberdinen lanketan, estetikan eta aberastasunean, ordea, bai. Haatik, gaur egun nazioarte mailan arrakasta duten lan asko eta asko euskaratzen dira.

Bestetik, aldizkarigintzaren, komikiaren, irudi-liburuen, poesiaren eta antzerkiaren egoera ere ez da haur literatura baten erabateko normalizazioak eskatuko lukeen bezain anitza eta aberatsa, baina kasu honetan Xabier

Etxanizek (1997) arazo komertzialei eta gizarte mailakoei leporatzen die errua arazo literarioei baino.

Bukatzeko, aipatu beharra dago, Villasantek (1978) munduko haur literatura osoaren ibilbide historikoaz eginiko azalpen zabalak eskaintzen duen informazio iturria estimagarria dela literatura mota horren aztertzaileentzat. Eta, gisa berean direla baliagarri azken urteotan unibertsitate ikaskuntzen garapenaren lekuko diren Calleja (1994, 1998), Etxaniz (1997) eta Lopez (2000) irakasleen ikerlanak Euskal Herriko haur literaturaz edo Arnalek (2011) eta Zubillagak (2013) egindako tesiak.

I.1 Haur eta gazte literaturaren funtzioak

Zertarako balio dute haur eta gazte literaturan argitaratzen diren milaka eta milaka liburuek? Colomerren (1999) arabera, umeei irakasteko (ikaskuntza), jarreraren eta balioen eredu didaktikoak eskaintzeko, hezkuntza arautuan hainbat gai lantzeko (koloreak, ekosistemak...). Honez gain, liburu batzuek ere esperientzia artistikoa eskaintzen die haurrei.

Colomerrek (1999) aipatzen du haurrei eta gazteei zuzendutako liburuak literatura direla eta hiru funtzio nagusi bete behar dituztela:

- Gizarte zehatz batek partekatzen duen irudimenezko egoerei sarrera eskaintze, hau da, ezagutzeak ematea.
- Hizkuntzaren domeinua garatzea literatura diskurtsoaren narrazioko, dramatizazioko eta poesiako formen bitartez.
- Munduaren errepresentazioa erakustea eta gainera, etorkizuneko belaunaldien sozializazioan lagunduko duen tresna izatea.

Gainera, Bettelheim (1977) eta Colomerrek (2010) aipatzen dutenez, liburuek ere haurrak entretenitzen eta jostarazten dituzte, giza gatazkak ezagutzeko aukera ematen die, adibidez, heriotza, txirotasuna..., umearen garapen prozesuan laguntzen dute, galdera filosofikoei erantzuna eta esanahiak eskaintzen dituzte, jokabide ereduak eskaintzen dizkiete eta irakurketaren sustaketa (irakurriz ikasten baita irakurtzen).

Haurrek liburuak irakurtzen dituzten bitartean eta literaturaz gozatzen duten bitartean, sozializazioa bultzatu egiten da, ideiak sorrarazten dizkietelako eta sinesmen eta giza balioak transmititzen dizkietelako eta sentimenduen ikuspuntutik identifikazio ereduak ezagutzeko aukera dute.

Funtzio hauez gain, haur eta gazte literaturak ere laguntzen du hizkuntzen irakaskuntzan eta herrialdeetako kultura transmititzeko.

EAEko curriculum ofizialak dakarren Oinarrizko Konpetentzien artean, komunikazio-konpetentzia garatzeko beharrezkoa da literatura eta hor kokatzen da konpetentzia literarioa. Hots, literatura-testuak irakurtzeko, entzuteko, interpretatzeko eta sortzeko konpetentzia.

Konpetentzia honen barruan beste konpetentzia espezifiko batzuk sartzen dira:

- Literatura-hizkuntzaren oinarrizko ezaugarriak ezagutu, horien dimentsio estetikoa balioesteko.
- Euskal literaturako nahiz literatura unibertsaleko oinarrizko erreferenteak ezagutu (garaiak, mugimenduak, lanak, egileak...), eta literatura-lan esanguratsuen zatiak elkarrekin interpretatu, bakoitza bere testuinguru historiko eta kulturalean kokatuz.
- Norberaren bizipenak, sentimenduak eta hausnarketak sormenez eta sentsibilitate estetikoaz adierazi, erreferentziatzko literatura-lanak oinarritzat hartuta, hainbat generotako literatura-testuak sortuz (ahozkoak eta idatzizkoak).
- Literatura atsegin-iturri modura erabili, sentsibilitate estetikoa garatzeko, mundua ezagutzeko eta norberaren nortasuna (pertsonala, kulturala, soziala) osatzeko.

Mendozaren hitzetan (1999) konpetentzia literarioaren helburua da, lan literario bat irakurtzeko gai izateko behar diren ezagutzak garatzea esperientziaren bitartez eta irakaspenen garapenen ondorioz. “Es formar lectores que automáticamente estén preparados para gozar de los textos y para llegar a establecer valoraciones e interpretaciones” (Mendoza, 1999, 32. or.).

Irakasle honek honela laburtzen du konpetentzia literarioaren helburu orokorrak: irakurle trebeak eta eskudunak formatzea testuez gozatzeko, interpretatzeko eta balioztatzeke era autonomo batean. Gai izatea harremantzako egilearen asmoa eta testua bera norberaren iritziarekin. Azkenik, testuaren esanahiaz jabetzeko ezagutza metaliterarioetaz hornitzea irakurlea.

“La competencia lectora hace que la actividad lectora ponga en acción los diversos saberes (lingüísticos, metalingüísticos, enciclopédicos, estético-culturales, pragmáticos, vivenciales... y un largo etc) que el lector en su CL, los cuales se activan ante la diversidad de referentes, alusiones, exposiciones... que una obra puede ofrecer” (Mendoza, 1999, 51. or.).

Baita ere, gauetan bai umeak bakarka irakurtzen dituztenean edo heldu batek irakurtzen dizkionean haurra lasaitzeko eta lokartzeko helburuarekin, hortaz,

umeak lokartzeko erabiltzen dira haur literaturako liburuak. Modu honetan ere, Mendozak (1999) aipatzen duen irakurketa ohitura garatu egiten da.

Hala ere, irakurle bakoitza eta ondorioz, irakurketa bakoitza baldintzatuta dago hainbat ezaugarriengatik. De Amo Sánchez-Fortún-ek (2002) baldintza hauek aipatzen ditu: norbanakoen ezaugarriek eta irakurlea bizi den testuinguruak baldintzatzen duen irakurlearen garapen ebolutiboaren mailak baldintzatuko du irakurketa, baita irakurlearen gaitasun kognitiboak, sozialak, emozionalak ere, irakurleak munduaz duen ikuspegiak ere baldintzatuko du irakurketa eta azkenik, irakurlearen gaitasun-testuala, aldi berean, baldintzatuta egongo dena, irakurlearen hizkuntza mailagatik, motibazioagatik, irakurketa ohituragatik, ikasketa estrategiengatik eta ondorioak eta loturak egiteko gaitasunagatik.

Tesi honen helburuak kontuan izanda, haur eta gazte literaturaren funtzio guztietatik, garrantzitsuenak sexu eta genero identitatean eragina duten funtzioak dira. Arlo honi dagokionez Goiburuk, Urdangarinek eta Ugarteburuk (2011) hiru funtzio jasotzen dituzte:

- 1.- Gizarteratze funtzioa: gure gizartean ematen diren rol eta arauak irakasten dira.
- 2.- Irudiaren eragina identifikazio emozional inkontziente moduan: ipuinetan agertzen diren irudiek duten funtzioetako bat, haurrak emozionalki eta konturatu gabe egiten duten identifikazioan datza.
- 3.- Hizkuntzaren erabilera boterezko harremanak sortu eta edo erreproduzitzeko baliabide bezala.

I.2 Ilustrazioak

Haur eta gazte literaturan argitaratzen diren liburuak, oro har, testuez eta irudiez osatuta daude. Are gehiago, liburuetan, gero eta gazteagoei zuzenduta dauden heinean, irudien presentzia handiagoa izaten da. Eskutik helduta joan ohi dira idazlea eta marrazkigilea edo ilustratzailea, batzuetan ere, pertsona berak bi funtzioak betetzen dituelarik. Dena den, Zubizarretak (2008) dioen moduan, haur txikientzat marrazkiak handiak eta koloretsuak dira, baina haurrak koskortu ahala irudiak zuri-beltzekoak izaten dira eta gazteentzat zuzendutako liburuetan marrazkiak desagertzen dira, nolabait esateko, ahaztu egiten da marrazkiak ere irakurri egiten direla.

Hurrengo taulan Urtxintxa eskolak 2006. urtean ipuinen ilustrazioen azterketa egiterako orduan marrazkien ezaugarriei dagokionez ateratako ondorioak ikus daitezke.

1 Koadroa

Ipuinetako Ilustrazioen Ezaugarriak

1-2Urte	-Marrazki sinpleak, errealak, objektuak. -Orri osoa eta kolore guztian eta kolore biziak. -Ekintzen errepresentazioak eta ekintza orriz-orri azalduko da.
2-4 urte	-Lehen eta bigarren plano orokorrak. -Istorioko txiki bat kontatzen duten irudizko liburuak: ekintzak jarraian. -Irudiaren lehentasuna eta testu laburra. -Hizki handiak.
4-6 urte	-Landuagoak, testua ulertzen lagunduko dizkietenak. -Koloreak jadanik pastelak izan daitezke.
6-8 urte	-Irudiek garrantzia galtzen dute testu eta edukiei garrantzia emateko.
8-12 urte	-Marrazkiak desagertzen joaten dira liburuetan. -Komikiak irakurtzen dituzte: koloretsuak, dinamikoak, beraien arreta erakarri behar dute.

Errealitatea islatzeko modu asko daude eta horietako bat irudia edo ilustrazioa da. Ilustraziotzat hartzen dira liburu batean agertzen diren irudiak, marrazkiak, argazkiak, mapak, ikurrak, keinuak, grafikoak, infogramak... Hauek pentsatzen dena baino gehiago komunikatzen dute. Gainera, haurrak marrazkien aurrean estimulatuta egiten dira eta sarri plazerra sorrazten die.

Gurrutxaga marrazkilariak (2011) *Berria* egunkarian argitaratutako elkarrizketa batean aipatzen du marrazkiak testuari indarra emateaz gain eta hitzetan kontatzen ez denaz gain, beste gauza asko kontatzen ditzaketela. Murillo-Carreñok (2012) dioskenez, ilustrazioa irudiaren bidez, ideiak edo pentsamenduak ezagutzera emateko erabiltzen den komunikazio bidea da.

De Amo Sánchez-Fortún-ek, bere aldetik, (2002) lau arrazoi aipatzen ditu irudiak aztertzearen beharra justifikatu ahal izateko: idatzita dagoen mezua osatzeaz eta argitzeaz gain, mezuaren parte estetikoa direlako eta ondorioz, berezko testualitatea dutelako; umearen-irakurlearen irakurketa garatzeko lagungarria direlako; egoera linguistiko-komunikatiboa lantzeko aukera ematen dutelako; eta errepresentazio eta sinbolizazio prozesuaren garapenean bidelagun direlako. Gainera, irakurlearen gaitasun semiologikoa garatzeko lagungarriak dira.

Aldi berean, Janer-ek (1995) bere liburuan ilustrazioen funtzioak jasotzen ditu:

- Liburuaren eduki literarioak argitzea eta erraztea (sinplifikatzea) ulergarriagoak bihurtzeko. Istorioaren garapena ulertzea errazten du.
- Umearen-irakurlearen irudimena aberastea.
- Testuaren errepresentazioa islatzea.
- Irakurketa atseginagoa bilakatzea, monotoniarekin apurtzeko.
- Sentsibiltatea estetikoa garatzea.
- Testuaren hutsuneak osatzea, ulermena erraztuz. Gainera, testuaren eta irudien arteko interakzioak ideiak komunikatzen ditu.
- Narrazioaren ekintzak laburbiltzea, aurretik egindako hipotesiak eta espektatibak frogatu ahal izatea.

Bere aldetik, Uriak (1999) ilustrazioen funtzioak lau multzotan laburbiltzen ditu: funtzio didaktikoa, funtzio informatiboa, jostatze funtzioa eta adierazpeneko funtzioa.

Funtzioez gain, Errok (2000) diosku, irudi bat ulertzeko, ezinbestekoa dela kode jakin bat ezagutzea, eta horretarako, nahitaezkoa da hauei hertsiki lotuta dauden konbentzionalismoak ezagutzea. Irudietan bi ezagutza bereizten dira: alde batetik, funtsezko elementuak (perspektiba, marrak, koloreak, etab.). Bestetik, konbentzionalismo sozial eta kulturekin lotutako faktoreak. Hots, inguratzen gaituen errealitate kultural eta sozialaren arabera, pertsonak kontzeptu bera modu desberdinean irudikatzen dute.

Izan ere, Gomez del Manzanok (1986) hausnartzen duenez, haurrek ezin dituzte ilustrazioak modu natural eta automatikoan ulertu. Ilustrazioen mezuaz jabetzeko ezinbestekoa dute testuinguruarekiko interakzioen bidez zenbait jakintza bereganatzea.

Horrexegatik, ilustrazioei arreta eskaini behar zaie, askotan letretan agertzen ez dena baino askoz gehiago esaten dutelako. Ilustrazioak ikusi eta irakurri egiten dira. Izan ere, umek irakurtzen ez dakitenean ere, marrazkiak irakurtzen egoten dira. Cañamaresek (2004) eta Turinek (1995) salatzen dutenez, askotan sexismoa sinbologiaren bitartez ilustrazioetan letretan baino gehiago ageri da.

“Muchas veces se ha denunciado que el sexismo suele aparecer confiado a la ilustración porque transmite un mensaje paralelo, utilizando un léxico simbólico para instruir al niño y a la niña sobre los roles sexuales en la familia y en la sociedad y sobre las características psicológicas presentadas como “innatas y naturales” de los hombres y de las mujeres, de los niños y de las niñas” (Cañamares, 2004, 159. or.).

I.2.1 Nola ikusi eta irakurri irudiak?

“Irudi batek hamaika hitz baino gehiago balio duela” dio esaera zahar batek. Hori egunerokotasunean agerikoa da, bai telebistan, zineman, sarean eta liburu-irudietan, argazkiekin, artelanekin... Izugarria da irudi soil batek eskaini dezakeen informazio guztia, askotan, esaera zaharrak dioten moduan, hitz ugari baino askoz informazio gehiago. Izan ere, letretatik ihes egiten duen informazioa ilustrazioan agertzen da. Umeek irakurtzen ez dakitenean irudiak “irakurtzen” dituzte eta irakurtzen dakitenean ere bai.

Gainera, hainbat ikerketak eta lanek frogatu dute (Turin, 1995; Association Européenne Du côté des filles, 1998) ipuinetako ilustrazio gehienek genero estereotipoak transmititzen dituztela. Irudiek genero-arekiko dugun jarrera adierazten dute. Izan ere, marrazkia da umeari mundua erakusten dion lehen leihoa. Hona hemen arrazoi nagusia ilustrazioak “irakurtzeko” eta tesi honetan liburu-irudietatik informazioa ateratzeko.

“Las imágenes, observadas durante mucho tiempo por los niños que todavía no saben leer, son portadora de estereotipos sexistas” (Association Européenne Du côté des filles, 1998, 2. or.).

Urtxintxa eskolak (2007) ere aipatzen du irudiak aztertzearen beharra, jakitea zer-nolako mezuak helarazten dizkieten irakurleei eta pertsonaien paperak zeintzuk diren aztertzea.

Turinek (1995) ohartzen du irudiek, orokorrean, gizarte patriarkal-tradizional bat deskribatzen dutela. Irakurtzen ez dakiten umeak gai dira emakumea estereotipo zehatz batzuekin lotzeko eta gizonezkoa beste rol batzuekin. Ideia hau Association Européenne Du côté des filles-ek (1996) egindako ikerketan ateratako ondorio bat da.

Irudietan bi genero nagusiei esleitzen zaizkien estereotipoak bereiz daitezke. Alde batetik, femeninoak, hau da, emakumeari-neskari esleitzen zaizkionak eta bestetik, maskulinoak, gizon-mutilei esleitzen zaizkionak, alegia.

Hurrengo koadroan, hainbat lanek eta ikerketak frogatu dituzten estereotipoak agertuko dira: Emakunde (2009), Turin (1995), Association Européenne Du côté des filles, (1998).

2 Koadroa

Gizon eta Emakumei Atxikitzen zaizkien Estereotipoak

GIZONAK-MUTILAK	EMAKUMEAK-NESKAK
Aktiboak/ekintzaileak	Pasiboak
Espazio publikoa /etxetik kanpo Etxetik kanpo lan egin (garrantzia)	Espazio pribatua /etxe barruan Etxe barruan lan egin (zaintzak eta etxeko lanak)
Ikasleak edota lanbide aberatsagoak (paper eta funtzio gehiago, prestigiodunak eta ardurak)..	Lanbideak: Etxeko langileak, andereñoak, erizainak, dendariak
Objektuak eta tresnak etxetik kanpoko lanei lotuak: maletina	Objektuak eta tresnak etxeko lanei lotuak: amantala, erratza, garbitzeko tresnak...
Salbuespena izaten da umeen zaintzaz eta etxeko lanez arduratzen	Zaintzak eta etxeko lanak ohikoak (garbiketa, janaria prestatu...)
Betaurrekoak: jakituria adierazteko	Betaurrekoak: oso azkarrak direla adierazteko; edertasuna eta jakinduria bateraezinak direla islatzeko ere erabiltzen dira
Egunkaria irakurtzen dute: kanpoko munduko informazioarekin, jakinduria eta jakin-minarekin, boterearekin, erabakiak hartzearekin eta modernitatearekin lotzeko.	Ipuinak, aldizkariak, nobela arrosak... irakurtzen dute: Harreman pribatuen munduarekin eta sentimenduekin lotzeko.
Leihoaren kanpoko aldean	Leihotik begira
Kolorea: urdina	Kolorea: arrosa eta lazoak
Animaliak: txakurra (leiala, etxe kanpoan)	Animaliak: katua (mesfidantza, etxe barruan)
Autonomia	Menpekotasuna
Ausardia	Beldurra
Arrazionalagoak	Sentimentalagoak

Ezaugarri fisikoak: ederrak eta indartsuak	Ezaugarri fisikoak: ederrak, garbiak, apainduak, itsusiak
Kirolariak eta abenturazaleak	Alferrak
Menderatzaileak	Mantsoak

Gizarte osoaren ardura eta erantzukizuna da sexuen arteko eskubide eta aukera berdintasuna bultzatzea eta hori lortzeko jendarteak duen tresna bat hezkuntza sistema litzateke. Horretarako literaturak eta bereziki, haur eta gazte literaturak asko lagundu dezake helburu hori lortzen. Gainera, ezagututa ilustrazioek umeengan duten indarra eta pisua (irudiek munduaren errepresentazioa eraikitzen laguntzen dute) beharrezkoa da ilustrazioen irakurketa kritikoa garatzea. Izan ere, sexismoa ez da bakarrik genero estereotipoen agerpena, Turinek (1995) dioen bezala, liburuak (testuak eta ilustrazioak) irakurleen kontzientzia eta pentsamoldeetan eragiteko tresna bezala ulertzen bada, emakume edo nesken egoera errealean irudiak erakustea, kritikarik egin gabe, eta modu horretan, naturalizat azaltzea, sexista da. Ilustrazioek ideiak eta pentsamenduak transmititzen dituzten heinean, kontzientzia kritikoa garatzen lagundu behar du. Marrazkiak tresna eraginkorrak dira balioak transmititzeko orduan. Ilustratzaileek bere pentsamendu, ikuspuntu edo aurreiritzi pertsonala sartzen dute istorioetan, batzuetan modu kontziente batean eta beste askotan, seguruenik, modu inkontzientean.

Hala, Emakundek (1993), estereotipoak gainditzekoan, ipuinetako irudiek duten garrantziaren aitortza egiten du, gizartearen ikuspegi zuzenagoa eta berdintasunean oinarrituagoa erakutsi baitieziaiekete haurrei. Hori horrela delarik, tesi honek beharrezkoa jotzen du emakumearen irudia identifikatzeko orduan, arestian aipatu den bezala, ilustrazioen “irakurketa” egitea.

I. 3. Emakumea eta euskal literatura

Emakumea eta literatura hitz egiterako orduan bi ildo desberdinetatik arituko gara: alde batetik, emakumeek idatzitako literaturaz eta bestetik, emakumeek duten presentziaz eta irudiaz literaturan. Ildo batekoak zein bestekoak emakumea eta literatura binomioa ikertzeko egin diren ikerketa lanak ugariak izan dira.

Emakume idazleek euskal eleberrigintzan azken urteotan egindako ibilbidea aztertu ahal izateko, Kortazar (2000), Olaziregi (1999), Aldekoa (2004) eta Kortazar eta Retolazaren (2007) ikerlanak garrantzitsuak dira.

Bestetik, euskal literatur sisteman emakumeen inguruan emakumeek egindako ikerlan akademikoen zerrenda ere badago: Olaziregi (1999) edo Zavalak (2000).

Beste lan esanguratsu batzuk aipatze arren, Alvarez (2005) edo Urkizaren (2006) elkarrizketa lana. Bertan, Ana Urkiza idazle eta kazetariak 1940tik 1960ra bitartean jaiotako idazle belaunaldiari elkarrizketa egiten dio: Aurelia Arkotxa, Yolanda Arrieta, Itxaro Borda, Mariasun Landa, Miren Agur Meabe, Laura Mintegi, Lourdes Oñederra eta Arantxa Urretabizkaia. Hainbat gairen artean idazteko orduan izandako zailtasunak azaltzen dituzte; zortzi idazleek diote euskal literatur sisteman emakumeek idazten hasteko eta agerikotasuna lortzeko zailtasunak izan dituztela. Aipatzeko moduko beste lan bat dugu Errearena (2003). Lan honetan egileak euskal literaturan emakumeak izan duen eta duen garrantziari ikusgarritasuna eman nahi dio.

Historian zehar, beste arlo guztietan bezalaxe literaturan ere emakumea ezkutuan egon da. Literaturaren protagonismoa, bai sorkuntzari dagokionez eta baita protagonismoari dagokionez gizonen esku egon izan da. Atxagak (1997) adierazten duenez, euskal literatura berandukoa eta urria izatez gain, gehienbat gizonezkoena izan da, are gehiago, elizgizonena neurri handi batean. Bordak (1984) ere aipatzen du euskal literaturaren azterketa osoa egiterako orduan nahitaezkoa dela emakumeen idazkuntzari erreparatzea, normalean euskal literatura ikasteen gizonen zerrenda luzean eta mamitsuan ez baita egoten lekuri emakumeentzako. Olaziregik (1999) bere aldetik ere euskal literaturan emakumezkoek duten protagonismo eskasa salatzen du eta emakumeek

idatzitako euskal obren azterketa-urritasuna konpondu nahian bi idazle ezagunen lana komentatzen ditu: Mariasun Landa eta Arantxa Urretabizkaia. Hala ere, Mintegik (1987) gogoratzen du kantitateak ez duela kalitatea ziurtatzen eta azken honen neurgailu bezala kontaktaren teknikak, adierazpideen aberastasunak eta beste elementu batzuk izan ohi direla.

Euskal emakume idazleen izenak ezagutarazteko Azurmendik (1987) euskal literaturaren historian egondako emakumeen zerrenda burutu zuen ehunen bat izenekin, baina gizonezkoen izenekin alderatuz gero, emakumea “galtzaile” ateratzen zen.

Euskal Herrian emakume idazle gehienak XX. mendekoak eta XIX. mende bukaerakoak dira. XX. mendearen hasieran, emakumeak literaturarekin bat egiten hasi ziren emeki-emeki. Erdi Aroan kultur bide bakarra apaiz izatea zen, eta noski, apaiz emakumerik ez zegoen. Gainera, Villasantek (1976) euskal idazle emakumezkoak gutxi zirela esaten zuen aurreko mendeetan emakumeek ez baitzuten aukerarik goi-mailako ikasketak burutzeko.

Ikerketa lan batzuei esker, historian zehar argi eta garbi geratu da, emakume idazleak existitu egin direla, gainera pentsatzen dena baino kopuru handiago batean. Hori zabaltzeko hainbat lan egin izan dira, (Borda, 1984; White, 1996; Olaziregi, 1999).

Bere aldetik, *Jakin* kultur aldizkariak bere historian zehar gai asko eta desberdinak jorratu ditu: kultura, literatura, hizkuntza, politika, filosofia, teologia, komunikabideak, hezkuntza, zientzia eta ekonomia. Horien artean, tesi honentzako *Haur eta gazteen literatura* (Etxaniz, Olaizola eta Atxaga, 1986) eta *Emakumea eta literatura* (Mintegi, Azurmendi, Arkotxa eta Irastorza, 1987) landu zituzten gaiengatik suertatu dira baliagarriak eta interesgarriak.

Aurreko hamarkadetan emakumea eta literatura aztergai izan dituzten ikerketa lanak ere egon dira; esate baterako, Villasanterena (1976) edo Irastorzarena (1984) besteak beste. Baina 1990ko hamarkadan emakume ikertzaileen kopurua izugarri hazi zen, bereziki estudio akademikoetan. Ondorioz, emakumea eta literatura jorratu duten hainbat ikerketa lan egin dira. Hauek dira orain arteko tesi esanguratsuenak.

Lasartek (2011) euskal emakume idazleek euren eleberrietan sortutako pertsonaia protagonista femeninoak aztertu zituen, alegia, zein motatakoak eta zer-nolako bilakaera izan zuten. Hala, memoria, nazioa, amatasuna, generoa indarkeria eta sexu identitatea aztertu zituen. Bigarren xedea, pertsonaia protagonista femeninoen bidez euskal literaturan iradoki den emakume berri horren testigantza ematea izan zen. Hirugarren helburua, pertsona horien eraikuntzan atzeman duen berrikuntzen inguruko hausnarketa. Laugarren aztergaia, protagonista femenino horien ikerketa garai batean inskribatzea. Azkena, bosgarrena, pertsonaia femeninoa aztertzeko beste modu bat proposatzea zen.

Bere ondorioetako bat emakume idazleek, kuantitatiboki bederen, egitura narratiboetan pertsonaia protagonista femeninoak erabiltzen zituztela izan zen. Beraz, ikertzaile honek baieztatu zuen emakumezkoek idatzitako eleberri garaikidean, emakume protagonisten presentzia ugaritzen zihoan heinean, gizonezkoena murriztu egiten zela.

Lasartek ondorioztatu zuen emakumeari tradizioz zegozkion pasibotasuna eta gozotasuna galdu zituela eta ostera, indarra eta ziurtasuna irabazi zuela. Hau da, ohiko rolei aurre egin zitzaiola: maitasun erromantikoari, ezarritako bizi rolei, emazte izateari, seme-alaben esaneko guraso izateari eta abarri. Euskal emakume idazleek 1979tik 2009ra literaturan pertsonaia femeninoaren bidez iradoki zuten emakume berri horren ikuskera gizarte egitura osoaren eraldaketa proposatzera zuzenduta zegoela. Lasarteren lanen aurretik, ordea, emakumea eta literatura jorratu zituzten beste tesi batzuk egin izan ziren.

Hasieran aipatutako Whitek (1996) dioenez, XX. mendeko euskal literaturan sei idazle emakume egotetik 121 emakume (43 gerra aurrean eta 78 gerra ostean) egotera pasatu ziren. Zer dela eta horrelako aldaketa? Egile honek gizonezkoek aplikatu zitzaizkien irizpide berberak erabili zituelako; euskal idazlea euskaraz idazten duena da, idazten duen oro idazlea da, nahikoa da lan bakarria argitaratu izatea eta itzultzaileak ere idazletzat hartzea. Berak ere salatzen zuen ikerketa androzentrikoek gizonezkoen ikuspegia bakarrik kontuan hartzen zutela. Hala, emakumea modernitateak baztertutako subjektu-posizio bat izan da psikologian, historian, literaturan, soziologian eta gainerako giza diziplinetan. Ordea, 1970 hamarkadako feminismoa deritzon teoria kritikoaren eraginez arlo horietan

barrenatzen ikus daiteke baztertze posizio hori gainditzeko ahalegina eta aipatutako lanak dira horren lekuko.

Beraz, Whitek (1996) azaldu zuen, XX. mendean, uste baino emakume gehiagok euskaraz idatzi zutela.

Alvarezek ere 2011. urtean XX. mendeko aldaketa inportanteenak (Industrializazioa eta teknifikazioa, euskal nazionalismoaren garapena, euskal kulturaren bilakaera, emakumeek eta diskriminatutako beste talde sozial batzuk emandako aurrerapausoak) Katalina Eleizegiren (1889-1963) idazlanetan eta bizimoduan nolako eragina eta isla izan zuten azaldu zuen. Lan honetako helburu nagusia Eleizegik bere lan dramatikoetan euskal emakume izateko modu bat baino gehiago zeudela azaldu zigula frogatzea zen; generoa, sexua, sexualitatea, nazioa eta klasea bizitzeko, izateko era ugari daudela.

Martinek (1998) haur literaturako pertsonaia femeninoen rolez egindakoa edo Nuñez-Beteluk (2001) euskal emakume idazleek euskal nazioa haien idazlanetan nola irudikatu zuten aztertu zuena aipatzea beharrezkoa da.

Ahantzura kolektibotik irteteko asmoz Bordak (1984) bere liburuan hamabost idazle emakume izendatzen ditu haien obra ezagutarazteko.

Hala eta guztiz ere, Olaziregik (2003) euskal literaturan emakumezkoek duten protagonismo eskasa salatzen du euskal literaturaren historian emakumezkoak ez direla existituz azpimarratuz. Baieztapen hau egiteko hiru argudio ematen ditu: emakumeak sistemaren periferian egon dira, emakume idazleen lanei buruzko ikerketa falta eta amaitzeko dio ekarpen eskasa egin diotela euskal literaturari historiagileek ez dituztelako emakume idazleak kontuan izan. Emakumeek idatzitako euskal obren azterketa-urritasuna konpondu nahian bi idazle ezagunen lana komentatzen ditu: Mariasun Landa eta Arantxa Urretabizkaia.

Emakume idazleen eskasia esfera pribatutik esfera publikora pasatzeko dituzten arazoei egozten zaio, gizonek, eta oro har elizgizonek, izan duten botereari eta emakumeek goi mailako ikasketak egiteko aukera ezari (andreak eta gizonak ez dira berdin heziak izan, ez mailan eta ezta kantitatean ere). Guzti horrek gabezia ekarri du euskal literaturan. Emakume gutxi direnez (betiere gizonezkoekin alderatuta) Irastorzak (1984) emakumeen ziurtasun eza salatzen du ondorio gisa.

Olaziregik (2002) ere salatzen zuen, 60ko hamarkadan euskal literatura jarduera autonomo gisara instituzionalizatu bazen ere, emakumezkoek idatzitako literaturari bizkarra eman ez izan zela.

Hortaz eta hasieran aipatu bezala, emakume idazleen izenak askok pentsatzen dutena baino ugariagoa dira, baina bestetik, zerrenda hori kritika urriarekin, aldizkari eskasekin eta saridun gutxirekin topatzen da, Olaziregik (1999) ondorioztatzen zuenez, euskal literaturaren munduak gizonezkoena izaten jarraitzen du.

Bestalde, *Jakin* (1987) aldizkariaren 45.zenbakian ere “*Emakumea eta literatura*” gaia jorratu zuten. Horretarako, hainbat idazle emakumeren testuak argitaratu zituzten. Hala nola, Mintegik emakume-literatura zer den eta zertan datzan aztertu zuen. Azurmendik euskal literaturaren historian emakumearen esku-hartzea eta emaitza zein izan zen aztertu zuen. Irastorzak eta Arkotxak, ostera, euskal gizonezkoen literaturan emakumezkoa nola agertzen zen arakatu zuten: Irastorzak, bere aldetik, Etxepare, Oihenart, Orixe eta Agirre zituen aztergai eta Arkotxak Gabriel Arestiren narratiba ikertu zuen. Bukatzeko, Lasartek, bere aldetik, Eukene Martin, Laura Mintegi, Amaia Lasa, Tere Irastorza eta Arantxa Urretabizkaiaren obratan agertzen ziren gizonezkoen pertsonaia nagusiak aztertu zituen.

Mintegik (1987) emakumeaz eta literaturaz hitz egin behar izatea ez-ohikotasunean edo marjinazioan kokatzen gaituela zioen. Hala ere, emakumeek egindako literatura gero eta ugariagoa eta hobea zela aipatzen zuen. Alabaina, Mintegik gogoratzen zuen kantitateak ez zuela kalitatea ziurtatzen eta azken honen neurgailu gisa kontaktaren teknikak, adierazpideen aberastasunak eta beste elementu batzuk izango zirela esaten zuen.

Hala ere, kontuan hartu behar da bai Simone de Beauvoirrek (1986) eta baita Mintegik (1987) ere aipatzen zutena: kontuan hartzen dute mendeetan zehar emakumeek jasandako egoera batek (baztertuta, eskubide gutxiago...) kolektibo zabal baten izaera baldintzatu duela, baina emakumeaz ezin zela orokorki hitz egin jaso zuten, hau da, orokortzeak saihestu egin behar zirela zioten. Gauza bat da, emakumeek mendetan barrena pairatu behar izan zuten egoera eta beste bat, emakume guztiak nolakoak ziren aipatzea (izaera). Esate baterako, Mintegik

(1987) aipatzen zuen emakumeek egindako obra askotan intimismoa izan zela gai nagusia, baina horrek ez zuen esan nahi literatura femeninoa intimismoa dela.

Egia da emakumearen egoerak- independentzia ekonomikoa falta, kultur munduan sarrera berria eta gizarte judu-kristauaren lan banaketa (emakumearena etxea, umeak, eskola, etab.)- beraien idazkera baldintzatu duela, baina emakume orokor bati buruz mintzatzea, gizonezkoak orokorki berdinak direla esatea bezain absurdoa da.

Beste aldetik, Mintegik (1987) ere aipatzen zuen idazle batzuen arazoa nahiz eta emakume sentitu, intelektualki eredu maskulinoak nahiago zituztela zela.

Antzematen da emakume idazleen kopurua nahiko hazi dela, Alvarezek (2005) ondorioztatzen duen moduan, euskal literaturaren historia subjektiboa da eta ez dago osorik. Izan ere, urteetan zehar historialari eta kritikariek baztertu izan dute andreen lana eta aipatzekotan, haien generoarekin lotutako ezaugarriei erreparatuz eta hori gutxietsiz egin izan dute.

Egile honek baita ere uste du diskurtso hegemoniko androzentrikoarekin amaitu eta euskal literatura aberastu egin behar dela, “feminizatu” behar dela, andrazkoen esperientzia eta idazkera berriei bide emanez, estereotipo zaharrak apurtuz eta berriak sortuz, horrela mundua ikusteko beste modu batzuk ezagutu eta zabalduko dira. Laburbilduz, emakumeen lana berreskuratuz eta plazaratuz.

Horretaz gain, Irastorzak (1984) emakumea eta literatura jorratzerakoan bi ikuspegi ezberdinetatik heldu daitekeela aipatzen du: alde batetik, emakumea literatur inspiratzaile gisa eta bestetik, emakumea literatur egilea.

Zer-nolako emakumea ageri izan da literaturan? Irastorzak (1984) bere lanean biltzen duenez, normalean emakumeei paper pasiboak suertatu zaizkie. Emakumearen lekua etxea eta familia izan da, hau da, esfera pribatua eta gizonarena, aldiz, gizarte esfera, gizona publikoa da. Irastorzak ere emakumeak bi muturretan agertzen direla salatzen du: emakumeak difamatuak eta emakume idealizatua. Emakumea gizonaren plazer iturri, objektu sexual eta beraz pasibo. XI. mendetik aurrera objektu sexual moduan agertuz joan zen letretan.

Sistema patriarkalak historian zehar gizartean emakumeen txokoratze hau ezarri duen bezala literaturan ere isla izan du. Izan ere, emakumeari dagokionez literaturak gizartearen egoera islatzen du ehuneko handi batean (Irastorza, 1984).

Amaitzeko, Mintegik (2014) hiru fasetan bereizten ditu emakumeek egindako literatura: lehenengoa, garai femeninoa (eredu “tradizionalak” onartzen eta errepikatzen ditu), bigarrena, garai feminista (eredu “tradizionalei” aurre egiten die; gaiak eta pertsonaiak erreaktiboak dira) eta, azkenik, emakumearen garaia (eredu propioen bila dabilena).

I.3.1 Emakumea eta euskal haur eta gazte literatura

Emakumea eta literatura binomioen presentzia oso anitza eta aberatsa izan ez bada, are urriagoa da emakumea eta euskal haur eta gazte literaturaren arteko harremana. Bai emakumezko idazleen kopuruari begira eta baita emakumeen irudiari ere. Olaziregiren hitzetan (2005), beste literaturekin alderatuta euskal haur eta gazte literaturan emakume idazleen kopurua txikiagoa da, eta hainbatetan, emakumeak duen irudia sexista izaten da.

Euskal haur literaturan aurki daitekeen lehenengo lana Bizenta Mogelen *Ipuin Onac* (1804) liburua da. Mogelek Esoporen alegien moldaera eta itzulpena egin zuen latinetik euskarara (gipuzkerara). Olaziregiren hitzetan: "Emakume batek bere garaian zituen muga eta oztopoak gaindituz, euskal literatur tradizio androzentrikoan pitzadura bat ireki zuen" (Olaziregi, 2003: 205. or.).

Euskaraz idatzi zuen lehenengo emakume honen biografiari buruz bi lan aipagarri daude: Altzibar (1982) "*Bizenta Antonia Mogelen biziaz eta lanaz zenbait argibide*" eta Olaziregi (2003) "Bizenta Mogel (1782-1854), edo euskal tradizio literario androzentrikoa pitzatu zenekoa".

Datu falta dela eta XIX. mendetik XX. mendera arte esan daiteke euskal emakumeek mende bateko isil-unea gorde zutela edo gordearazi zitzaiela. Alde batetik, emakumezkoari formakuntza akademikoa debekatu zitzaiolako eta etxearen ardura egotzi zitzaiolako.

XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran, ordea, abertzaletasunaren eskutik eta emakumezko idazleentzat ondo funtzionatu duten aldizkariak esker emakume asko literatura hurbildu ziren, baina ez bereziki haur eta gazte literaturara.

Urte horietan Emakume Abertzale Batza, Eusko Ikaskuntza, Euskaltzaindia, euskal aldizkariak hedatu ziren eta emakumea herrigintzan, hezkuntzan, antzerkigintzan, idazletzan eta abarretan txertatu zen bere presentzia ugarituz.

Arestian ikusi dugun bezala ikerketa lan ugari egin izan dira euskal emakume idazleen zerrenda hazteko eta ikusarazteko (Petra Belaustegi, María Artiñano, Rosario Artola, Errosa eta Basilia Bustintza, Katalina Elizegi, Sorne Unzueta, María Dolores Elizondo, Inazia Pradere Arruti, Tene Muxika, María Dolores

Agirre, María Etxabe, Rufina Azkue, Joakina Garaialde, Julia Gabilondo, Maddi Ariztia, María Pilar Lekuona, Josefa Martiarena, Julene Azpeitia, Julia Fernandez Zabaleta eta abar.) zerrenda nahiko luzea izan arren eta jakinda garai horretan hezkuntzan emakumeen presentzia gero eta ugariagoa zela, izen gutxi ausartu ziren haur eta gazteei zuzendutako lanak idaztera. Gainera, faltan botatzen dira emakumea eta haur literatura binomioak ikertu dituzten lanak. Bestetik, Olaziregik (1999) salatzen duenez, zerrenda oparo horrek ere ez zuen gehienetan inongo isla garrantzikorik eduki garaiko kulturagintzan.

1922an, Tene Muxika idazleak haurrei zuzendutako lehenengo dramatizazioko lana *Nekane edo Neskutzaren babesa* idatzi zuen.

Julene Azpeitia zumaiarrak hainbeste artikulu, ipuin, irratia-saio eta abar idatzi zituen. Bere bizitzarik gehiena Bizkaian irakasle pasatu zuen, 1920an gastronomiazko liburutxo saritu bat argitaratu zuen, gero haurrentzako irakurgaiak ailegatu ziren. *Amandriaren altzoan* (1961) umeentzako ipuinbiduma, *Umien Adiskidea* (1961) irakurtzen eta idazten irakasteko metodoa eta *Zuentzat* (1974), haurrentzako ipuin eta irakurgaiak dira argitaratu dituen lanik garrantzitsuenak.

1934an, Mayi Ariztiak *Amattoren uzta (La Moisson de Grand'Mère)* liburuko ipuinak bildu eta argitaratu zituen. Maddi Ariztia Ipuinak eta folklore gaiak erabili zituen gehienbat *Gure Herria, Herria, Egan* eta *Eusko Folklore* aldizkarietan.

Gerra Zibileko eta diktaduraren hasierako urteetako euskararen debekua eta zentsuraren ondorioz, euskal literaturan bezalaxe, haur eta gazte literaturan ere eragin negatiboa izan zuten eta argitalpenak erabat gelditu ziren.

Hauek dira gerra ondoren Etxanizek (1997) aipatzen dituen euskal haur literaturako lehen lan literarioak: Julene Azpeitia idazlearen *Amandriaren altzoan* (1961) eta Marijane Minaberriren *Itchulingo anderea* (1963) eta *Xoria kantari* (1965).

Minaberri idazleak *Herria, Gure Herria, Almanaka* eta *Panpin* agerkarietan argitaratu zituen bere idazlan gehienak. Hasieran olerki batzuk eman zituen argitara, baina, batez ere, haurrentzako antzerki lanak idatzi ditu. Horietako batzuen izenburuak dira: *Mokhor bat eta mokhor bi* eta lehen aipatutako *Xoria*

kantari poema liburua (1965), *Begietakoa*, *Joanes Zirtzil*, *Manexen nahigabeak*, *Auzitegian*, *Marikitaren otoitza*, *Eri haundia*, *Abereen eguberri eta Eñaut eta sagutxo*. 1983an, antzerki lan batzuk bildu, eta argitara eman zituen *Haur antzerkia* bilduman. Hortaz, haurrak eta antzerkigintza izan dituela langai esan daiteke.

1971an, Enkarni Genuak haurrentzako hainbat lan idatzi zituen: umeei zuzendutako lehenengo lana 1979an Erein argitaletxearekin kaleratu zuen; *Erreka Mari*, gero beste batzuk ailegatu zirelarik: 1981an *Zezena plazan*, 1982an *Txotxongiloa Eskolan*, 1983an *Amonaren Ipuinak...* guztira hogeita hamabi liburu (ipuinak, antzerki-lanak eta antzerkia eta txotxongiloa lantzeko liburu didaktikoak).

Esan daiteke XX. mendeko euskal haur literaturako emakume idazleek hezkuntzarekin, antzerkigintzarekin eta aldizkariekin harreman estua izan dutela.

1980ko hamarkadako aldizkarien “boom”ean emakume idazle askok hartu zuen parte eta mende hasieran bezalaxe aldizkariok izan ziren, kasu gehienetan, emakume horien argitalpenaren bultzatzaile nagusiak. 90eko hamarkadan aldizkariak desagertu ahala, beste plataforma batzuk bilatu beharko dituzte emakumezkoek. Baina Olaziregik (1999) salatzen duenez euskal letretan eragin handienak dutenak, alegia, sariketa nahiz eskola-irakurgaiak, ez dute hain ongi funtzionatzen emakumezkoen kasuan.

Dena den, euskal literatura modernoari dagokionez emakumearen presentzia ugariagoa eta aberatsagoa da. 1979an Arantxa Urretabizkaiak *Zergatik Panpox* eleberria argitaratu zuen. Kortazarren hitzetan (1979) Urretabizkaiaren pertsonaia hori pertsonaia protagonista femenino eta modernoan aitzindaria da euskal literaturan. Bertan kideak alde egin dion emakume baten bizitzako egun bat kontatzen da. Emakumeak zazpi urteko mutiko bat du. Emakumea zainketaz eta etxeko lanez arduratzen da: harrikoa, lisaketa... bere burua txukuntzeko denborarik gabe. Gizarte modernoan emakume izateari buruzko kezka eta gogoetak txertatzen dira. Virginia Woolfen *Mrs Dalloway* nobelarekin nolabaiteko paralelismo bat eginez, protagonistaren egun arrunt bat kontatzen duelarik (sentiberatasun Woolfarra).

Bestalde, Mariasun Landak (1988) badu emakumearen estereotipoekin hautsi egiten duen pertsonaia ospetsua: *Iholdi*.

Lasartek (2006) *Jakin* aldizkarian argitaratutako artikulu batean euskal literaturak sortu dituen pertsonaia femeninoak aztertzen ditu eta horietako bat Mariasun Landaren *Iholdi* da.

“Emakumearen kezkak ugariak izango dira bere ipuinetan, baina emaitzarik garrantzitsuena ohiko estereotipo sexistak iraultzea izango da. Pertsonaia femenino ugari azalduko dira Landaren poetikan, eta azaltzen diren gizonezkoen maskulinitatea ezagutzen dugunetik oso bestelakoa izango dugu” (Lasarte, 2006, 64. or.).

Lasartek aipatzen du Mariasun Landaren obretan pertsonaia femeninoaren protagonismoaren ugaritzea, modu horretan irakurlegoari, estereotipoekin apurtzeaz gain, pertsonaia femenino horiek identitate aldizkakoak eskaintzen dizkio. Honako datu hauek aurkezten dizkigu Lasartek: 28 liburuetan barrena 189 pertsonaia topatuko dira, horietarik 61 emakume, 60 gizon, 34 animalia, 19 pertsonaia kolektibo (haurrak, herria...), 8 natur izaki eta 7 objektu bizigabe azkenik. Hauetatik guztietatik 41 protagonista topatuko ditugu: 22 emakumezko, 9 gizonezko, 7 animalia eta 3 objektu ez bizidun. Beraz, lehen aipatu bezala emakumearen presentzia nabarmena da Mariasun Landaren obretan eta gainera, emakumearen ohiko ezaugarri psikologiko izan diren menekotasuna, sufritzeko gaitasuna, jakin-nahi eza... ez dira agertzen Landaren pertsonaia femeninoarengan; are gehiago, ausardia, gizartearen aurrean ikuspegi kritikoa eta aurre egiteko ahalmena azalduko duten emakumezkoak topatu daitezke.

“Bi emakume klase aipa genitzake: fantasiako emakumea eta emakume baztertua, biak dira egokitu zaienari aurre egiten dakiten emakumeak” (Lasarte, 2006, 64. or.).

Modu horretan, Landak Turinek (1995) salatzen zuen haur literaturaren emakumezko pertsonaien ohikoa den jarrera pasiboa, mendekoa, lasaia, sentikorra... apurtzen du. Baita ere beste sexuari (gizonezkoari) dagozkien ezaugarriak (arduratsua, sortzailea, ausardia, indarra, arazoak gainditzeko gaitasuna...) emakumeari izateko aukera ukatu izan zaizkion moduan Mariasun Landaren pertsonaietan egoera hori gainditu izan da.

“Landaren pertsonaia femeninoak dinamikoak, sentiberak, etxetik kanpo bizi direnak direla, baina era berean baita behartsuei harrera egiteko ohitura galdu ez dutenak ere. Oso esanguratsua da Landak alde maskulino nahiz alde femeninoen alderdi baikorren uztarketa nola egiten duen. Gainera, esan behar da gizartearentzat emakumeengan alderdi negatibo gisa ikusten dena positibizatu egiten duela Landak; esandako hau dena laburbil dezakeena lholdi dugu” (Lasarte, 2006, 66. or.).

Beste datu esanguratsu bat eta kontuan hartu beharrekoa da nahiz eta munduko biztanleen % 51 emakumea izan, askotan ezkutatuta agertzen dela haur literaturan (gabezia edo hutsunea). Colomerrek (1999) eta Cañamaresek (2004) beraien lanetan erakutsi zuten aztertutako obretan emakumea protagonista guztien heren bat zela.

Martinek (1998) haur literaturako pertsonaia femeninoen azterketa egin zuen bere doktorego tesian. Bertan, 304 lanetako 1.883 pertsonaietatik 889 gizonak ziren, 388 emakumeak eta 665 gizon-emakume taldea. Kontuan izanda askoz emakume gutxiago daudela datu bat erabat deigarria da: biktimen artean % 32 neskak dira eta % 28.9 mutilak. Hori horrela delarik Eukenek ondorioztatzen du biktima izatea dela pertsonaia femeninoei ezartzen zion arketipoa.

Bestetik, bai Kortazar ikertzaileak (2011) eta baita Etxanizek (2007) ere nabarmentzen dute euskal haur eta gazte literatura modernoa estuki lotuta dagoela hezkuntza formalarekin. Literatura genero hau askotan irakurleengana - haur eta gazteengana- bitartekarien bidez ailegatzen da, hots, irakasleek esanda edo gurasoen bidez. Honek, bide batez, adierazten du obra horiek irakasleen gustukoak izan behar direla, bai gustu literarioa eta baita ideologikoa ere. Gai honekin kezkatuta Etxaniz (2007) euskal literaturan dagoen ideologizazioa islatzen saiatu zen eta aipatzen du euskal merkatuan ideia aurrerakoien transmisioa zaintzen den arren, testuetan eta irudietan estereotipo sexistak oharkabea islatzen dituztela. Gainera, zehazten du kontzeptu hauek gizartean guztiz onartuta daudenez ikusezinak bilakatzen direla.

Etxanizek lehen aipatutako liburuan ikerketa bat burutu zuen euskal haur eta gazte literaturan emakumearen papera zein den ikusteko. Horretarako, 1994ko produkzioa hartu zuten. Urte horretan euskaraz 38 liburu berri sortu ziren,

horietatik 8 liburu idatzi zituzten hiru emakumek (Piedad Atekak 6, Yolanda Arrietak bat eta Maraisun Landak beste bat) eta beste 30 liburuak 20 gizonen idatzi zituzten.

Egileak gizonetzkoak ala emakumezkoak diren ezagutzea garrantzitsua eta esanguratsua izan daiteke, baina badaude beste datu batzuk hobeto islatuko dutenak emakumearen egoera eta irudia. Protagonismoari dagokionez, 38 liburu horietatik gehiengo nabarmena da gizonetzko protagonista dutenak (% 60.6), emakumezkoak (% 18.2) eta gainerakoetan, gizon-emakumeak dira protagonista (% 21.2). Etxanizek (1999) datu hauek beste ikerketa batzuetako datuekin alderatzen ditu.

Hurrengo koadroan Etxanizen ikerketako datuak, Colomerrek aztertutako 150 liburuen datuak, Association Européenne du côté des filles (1998) irudi liburuetako 2.396 protagonisten gainean eginiko azterketaren datuak (Espainiakoak bakarrik kontuan hartu dira) eta AEBtan 1971an Princetowngo Unibertsitateak eginiko ikerketaren emaitzak bildu dira:

3 Koadroa

Liburuetako Protagonisten Sexua

	Etxaniz	Association Européenne du côté des filles	Colomer	Princetowngo Unibertsitateak
Emakumezkoa	% 18,2	% 43-45	% 29.5	% 25
Gizonezkoa	% 60,6	% 57-55	% 62.8	% 75
Gizon-Emakume	% 21,2		% 7,7	

Datuei erreparatuz gero, argi eta garbi geratzen da euskarazko produkzioan, beste herrialdeetan bezala, emakumezko presentzia protagonista nagusien artean askoz txikiagoa dela.

Etxanizek aztertzen duen beste irizpide bat lanbideena da. 1994an euskaraz sorturiko liburuen artean 95 lanbide daude gizonetzkoen kasuetan eta 17 emakumezkoenetan. Horrek adierazten du etxetik kanpoko lana gizonetzkoena

omen dela, nahiz eta gizartean gero eta emakume gehiago egon etxetik kanpo lanean aritzen direnak. Horretaz gain, aztertutako corpusean boterea ere gizonen eskuetan dagoela salatzen du: alkate guztiak (6) gizonaek, kapitainak (2), gobernadorea (1), erretorea (1) edo zuzendariordea (1) gizonaek dira.

“1994ko produkzioaren azterketa labur honek argi eta garbi adierazten digu zein nolako irudia transmititzen den euskal haur eta gazte literaturan. Protagonista nagusiak gizonaek dira, boterea beraiek dute eta lanbide edo jokabide erakargarrienak gizonaen esku daude” (Etxaniz, 2007, 41-42. or.).

Beste aldetik, Olaziregik (1999) literatur sariketei begirada bat eman zien eta honako ondorio atera zuen: gazteentzako antolatzen diren sariketen irabazleen gehiengoa emakumezkoek osatzen badute, helduen kasuan, sarituen artean, emakume gutxi dagoela.

Olaziregik ere (1999) “Euskal Hizkuntza eta Literatura” irakasgairako prestatutako materiala aztertzea zen emakumezkoek bertan zuten presentzia ikertzeko. Ondorioztatu zuen testu liburuetan ez direla emakumezko idazleak bultzatzen, testu liburuotan emakumezkoak baztertuta daude, eta hori horrela izanik, eskolak sexuen arteko desberdintasunak areagotu egiten dituela esan daiteke. Datuok ikusita Olaziregi nahiko ezkor ageri da:

“Kritika urriarekin, aldizkari eskasekin, saridun gutxirekin... eta eskolaren babesik gabe, emakume idazleek errealitate bat baino gehiago itzal bat izaten jarraituko dutela. Azken finean, alferrikakoa dugu ahanzturaren zerrendetatik emakume- idazleen izenak berreskuratzen ahalegintzea, azken batean, egon badaudela frogatu arren, euskal literaturaren munduak gizonaekoa izaten jarraituko baitu” (Olaziregi, 1999, 26. or.).

Gainera, kontua izan behar da kritikagintzak kanon literarioa finkatzen badu ere, eskola dela bereziki euskal letretan idazle/liburu baten arrakasta eta ospea sustatzen duena.

Ondorioz, haur eta gazte literaturan emakumeen produkzioa murrizta izan da 1980ko hamarkada arte, non emakumezko idazleak nahiko ugari ziren eta baita

Marko teorikoa: Euskal Haur eta Gazte Literatura eta Emakumea

emakumeen presentzia haur eta gazte literaturan ere. Hala ere, datuek adierazten dute moduan, oraindik ez da berdintasuna lortu.

II. KAPITULUA. Korrante literarioak

II.1 Postmodernitatea

Definizioari dagokionez Kortazarrek gogoratzen du (2007), garai bat definitzeko saio batek kontuan izan behar du definizio hori berez eraikuntza bat dela eta eraikuntza hori subjektu batek egiten duela garai baten baitatik. Honek adierazten du aroen mugak aldakorak eta ez-egonkorak izatea. Dena den, egile gehienek 1970eko hamarkadatik gaur egunera doan tarteari postmodernismoa deitzen diote. Alvarezek (2011) postmodernismoa, gaurko kulturaren, egitura sozialaren eta subjektuaren egoerari begiratzen dion mugimendu artistiko zabala dela dio.

“Postmodernismoa, gaurko kulturaren, egitura sozialaren eta subjektuaren egoerari begiratzen dion mugimendu artistiko zabala da. Mendebaldeko balio sistema berbaloratzea du helburu, errealitate objektiboa, morala eta arau sozialak auzitan jarriz. Teoria, ideologia eta konbentzioen aurrean sinesgogor eta kritiko agertzen da postmodernoa eta era berean, arteetako estilo eta kontzeptu batzuei egiten dio erreferentzia hitz honek. Postestrukturalistengandik hurbil daude egia huts eta bakarrean ez dutelako sinisten eta errealitatea eraikita dagoela esatean” (Alvarez, 2011, 38. or.).

“The postmodern turn and the new cultural politics of difference] trash the monolithic and homogeneous in the name of diversity, multiplicity and heterogeneity; to reject the abstract, general and universal in light of the concrete, specific and particular; and to historicize, contextualize, and pluralize by highlighting the contingent, provisional, variable, tentative, shifting and changing” (Cornel West in Benstock, 2002, 178. or.).

Euskal Herriari dagokionez, Aldekoak eta Gabilondok (2008) 1990eko hamarkadaren hasieran kokatzen dute postmodernitatea. Garai horretan antzematen duelako gure batez besteko kontsumoa eta ohiturak aldatzen direla eta inguruko nazio aurreratuenekin gero eta homologatuago agertzen direlarik. Berarentzat Guggenheim Museoaren eraikuntza da euskal postmodernitatearen sinbolo eta adierazlea.

Hasteko, hitzaren konposizioari erreparatzerakoan “post” aurrizkia eta “modernitate” hitzarekin topo egiten da. Kasu honetan, “post” atzizkiak ez du zentzu kronologikorik, baizik eta modernitatea gainditzea eta bukatzea, modernismoari erantzutea du helburu, betiere jakinik, ez dela posible pentsaera berriak lortze bizikide izan den kulturaren iragana kontuan hartu gabe. Beraz, Apaolazarentzat (2008) postmodernitatea izango litzateke pentsatzeko forma berriei atea irekitzea beste sentsibilitate baten esperientziarekin. Alabaina, “modernitate” hitzak erabiltzailearen, lekuaren eta momentuaren arabera hainbat errealitate izan ditu:

“Alemanian, modernitateak razionalismoa eta Ilustrazio filosofikoa bilduko lituzke bere baitan; Frantzian, aspektu estetiko eskuratuko luke, Charles Baudelaire-ekin hasi eta abangoardia artistiko, arkitektoniko eta literarioak korrituz; Italian eta Espainian, zentzu historikoa luke eta Berpizkundearekin hasitako aroa azalduko luke; Ameriketako Estatu Batuetan, modernitatea estilo arkitektoniko bati aplikatuko litzaioke eta abangoardien barruan. Postmodernismoan nagusi den aspektu filosofikoa razionalismo eta Ilustrazioaren ikuspuntua nabarmenduko liguke” (Apaolaza, 2006, 101. or.).

Hortaz, “modernitate” hitzaren ikuspegi orokorra harturik Ilustrazioaren eta europar razionalismoaren pentsamendu eta kultura mota bat adieraziko luke.

Lytarden ustez (1979), postmodernitatearen oinarrizko ezaugarriak modernitate berandukoaren oso bestelakoak dira: intelektualek ez dute sinesten metanarrazio handietan metanarrazioak historikoak eta kontingenteak direlako, idatzi ziren garaiko egoera historiko eta sozialaren eragina jaso zutelako, eta horren ondorioz ezin dutelako orojakile eta arrazionala den subjektua izan. Bestetik, gizartea zatikaturik dagoela (errealitate anitza), hau da, ezinezkoa da gizarte unibertsal bat eraikitzea (gizartea zatikaturik dago) diskurtso askotarikoak eraikiz.

Egile honek postmodernoa gizarte postindustrialaren joerei lotzen die; informazioaren, ordenagailuen, teknologia aurreratuaren, jakinduria zientifikoaren, aldaketa guztiz azkarren gizartea da. Eskura izatea informazio kopuru handi horrek balioen, identitate pertsonalaren eta erantzukizunaren desegitea dakar.

Lyotardeek (1979) bi tesi nagusi babesten ditu: lehenengoa, aro postindustrial eta postmodernora igarotzean jakindurian gertatutako aldaketa eta bigarrena, “hizkuntzen joko ezberdin eta anitzen heterogeneitate eta menperaezintasunaz dihardu, joko ezberdinen artean sailkatu, hierarkizatu eta doituko lituzkeen metahizkuntza baten arbitrajea onartu nahi ez duten hizkuntzez eta, gainera, eta beren arau propioez hornituak direnetaz” (Apaolaza, 2006: 113. or.).

Lyotarden iritziz, bizitza soziala eta kulturala anitza eta ezberdina da eta horrexegatik hizkuntzan gatazka sortzea ekidin ezinezkoa da.

Vattimok (1994) ere onartzen du kultura eta subjektu anizkoitza eta zatitua nahiz eta kontsumo gizartearen aurrean hain gatazkatsua ez den postmodernitate kontzeptua aldeztu duen. Vattimok esaten du modernitatea amaitu dela eta postmodernismoa dela historiaren kontzepzio modernoaren esperientzia prozesu unitario eta aurrerapena. Berarentzat gizarte postmodernoa ez da hain dogmatikoa, dibertsitatea aitortzen du eta tolerantziaren kultura berriaren parte-hartzaile egiten da. Berak Europa etnozentrikoaren aurrean, kulturen ikuspegi mundiala erreskatatzen du.

Komunikabideei dagokionez, Vattimok uste du ez dutela homologazioa sortzen eta egia partzial, kontrajarri eta konplexuen hedatzaile bihurtu direla. Apaolazak (2006) Vattimoren lanaren inguruan jasotzen duenez, postmodernitatean komunikazioak eta hedabideek izaera zentrala dute, baina etengabe diharduten igorleen aniztasun horrek ez du ikuspegi unitarioa ematen, ezta ikuskera kontestualizatua eta independentea ere. Kontrakoa, bideak irekitzen dizkie askatasunari, tolerantziari, dibertsitateari, gutxiengoei (etniko, sexual, erlijioso, kultural, estetiko) eta gainera, bazter uzten ditu arrazionaltasun-modernitatearen, autoritarismoen, aurreiritzien, indarkeriaren ikuspegi unitarioak.

Baudrillard (1981) lanean ikus daiteke errealitatea zeinuen trukeen azpian ezkututzen dela *simulakroa* eta *simulazioa* bideratuz. Postmodernitatea ezaugarritzeko orduan Baudrillard saiatu zen irudiaren, telematikaren, zibermediaren, simulazioaren hiperrealitatearen eta simulakroaren kultura aztertzen. Alavarez (2011) bere tesian biltzen duenez, simulakroa da bere erreferentia suntsitzen amaitzen duen irudiaren azken fasea. Informazioaren jendartearen diagnostikoa egiten du errealitatearekin duen loturaren eta

irudikapenaren paperaren analisia eginez. Modernitatearen mitoak eta naturalizatzeko joera kritikatzeko ditu (Cabo eta Rabade, 2006: 149-150. or.).

Jamesonek (1991) bere liburuan esaten duenez, postmodernitatea kulturalki kapitalismoaren hirugarren faseari dagokio, fase multinazionalari edo kontsumokoari, kapitalismo berantari. Zimak (1982) postmodernismoa utopien amaiera gisa definitzen du eta botereari eta jakintzari eginiko kritika dela esaten du.

Literaturari dagokionez, postmodernismoak gogoeta teorikoari eragin dio. Literaturaren kontzeptua, baldintzak eta diskurtsoa garai modernoan kulturalki sortu zirela kontuan hartzea. Modu honetan, pentsamendu modernoaren aurrekarien analisi ideologikoa edo unibertsaltasun asmoen erlatibizazioa egiten da (Cabo eta Rabade, 2006, 142. or.).

Eta Urkulok (2012) komentatzen duenez, postmodernitate literarioa modernitate literariotik bereizten da, esaterako, sistemaren aurkako ekintzak burutzeari uko egitean. Postmodernitatean literatura kultura nagusiaren eskutik doa, edo behintzat bertan integratzen dakiela esan daiteke. Narratiban eta, oro har, arlo artistiko guztietan komunikabide, ikuskizun eta irudiaren gizarteaz hitz egiten duela nabarmentzen du egileak (Urkulo, 2012, 207. or.).

Bere aldetik, Zimak postmodernitatearen ikuspegi filosofiko eta politikotik literaturaren alorrera igarotzean osagai nagusi batzuk aipatzen ditu, Kortazarrek (2007) biltzen eta laburtzen dituenak:

- Pluralismo estetiko eta politikoa: errealitatea adierazteko ez dago estilo bakar eta nagusi bat, estilo guztiak elkarren artean trukagarriak dira.
- Konstruktibismoa: errealismoari aurre egitea; eraikuntzak egitea gogoeten haritik.
- Testuartekotasuna eta polifonia orain ez dira subjektuaren identitatearen bilaketaren baliabide, orain "ziorik gabeko" idazkerak dira, helbururik gabeak, teologiarik gabeak.
- Anakronismoa: denborak nahastea, denbora espazio bihurtzea, eta ez soilik esperientzia jakin bat kontatzea.

- Narratzailearen agnostizismoa: narratzailea ez da gauza kontatzen duena ulertzeko, gainera, narrazioa ez da gauza errealitatea adierazteko, kontatzen dena erabat erlatibizatuz. Ezinezkoa denez egia adieraztea mesfidantza agertzen da.
- Generoen arteko mugen galera: Esate baterako, nobelan saiakera sartzea edo filosofia edota erreportajeren bat. "Postmodernitateak alde batera utzi du proiektu utopiko baten bilaketa, bilaketa iraultzailea".
- Ziorik gabeko idazkera: Tradizioko kontagintzara itzultzea, abangoardiak alde batera utzi eta narrazio lineala eta tradizionala berreskuratzea.
- Alienazioa eta bestetasuna: modernitate berandukoan bezala, baina ez doaz utopiaren, iraultzen eta erlijioen atzetik. Bestetasuna, beste egitea, nobelaren ekintzatik kanpo kokatzea da, eta egileak narrazioa aurkezteko aukeratu dituen gaiei buruz galdera egitea du helburu. Narratzailea kontatzen ari denari buruzko zalantzetan murgilduta dago.
- Indiferentzia eta trukagarritasuna: Egia ezin denez antzeman. Egia definitzea ezinezkoa da, denentzat ez baita berdina, orduan dena bihurtzen da erlatiboa. Nola eraikitzen da egia eta norentzat eraikitzen da, horiek dira postmodernitatea bideratzen duen erlatibismoak egiten dituen bi galdera giltzarri. Gainera, Postmodernitateak galdetzen du ea zergatik gizarte batzuetan ontzat hartzen denak beste batzuetan txartzat jotzen diren moralaren aldetik. Metanarratiba handiei uko egitean trukagarritasuna agertzen da.
- Irakurlearen aurkikuntza: Irakurlearentzat idazten da, bere bila abiatzeko jarduera da. Hala ere, nahiz eta irakurleak obraren definizioan zeresan handia izan, ezin da alde batera utzi testua objektu artistiko gisa. Testu baten berehalako arrakastak ezin du kalitate-neurri bakarra izan.
- Izadiaren aurkezpen ekologikoa: Ingurumenarekiko sentikortasun berezia azaldu du postmodernitateak.

Beraz, Zimaren ustez, postmodernitateak egitura literarioen arteko bereizgabetasuna izango luke, errealitatea eta fikzioa nahasiz, testua munduaren metonimia eta sinbolo bihurtuz eta errealitatea azaltzeko ezintasuna. Kortazarren

aburuz (2007) indiferentzian eta utopien galeraren oharmen kritikoa dago postmodernitatearen kontzeptuaren gune nagusia eta modernitate berandukotik bereizten duena.

Harvey-k (1998) jasotzen duenez, postmodernitatean sortzaileen autoritate kulturala krisian sartu da, ez baitu obraren esanahi itxi eta bakarria ezartzeko autoritaterik, eta kontsumitzailearen esku uzten baitu esangura-zatiak batu eta esanahiak egituratzeko aukera.

Jamesonek (1996) literatura postmodernoa bost ezaugarri hauek nabarmentzen ditu: irudiaren aroa eta simulakroarekin lotutako azalkeria, historiaren ahultasuna, teknologia berrien eragina mundu globalizatuaren barruan, subjektuaren denbora- zein espazio-pertzepzio nahasia eta hiriaren aukera soziopolitikoak aprobetxatzea.

Badaude beste egile batzuk bestelako ikuspegiak erabili dituztenak postmodernitate literarioaren ezaugarriak aztertzeko, esate baterako, Hassanek (1987) biltzen dituen ezaugarriak hauek dira: zatikatzea, niaren identitatearen desagertzea, adierazi ezina, ironia, indeterminazioa, deskanonizazioa, eraikuntza, immanentzia, inaute-joera, antzezpena eta hibridotasuna.

Kortazarren aburuz (2007), indiferentzia eta balioen trukagarritasunak ematen diote hauspoa eta oinarria postmodernitateari. Baina kontuz, Kortazarrek ohartarazten du, indiferentzia hori ez dela axolagabekeria psikologiko bat, non subjektuari dena bost axola zaion, aitzitik egoera horretan ezintasun bat agertzen da ideologia bat beste baten ordeztu hartzeko. Zenbait jarrera ideologikok ez baitute onartzen indiferentzia hori eta horrek Kortazarren ustetan gaur egungo euskal nobelagintzarara postmodernismoak zenbait ezaugarri ekarri ditu eta Aldekoaren (2012) iritziz, postmodernitatea bereizten duten ezaugarriak ez ziren laurogeita hamarreko urteetara arte azaleratu euskal literaturan.

Balioei dagokionez, kontua izan behar da balio batek beste batek adina balio duela eta balioen mundua ikusteko modua aldatu egiten dela. XXI. mendearen hasieran balioen trukagarritasuna krisian dago, alde batetik, globalizazioaren aurkako mugimenduetatik eta bestetik, 2001eko irailean sortu zen krisitik.

Horretaz gain, Callinicos (1998) esaten du postmodernismoak kritikak jasotzen dituela beste esparru batzuetatik. Adibidez, modernitateak abiatuak barne-hutsa dela esanez. Eta bestetik, postmodernismoa apolitiko izateak, metanarratibak ukatzeak eta utopia alde batera uzteak kritika marxista erakarri duela.

Euskal letretara etorrita Kortazarrek (2007) postmodernitatea eta euskal literatura jartzen ditu jomugan eta etengabeko tenka batean agertzen diren bi kontzeptu direla esaten du. Lehenengo eta behin, euskal gizarteari erreparatzen dio. Alde batetik, demokrazian eta kontsumo gizartean oinarritutako postmodernitatea bat eta bestetik, egoera politiko gaizto bat. Bere iritziz bi jarrera horiek elkarri topeka sortzen duten tenkaz agertuko da postmodernismoa euskal literaturan. Gaurko nobelagintza aztertzeke honako puntuei erreparatzen dio Kortazarrek: lehenengo, nobela eta indiferentzia, bigarrenik pluralismo estilistiko eta politikoa, hirugarrenik konstruktibismoa, laugarrenik testuartenkotasuna eta polifonia, bosgarrenik generoen arteko bereizketaren galera eta azkenik, irakurlea aurkitzea.

Olaziregik (2002) aipatzen du literatura kanonikoaren eta hegemonikoaren aurrean bazter literaturak eta idazleak aztertu eta balio berriak hartu behar direla aintzat: emakumezkoek idatzitako literatura, hirugarren mundukoek egindakoa... horrela zalantzan jartzen direlarik testuen kalitatea definitzeko garaian erabili izan ohi diren irizpideak.

Gabilondok (2006) lau "eskandalu" aztertzen ditu ("*Soinujolearen semea*-ren eskandalua", "tropelaren belaunaldiaren eskandalua", "diferentziaren eskandalua" eta "Euskadi Sariaren eskandalua") euskal literaturan postmodernitatea zertan den analitzatzeko eta kulturantzatasuna eta subjektu ugaritzea literaturan nola geratu den esplikatzeko.

Gabilondok (2006) Alvarezek egiten duen literatur kritika erantzuten du. Alvarezek salatzen du orain arteko historien kanonak duen jite maskulinista eta emakumezkoen literatur jardunak behar duen hedapen eta azterketa aldarrikatzen du. Horren ondorioz Gabilondok esaten dio Alvarezek kritika horretan ez diola modernitatearen iruzurrari erabat ihes egiten. Izan ere, Butler eta Rubinoren teorizazioak (*queer* mugimendua edota homosexualitatea) jasotzen

ez dituelako eta sexu/genero banaketaz baliatzen dela biologia eta gizartea bereizteko.

Beraz, Gabilondorentzat (2006) Alvarezek genero-sistema monolitiko bat eraikitzen amaitzen du, non "emakume" kategoria esentzializatzen duen, zentzurik modernoan. Alegia, bell hooks bezalako kritikoez gero, feminista gehienek onartzen dute, "emakume" kategoria lehen munduko feminismo zuri, burges, kristauak desplegatu duen nortasuna dela, eta beraz ezin dela era ez-kritiko batean erabili, izan ere emakume mota asko marjintzen ditu kategoria esentzialista horrek.

Hau da, Euskal Herrian emakume ezaugarri desberdin askotakoak daude (heterosexualak, homosexualak, langileak, etorkinak, klase ertainekoak...) eta hauek ezin dira "emakume" kategoriarean esentzialki bateratu, bestela emakume talde berezi batek (zuria, burgesa...) beste guztiak irudikatzen amaitu dezakeelako.

Dena den, testuan azaltzen denez, honek ez du ukatzen "emakume" kategoria beharrezkoa eta garrantzitsua ez denik kanonaren maskulinitatea salatzeke eta emakumearen papera berreskuratzeko, baizik eta kritika estrategiko honek kontuan hartu behar dituela eta aurreikusi behar dituela "emakume" kategoriak izan ditzakeen arazoak, esate baterako, aurretik aipatutako beste emakumeak (etorkinak, lesbianak...) ez ahaztea.

"Alvarezek galderek euskal tradizio modernoa bere osotasunean kuestionatu dute eta kuestionatze hau postmodernoa eta erabat beharrezkoa genuke. Alabaina galdeketa honi erantzun postmodernoglobal bat eman behar zaio, biopolitikaren ugaritasuna kontutan hartuko duena hain zuzen" (Gabilondo, 2006, 57. or.).

Bestalde, Aldekoak ere Alvarezek 2005. urtean *Jakin* aldizkariko 148. zenbakian bere liburuari *Historia de la literatura vasca* (2004) egindako kritikari erantzuten dio. Alvarezek hau zioen:

"Gaur egun dagoen euskal literaturaren historia ez dago osorik, subjektiboa da. Hasier Etxeberriaren liburuak jadanik zegoen kanon maskulinoa finkatu du, sendotu du, zilegitasuna eman dio (Aldekoaren

historian berresten eta are gehiago murrizten dena). Jendearen onarpena jaso zuen lan horretan bost idazle, bost gizon agertzen dira, eta emakume idazle bakar bat agertzen da, txiripaz: bost idazle horietako batek gomendatzen dituen hamar liburuen artean bat da emakume batek idatzitakoa (Bordaren *Bizitza nola badoan*)” (Alvarez, 2005, 69-70. or.).

Hori esateko Alvarezek kontuan hartzen du Etxebarriak *Bost idazle Hasier Etxebarriarekin berbetan* (2002) liburuan Atxaga, Izagirre, Lertxundi, Saizarbitoria eta Sarrionandia proposatzen dituela eta liburuan bost idazlek hamar idazle edo hamar idazlan aipatzen dituztela eta 50 lan horien artean bakarra dela emakume batena eta Aldekoak lau idazle proposatzen ditu: Atxaga, Lertxundi, Saizarbitoria eta Sarrionandia.

Hona hemen Aldekoaren erantzuna:

“Literatura modernoari dagokionez ere, Arantxa Urretabizkaia, Amaia Lasa, Teresa Irastorza, Itxaro Borda, Miren Agur Meabe edo Lurdes Oñederraz hitz egiten da liburuan. Baina, inondik ere, ez da nahikoa. Eta, alde horretatik, Amaia Alvarezek arrazoi du. Zergatik? Nirea historiaren ikuspegi modernotik, modernitatearen kontzientzia eta balio estetikoetatik idatzitako liburua delako. Modernitatearen balio estetikoetatik (nahi den subjektibotasunez, partzialtasunez edo, hala nahi bada, interpretazio ahulez eta despistez beterik, baina beti ere modernitatearen balioetatik egina) hausnartutako ibilbidea izan zelako. Eta justu horrexek bereizten gaitu. Amaia Alvarezentzat balio horiek subjektiboak dira. Zeren eta ez baita auzi honen muina modernitatearen behatxulotik begiratu zer agertzen zaigun lan honetan edo bestean juzkatzea. Ez da hori postmodernitateak edo garai berri honek ezarri duen desafioa; ez, beste honako hau baizik: modernitatearen balio estetikoak (eta moralak) dira gizonezkoen botere-esparruari eusteko aitzakia (Foucault-en arabera) eta balio estetiko horiek mantentzeak ez gaitu bazterkeriatik salbatuko. Jakina, kalitate estetikoa bihurtzen denean literaturaren neurgailu edo langa, ezinbestean sortuko da banaketa: elitea (kultua) eta popularra (subkultura). Postmodernitateak banaketa hau gainditu egin du, eta bi muturren arteko bitartea leundu egin da” (Aldekoa, 2006, 33. or.).

Ondoren, Aldekoak (2006) begi bistakoa diren bi iritzirekin bukatzen du eztabaida: lehenengoa, gaur egun euskal argialetxeetan emakume idazleak ez daudela baztertuta eta bestea, gizonezkoen zein emakumezkoen artean lan kaxkarrak dabiltzala han eta hemen.

Bestalde, Alvarezentzat (2005) kritikari batzuk "Emakume literatura" delakoaren ustezko boom-a merkantilismoarekin, literatura arin/errazarekin eta itxuraren aroarekin lotzea gutxiespen modu bat da.

Beraz eta bukatzeko, hemen ere agerian geratu da postmodernitateak euskal literaturara eztabaida eta kritika ekarri diola, modu horretan euskal letrak osoagoak eta aberasgarriagoak bihurtuz.

II.2 Postestrukturalismoa

Postestrukturalismoaren manifestutzat jo izan da Derridaren *La structure, le signe et le jeu dans le discours des sciences humaines* (1966) lana. Bertan estrukturalismoari kritika egiten zion egilearen eta intelektuaren deszentralizazioa aipatzean. Ikergaia eta bere ingurunea, biak hartu behar zirela kontuan aipatzen zuen.

Korrante honen hasierak, garaiari dagokionez, bat egiten zuen, literaturan emakumearen irudia eta kultur arloan emakumearen bazterketa ikertzen hasi zeneko garaiarekin.

“Post” aurrizkiak ez du esan nahi denboran sekuentzialitatea denik, ere badena, baizik eta pentsamendu estrukturala gainditzen duela. Gainera, aurrizki horrek terminoari ere modernitatea ematen dio. Kritika postestrukturalistak zalantzan jartzen ditu sistemaren adierazleak.

Estrukturalismoak produktu kulturalen egituren ikerketa egiten du, baina ez du kontuan hartzen bere testuinguruak baldintzatzen duela eta horrexegatik interpretazio okerrak izan daitezkeela eta aurreiritzi asko egon daitezkeela. Estruktura osoa begiratu behar da esanahia zehazteko. Hizkuntza, ezagutzen produkzioaren parte moduan ulertzen dute estrukturalistek. Esate baterako, literaturan esanahia aztertzea baino, narrazioaren egitura aztertzen dute, modu horretan, beste lanekin (garai eta kultura ezberdinetakoak) alderatu dezakete eta horiekin loturak bilatu ditzakete. Testua ulertzeko objektuaz gain, objektu hori ekoizteko erabilitako ezagutza sistema aztertu behar da.

Estrukturalismoaren ideien abiapuntua de Saussurek 1916an idatzitako *Cours de linguistique générale* lana da. Bertan, hizkuntza ikerketaren objektu gisa aurkezten zuen. Egile honek baieztatzen zuenez, esanahia ez dago hitzetan, baizik eta hizkuntzaren egituren bertan. Pertsonak mugatuta daude egitura soziologiko, psikologiko eta linguistikoengatik. Hala ere, korrante honen ordezkari inportanteena Lévi-Strauss da.

Hala ere, Belsey (1980) gogoratzen duenez, postestrukturalismoak kontuan hartzen du irakurtzen denean ere esanahia sortzen dela. Hau da, esanahia ez da

bakarrik egileak ematen diona, baizik eta kontuan izan behar da irakurleak irakurtzean eraikitzen duen esanahia.

Eagletonek (1988) baieztatzen zuen estrukturalismoak erreferentea eta zeinua desberdintzen dituen heinean, postestrukturalismoak adierazlea eta esanahia banatzen dituela.

Alvarezek (2011) laburtzen du pentsamendu postestrukturalistak testuaren esanahia lortzeko, egilearen dezentralizazioa edo desegonkortzea bultzatu behar dela: testuaren analisia, kritika edota irakurketa irakurleak egingo du eta azken honen aurreiritzi eta sinesmenen arabera izango da.

Hauek izan daitezke pentsamendu honen oinarritzko hiru ideiak:

- 1) "Subjektua ez da izate hertsia, bakar eta koherentea. Generoa, klasea eta arraza bezalakoek tentsioa eta gatazka dakarzkio. Beraz, diskurtsoek osatzen dute subjektua.
- 2) Testuaren esanahi edo helburu bakarra ez da egilearena. Irakurle bakoitzak esanahi bana ematen dio testuari. Saussureren adierazle eta adierazia bikotearen artean adierazleak dauka nagusitasuna.
- 3) Kritikariak ikuspuntu desberdinak erabili behar ditu testuaren interpretazio anitzak lortzeko, euren artean gatazka sortzen bada ere (irakurlearen identitatea eta beste aldaera batzuk azaleratzeko)" (Alvarez, 2011, 26. or.).

Horrela, irakurleari erreparatzen dioten norabideak agertuko dira, hots, Harrera Estetikari dagozkionak.

Ondorioz, testu bateko kontraesanak eta paradoxak ateratzea irakurketa estrategia baten barruan kokatzen da. Esku artean dugun tesi honek hori egin du euskal haur eta gazte literaturako 144 liburuekin. Berrirakurketak egiterakoan esanahi desberdinak lortu daitezke.

Derridaren "*dekonstrukzioa*" printzipioak, kontzeptuen bilakaera historikoa aztertzeko testuaren analisia lehenesten du. Modu horretan, testuaren hutsuneak eta kontraesanak azaleratu ahal izango dira, alegia, egilearen asmoa eta testuaren esanahiaren artekoak plazaratzea. Dekonstruktioak ezagutza

sistemak, esanahi bakarra jasotzen duela deseraiki nahi du. Dena den, Martin Heidegger *destruktion* kontzeptua erabiltzen hasi zen lehenengo pertsona izan zen.

Carbonellek (2000), jasotzen duenez, Derridaren dekonstrukzioak testuak irakurriz, testuen printzipioak zalantzan jartzeko balio du. Horretarako beharrezkoa da testuen paradoxak erakustea.

Derridaren beste kontzeptu garrantzitsu bat “diferentziarena” da. Kontzeptu honekin mendebaldeko metafisikagandik (pentsamendu binarioa) ihes egiten du. Gauza batek ezin du beste bat sinbolizatu errepresentazioa anitza izan daitekeelako. Elena Gallardok honela jasotzen du UNED-en Literaturaren Teoriar buruzko gaien inguruko blog batean:

“El pensamiento metafísico, para Derrida, está contaminado porque no se fundamenta en categorías puras y exclusivas, sino en el binarismo obligado de las diferencias. Concebir la interpretación como una sustitución de cadenas de significantes implica que el discurso crítico deja de ser transparente: literatura y crítica no se pueden, entonces, separar. La teoría literaria es, ella misma, un texto. Para la Deconstrucción no existe un “dentro del texto” y un “fuera del texto”: no existe el metatexto ni el lenguaje transparente” (<http://peripoietik.es/hypotheses.org/568>).

III. KAPITULUA. Feminismoa eta generoa

III.1 Feminismoa

Feminismo kontzeptua Frantzian sortu zen (*feminisme*) eta beranduago, 1890ean Ingalaterran *womanism* kontzeptua ordezkatzeko *feminism* kontzeptua erabili zuten. Espainian, ordea, feminismo hitza aurrenekoz 1899an agertu zen Adolfo Posadaren *Feminismo* liburuarekin.

Aurrerago ikusi ahal izango denez feminismoaren definizio ugari daude. Hala ere, gehienek bat egiten dute gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzeko mugimendu soziala eta politikoa dela feminismoa. Mezak (2000) dioskunez, gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun soziala generoan oinarritzen da, dena den, horrek ez du esan nahi arrazak edota klaseak ahazten dituenik, generoa lehenesten duela baizik. Vazquezen (2010) ustez, feminismoak edozein esparrutan gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak salatu behar ditu, eta baita ere agerian utzi menderakuntzak eta menpekotasunak dakartzaten ondorio ekonomikoak, sozialak eta politikoak. Are gehiago, metodologia baten bitartez desberdintasun hauek enpirikoki aztertu daitezke

Beraz, feminismoak gizonen eta emakumeen arteko eskubideen ezberdintasuna kritikatzeko du eta emakumeen eskubideen sustapena aldarrikatzeko du.

Bestalde, *Harluxet* hiztegiak dio feminismoa emakumeen eskubideak eta estatusa zabaldu eta sakontzea helburu duen teoria eta mugimendu soziopolitikoa dela. Emakumeek patriarkatuaren baitan gizonezkoek osatutako giza taldearekiko mendekotasuna eta esplotazioa jasan eta jasaten dituen giza taldea osatzen dutela oinarritzat hartuz, bere sexuaren askapenerako gizarteak behar dituen aldaketak eragin nahi ditu feminismoak.

Lomasen (2004) liburuan ere feminismo terminoari buruzko definizioa biltzen da:

“Corriente de pensamiento y de acción política que vindica la igualdad entre hombre y mujeres. El feminismo constante la desigualdad por razón de sexo que conlleva una situación de inferioridad sociocultural de las mujeres frente a los hombres y defiende la igualdad de derechos y oportunidades entre los sexos” (Lomas, 2004, 235. or.).

Eta Sauk (1981) liburuan honela definitzen du feminismoa:

“El feminismo es un movimiento social y político que se inicia formalmente a finales del siglo XVIII -aunque sin adoptar todavía esta denominación- y que supone la toma de conciencia de las mujeres como grupo o colectivo humano, de la opresión, dominación, y explotación de que han sido y son objeto por parte del colectivo de varones en el seno del patriarcado bajo sus distintas fases históricas de modelo de producción, lo cual las mueve a la acción para la liberación de su sexo con todas las transformaciones de la sociedad que aquella requiera” (Sau, 1981, 121. or.).

Agian, definiziorik osoena, edo behintzat osoenetarikoa Freedmanek (2002) ematen du:

“El feminismo es la creencia de que las mujeres y los hombres inherentemente tienen el mismo valor. Como en la mayoría de las sociedades se privilegia a los hombres como grupo, son necesarios los movimientos sociales para lograr la igualdad entre mujeres y hombres, en el entendido de que el género siempre se intersecta con otras jerarquías sociales” (Freedman, 2002, 7. or.).

Definizio hauetan argi eta garbi geratzen da, feminismoa arlo sozialean, ekonomikoan, politikoan... gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna lortzea helburu duen mugimendu soziala eta politikoa dela eta emakumeak pairatzen duen zapalkuntza, opresioa eta esplotazioa sistema patriarkalaren ondorioa dela. Beraz, ez da feminismoa henbrismoarekin nahasi behar pertsona batzuk nahita edo ezjakintasunaren ondorioz egiten duten bezalaxe. Izan ere, henbrismoak bai gutxien duela gizona eta emakumezkoa gizonezkoaren gainetik dagoela uste du, eta modu horretan, ezinezkoa suertatzen da feminismoak helburu duen berdintasuna lortzea. Beste era batera esanda, henbrismoa matxismoaren baliokidea izango litzateke.

Bai euskal hiztegietan eta baita D.R.A.E.L.-en ere (Diccionario de la Real Academia de la lengua) matxismoa definitzen den bitartean ez da henbrismoaren definiziorik ageri. Hortaz, henbrismoaren definizioa osatzeko matxismoaren definizioa hartzen da abiapuntutzat:

“Machismo: Actitud de prepotencia de los varoenes respecto de las mujeres” (D.R.A.E.L., 2014).

Hori horrela delarik, Simonek (1999) henbrismotzat jotzen zuen emakumeen gehiegikeria gizonetikiko.

Ikerketa feministek salatu dute filosofiaren, psikoanalisiaren, erlijioaren edota zientziaren diskurtsoak, orokorrean, maskulinoak izan direla eta gaur egun, oraindik, badirela. Feminismoa emakumearen subjektu-posizio bazterketa gainditzera dator, hau da, berdintasuna lortzera. Hala ere, kontuan ere hartu behar da buruzagi feminista asko emakumeak izan diren arren, emakume guztiak ez direla feministak eta feministak guztiak ez direla emakumeak.

Teoria feministarekin jarraituz, 1960ko hamarkadatik aurrera sistema politiko, ekonomiko eta soziala kritikatzeko zuzten lan ugari argitaratu ziren eredu sexista eta androzentrikoa deseraikitzeke eta aldizkatzeak bilatzeko (Friedan, 1963; Laffitte, 1964; Millet, 1969). Garai horretan ere patriarkatuaren kontzeptua asmatu zuten.

Bestalde, eta aurrerago ikusi ahal izango denez, historian zehar feminismoak eboluzionatu egin duen pentsaera eta korronea izan da eta horren ondorioz feminismoaren barruan hainbat azpitalde sortu dira: feminismo kulturala, feminismo erradikala, ekofeminismoa, feminismo liberala, ezberdintasunaren feminismoa, berdintasunaren feminismoa, feminismo marxista, feminismo separatista, postmodernista, psikoanalitikoak, feminismo filosofikoa, feminismo kristaua, feminismo beltza, lesbiarra edota Queer mugimendua ere.

1980ko hamarkadatik aurrera bazterreko feminismoak (feminismo beltza, feminismo lesbiarra...) ugaritu ziren aurreko proposamenei kritika gogorak eginez, aurrekoen hutsuneak betez eta bide berriak zabalduz. Horrela feminismoari buruz hitz egin beharrean, feminismoari buruz hitz egingo zuten.

Dena den, feminismoa bera ere teoria kritiko multzo bat da hirugarren munduaren, masa kulturaren eta abarren teoriantzat. Teoria kritiko feministek emakumea historikoki subjektu baztertutzat nola itxuratu izan den eta itxuraketa hauek nola garai daitezkeen aztertzen dute. Esate baterako, hirugarren munduaren alorrean Spivak (1981) eta Minh-Ha-ren (1989) lanek

dekonstrukzioaren analisi epistemologikotik abiatuta emakumea hirugarren munduan subjektu bezala nola itxuratua izan den aztertzen dute.

Schweickartentzat (1998) eta beste kritikari feministentzat feminismoa ez da soilik mugimendu politiko bat, baita ere kulturala da aldatu nahi emakumeen jokaeran, pentsaeran eta sentitzeko eran eta horrela eragina du gizonen eta emakumeen bizitzan eta honen interpretazioan.

Hala ere, feminismoaren ikuspegitik, ez da begiramen berbera izan behar kultura guztiekin; izan ere, kultura guztiak ezberdinak dira eta batzuek berdintasuna eta giza eskubideen errespetua gehiago bultzatzen dute.

III.1.1 Feminismoa azken hamarkadetan

1945ean, Nazio Batuen Gutuna sinatzen da hiru helburu nagusirekin: etorkizuneko gerrak saihestea, aurrerapen ekonomiko eta soziala sustatzea eta emakumeen eskubideak babestea.

1948an Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren sinatzen da eta hitzaurrean ezartzen denez, pertsona guztiek izan behar dituzte eskubideak eta askatasunak, inolako bereizkeriarik egin gabe, hots, arraza, kolorea edo sexua edozein dela ere. Lehenengo atalean adierazten denez: “Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituztela; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute” (Unesco Etxea, 2008, 8. or.).

Eta bigarren atalean: “Gizaki orori dagozkio Aldarrikapen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheragatik. Ez zaio begiratuko gainera, pertsona zein herrialde edo lurraldetakoa den; ezta hango politikari, legeei edo nazioarteko egoerari, nahiz eta herri hori burujabea izan, besteren zainpeko lurraldea, autonomiarik gabea edo nola-halako burujabetasun-mugak dituen” (Unesco Etxea, 2008, 8. or.).

Aldarrikapen honen ostean emakumeak antolatzen hasi ziren eta hainbat konbentzio ospatu zituzten:

1952an Emakumearen Eskubide Politikoei buruzko Konbentzioa burutzen da.

1957an Emakume Ezkonduaren Nazionalitateari buruzko Konbentzioa egiten da.

1962an Ezkontzeko Oniritziari buruzko Konbentzioa egiten da.

1966an National Organization for Women (NOW) erakundea sortu zuen Betty Friedanek.

1979an Batzar Orokorrak Emakumearen aurkako Diskriminazio Era Guztiak Ezabatzeko Konbentzioa onartu zuen (Convention on the Elimination of all Forms of Discrimination Against Women CEDAW) eta 1981ean indarrean sartu zen. Bere 30 artikuluetan aldarrikatu egiten ditu, lege aldetik bete beharreko eran,

mundu guztiak onartutako printzipioak eta emakumeek leku guztietan eskubide berdintasuna edukitzea lortzeko neurriak. Beraz, Konbentzio orokor honek berdintasuna eskatzen du emakumeentzat esparru guztietan: politikoa, ekonomikoa, soziala, kulturala eta zibilean.

Konbentzioan tratatutako gaiak hauek dira: familia, ezkontza, amatasuna, prostituzioa, partaidetza politikoa, nazionalitatea, hezkuntza, enplegua, osasuna, eskubide zibilak, sozialak eta kulturalak, besteak beste.

Hortaz, Konbentzioak urteetan mugimendu feministak garatutako teoria batzuk jasotzen ditu emakumeen egoeraren hiru alderditan jartzen baitu arreta: 1) emakumeen egoera juridiko eta soziala eta eskubide zibilak, 2) sexu eta ugalketa eskubideak, eta 3) sexuen arteko harremanetan kultur faktoreek dituzten ondorioak. Hona hemen Konbentzioaren lehenengo bi artikulua:

Lehenengo artikulua:

“Konbentzio honi dagokionean, «emakumearen kontrako diskriminazioa» esapideak, sexuan oinarritutako edozein bereizketa, bazterketa edo murrizketa adierazten du, hots, emakumeari, bere egoera zibila gorabehera eta gizon eta emakumearen berdintasuna oinarri, esparru politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta zibilean edo beste edozeinetan, giza eskubideen eta funtsezko askatasunen aitormena, gozamina edo erabilera gutxitu edo ezeztatzeke helburuz edo emaitzaz egindakoa”.

Bigarren artikulua:

“Estatu Kideek gaitzetsi egiten dituzte emakumearen kontrako diskriminazio era guztiak, emakumearen kontrako diskriminazioa ezabatzeko politika bat, bide egokietatik eta luzatu gabe, jarraitzea erabaki eta, horretarako, gain hartzen dute honako hau:

a) Gizon eta emakumearen arteko berdintasunaren printzipioa finkatzea, oraindik egin ez badute, beren nazio konstituzioetan eta beste edozein legeria egokitan, eta, lege bidez edo bestelako bide egokietatik, printzipio honen gauzatze praktikoa segurtatzea;

- b) Emakumearen kontrako edozein diskriminazio debekatzeko neurri egokiak hartzea, legegintzazkoak eta bestelakoak, dagozkien zehapenekin;
- c) Emakumearen eskubideen babes juridikoa ezartzea, gizonenekiko berdintasunean oinarriturik, eta nazioko auzitegien edo eskudunen bitartez eta bestelako erakunde publikoen bitartez, emakumearen benetako babesa bermatzea edozein diskriminazio egintzaren aurka;
- d) Emakumearen aurkako inolako diskriminazio egintzarik edo praktikarik ez egitea eta agintari eta erakunde publikoek betebeharrak honi atxikiz jardun dezaten arduratzea;
- e) Edozein pertsona, erakunde edo enpresak emakumearen kontra egindako diskriminazioa ezabatzeko beharrezko neurriak hartzea;
- f) Emakumearen kontrako diskriminazioa egin dezaten lege, araudi, erabilera eta praktikak aldatu edo indargabetzeko beharrezko neurriak hartzea, are legegintzazkoak ere;
- g) Emakumearen kontrako diskriminazioa egin dezaten nazioko zigordapen guztiak indargabetzea.”

Emakumeen giza eskubideen bilakaera laburki erreparatu ondoren, Elizondok (1997) ondorio baikorrak eta ezkorrak aipatzen ditu: baikorrena emakumeen eskubideak Giza Eskubideen barruan integratu izana da eta ezkorrena sexuan oinarritzen den diskriminazioa gizarte-esparru gehienetan ematen da modu batean ala bestean. Lan luze eta gogorrari esker ordutik hona aurrerapen handiak lortu dira, esate baterako, hezkuntzan, lanbidean, bozka eskubidean, jabetza pribatua, seme-alaben zaintza, askatasun sexuarekin... baina oraindik ere berdintasunaren bidean lan handia dago egiteke.

Berdintasuna lortzeko lan horretan Urkaregik (2015) *Berrira* egunkarian aipatzen du feminismoa zehar-lerro moduan garatu behar dela eta jendartearen azterketa politikoa egiterakoan genero ikuspegiak, ikuspegi feministak eremu guztiak zeharkatu behar dituela eta arlo ezberdinetako partaideek, gizon zein emakume, beraien arloari dagozkion berdintasuneko politikak diseinatzea: arlo

sozioekonomikoa edota instituzionala, hirigintza, gizarte-politikak, irakaskuntza, kirola...

Feminismoak tesi honi egiten dizkion ekarpen nagusiak genero ikuspegia eta kritika literario feministaren sorkuntza da. Izan ere, genero-ikuspegiak ezinbesteko analisi- eta planifikazio-tresna da testuinguru zehatz batean gizonezko nahiz emakumezkoen arteko harremanei buruzko informazioa lortzeko: bien arteko ezberdintasuna sortzen eta birsortzen dituzten prozesuak, gaitasunaren asimetria-balorazioa, eta portaerak nahiz baliabide eta boterea lortzeko ezberdintasunak ulertzeko eta ondoren ezberdintasun horiek ezabatuko dituzten ekintzak diseinatzeko.

Beraz, genero-ikuspegiak errealitateak gizonezkoei nahiz emakumezkoei nola eragiten dien ikusi ahal izateko balio du, eta testuinguru zehatz batean gizonezko eta emakumezkoen arteko harremana nolakoa den ulertu ahal izateko ere balio du. Izan ere, genero-ikuspegia ez diskriminatzean datza eta burutzen den horretan emakumezkoak gizonezkoak bezala kontuan hartzea. Borrasek (2000) feminismoak bi helburu nagusi dituela aipatzen du: estereotipo sexistak salatzea eta gizarte anitza eta ez-sexistaren eraikuntza. Gainera, kritika literario feministak kultur munduan gizonen nagusitasunaren, boterearen eta hierarkiaren inguruan hausnartzen du.

Honi lotuta gure kasuan, euskal haur literatura modernoan, estereotipoak aztertuko dira umeen irakurtzeko dituzten liburuak berdintasunetik hurbil ala urrun dauden ezagutzeko eta bide batez era bateko edo besteko diskriminazioa detektatzeko.

III.2 Mikromatxismoak

Mikro aurrizkiak eta *matxismo* hitzek osatzen duten hitz-elkartu hau Bonino (1991) psikologoaren eskutik datorkigu, beraz, mikromatxismoaren kontzeptua nahiko “berria” dela esan daiteke. Berak honela definitzen du hitz hau:

“Microabusos y microviolencias que atentan contra la autonomía personal de la mujer, en los que los varones, por efecto de su socialización de género son expertos; socialización que, como sabemos, está basada en el ideal de masculinidad tradicional: autonomía, dueño de la razón, el poder y la fuerza, ser para sí, y definición de la mujer como inferior y a su servicio” (Bonino, 1995, 195-196. or.).

“Mikro” aurrizkiak ez dio kontzeptuari larritasuna kentzen edo ez da erabiltzen indarkeria gutxieteko, baizik eta Foucalten teoriarekin (1984) bat eginez, hautemanezina dela adierazteko erabiltzen da, beste moduan esanda, oso sotilak direnez zaila izaten dira ikusteko, ezkutuan dauden ekintzak, ondorioak, jarrerak eta indarkeriak. Eta beste batetik, “matxismo” hitza daukagu; gizarte harremanetan gizonaren nagusikeria adierazten duten jarreraren multzoa eta aldi berean, emakumeak gutxietsiz egiten dituen.

Modu honetan, gizartean dirauten matxismo-modu sotilak nekez antzematen dira. Boninoren esanetan, mikrotasunaren ordenan egunero ematen diren gizonetzko menderakuntza-jardun antzemanezinak dira mikromatxismoak; ikusezinak eta sotilak bezala definitzen dira eta hortaz, zaila izaten da hauek antzematea.

Normalean mikromatxismoa bikote-harremanetan ematen diren jarrerekin lotzen da, baina ezin da soilik bikote harremanetara mugatu, mikromatxismotzat hartzen dira gizon eta emakumeen artean egon daitezkeen erlazioak, bakoitzak duen tokia, batzuek eta besteek dituzten rola, lankideari hitz egiteko modua...beraz, liburu bat nola idatzita dagoen eta zer emakumearen eta gizonaren eredia islatzen duen mikromatxismotzat har daiteke.

Berdintasunaren alorrean lan asko dago egiteke, eta mikromatxismoak ikusaraztea da berdintasunaren helburua lortzeko urrats bat. Egia da erabateko berdintasuna ezinezkoa dela; emakumeak eta gizonak ezberdintzen dituzten

ezaugarri batzuk daudelako (sexualak) eta horregatik bereizketa ezin daiteke ekidin eta berdintasuna ezin da bermatu, baina gizarteak asmatu ezberdintasunak (generoa), aldiz, guztiz kritikagarriak dira eta horretan datza lan hau. Euskal Haur eta Gazte Literaturan ezkutuan egon daitezkeen mikromatxismoak agerian uztea, alegia. Horretarako, aztertu baita emakumeak duen irudia.

Eusko Jaurlaritzak, bere web orrian, Boninoren lanean oinarrituta hiru mikromatxismo mota aipatzen ditu:

- Mikromatxismo zuzenak: etxeko lanetan ez parte hartzea, lardieriatzea, etxeko lanaren balioa ukatzea dirua kontrolatzeko aitzakiapean, diruaren erabileraren berri ez ematea, aisialdiaz gozatzea emakumearen langainkargaren lepotik, etxea “bere gauzez” betetzea...
- Ezkutukoak hemen, menderakuntza-asmoa ez da hain argia, baina azkenean nahi dutena egiten duzu: etengabeko egozpenak, xantaia emozionalak, kasketaldiak, emakumearen ume-nahiarekin bat egitea baina ez zaintzea, beste batzuen aurrean etengabe egindako ezeztapenak, etxeko lanak egitean sortutako ahanztura selektiboak...
- Krisi-mikromatxismoak emakumeak jazarpena jasaten du, desberdintasunezko egoera itzuli dadin, emakumeak jabekuntza lortu duelako bizitzan edo gizonak lana galdu duelako. Halakoetan, honako hauexek izango lirateke estrategiak: pena ematea, emakumea bere arrakasten errudun sentiaraztea edo arrakasta horiek gutxiestea, urrunketa zigor moduan erabiltzea, kritika saihestea: “zeren kexu zara, horrelaxe ezagutu baninduzun?, opariak, azaleko aldaketak...

http://www.interior.ejgv.euskadi.eus/r42-4100/eu/contenidos/informacion/ez_isildu/eu_01/de_principes_y_princesas.html

Bukatzeko, Boninok iritzi duenez, mikromatxismoek emakumeengan ondorio kaltegarriak eragiten dituzte: emakumearen autonomia murriztuz, arazo psikologikoak sortuz, autokontzeptu eskasa izatea, segurtasun eza, errazago men egitea gizonezkoen aginduei... modu horretan gizonezkoen “nagusitasuna” eta “boterea” areagotuz. Berdintasuna lortzeko bidean mikromatxismoak

identifikatu behar dira eta jarrera horiek aldatu egin behar dira, transformatu egin behar dira, alegia. Bai eredu maskulinoetan zein femeninoetan.

III. 3 Teoria kritika literaria feminista

Metafora gisa, teoria kritika feminista desberdinak izendatzeko, olatuen terminoa erabiltzen da: lehenengo olatua, bigarren olatua eta hirugarren olatua. Metafora honekin adierazi nahi da teoria batzuk lehenago heldu direla besteak baino eta teoria horiek ezaugarri desberdinak dituzten arren, denek dutela amaiera (hondartza) berdina; denek bukatu nahi dute emakumearen zapalkuntza, bazterketa eta diskriminazioarekin.

Teoria kritika literaria feministaren historia motza, baina etengabeko eboluzioan egon da: edukietan zentratu ziren, hots, gizonezkoek eta emakumezkoek idatzitako testu literarioetan genero estereotipoak aztertuz eta emakumearen irudia arakatzuz edo beste hitz batzuekin esanda nola literaturak balio izan duen patriarkalismoa garatzeko edo sustatzeko. Baita ere, emakumezkoen idazkera eta hizkeraren azterketa egin zen eta aurkitu emakumeek idatzitako literaturan gai eta historia koherentzia bat zegoela, normalean patriarkal balioengatik ezkutatuta.

Aitzitik, honek ez du esanahi emakumeen idazkera bat dagoenik, baina ezin da ahaztu emakumeak talde sozial bat direla eta honegatik berezkoak eta komunean dituzten arazoak badituztela.

Showalterrek (1989) kritika literaria feministaren barruan bi joera desberdintzen ditu: literatura maskulinoan –emakumeen lanak baztertu barik- estereotipo femeninoak nola agertzen diren ikertzen dituena, “emakumearen irudia” axola zaiona. Eta bestea, arduratzen dena emakumea testu egile gisa; argumentuak, gaiak, formak eta komunezko generoak bilatzen dituena.

Teoria Kritika hitza singularrean, 1920-30 urteetan Frankfurt eskolak sortu zuen marxismoa, psikoanalisi eta Hegelen fenomenologia nahasiz. Teoria kritikoen ezaugarriarik nabarmenetako bat beren diziplinagabetasuna da. Hau da, giza zientzien edozein diziplinatatik mailegatzen dute "materiala" teoriarako.

Gabilondok (2013) teoria kritikoek modernitateak giza zientzien bidez instituzionalki eraiki duen subjektu forma modernoaren historia eta kritika izan nahi dutela esaten du.

“Hala, teoria kritikoek subjektu modernoaren eraikuntzarako garai modernoan sortu ziren espezialitate edo diziplina instituzional desberdinak errespetatu beharrean -literatur kritika edo psikologia lekuko-- erakunde-banaketen mugak gainditzen dituzte erreferentziazko puntu berritza modernitateak marjinatutako subjektu-posizioak hartuz. Hala, emakumea bada modernitateak baztertutako subjektu-posizio hauetako bat, psikologian, historian, literaturan, soziologian eta gainerako giza diziplinetan feminismoa deritzon teoria kritikoa ikusta dezakegu zeharka barreiatzen. Feminismoak ez baitu diziplina bakoitzean itxura desberdin bat, diziplinari egokitua, hartzen, aitzitik teoria kritiko bezala diziplina guztietan hedatzen da eta diziplina bakoitzak emakumea garai modernoan eta garaikidean nola historikoki marjinatu duen aztertzen eta kritikatzeko du. Hala feminismoak giza diziplina moderno bakoitzarekin kritikazko diskurtso teoriko bat hedatzen du. Gutxi gorabehera gauza bera gertatzen da beste subjektu ez-moderno guztiekin, hala nola hirugarren mundua, masak, homosexualak eta abar” (Gabilondo, 2013, 44. or.).

Bestalde, literaria hitzak literaturaz arduratzen duela adierazten duen bitartean feminista hitzak feminismoari dagokiola adierazten du.

Literaturaren barruan literatur kritiken ostean eta hauek gainditzeko 1960ko hamarkadan teoria kritikak agertzen dira eta hauen barruan teoria kritika feminista. Hala, Hummek (1994) azpimarratzen du kritika feminista eta kritika literaria feminista ez direla gauza berdinak; kritika feministak ideologia sozialekin zerikusia duen heinean, kritika literaria feminista arduratzen da nola ideologia eta praktika sozial horiek moldatzen dituzten testu literarioak, alegia, aztertzea literaturan nolako eragina duten. Hummek ere nabarmentzen du kritika literaria feministek azterketa bat egiterako orduan generoaren kategoria aintzat hartzearen garrantzia.

Hummentzat (1994) lau dira kritika literario feministaren giltzak:

-Literatur historiaren errepassoa egitea ikusteko nola agertzen diren irudikatuta emakumeak testuetan arau sozial, kultural eta ideologo batzuen arabera.

-Emakumeen ikusezintasunarekin amaitzea; emakume idazleak erakustea, alegia.

-Gizonek egindako lanak irakurtzera ohituta dagoenari irakurketa jarraibideak ematea.

-Irakurketa eta idazketa feminista bat sortuko duen kolektiboa esnatzea.

Beraz, hauek dira kritika literaria feministaren helburuak: alde batetik, azaltzea zeintzuk diren genero femeninoaren gutxiagotasuna ahalbidetzen edo bultzatzen duten egitura sinbolikoak, historian emakumearen ikusezintasunarekin eta ahots faltarekin bukatzea eta gaur egun duen papera erakutsiz.

Dena dela, kontua izan behar da edozein kritika literarioa baldintzatuta dagoela egilearen ideologiagatik, hau da, kritikatzailearen pentsaerak ere baldintzatzen du kritika bera, beraz, zeozer politikoa dela esan dezakegu. Gabilondok (1990) teoria kritika hiru paradigma epistemologikoz osatuta dagoela jasotzen du: marxismoa, psikoanalisi eta estrukturalismoa edo semiotika.

Semiotika feministak emakumea ikur moduan aztertzen du, emakumea konstruktua kultural bat izango balitz bezala hartzen duelako eta horrexegatik ikur hori suntsitzen saiatzen da.

Beste kritika mota batzuekin alderatuta- kritika psikoanalistarekin, marxistarekin edo estrukturalistarekin- kritika literaria feminista nahiko berria da. Izan ere, XX. mendeko bigarren erdialdean teoria angloamerikarrak (literaturan emakumearen irudiaz, emakumeak irakurle gisa eta literatura femeninoaz arduratzen ziren) eta teoria frantsesak (idazkera aztertzen zuten) hasiera eman zioten. Lehenengo taldeko izenik esanguratsuenak Betty Friedan, Germaine Greer eta Kate Millet dira eta bigarrenean Lucy Irigaray, Helene Cixous eta Julia Kristeva ditugu.

Teoria kritika literaria feminista ez da teoria bateratu bat, Golubov-ek (2012) aipatzen duenez, teoria literaria desberdinak daude: teoria literaria marxista, postestrukturalista, psikoanalitika, postestrukturalista, queer eta abar luze bat. Zerrenda luze honek dibertsitate ideologikoa, metodologikoa eta gaiak zabalak izatea eskaintzen dio teoria kritika literaria feministari. Baita ere egile honek ohartarazten du lan literarioa sortu den, zabaldu den eta irakurtzen den testuinguru soziokulturaletik isolatuta ezin dela ulertu, alegia, testua baldintzatu dezaketan eragileak kontuan hartu behar direla teoria kritika literarioa aurrera eramateko.

Helburuei dagokionez, Moik (1988) esaten duenez, kritika feministaren helburua beti politikoa da eta praxi matxistak salatu eta deuseztatzen ahalegintzean datza bere funtsa. Ildo honetatik Schweickartek (1999) aipatzen du ez dela literatura interpretatzeko modu bat, baita mundua aldatzeko era bat ere:

“No debemos olvidar que la crítica feminista es una forma de *praxis*. La cuestión es no sólo interpretar la literatura de diversas formas, sino también *cambiar al mundo*. No podemos dejar de lado la actividad de la lectura, pues es aquí donde la literatura se realiza como *praxis* y actúa sobre el mundo al obrar sobre sus lectores” (Schweickart, 1999, 123. or.).

Izan ere, kontu jakina da, sistema patriarkalak kulturen eta historian emakumea ezkutatuta mantendu duela, beraz, hori gainditzeko Gilbertek (1980) aipatzen zuen arlo guztietan emakumearen perspektiba berreraikitzearen beharra eta patriarkatuak ezarritako egoera eta testuingurua aldatzearen beharra; alegia, egoera soziala eta kulturala iraultzeaz aritu zen.

Vazquezek (2010) eta Morenok (1994) jasotzen dute teoria kritika literaria feministaren asmoa dela sistema patriarkalak isildutako eta baztertutako emakumeen bizipenak eta pertzepzioak literaturan aztertzea eta ikusgai jartzea diziplinarteko metodo baten bidez emakumea bere gorputzatik eta sexualitatetatik desjabetu duten mekanismoak, baita emakumearen egoera aldatzea ere.

Horretarako, teoria kritika feministak literaturan pertsonaien bidez, narratzailearen bidez, testuaren estiloaren bidez edota gaien bidez emakumearen esperientziaren irudikapena aztertzen du. Golubov-ek (2012) azpimarratzen du, emakumeak idazle gisa, irakurle gisa eta emakumearen errepresentazioa dela teoria kritika feminista guztien ardura eta kezka.

Generoaren ideologia diskurtsoan txertatzen da eta Barrettek (1980 eta 1985) salatzen duenez, kulturak sortzen eta erreproduzitzen ditu. Hortaz, generoaren ideologia egunerokotasunean topa daiteke kulturen, zinean, antzerkian, literaturan... Arlo hauek une oro balioak transmititzen dituzte ideologia sortuz eta ideologiak erreproduzitzen. Zavalak (1993) gogoratzen duenez, literaturak balioak eta balorazioak transmititzen ditu. Ondorioz, literatura ez da salbuespena izan eta lagundu izan du kultura dominatzailea indartzen ere bai.

Suarezek (2000) jasotzen duenez, teoria kritika feministak arreta ipintzen dio literaturaren eta ideologia patriarkalaren arteko elkarbizitzari. Bereziki ideologia hori testu literarioetan nola kodifikatzen den aztertuz, estiloan, literaturaren funtzionamendu mekanismoetan, generoetan eta literatura produkzioan eta kontsumoan. Eta ikertzaile feministek sistema patriarkatuak babesten duen ideologia sexista detektatzen dutenean ideologia kontzeptua marxisten sentsuan ulertu behar da:

“Percepción distorsionada de la realidad en función de unos intereses de clase, concepción que puede ser ampliada a cualquier deformación específica de la visión y valoración de los hechos condicionados por la necesidad de un determinado sistema de dominación” (Amorós, 1985, 22. or.).

Teoria kritika feministak historian zehar salatu izan du emakumezko pertsonaiek eskaini izan duten menderakuntza, pasibotasuna eta etxekotasuna. Horiek onartuak izan dira egia absolutu gisa. Gainera, kanon literarioak ez ditu soilik emakumeak baztertu, baita ere beste arraza eta klase batzuk ere; beraz, kanona maskulinoa izateaz gain, zuria, burgesa, heterosexuala eta mendebaldekoa dela esan daiteke. Mezak (2000) diosku, lan literario bat balioesteko irizpideak eta kanona historian zehar androzentrikoak izan direla. Gainera, denbora luzaroan kritika literarioa egin nahi izan zuten emakumeak irizpide, kanon eta subjektibitate maskulinoa izan dutela.

Bere adar guztiekin teoria kritika feministak hori zalantzan jartzen du eta adibidez aipatzen da emakume idazleen lanak txertatuz gero kanona berreraikitzea posible litzatekeela.

Puntu honetara ailegaturik, teoria kritika feministan bi norabide sortzen dira, alde batetik, kanon literarioaren berriro aztertzea ahalbidetuko duten irakurketak eta bestetik, ahaztuta dauden egileak berreskuratuz kanon txandakako bat ezartzea.

Showalterren (1985) arabera estereotipo femeninoen eta maskulinoen erabilerak mesede egiten dio talde dominatzaileari (gizon zuria, burgesa...). Hori gainditzeko sexismoari aurre egingo dion sentsibiltate kritiko bat garatzea beharrezkoa da eta bai emakumeek zein gizonek idatzitako literaturan

emakumearen irudikapenean arreta jartzea. Alegia, beste irakurketa bat eragitea eta testuetan agertzen den ideologiari kritika egingo diona.

lido berean beste teoria kritika feminista bat garatzen joan zen: emakume idazlea eta idazkera erresistentzia moduan. Emakumeen idatzitako literaturaren berreskurapena eta berrirakurketa. Korrante honek erakutsi du historian zehar badagoela emakume literatura indartsu bat. Hala ere, ezin daiteke hitz egin berezkoa den emakume literaturari buruz.

III.3.1 Kritika Feminista Angloamerikarra

Teoria honek gizonezkoek eta emakumezkoek idatzitako lanetan emakumezkoen irudiak aztertu izan ditu eta emakume idazleak.

Boto femeninoa legeztatu ondoren, 1960ko hamarkadara arte itxaron behar izan zen feminismoa mendebaldean indar handiz birsortzeko.

Moilek (1988) aipatzen duen bezala, hasieran Estatu Batuetan ordura arte aztertu gabe zeuden emakume idazleen lanak aztertzen hasi ziren, esaterako 1970an R. Morgane-ek argitaratutako *Sisterhood is Powerful: an Anthology of Writings from the Women's Liberation Movement* (1970) edo Kate Millet-en *Sexual Politics* (1969). Azken lan honetan, literatura lanen ingurune sozio-kultural zapaltzailearen azterketa burutu zuen, bai eta, gizonezkoen lanetan emakumeak zuen irudia (errepresentazioa). Guzti horren helburua sexu indartsuak sexu ahula zapaltzen zueneko prozesua bermatzen zen edo ez ikertzea zen, eta hori suertatzerakoan antzematea ea botere hori mantentzen zen edo ez. Emakume horrek, gizonezkoen talde batek emakumeak zapaltzen zituenean Politika sexual bezala hartzen zuen. Moik honela deskribitzen zuen Milleten lana: “un poderoso gancho al plexo solar del patriarcado” (Moi, 1988, 26. or.).

Beste lan garrantzitsu bat, Ellmann-ek 1968an idatzi zuena izan zen. Bertan, gizonezkoen idazkietan eta idazki kritikoetan agertzen ziren “emakumeen irudiak” aztertzen ziren, era horretan irudi estereotipatuen salaketa eginez. Baina Olaziregiren ustetan (1999), kritika feministari norabide sendoagoa eman zioten lanak honako hauek izan dira: 1976an Moers-ek idatzitako *Literary Women*, urte bat beranduago Showalterren *A Literature of Their Own*, non emakume nobelagile ingelesen tradizioa aztertzen zen eta Gilbert eta Gubar-en *The Madwoman in the Attic* (1979) liburuak. Liburu hauetan egileek XIX. mendeko idazleen azterketa egiten zuten, besteak beste, Jane Austen, Brontë ahizpak, George Eliot... Olaziregik dioskunez, liburu honen ekarpen nagusia sorkuntza artistikoaren ikuspuntu matxistaren salaketa izan zen, izan ere, sorketa artistikoa gizonezkoen soilik dagokien ahalmen gisara ikusi baitzen.

Hainbat idazlek, emakumeek literaturan zuten errepresentazioa, literatura femeninoaren tradizioa eta emakumeak irakurle gisa ikertu zituzten: Gillbert eta

Gubar *The Madwoman in the Attic* (1979), *Thinking about Women* (1968) Ellman edo Koppelmanen *Feminist Perspectives* (1972). Alde batetik, pertsonaiei dagokien maskulino-femenino ezaugarrien behaketa egin zuten. Horrela, aktibo/pasibo, indartsua/ahula, arrazionala/irrazionala binomioen artean gehienetan gizonezkoak lehenengo multzoan kokatzen zirela eta emakumezkoak bigarrenean agertzen zirela ondorioztatzen zuten. Bestetik, Gillbertek, Gubarrek eta Koopelmanek, “emakumeen esperientzia” bilatzeko, emakumeek idatzitako testuak miatu behar zirela zeritzoten.

1980an Kolodny-k emakumezkoek idatzitako nobelen ezaugarri estilistikoak zehaztu zituen. Teoria eta kritika feministarekin jarraituz, Showalterrek hainbat lan argitaratu zituen: *Towards a feminist poetics* liburua (1979) eta *Feminist criticism in the wilderness* artikulua (1981). Lan hauetan bi kritika feminista mota zeudelakoan zegoen, hurrenez hurren: lehenengoan, emakumea irakurle moduan aurkezten zuen, prozesu hau “kritika feminista” gisa izendatu zuen eta bestean, emakumea idazle gisara lantzen zuen, alegia, emakumezkoa sortzaile zen heinean aztertzen zuen, berak “ginokritika” zeritzona. Azterketa mota honetan emakumezkoek idatzitako testuen alderdi psikologiko, soziologiko eta historikoak aztertu behar ziren, hots, testuan eragiten zuten baldintza estraliterarioak arakatu behar ziren. Horregatik, Showalterrentzat kritika feministaren arazotariko bat gizonarenganako orientazioa zen. Estereotipoak bakarrik ikertuz gero, ez baitugu jakingo emakumeek sentitu eta bizi izan zutena. Showalterrek honako hau aipatzen zuen:

“Si estudiamos los estereotipos de las mujeres, el sexismo de los críticos varones y los roles limitados que tienen las mujeres en la historia literaria, no estamos aprendiendo acerca de lo que las mujeres han sentido y vivido, sino únicamente lo que los hombres han pensado que deben ser las mujeres” (Showalter, 1986, 130. or.).

Arazo hau gainditzeko “ginokritika” proposatu zuen. Horretaz aparte, azken artikulua honetan, Showalterrek egungo kritika feministaren lau joera nagusiak kritika biologikoa, linguistikoa, psikoanalitikoa eta kulturala zirela ere sostengatzen zuen.

Esandakoaz gain, Showalterrek pentsatzen zuen kanon literario femenino bat ezarri beharra zegoela kanon maskulino tradizionalari aurre egiteko. Eagletonek dakarkigunez, "The gynocritic dedicates herself to the female author and character and develops theories and methodologies based on female experience" (Eagleton, 1991, 9. or.).

Kritika angloamerikarraren ekarpenek garrantzia izan badute kritika feminista eraikitzerakoan, bere ekarpena, Olaziregik dioen moduan, batez ere politiko mailakoa izan da: "Jarrera marjinaletik kultura-kritika desberdinak burutzen dituzte feministek, eta sexu politika feministaren ostean, unibertsitate eta ikerketa guneetan sartzea lortu dute" (Olaziregi, 1999, 11. or.).

Moik (1988) uste zuen emakumea aztertu zitekeela gizonen lanen irakurle gisa, idazle bezala, "ginokritika" moduan, edota emakumeek idatzitako obren irakurle, kritikatzailer moduan.

Hala ere, korrante honek ez dio erantzuten korrante frantsesak zuen kexka bati, hau da, nola adierazten zen emakumearen esperientzia idazkeran.

III.3.2 Teoria Kritika Frantsesa

Teoria hau landu zuten adituek alde batetik emakumezkoen idazkera eta hizkeraren azterketa egin zuten, eta bestetik, imajinarioa eta sinbolo sistema aztertu zuten eta horretarako psikologian eta filosofian oinarritu ziren.

Mugimendu honek 1970eko hamarkadaren erdialdean indarra hartu zuen eta egilerik aipatuena Simone De Beauvoir da. Hala ere, beraien ekarpen handiengatik ezin dira aipatu gabe utzi Kristeva (1984); Cixous (1995); Irigaray (1974) eta Leclercen (1974) lanak. Feminista hauek Lacanen psikoanalisiaz, Derridaren *dekonstrukzioaz*, marxismoaz eta filosofia klasikoaz (Marx, Heidegger, Nietzsche, Kierkegaard) elikatu zituzten beraien obrak.

Feminismo frantsesak uste zuen psikoanalisiak emantzipazioa ekarriko zuela. Horrez gain, psikoanaliarekin batera, subkontzientearen behaketa, gizarte matxista bateko emakumearen zapalkuntza aztertzeke beharrezkoak zirelakoan zeuden.

Moilen hitzetan (1988) bi ekarpen egon izan dira teoria frantsesaren eztabaida feministan: emakumearen zapalkuntzaren jatorriaren nondik norakoak (Simone de Beauvoir) eta emakumeak literatura eta hizkuntzarekin izan duen harremana (Hélène Cixous, Luce Irigaray eta Julia Kristeva). Moilen ustez aipatzekoa da teoria frantsesaren “gehiegizko” intelektualismoa eta nortasun elitista ere.

Garai horretako gairik inportanteena “*desberdintasunaren*” ikerketa izan zen. Aurretik hainbat autorek landu izan zuten gai hau, hala nola, Kierkegaardek, Nietzschek, Deleuzek, Derridak edo Lyotar-ek. Deleuzek dioenaren arabera:

“El pensamiento moderno nace del fracaso de la representación, a la vez que de la pérdida de identidades, y del descubrimiento de todas las fuerzas que actúan bajo la representación de lo idéntico. El mundo moderno es el mundo de los simulacros” (Deleuze, 1988, 32. or.).

Mendebaldeko gizarteetan emakumearen egoera aztertu duen lanik osoena Simone De Beauvoirrena (1949) izan da. Honela laburtu daitekeena: historian zehar, emakumea gizonaren objektu soila izan da, emakumea gizonaren “Bestea” bilakatu da, bere subjektibotasuna ez onartuz. Sartrearen, Heideggerren, Kierkegaarden, Levi Straussen, eta Hegelen eragina nabarmena da filosofia

existentzialistaren lan pertsonal horretan. Lan honen pizgarria Sartrearen hitz hauek izan ziren: “ez zara gizon baten era berdinean hezia izan”.

De Beauvoirrek hasiera batean ez zuen bere burua feministatzat hartzen, sozialistatzat baizik, uste zuelako sozialismoa nahikoa izango zela emakumearen zapalkuntzarekin bukatzeko. 1972. urtean ELM-ko (Emakumearen Liberaziorako Mugimendua) kide izatera pasatu zen. Schwarzerrek dioen bezala (1984) feministak dira emakumeen egoera aldatzeko borrokatzen duten emakumeak eta batzuetan baita gizonak ere.

Emakumea gaua, itzala, koba, sena, lurra, misterioa, natura, erreprodukzioa, irrazionaltasuna bezala irudikatua izan da. Feminismoan Beauvoir izan zen *Bestea* kontzeptua aipatu zuen lehena. Historian zehar emakumezkoak gizonezkoen objektu huts izan dira. Feminista honen ustetan Bera sujetua da, bera absolutoa dena da eta emakumea, aldiz, Bestea da. Egile honen arabera, emakumea gizonarekiko determinatzen eta desberdintzen da, baina ez alderantziz, alegia, gizona beharrezkoa da eta emakumea ez. Emakumearen erreferentzia gizona izan den heinean, gizonezkoentzat ez da kontrakoa gertatu. Emakumearen estatua mendekoa da, behe-mailakoa. Hegelen jabea/esklaboa dialektikaren parametroetan kokatu zuen, De Beauvoirrek emakumea eta gizona. Olaziregik (1999) dioen moduan “ideologia matxistak emakumezkoa inmanentzia gisara eta gizona traszendentzia (beharrezkoa) gisara aurkezten digu” (Olaziregi, 1999, 11. or.). De Beauvoirrek modu honetan salatzen du patriarkatua:

“Desde los primeros tiempos del patriarcado consideraron útil mantener a la mujer en un estado de dependencia; establecieron códigos contra ella y así la constituyeron como Otra, lo cual servía a sus intereses económicos, pero también a sus pretensiones ontológicas y morales” (De Beauvoir, 1976, 237. or.).

Rodriguezek korrante honi buruzko errepasoa egiteko 1994. urtean artikulua idatzi zuen. *Bestea* aipatzen denean emakumearen bazterketaz eta hustasunaz ari gara. *Bera/Bestea* kontzeptuen alternatiba gisa feminismoan bi ikuspegi zabaltzen dira: bata, Beauvoir berak ordezkatzeko duena, *berdintasunezko feminismoa* (acceso a Lo Mismo) eta bestea, *desberdintasunaren feminismoa*. De Beauvoir azken honen kontra dago. Psikoanalistentzat *Bestea*, inkontziente

gisa hartutako zerbait, gure nortasun pertsonalaren oinarria da. Lacanentzat kontzeptu hori subjektuaren ernatzearekin, hizkuntzarekin eta errepresentazioarekin gainditu behar da.

Lacanaren norabide psikoanalitikoaren noranzkoa jarraituz eta De Beauvoirrengandik aldenduz, kritikagintza berria sortuko da, hain zuzen ere beren gorputza, inkontzientzia, bizipenak modu berri batean adierazteko desira zutenak.

Olaziregik (1999) hiru zutabetan laburbiltzen zuen De Beauvoirren pentsamendua: generoa kulturalki finkatzen zeneko ezaugarria zen, ez zen berezkoa (De Beauvoirren iritziz ez dago emakumezkoei berez datzekien idazmolderik), amatasunaren arazoa (amatasuna emakumezkoaren askapenerako oztopotzat jotzen zuen gehienetan, inposatutako amatasunak mendekotasunera bideratzen zuelako. De Beauvoirrek amatasun librearen aldeko apustua egin zuen) eta azken zutabea, emakumezkoa eta lana (emakumezkoaren askapenerako lana ordaindua izan behar zen, baina ez etxeko ama bezala, horrek esklabotza adieraziko lukeelako, etxe kanpoko lanak baizik, eta gainera, etxeko lanen sozializazioa eta banaketa egon behar zela ere aipatu zuen. Etxeko lanak partekatzeak gizartean iraultza bat ekarriko luke).

Nahiz eta De Beauvoirrek ez zuen hiztegi hori erabiltzen, Freuden ondorengo psikoanalisian oinarrituz, berarentzat generoa eraikuntza kulturala da eta sexua, aldiz, datu biologiko bat besterik ez zen. Honekin, De Beauvoirrek ez du esan nahi gizonak eta emakumeak berdinak zirenik. Berak emakume independenteen artean berezko jarrerak, sentimenduak eta gorputz fenomenoak (hilerokoa, haurdunaldia, erditzea, menopausia) edo gertaerak zeudela onartzen baitzuen. De Beauvoirrentzat amatasuna desabantaila bat zen, horregatik feminista batzuegandik kritikak jaso izan ditu, besteak beste, Kristevakarena, izan ere honek, amatasuna femeninoaren ezaugarririk gorenena zela uste zuen.

Beste alde batetik, historian zehar inposatu den mintzo logiko eta arrazionala irauli nahi duen protagonista da Cixous. Bere idazkera poetikoa eta metaforikoa izan da. Post-estrukturalismoaren eta Derridaren ildotik-ahotsa/idazkeraren arteko banaketa- bere liburuan, maskulinoa den diskurtso binarioa apurtzeko "emakumearen idazkera" berri bat bilatzearen beharra aipatzen zuen (1975).

Bertan emakumezkoek beren buruaz hitz egin, beren idazketa bereganatu eta bere gorputza berreskuratu behar zuten. Horrela, logozentrismoa eta mendebaldeko logika falozentrista suntsituko litzateke. Honi zeritzon, hain zuzen ere, sistema sinbolikoa iraultzea.

Irigarayk 1974. urtean *Spéculum de l'autre femme* tesia argitaratu zuen. Lan hori zela medio, Vincennesko Unibertsitatetik kanporatu zuten. Lan horren lehenengo zatian Freudek eta Lacanek falozentristoan oinarrituta, (beraientzat emakumeak ez zeukan berezko nortasunik, izan ere, bukatu gabeko gizonaren erreflexua da) feminitateaz egindako baieztapenak aztertzen eta aldi berean gaitzesten zituen. Bigarrenean, mendebaldeko filosofoen (Platonetik Marxera) teorien berrikuspena egin zuen.

Irigaray berdintasunaren borrokatik aldendu egin zen eta "*subjetividad femenina autonoma*"ren bilaketa aldeztu zuen. Historian zehar, diziplina guztietan, hizkuntzan edota psikologian maskulinoak femeninoa zer den definitu egin zuela uste zuen. Horrexegatik, berezko aitopenen beharra aldarrikatu zuen. Emakumearen desirak ez baitzuen gizonaren hizkuntza berdina erabiltzen.

Irigarayk (1992) lanean hizkuntza baten injustizia kulturalak aztertu nahi izan zituen, hain zuzen ere, hizkuntzaren gramatikan, lexikoan... agertzen den sexismoa.

De Beauvoirren esaldi famatuarekin bat egiten zuen: "Ez gara emakume jaiotzen, emakume "egin" egiten gara". Gizonak emakumea definitu zueneko ideia babestu zuen; De Beauvoirrentzat emakumeak (*Bestea*) ziren eta Irigarayrentzat, ordea, bai subjektua zein *Bestea, biak*, maskulinoak ziren.

Bestetik, Irigarayren eta Cixousen ikuspuntu esentzialistetik aldendu zeneko emakumea daukagu, Julie Kristeva. Bere *Revolution in Poetic Language* (1984) lanean hizkuntzaren erabilera sexistan oinarritu zen. Berak, hizkuntza berez sexista ez zela adierazi zuen. Pentsatzen zuen gizonezkoen hizkuntzaren erabilera estrategikoa zela aukera binarioetan garatzeko eta politikoa eta emakumea zapaltzeko.

Pentsaera matxistari aurre egingo zion idazkera berri baten beharra aipatzen zen. Modu honetan, idazkera salatzerako orduan, binario matxista zalantzan jarri

ez ezik, aldi berean salatu ere egiten zen. (guk aipatzen ditugunean esaldi sexistak)

Cixous, Kristeva eta Irigarayk emakumea presentzia adieraziko zuen (representar) hizkera bat sortzeko beharra sumatu zuten.

Ondorioz, Irigarayk hizkuntza anbiguo eta poetiko bat garatuko zuen idazkera femeninoa proposatu zuen. Bertan, orain arte isildutako gaiak jorratuko ziren, adibidez: haurdunaldia, erditzea, hilerokoa eta sexualitate femeninoa.

Frantsesek gizonen eta emakumeen arteko edozein desberdintasun ukatzen zuten. Beauvoirrek uste zuen edozein desberdintasun gizarte matxistak sortu duela, hau da, generoak eta bereziki, genero femeninoa.

Leclerc-ek (1974) uste zuen emakumeak hitza hartu behar zuela gizonak emakumearen inguruan isuritako hitzen okerrak gainditzeko. Emakumearen hitza asmatzearen beharra azpimarratu zuen. Balioen aldetik, egile honek uste zuen, eginkizun garrantzitsuenak etxeko lanak, zaintzak eta erreprodukzioa zirela. Emakumearen hizkerari dagokionez Silvina Alvarezek (2001) honako hau aipatzen zuen: "No surgirá un lenguaje femenino o un modelo de mujer, sino que revelará la pluralidad, la diversidad absoluta" (Álvarez, 2001, 258. or.).

Hala ere, hizkuntza erreferentzia bat izan daitekeen arren, hizkuntza, soilik, ez da modurik egokiena errealitatearen errepresentazioa burutzeko.

Ondorioz, nahiz eta hainbat egilek idazketa femeninoaren hipotesia plazaratu zuten, gure tesi honek, bereak egiten ditu Olaziregik 1999an "desberdintasun feminismoari" (Cixous edo Irigarayren lanei) egiten dizkion kritikak. Alde batetik, tesiak Woolf eta Beauviorrekin ideiarekin bat egiten du; bi emakume hauek emakumezkoen idazkeraren desberdintasunak hainbat baldintza eta eragin sozio-historiko-kulturalen ondorioz sortuak direla aipatzen dute. Azkenik, M. Marinik 1993an *El lugar de las mujeres en la producción cultural: El ejemplo de Francia* liburua aipatu beharko litzateke. Izan ere, zergatik uztartu behar ote da idazketa femeninoaren estiloa, estilo apasionatu, zatikatu eta pultsionalarekin bakarrik? akaso emakume guztiek berdin idazten al dute? "Bere (Mariniren) iritziz, gehiegi murriztu dugu idazketa logiko, arrazional eta orekatua eredu

patriarkal-maskulinoari atxikitzean eta hortik aldentzen den guztiari emakumezkoen berezko tasunak egoztean” (Olaziregi, 1999, 14. or.).

Beraz, idazketa femeninoaren berezkotasuna baino egilearen berezkotasunaz hitz egin beharko genuke, eta emakumearen berezkotasunaren ondorioz sortutakoa.

III.4 *Queer* mugimendua

Feminismoaren barruan badago korrante bat genero kontua auzitan jarri egin duena, borroka identitarioei kritika egin diena eta aniztasunaren aldarrikapena egin duena. Mugimendu horren izena *queer theory* da. Rodrigo Andresek (2000) *queer* teoriari buruz idatzitako artikuluan jasotzen duenez, mugimendu honen helburu nagusia homosexualitatearen ikerketa akademikoaren oinarritzko zutabea den heteresexual/homosexual binomioarekin apurtzea da.

Mugimendu honek generoa gainditu nahi du. Aldarrikatu nahi duena da eta gainera, kontuan izan behar dela emakume femeninoa eta gizon maskulinoa ez dela pertsonak daukaten izateko aukera bakarra, beraz, Lasartek (2012) jasotzen duenez, *queer* ikuspegiak ez ditu gizon eta emakume kategoriak onartzen.

Queer teoriak identitatea, botere harremanak eta arau sozialak egituratzen dituzten kultur kodeak- bereziki maskulino/femenino binomioa eta heterossexual/homosexual binomioa- aztertu nahi ditu.

Teoria honen barruan aipagarriak dira Sedgwick "*Epistemology of the Closet*" (1990), Fuss (2013) "*Essentially Speaking: Feminism, Nature and Difference*" eta Butler "*Gender trouble: Feminism and the Subversion of Identity*" (2011). Azken honek aipatzen zuen sexua, sexualitatea eta generoa errepikapen performatiboak direla. Beraz, Lasartek (2011) laburtu zuenez, genero identitatea errepikapen performatibo hori interpretatzera edota ikastera mugatuko litzateke.

IV. Generoa

Generoaz hitz egin aurretik gomendagarria litzateke testuingurua aipatzea. Androzentrismoan oinarritutako sistema patriarkal batean bizi gara (Sau, 1981, Amoros, 1991, Segarra 2000). Honek esan nahi du, sexuaren arabera pertsona bakoitzari jarduera, zeregin, harreman eta botere batzuk esleitzen zaizkiola, baina ikerketetan, Sauk (1981) dioskunez, gizonen ezaugarriak unibertsoren erdigunetzat, errealitatea ezagutzeko eta aztertzeke parametrotzat hartzen dira. Hortaz, banaketa horretan gizonezkoa emakumearen gainetik kokatzen da. Atal honetan zehar antzeman daitekeenez, gizartea antolatzeko sistema honen oinarriak gizonaren aginpidea eta boterea dira.

Emakundek 1998.urtean *“Genero ikuspegia garapen proiektu eta programetan barneratzeko gida metodologikoa”* ikerketetan genero-ikuspegia txertatzearen beharraz ohartzen gintuen justizia soziala lortzeko.

Kontua hartu beharrekoa da gizarte eta kultura baten barruan pertsonak sailkatzeko orduan irizpide nagusia sexua dela, baina sexua eta genero ez dira kontzeptu bera.

Are gehiago, genero kontzeptua 1970eko hamarkadan sortu zen sexuak ezberdintzen ez duena osatzeko. Sexua, gizon eta emakumeen artean dauden ezberdintasun anatomiko eta fisiologikoak adierazteko erabiltzen da. Generoa, berriz, kulturak eta gizarteak sexu-ezberdintasun horiei buruz egiten duten azalpena da, azalpen horren arabera, funtzio, espazio eta erantzukizunen banaketa konkretua egiten delarik. OXFAM (1997) erankundeak dakarkigunez, genero kontzeptuak gizarte bakoitzean sexu bakoitzari atxikitzen zaiona adierazten du, hau da, emakume eta gizon izatearen gizarte mailako eraketa, elkarren arteko harremana eta elkar harreman hauek ematen diren botere/mendekotasun egoera ezberdinak. Beneriaren arabera (1987), gizonezkoak eta emakumezkoak bereizten dituzten jarrerak, sentimenduak, portaerak, balioak eta abarrak biltzen dituzten eraikuntza sozialen multzoa da eta gainera, hierarkizatu egiten dira maskulinozkat jotzen direnei balio handiagoa emanez.

Egile batzuek, esate baterako, Westek eta Zimmermaenk (1987); Crawfordek eta Chafflinek (1997) eta Calak eta De la Matak (2006) baieztatzen dute generoa ez dela gizabanakoen jabetza, baizik eta gizakiok egiten dugun zerbait dela.

Crawford-ek (2006) proposamen bat prestatu zuen generoko sistema hiru mailetatik edo ikuspegitik aztertzeko:

- 1) Arlo soziokulturaletik: kontuan izanik generoa gizartea antolatzeko sistema bat dela, non botere handiagoa ematen zaion gizonari.
- 2) Harremanen arloa: generoa eguneroko bizitzako egoeretan gizona edo emakumea izateak esan nahi duena irudikatzeko prozesu dinamiko bat da. Modu desberdinetan jokutzen dutelarik.
- 3) Arlo pertsonala: generoa nortasunaren eta jarrera pertsonalen alderdi bat da.

Bestetik, Kincholoek eta Steinbergerek (1997) generoaren kultura arteko ezaugarriak laburtu zituzten honako ondorioak ateraz:

- Kultura guztiek leku eta jarrera apalagoa ematen diote emakumeari gizonari baino.
- Balio patriarkalek zuzentzen dituzte gizarteko jarduteak, eta balio patriarkalen xedea, azken batean, hauxe da: gizartearen antolamenduak bere horretan iraun dezan.

Feminismoak eragina izan nahi du eredu hori baldintzatzen duten faktore eta eragileetan; hezkuntzan eta literaturan besteak beste.

Bi arlo hauetan ere antzematen dira genero-rol eta gizonari zein emakumeari esleitzen zaizkien estereotipoak.

Estereotipoei dagokienez Turinek (1995), Daviesek (1994) eta Tomek (2001) baieztatzen dute gizona kontrolatzailea dela, adorea, independentea, arrazionala, bere buruarengan segurtasuna duela, indarra, erabakitze gaitasuna duela, apertasuna eta prestutasuna. Bere rola, *ekoizpen-rola* del; gizonak dira dirua eramaten dutenak, familia babesten dutenak eta zuzendaritza- erantzukizun- eta buruzagitza-postuak dituztenak.

Emakumeari, aldiz, honako estereotipoak atxikitzen dizkiete: mendekoa, hauskorra, sentibera, ikara, menpekotasuna, afektibitatea, ziurtasunik eza, ahultasuna, zalantzak, konplexutasuna eta zintzotasun eza estereotipoak esleitzen zaizkio. Bere rola, *ugalketaren-rola* da; emakumezkoak dira seme-alabak, etxea, gaixoak, familiakoak eta komunitatea zaintzeko ardura dutenak - besteen ongizatea zaintzen du-, gainera, maitasunerako joera du. Gizarte lanetan, psikologian eta gizarte-hezkuntza lanbide lanetan irudikatzen dira. Amatasuna heldutasunaren eta zoriontasunaren sinonimoa da eta edertasuna, gizarte-agindu bat da.

Banaketa honen ondorioz, gizonezkoek eta emakumezkoek ez dituzte aukera berak izan ezagutzak, ondasunak, diru-sarrerak eta eskubideak eskuratzeko.

Era berean, genero-rolak botere-harremanak sortu dituzte, eta azken horien gauzatze nagusia gizonezkoen dominazioa eta emakumezkoen mendekotasuna izan da.

Egoera honi konponbidea topatzeko feminismo mugimendua sortu zen. Feminismoa arlo sozialean, ekonomikoan, politikoan... gizonen eta emakumeen berdintasuna lortu nahi duen mugimendu soziala da. Borroka hau orain dela 200 urte baino gehiago hasi zen (1792. urtean Mary Wollstonecraft-ek *Una reivindicación de los derechos de la mujer* argitaratu zuen). Baina, nahiz eta, hortik hona aurrerapen handiak lortu diren, esate baterako, hezkuntzan, lanbidean, bozka eskubidean, jabetza pribatuan, askatasun sexualean... lan handia dago egiteke.

Hortaz, genero kontzeptuak maskulinitasuna eta femeninitasuna eraikitzekeo prozesu psikosozialari egiten dio erreferentzia. Prozesu hori pertsona baten sexua jakiten denean hasten da. Horrela, sozializazio prozesu bati esker pertsona batek izateko, sentitzeko eta jarduteko modu bat izango du.

Beste hitz batzuekin, generoa testuinguru kultural, sozial, politiko eta ekonomikoaren arabera izango dela aipatu daiteke eta horren ondorioz, bai gizonek eta baita emakumeek ere portaera eta funtzio ezberdinak izango dituzte.

Horretarako, gizonen eta emakumeen rola, ezaugarriak, jarrerak... ikertzeko, genero ikerketak EEBBetan hasi ziren 1970eko hamarkadan, hain zuzen ere,

mugimendu feminista berpiztu zenean. Espainiako estatuan, gai horretan erreferentea den Celia Amoros filosofoak 1980ko hamarkadan ekin zion generoa ikertzeari. Generoa eraikuntza kulturala baldin bada, Cobok (2005) dioskunez, nahitaezkoa da gizarte zientzietan ikerketagai izatea.

1970eko hamarkadako lehenengo ikerketen helburua faktore biologikoek ez dutela femeninoa dena baldintzatzen erakustea zen, hau da, Seyla Benhabib-ek (1990) baieztatzen zuenez, gizarteak sexuen arteko desberdintasun anatomikoen arabera eraiki dira, baina ezberdintasun horiek ez dira orekatuak izan arlo sozialean ezta arlo politikoan ere.

Horrexegatik, generoa terminoa sortu zen, adierazteko “maskulinoa” eta “femeninoa” dena ez dela naturala, alegia, eraikuntza kulturala eta soziala dela. Simone de Beauvoirrek adierazi zuenez, emakumea izaten ikasten egiten da.

Nahiz eta, XVII. mendean Poulain de la Barrek hiru artikulu desberdinetan hitz egiten zuen gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun soziala ez zela ezberdintasun natural baten ondorio, ilustrazio garaira arte itxaron behar da genero terminoa finkatzeko eta konturatzeko desberdintasun sozialak ez direla zeozer naturalak, zerbait historikoa baizik. Ilustrazio garaiko urte horietan, Jean Jacques Roussearen diskurtsoa daukagu *“El discurso sobre el origen y fundamento de la desigualdad entre los hombres”*. Gizon honek uste zuen, gizartea bi sexuetan banatu behar dela, beraz, bi espazio desberdinetan, horregatik gizonari espazio publikoa egozten zion eta emakumeari, aldiz, espazio pribatu eta etxekoa. Rousseren diskurtsoak kritikak izan zituen; esate baterako, Mary Wollstonecraftek Roussearen pentsamendu patriarkala kritikatu zuen.

XIX. mendean garai zaila izan zen emakumeentzat. Alde batetik, bozka eskubidearen aldeko borroka eta bestetik, misoginia erromantikoaren hedapena; bertan jorratu zuten emakumeak gizonak baino gutxiago direla. Hala eta guztiz ere, Stuart Millek (1869) *La sujeción de la mujer* bere lanean lagundu zuen emakumearen gutxiagotasunaren aurreiritziak desmuntatzen.

Behin bozkatzeko eskubidea eskuratu eta gero, 1949. urtera arte itxaron behar da generoren inguruan aritzen diren lanak antzemateko. Urte horretan, Simone de Beauvoirrek *Le Deuxième Sexe* liburua argitaratu zuen:

“No se hace mujer; se llega a serlo. Ningún destino biológico, psíquico o económico define la figura que resiste en el seno de la sociedad la hembra humana; es el conjunto de la civilización el que elabora ese producto...al que se califica de femenino” (de Beauvoir, 1981, 247. or.).

Lan horren ondoren etorri ziren 1970eko hamarkadan EEBBetan feminismoaren inguruan argitaratu ziren lan ugari, adibidez, Millet-en (1970) *Sexual politics*.

Femenino edo maskulino eraikuntza horri genero-identitatea esaten zaio; sexu bakoitzak zer-nolako esparrua hartzen duen, sexu bakoitzari zein kolore eta zein objektu egozten zaion edota zeintzuk diren bakoitzaren jokabide-arauak. De Barbierik (1992) iradokitzen zuenez, genero sistemak sexu ezberdintasunetik abiatuz gizarteek eratzen dituzten jarduera, sinbolo, irudikapen, arau eta balio sozialen multzoak dira. Hauei guztiei egiten die erreferentzia genero-identitateak.

Oro har, eta arestian aipatu bezala, hauek dira gizonezkoei genero-identitate maskulinoaren arabera esleitzen zaizkion izaerak eta sentierak: independentzia, arrazionaltasuna, segurtasuna, indarra, ausardia, erabakitzeko gaitasuna...

Ostera, genero-identitate femeninoaren arabera hauek dira emakumeari esleitzen zaizkion izaera eta sentiera batzuk: dependentzia, irrazionaltasuna, ziurtasunik eza, ahultasuna, ikara, afektibitatea...

Beste alde batetik, emakumezkoari (ugalketaren rola) etxeko ardurak eta zaintzak (seme-alabak, gaixoak, komunitatea) ezartzen zaizkion heinean, gizonezkoari (ekoizpen rola) etxera dirua ekartzen duenaren rola ezartzen zaio, familia babesten duena eta erabaki eta ardura garrantzitsuak dituen da.

Esparruari dagokionez, emakumeari espazio pribatua esleitzen zaio eta gizonari, berriz, espazio publikoa.

Gainera, lanbideei dagokienez, emakumearen lanbideak nahiko mugatuak izaten dira eta gizarte-lanean edo gizarte-hezkuntzan kokatzen dira. Gizonena, ordea, anitzagoa izateaz gain, erantzukizun handiagokoak izaten dira eta buruzagitza-postuak izanen dituzte.

Ondorioz, genero-rol hauek botere-harremanak sortu dituztela esan daiteke; gizonezkoen dominazioa eta emakumezkoen mendekotasuna.

Genero-rolek, beraz, genero-ikuspegiaren oinarria den giza-eskubideen onarpena eta errespetuaren aurka egiten dute. Eskubide horiek balio unibertsalak dira pertsona guztientzat, haien sexua, sexu-orientabidea eta etnia edozein delarik ere (Lagarde, 1996).

Dena den, Finnidak (1995) dioskunez, emakume eta gizonen zeregin estereotipatuak ez dira onartu behar azterketarik egin gabe. Egilea berak dio genero azterketa egitea egokia dela edozein ikerketa-proiekturen aurrean. Genero-ikuspegiak emakume eta gizonen arteko harreman, zeregin eta erantzukizun horien ezberdintasunei buruzko ezagutza zehatzak aztertzen laguntzen duelako.

Bukatzeko, De Barbierik (1992) salatzen du indarrean dagoen sexu-genero sistemak emakume eta gizonen arteko botere harreman desorekatua sortzen duela eta honek zerikusi duela ezagutza, jabetza, diru-sarrera, erantzukizun eta eskubideen banaketa desorekatuarekin. Beraz, desoreka sozialaren izaria du.

IV. 1 Genero identitatearen eraikuntza

Ikuspegi soziologiko batetik, pertsona bakoitzak bere burua genero batekin identifikatzen du, gainera, beste pertsonak ere genero bat ezartzen diote pertsona horri. Gainera, kontuan hartu behar da, ezarritako genero hori ez dela zertan biologian edo sexualitatean oinarritua.

Ikuspegi antropologikotik begiratuta, Cear-Euskadik (2009) bere hiztegian jasotzen duenez, generoa gizarte bakoitzak desberdintasun sexualari buruz egiten duen interpretazio kulturala eta historikoa da, hortaz, genero-identitatea gizarte bakoitzak feminitatearen eta maskulinitatearen berezko gisa definitzen dituen ezaugarriak hartuz osatuko litzateke.

Pertsona bat jaiotzen denetik, bere genero identitatea eraikitzen hasten da; neska edo mutila izatearen ondorioz bakoitzari dagozkion genero rolak eraikitzen ditu; hau da, eraikuntza prozesu hau luzea eta soziala da. Luzea da, bizitza osoan zehar ematen den prozesua delako. Soziala da, gizarteak eragina duelako prozesu horren eraikuntzan, komunitate batekin lotzen gaituztelako eta desberdintasun bat baietsiz eraikitzen direlako. Vieytezek (2011) aipatzen duenez identitatea hainbat elementu komun dituen giza talde bateko kide izatearen sentipena da, eta hori benetakoa edo irudizkoa izan daiteke.

Alvarezek (2011) aipatzen duenez, genero identitatean egitura sozial ezberdinek eragina izango dute, besteak beste, talde etnikoa, lanbidea, erlijioa, familia. Haez gain, sozializazioa prozesuan eta genero-soziala eraikitzeko orduan eragile sozializatzaile -sozializatze funtzioa betetzen duten erakunde, pertsona edo bitartekoak- gisa ikastetxea eta komunikabideak ere kontuan hartu behar dira.

Familiatik datoz lehendabiziko erreferentziak, haurtzarotik gure familia-giroko rolak eta estereotipoak behatu eta imitatzen ditugu. Familiaren ondoren, pertsonon lehendabiziko sozializatzeko-esparrua ikastetxea da. Komunikabideek eragin handia dute pertsonon portaeran, kontsumoan eta modan. Askotan, eredu horiek erabat sexistak izanik. Egitura sozial horietan guztietan genero-rolak agertzen zaizkigu.

Horrela, nahiz eta kultur ezberdinetan desberdinak izan, genero identitatearekin batera genero-rolak agertzen dira, hots, “maskulinoztat” eta “femeninoztat” hartzen diren jarrera, balio eta portaerak. Hortaz, genero identitatea osatuko litzateke gizarte eta kultura bakoitzarentzat feminitatearen eta maskulinitatearen berezko ezaugarriak hartuz. Genero-identitatearen kontzientzia hartzearekin batera *genero-estereotipoak* eskuratzen dituzte neskek eta mutilek.

Eusko Jaurlaritzaren sexu- eta genero-aniztasunari buruz informazioa eta arreta emateko zerbitzua den Berdinduk (2010) pertsonak genero-identitatearen edo sexu-identitatearen arabera hiru taldetan sailka daitezkeela ezartzen du:

- Zisexuala: Genero-identitatea edo sexu-identitatea bat dator jaiotzean esleitutako sexuarekin. Pertsona bere sexu biologikoarekin identifikatzen da, argi eta garbi.
- Transexuala: Genero-identitatea edo sexu-identitatea ez dator bat jaiotzean esleitutako sexuarekin edo sexu biologikoarekin, eta pertsona beste sexuarekin identifikatzen da, argi eta garbi.
- Intergeneroa, transgeneroa edo gender-queer-a: Genero-identitatea edo sexu-identitatea ez dator bat jaiotzean esleitutako sexuarekin edo sexu biologikoarekin, baina ezta beste sexuarekin ere. Pertsonak ez du bere burua ez gizontzat ez emakumetzat jotzen (ez dago guztiz seguru behintzat), edo bi sexuekin identifikatzen da aldi berean.

Bi urtetik aurrera umearen genero kontzeptuaren garapena hasten da. Adin horrekin neskek eta mutilek bi kategorietako bat esleitzen diote euren buruari, modu horretan, haurren jokaerak edo balorazioak estereotipatuak izaten dira. Hala ere, hauek ez dira bizitza osoan zehar egonkorrak izan behar.

Espinosak (2005) aipatzen duenez, umeak lehen hezkuntza hasieran konturatuko dira sexu identitatea, nortasun bereizgarri iraunkor bezala ulertzen, normalean eta salbuespenak salbuespen, denboran zehar egonkor iraungo duena. Jabetze prozesu horren baitan ulertuko dute identitatea ez dela jantzien edo apaingarrien araberakoa, sexu biologikoaren araberakoa baizik.

Gainera, neska-mutilek oso gaztetatik sexu biologiko bereko lagunekiko lehentasuna erakusten dute, lehentasun horiek urteak igaro ahala areagotu egiten dira, generoen arteko desoreka iraunaraziz

Genero-identitatearen kontzientzia hartzearekin batera *genero-estereotipoak* eskuratzen dituzte neskek eta mutilek txiki txikitatik. Izan ere, haurrek, jaiotze bezain laster –baita aurretik ere- tratu desberdina jasotzen dute batzuentzat eta besteentzat sexu biologikoaren arabera jokoera eta itxaropen desberdinak sortzen dituelarik.

Murgibek (2009) Altsasuko udaleko berdintasun gaitegia egiterako orduan gure genero-identitatea osatzen duten lau alderdi soziokultural nabarmentzen ditu: Gaitasunak, sozietate-balioak, estereotipoak eta generoaren arabera rolak.

Gaitasunak bizitzan zehar ikasitakoari esker aldatzen diren pertsona guztien potentzialtasunak dira. Hortaz, gai objektibo zein indibiduala da eta sexua aldagaitik bereizita.

Balio-sozialak gaitasunen garapena ahalbidetzen duten eraikuntza-sozialak dira. Historian zehar, emakumeei eta gizonei balio desberdinak transmititu zaizkie, eta, horren ondorioz, gaitasun desberdinak garatu dituzte, genero-rol desberdinak ere praktikan jarri.

Estereotipoak pertsona edo talde bati buruz aurretik ditugun ideia, jarrera eta balioak dira, eta adin, sexu, etnia edota bestelako ezaugarri batzuen arabera aldatzen direnak. Estereotipoak eta genero-aurreiritziak belaunaldiz belaunaldi transmititzen dira sozializazioaren bitartez. Irrazionalak, okerrak eta errealitatearen sinplifikatzaileak dira. Gainera, gizartean hain barneratuta egonik oso zailak izaten dira aldatzea. Horretarako denbora asko eta pedagogia handia beharrezkoa delarik.

Generoaren arabera rolak sozietateak emakumeei eta gizonei esleitzen dizkien eginkizunak eta aukerak biltzen dituzte.

IV. 2 Sexismoa hizkuntzan

Egia da kopuruari dagokionez euskara eta sexismoa lotu izan dituzten lanak ez direla ugariak izan Euskal Herrian. Erakunde publikoen eginikoak aipatzearren, Emakunde erakundeak argitaratutakoak ditugu: *El lenguaje instrumento de progreso* (1992), *Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak* (1998) eta *Generoaren ikuspegia komunikazioan eta irudi korporatiboan* (2004). Hainbat udalerrik edo Diputaziok lan hauetaz baliatu eta elikatu dira hizkuntzaren erabilera ez-sexistaren inguruko gidak egiteko, hala nola, Santurtziko udala edo Gipuzkoako Diputazioa. Bestetik, gai honen inguruan Agurtzane Juanek *Jakin* 65.zenbakian argitaratutako “Hizkuntza sexismoa eta euskara” (1991) artikulua dugu, egilea García Meseguer-en *Lenguaje y discriminación sexual* obran oinarritu zen eta beste lan aipagarria Miren Azkaratek (1993) idatzitako “Emakumea eta euskara” artikulua da.

1970eko hamarkadan hasi ziren nazioartean hizkuntza eta sexismoari buruzko ikerketak garatzen. Gehienbat Ipar Europako hizkuntzak eta saxoniarrak ikertu dira, hizkuntza erromantikoetan lan gutxiago egin delarik. Baina nahiz eta aspaldikoak izan hizkuntzak eta sexismoa lotzen dituzten ikerketak, gaur egun, oraindik ere garrantzia handiko gaia da bai ikerketa arloan nola dibulgazioan eta horren lekuko daukagu, esate baterako, 2013an EITBko *Tribuaren Berbak* programa, non Kike Amonarrizek sexismoa eta euskara izan zituen ardatz. Bertan hainbat adituk parte hartu zuten.

Juanena (1991) idazleak zera zioen: “*Kultura sexistatik mintzaira sexista dator, eta mintzaira sexistak iraunarazi egiten du sexismoa kulturean*” eta Barquinek (2008) “*Euskararen erabilera ez sexista*” idatzi zuen idazleak, bertan aipatu zuen berak ez zukeela esango euskara sexista denik, baizik eta gakoa erabileran dagoela, hau da, erabilerak izan daitezkeela sexistak, edo arrazistak.

Bestalde, hizkuntzaren egoera sozialaren ondorioz, programa horretan Sarasola (2013) idazleak eta hiztegi-gileak esan zuen gizartea matxista den heinean, hizkuntza ere matxista izango dela; eta gizartea aldatzen den neurrian, hizkuntza aldatzen joango dela. Sarasolaren iritziz, indarra egin beharra dago ideologikoki

matxismoaren kontrako gizartea lortzeko eta idazkera sexista erabiltzeak traba egiten baitu gizon-emakume aukera-berdintasunera ailegatzeko.

1990eko hamarkadaren hasieran Emakundek, gai honetaz kezkatuak (euskara eta sexismoa), *Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak* argitaratu zuen (1988), bertan, deia luzatu zuen euskaraz sexistatzat har daitezkeen erabilerak detektatzeko eta horrelakoak ekiditeko proposamenak egin zitezkeen. Azken finean, hizkuntzak emakume eta gizonezkoak berdin har ditzan.

Bestalde, Azkarateri (1993) gustatuko litzaioke emakumeak gizartean eman dituen aurrerapauso horiek hizkuntzan ere isla izatea eta horretarako, gai horretan guztiok dugun "sentiberatasuna" zerikusit handia izango duelakoan dago.

Kulturak maskulinoaren eta femeninoaren eredu edo arketipoak transmititu dizkigu. Kultura bakoitzean, emakumezkoari buruzko ideia, ohitura eta sineskerasorta bat dago eta bestelako bat gizonezkoari buruzkoa. Horrela, sexismoa emakumeek eta gizonek duten sexuaren arabera balio, gaitasun, rol eta jardura ezberdinak egokitzen zaizkie. Gehienetan emakumezkoen zereginak gutxien direlarik eta gizonezkoenak onesten, berauenak direlako garrantzia dutenak eta egokiak. Sauk (2000) *Diccionario Ideológico Feminista* liburuan modu honetan definitzen du sexismoa:

"Conjunto de todos y cada uno de los métodos empleados en el seno del patriarcado para poder mantener en situación de inferioridad, subordinación y explotación al sexo dominado: el femenino" (Sau, 2000, 257. or.).

Hizkuntza pertsonen artean komunikatzeko zeinu sistema bat da, ezinbestekoa da gizakiaren garapenean, beraren bitartez errealitatea izendatzeko, interpretatzeko eta sinbolikoki eraikitzeko; hala, kontuan izan behar da hizkuntza lotuta dagoela ere pentsaerarekin. Hizkuntza modu ezberdinetan topa daiteke: ahozkoa, idatzia, irudi, zeinu edo gorputzaren bidez.

Hizkuntza batzuetan, maskulinoa eta femeninoa dikotomia desberdintzen dutenez, Garcíaen arabera (1988) hizkuntza maila desberdinak daude, esate

baterako, ikerlari honen ustez, euskararen zama sexistak % 5 da, ingelesarena % 15, frantsesarena % 40 eta gaztelaniarena % 80.

Beraz, nahiz eta aurreko paragrafoan aipatu den bezala maila ezberdinak dauden hizkuntzak, berez, ez dira sexistak eta erabilerak, ordea, bai. Alabaina, hizkuntza batzuetan lan handiagoa izango dute sexismoa desagerrarazteko.

Hainbat lanek baieztatu dutenez, hizkuntza parametroei erreparatuz hizkuntzak sexistak ez izateaz gain, ez dago harremanik hizkuntza baten gramatikaren eta gizartearen emakumearen egoeraren artean. Hala ere, hizkuntzaren erabilera sexistak, gizartearen sexismoaren isla izan daiteke, gizonaren alde ageriz eta emakumea ezkatuta utziz.

Egia da euskara genero hizkuntzarik ez duela, baina honek ez du esan nahi sexistak ez denik, izan ere, zenbait ikerketek (Emakunde, 1988, Juanena, 1991, Azkarate, 1993, Alvarez, 2004) baieztatu dute, euskarak baduela genero bereizketa. Gainera, ez da zuzena esatea generoa daukatenak sexistagoak direla besteak baino, baina erabilera sexistak errazten dute.

Horrexegatik, Emakundek (1988) *Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak* lanean androzentrismoak eta sexismoak eragindako hizkuntza erabilera okerra antzemateko eta zuzentzeko aholkuak ematen ditu hizkuntza zuzenago bat erabiltzeko.

Androzentrismoak eragiten dituen akatsik ohikoenak bi dira: Emakumezkoak era batera edo bestera ezkatzea edo desagerraraztea eta gizonezkoek ekintzaren ardatz eta erreferentzia gunetzat hartzea, eta emakumezkoak mendeko edo agindupeko.

Sexismoak eragiten dituen akatsik ohikoenak, hortaz, honako hauek dira: Nolako sexua halako tratamendua, emakumeak adingabeen modura, ezaugarri ezberdinak gizonentzat (adimenari lotuak) eta emakumeentzat (estetika) eta emakumea aipatzea deskalifikatzeko, aipu iraingarriak emakumezkoen edota berauei aitortzen zaizkien balio, portaera eta jarreraren aurka.

Emakunde erakundeak honekin lortu nahi duena zera da hizkera androzentrista bat ez erabiltzea eta hizkera ez-sexista bultzatzea.

Hizkuntzaren erabilera hobetzeko ahalegin hau ez da berria; hainbat argitalpenek egiaztatzen dute hori, eta horietan arrazoiak azertu eta proposamenak egin dira, hizkuntzaren erabileran sexismoa eta androzentrismoa saihestearren. Hemendik urrun ez joatearren, Emakunde erakunde honek argitaratutakoak eta gaia era orokor batean jorratzen dutenak izendatu daitezke:

Argi dago erakundeen aldetik hainbat ahalegin egin direla jendarteko sektore anitzeko profesionalek hizkuntzaren erabilera ez androzentrikoak eta ez sexistak ezartzeko. Emakundek (1996) *Emakumeentzako Ekintza Positiboen II. Planan* gogorarazten du behar-beharrezkoa dela hitz egiteko eta idazteko modua aldatzea, bai emakumezkoek bai gizonezkoek gure gizarteari egin dioten eta egiten dioten ekarpena agerian gera dadin. Horregatik garrantzitsua da idazleek beraien lanetan ahalegin eta aholku horiek kontuan izan dituzten eta jokabide hauek guztiek eragina izan duten idazleen lanetan aztertzea.

Bukatzeko, ados gaude esaten denean hizkera aldatuta ez dela emakumearen egoera hobetuko, baina lan horretan bai lagundu dezakeela eta horregatik bide horretan haurtzarotik hasi behar dugunez, garrantzitsua eta beharrezkoa iruditzen zaigu gure neska mutikoek irakurtzen dutenaren azterketa hau, zertan ari garen eta norabide zuzenean goazen jakiteko. Hizkuntzak errealitatea izendatzeaz gain, interpretatu eta sortu ere egiten du, horrexegatik, beharrezkoa da bi sexuak berdin balioesten dituen hizkuntzaren erabilera, egun hizkuntza sexistak emakumeak ezkututzen dituelako.

IV. KAPITULUA. Sozializazioa

Modu orokor batean ulertuta, norbanako bat bere gizartearen kulturen sartzeko prozesuari deitzen zaio sozializazioa edo gizarteratzea, gainera, norberaren identitatea (besteak beste genero identitatea) eta nortasuna garatzeko beharrezkoa da. Sozializazioaren bidez, biologikoki sortutako gizabanakoa gizarte- eta kultura-gizaki bihurtzen da, alegia, gizatiartu egiten da (Taberner, 2008).

Egunero eta etenik ez duen prozesua da eta bertan eragile desberdinek parte hartzen dute. Andersenek (1988) aipatzen duenez, genero sistemaren existentziarako erabakigarria da sozializazioa, izan ere, sexu bati dagozkion ezaugarriak barneratu egiten dira eta beste sexuari dagozkionak adorebagatu. Gainera, nahiz eta kultura eta leku desberdinetan emakumeenganako zapalkuntza eta desberdintasun maila ezberdina izan, gizarte garaikideetan emakumeen egoera orokorra ez da gizonen parekoa, beti okerragoa da (Chafetz, 1984 eta Meer, 1994).

Pertsonak txiki-txikitatik barneratzen ditu sozialki eraikia izan den errealitatea; barneratze prozesu hori batzuetan kontzienteki egiten da eta beste batzuetan, aldiz, inkontzienteki.

Haurren bilakaera inguru fisikora bezainbat inguru sozialera egokitzean dago (Piaget, 1977) eta besteak beste, liburuen irakurketak lan horretan lagundu egiten duela antzeman daiteke. Yuberok (2004) bi arrazoi aipatzen ditu sozializazioa eta irakurketaren artean harreman estua dagoela esateko: alde batetik, gizarte batek ezarritako balioen, sinesmen eta arauen ezagutzan eta barneratze-prozesuan laguntzen dutelako eta bestetik, pertsonei kritikotasuna garatzeko elementuak eskaintzen dizkiolako.

Bi sozializazio mota edo era bereizten dira: oinarrizko sozializazioa eta sozializazio osagarria.

Alde batetik, oinarrizko sozializazioa: gizakiaren lehenengo sozializazioa haurtzaroaren lehenengo urteetan familiaren esku egoten da eta bertan gizarteratzeko lehenengo ikaskuntzak barneratzen dira: hizkuntza, oinarrizko balioak, pentsamenduak, sineskerak, estereotipoak... Lehen mailako

sozializazio honetan osagai normatibo, afektibo eta kognitiboen barneratze goiztiarra izaten da, non gizabanakoak gauzen ordena natural ezarri gisa onartzen duen (Berger eta Luckmann, 1986).

Eta bestetik, sozializazio osagarria, hemen, berriz, beste agente batzuek parte hartzen dute, hala nola, eskolak, lagun-taldeak, eskolaz kanpoko ekintzek eta taldeek... beste era batera esanda, hezkuntza formala, ez formala eta informala. Horietan ere, norbanakoak beste ikaskuntza batzuk barneratzen ditu: elkarbizitza, arauak, ardurak, balioak, rola... prozesu horren bidez, lanabanaketari dagozkion rola edo instituzio bereziei dagozkienak barneratzen dira (Berger eta Luckmann, 1986).

Iztuetak (2003) jasotzen duenez, gizarteko partaide berriak, elkarrekin bizitzeko oinarritzkoak dituzten beren kultura-tresnak (hizkuntza, sinesteak, azturak, arauak, jateko eta janzteko erak, bizi-erritmoak, etab.) erabiltzen ikasiz doazen heinean, gizartean txertatzen joaten dira. Haatik, gizabanakoak komunitate jakin bateko partaide dela sentitzen du besteek ere hori horrela dela onartzen dutenean. Bergerrek eta Luckmann-ek (1986) esan zutenez, gizabanakoa ez da gizartean integraturik jaiotzen, baizik eta gizarteratzen laguntzen zaio arau batzuk seinalatuz.

Arestian aipatua izan den bezala sozializazio prozesuak ez du etenik, eta ez du salbuespenik ere; pertsona guztiek, jaiotzen direnetik hil arte bizi duten ikasprozesuari deitzen zaio. Prozesu honen bidez eta zenbait baliabideri esker sorterriko eta bizilekuko kulturaren eta gizarteratzearen balioak, ohiturak, sinesmenak eta jarrerak ikasi eta bereganatzen dira. Normalean, prozesu honek homogeneizatze funtzioa (arau eta iguripen sozial berberak pertsona guztientzat) eta ezberdintze funtzioa (sexuaren arabera, adina, maila sozioekonomikoa, kulturalaren arabera...) ditu.

Del Vallek (2002), ordea, beste sailkapen bat egiten du eta berak koordinatutako lanean sozializazioari buruzko bi ulerkera mota azaltzen dira: gizarteratze prozesuaren ikuspegi estatikoa eta ikuspegi dinamikoa. Ikuspegi estatikoan bizi osorako jakintza eta jarreraren determinatzaile gisa agertzen dira, haurtzaroko ikaskuntzak. Ikuspegi dinamikoak, aldiz, aldaketarako aukerak zabaltzen ditu, gizarteratzea prozesu gisa ulertzen duena. Hau horrela izanik, eta

kontuan harturik prozesu horretan parte hartzen duten faktoreak anitzak direla, haur eta gazte literaturak sozializazio prozesuan funtzio garrantzitsua du, izan ere, bizi garen ingurunera egokitzen joateko irizpideak markatzen ditu.

Hortaz, prozesu inportante honetan eragina duten faktoreak kontuan hartu behar eta aztertu behar dira. Kasu honetan, sozializazioaren ikuspegi dinamikoaren atal batez ari gara: literaturaz eta zehatzago esanda, haur eta gazte literaturaz. Alabaina, azken honek sozializazio prozesuan nagusi diren bi esparru nagusietan duen presentzia handia da: familian eta eskolan.

IV. 1 Familia eta eskola

Ugariak dira sozializazio prozesuan parte hartzen duten agenteak: familia, eskola, komunikabideak, erlijioa, lagunak... Guztiek eragina dute pertsonen hazkuntza eta garapenean, baina ikerketa honi dagokionez, bai eskolak eta familiak liburuak (HGL) erabiltzen dituzenez hazkuntza-hezkuntza prozesuan eta ondorioz, haur eta gazte literaturari eskaintzen dioten garrantziagatik (aipatuak Haur eta Gazte Literaturaren funtzioak atalean) eskolak eta familiak zer-nolako mezuak helarazten dituzten aztertuko da. Izan ere, esaera zaharrak dion moduan “zer ikusi, hura ikasi”.

Familia eta eskola hezkuntza-agente giltzarriak dira, neska-mutilek harmonian eta errespetuan elkarrekin bizitzen ikas dezaten arduratzen diren agenteak, etorkizuneko belaunaldiak hezitzen arduratzen dira.

Ane Larrinagak, Elisa Usategik, Mila Amurriok eta Ane Irene del Vallek (2012) eskolari eta bestelako sozializazio guneei emandako begiradan aipatzen dutenez, premiazkoa jotzen da gizarteak, bere sozializazio guneen bitartez, erreferentzia moduan eskaintzen dizkien eredu maskulinoak eta femeninoak arretaz aztertzea.

IV. 1.1 Familia

Miller et al-en ustetan (1995) pertsona baten bizitzako sozializazio agenterik garrantzitsuen familia da eta Alvarezen eta Juradoren (2011) aburuz, sexismo gehien transmititzen duen eragilea da. Lehenengo agentea izateaz gain, pertsona eta gizartearen arteko lokarria delako.

Izan ere, Iztuetak (2003) "Identitate kulturala eta boterea" artikuluan jasotzen duenez, pertsona baten lehen gizarteratzea familian gauzatzen da. Lehenengo sozializazio agente horretan haurrak jasotzen ditu gizartean funtzionatzeko oinarritzko arauak, hala nola bizi-erritmoak (jana, loa, etab.), mintzaira eta oinarritzko sinesmena eta pentsaerak. Gainera, bertan bideratzen dira gizarte-arauak barneratzeko lehen prozesuak. Hala ere, 1980eko hamarkadako familia ereduetan eta gaur egungo familia ereduetan aldaketa sakonak gertatzen ari dira. Iztuetak (2003) jasotzen duenez, hainbat arrazoiengatik ematen ari dira aldaketa horiek: seme-alaben kopurua asko murriztu delako eta emakumea lan-munduan sartuz joan delako. Hautaz gain, haur-eskolak direla medio (0-3 urte bitartekoentzako eskola) familiak bakarrik ez du inola ere betetzen lehen zuen zeregina kultura- eta hizkuntza-ondarearen transmisioan.

Familiaren baitan ere umeei barneratzen dituzte emakumeen eta gizonen arteko harremanei dagokienez lehenengo jarrerak eta balioak (ereduak), esate baterako, bizikidetzarako arauak, etxeko lanen banaketa, etxetik kanpoko lana edo seme-alaben zaintzak. Familiaren hezkuntzaren baitan Schaefferrek (1994) azpimarratzen du garrantzitsuagoa dela gurasoek egiten dutena (eredua eskaintzea), beraien seme-alabekin egiten dutena baino. Ildo honetatik, Bergek (1981) baieztatzen du arauak, jokabideak, aisialdia... partekatzen ikasten dela.

Froufek (1995) ere nabarmentzen du heziketa familiarraren garrantzia balio sozialen transmisioan oinarritzen dela. Horrexegatik, premiazkoa da eredu ona izatea; parekidea, anitza, maitasunezko eta errespetuzkoa.

Bere aldetik, Larrinagak, et al-ek (2012) ondorioztatzen dutenez, lanaren banaketari dagokionez familia eredu berdintasunezko harremanetarantz aldatzen ari bada ere, gizartean indarrean dirauen ordena sinboliko nagusiari dagokionez familiak ez ditu transmititzen afektibitate- eta sexu-harremanen

mundua pentsatzeko eta egiteko eredu berriak. Gainera, familia sentimenduz beteta dagoen espazioa da, non sexualitatearen nolabaiteko heziketa ematen den (Esteban, Medina eta Tavora, 2005) eta Butlerrek (1993) eta Richek (1985) salatzen dutenez, prozesu hau derrigorrezko sistema heterosexual baten barruan ematen da.

IV.1.2 Eskola

Eskola, eta orohar hezkuntza sistema, sozializazio agente esplizitua da funtzio barneratzaile bat betetzen duelako. Michelen (1987) iritziz eskolan ere sexismoaren ikasketa ematen da, bereziki testu liburuetan eta haur eta gazte literaturan agertzen diren estereotipo sexisten bidez. “Los libros infantiles y juveniles figuran entre los más eficaces agentes de transmisión de normas, valores e ideologías sexistas” (Michel, 1987, 28. or.).

Iztuetak (2003) bere lanean aipatzen duenez eskola familiari gero eta leku gehiago hartzen ari zaion bezala, lagunarteak gero eta sarrera gehiago du gizarteratzean, zenbait kasutan erabakigarria suertatzen delarik. Baina familiak gehiegi baztertzen badu bere sozializazio-eginkizuna, eskolak ezin du bere hutsunea bete, lehenengo sozializazioa ez baita gauzatzen familiak ez badu eskaintzen berak soilik eman dezakeen harreman estu eta afektibo hori, edozein delarik haren forma (Taberner, 2008).

Hortaz, familian oinarrizko arauak, osagai afektiboak eta kognitiboak barneratu eta gero, trebezia berriak –irakurtzen, idazten, kontuak egiten, lagunekin jostatzen, musika-tresnak jotzen, etab.- garatzeko momentua ailegatzen da (bigarren gizarteratzean). Durkheim-ek (1975) esaten duen bezala, aro modernoaz geroztik hezkuntza formalean hezitzen baitira belaunaldi berriak. Hemen eratzen doa ikasleriaren pentsamendua ageriko eta ezkutuko *curriculum*-aren bidez.

Eskolaren funtzioetako bat ikasleak instituzioen balio eta arauen inguruan lortutako adostasun komunitarioan barneratzea da (Parsons, 1990). Funtzio horren barruan gazteek emakumeen eta gizonen arteko harremanei dagokienez jarrerak eta balioak barneratzen dituzte eskolako edukien, lengoaiaren eta baita ere material didaktikoaren bidez. Gainera, eskola espiritu kritikoa osatzeko eta gizarte-desberdintasunez jabetzeko eremua izan daiteke, baina ez denez agente bakarra (familia, berdinen taldeak, hedabideak...) bere mugak ditu, esate baterako, denbora; ikasleek ikasgelan astelehenetik ostiralera 6-7 ordu soilik ematen dituzte bertan, hortaz, denbora gehiena beste agenteen esku ematen dute umeek.

Bestalde, Larrinagak, et al-ek (2011) egindako ikerketan nabarmentzen denez, menderatze maskulinoaren egiturak birsortzen dituzten erakundeen artean, badirudi eskolak beste sozializazio gune batzuk baino modu esplizituagoan ekin diola gaur egungo sozializazio ereduak aldatzeko ahaleginari. Izan ere transmitituriko balioei dagokienez, %60k adierazten du nahiko/asko transmititu zaizkiela ondorengo balioak: elkartasuna eta konpromisoa, erantzukizuna, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, eta desberdinekiko errespetua. Eta % 50k baino gehiagok adierazten du nahiko/asko transmititu zaizkiela ondorengo balioak: autonomia, norberaren estimua, autokontrola eta justiziaren zentzua. Baina, azken balio horiei dagokienez, nesken proportzioa mutilena baino handiagoa da. Hala, datuek adierazten dutenaren arabera, badirudi eskolaren estrategia sozializatzailerik berriek neskengan mutilengan baino eragin handiagoa izan dutela, eta ikusi egin beharko litzateke proiektu horien lehentasunezko ardatza horixe zen ala ez.

Dena den, ezin daiteke esan hezkuntza formala eremu neutroa denik, izan ere, hezkuntza politika erabat baldintzatuta dago garai historikoaren arabera, tokiaren arabera eta jendearen antolatze moduaren arabera. Hori kontuan harturik, esan daiteke, eskola ereduaren isla dela, eredu maskulinoa nagusituz. Esate baterako, Morenok (1986) baieztatzen du itxuraz garrantzirik gabeko ilustrazio eta erredakzioen bitartez liburuak mezu sexistez zipiritinduta daudela.

Gai honetaz arduraturik, Perezek (2003) eta Bilbaok (2002) egindakoa ikerketetan eskolako edukietan gizonetakoak eta emakumetakoak daukaten presentzia erabat desorekatuta dagoela nabarmentzen dute, betiere, gizonetako alde. Modu horretan, gizonetakoak historiaren eta jakintzaren protagonistak bilakaturik eta ekarpen handiak egin dituzten emakumetakoak ia ezezagunak bihurtuz.

Nazioartean ere INADIk (2014) Argentinan egindako ikerketan aurreko ideia hau berresten du. Horretaz gain, estereotipo femeninoak eta maskulinoak erreproduzitzen jarraitzen direla salatzen du eta hizkuntzaren erabilera sexista. Honek ere gazteen jarreretan, portaeran eta munduaren kontzeptualizazioan eragina duela ikusirik. Baita ere eskolaren antolaketa modua ere kontuan izan behar dela azpimarratzen du, izan ere, espazio nagusia mutikoen okupatu ohi dute eta nesken periferian kokatzen baitira.

Gure ikerketara loturik Emakumearen Institutuak (1993) haur eta lehen hezkuntzako 350 liburu aztertu zituen ilustrazioei (emakumeen eta gizonen presentzia, jarrerak eta etxean eta kanpoan egindako lanak aztertuz), edukiei (gizonen eta emakumeen lan ordainduak eta ekintza sozialetan duten partaidetza aztertuz) eta hizkuntzari (hizkuntzaren erabilera sexistari eta hizkuntzaren erabilera ez-diskriminatzaileari arreta ipiniz) erreparatuz.

Hortaz, hezkidetzeta programa egiterako orduan ondorioztatzen denez, testuinguru horietan adierazitako portaera, iritzi eta mezuen bidez, argi geratu da generoan oinarritutako desberdintasunak elikatzen jarraitzen dela, gizona edo emakumea izateko modu bakar bat egongo balitz bezala edota emakume guztiak, baita gizonak ere, berdinak izango balira bezala. Sexuaren araberako sozializazio ezberdin horrek, bizitzako proiektuak baldintzatzeaz gain, desberdintasuna eta emakumeen aurkako indarkeria sustatzen du. Sexismoa mantentzen da familiak, eskolak eta orohar gizarteak estereotipo batzuk transmititzen jarraitzen duelako:

“El sexismo se mantiene porque se siguen transmitiendo, desde la familia, la escuela y la sociedad, una serie de estereotipos que, en forma de creencias, valores y normas comunmente aceptadas por la mayoría, reflejan los distintos papeles asignados a hombres y mujeres” (Parra, 2009, 9. or.).

Eskolak gizartearen parte diren heinean, ikasleei garai eta gizarte bakoitzari dagozkion balio eta arau sozialak irakasten dizkio eta sexismorik gabeko gizarte bat nahi baldin bada lan eremua ezin da hezkuntza sistemara soilik mugatu.

IV. 2 Hezkidetzak

Eskola emakumeei eta gizonei patriarkatuak egozten dizkion rola erreproduzitzen dituen sozializazio agentea da (Arnot, 1980). Horrexegatik, hezkidetzak, edo koedukazioak, sexuen arteko berdintasuna lortu nahi du eta sexuagatiko diskriminazio eza du ardatz. Hezkidetzak gizon eta emakumeei tradizionalki egokitutako rol, balio eta jarrerak kontuan hartu gabe heztearen beharra azpimarratzen du, estereotipatuak izan diren eredu femeninoak eta maskulinoak saihestuz. Pertsonak bere banakotasun, berezitasunaren arabera, generotik at egiten den hezkuntza da, neska eta mutilentzako baliagarria izango den pertsona eredu bultzatuz, norberaren gaitasunak eta jarrerak garatzea eta haurren garapen osoa lortzea helburua duelarik. Laburbilduz, hezkidetzak sexismorik gabeko hezkuntza dela esan daiteke.

“Por coeducación se entiende la propuesta pedagógica actual para dar respuesta a la reivindicación de la igualdad realizada por la teoría feminista, que propone una reformulación del modelo de transmisión del conocimiento y de las ideas desde una perspectiva de género en los espacios de socialización destinados a la formación y el aprendizaje” (Instituto de la mujer, 2008, 17. or.).

Haatik, bi sexu desberdin dituen errealitateak abiatuta, garapen pertsonal komunerantz, gatazkan ez dagoena lortzea da betebeharra eta sexismoa gainditzeaz gain, sexismoaren jatorria aztertzea eta gainditzea exijitzen du hezkidetzak (Santos, 1993).

Beraz, hezkidetzak prozesu honetan, pertsonen aukera ematen zaie balioak, gaitasunak eta jarrerak askatasunez hautatzeko, maskulinitatearen eta feminitatearen ereduetatik kanpo, eredu horiek nortasunaren garapen osorako muga direlako. Gainera, Rojasek (2005) aipatzen du indarkeriazko jarrerak ikasi egiten direla, ez direla berezkoak eta horrexegatik hain zuzen ere, berdintasunezko jarrera baketsuak txiki-txikitatik landu egin behar dira eta umeen zein ikasleen eskura jarri behar dira bitartekari guztien bitartez.

Lomasek (2004) aholkatzen duenez, aurreko paragrafoko helburuak lortzeko ez da nahikoa neska-mutilak batera, elkarrekin, ikasgela berean egotea (eskola

mistoak egiten duena neska-mutilak biltzea da), baizik eta emakumeen presentzia esparru guztietan bermatuta egotea; hezkuntza-sistemaren kudeaketan eta antolakuntzan, curriculumetan, ikasmaterialean, testuliburuetan eta literaturan. Hauetaz gain, hezkidetzan ere beharrezkoa jotzen da familien eta oro har, gizarte osoaren inplikazioa sexuaren araberako mezuak ezabatzeko, horrela ikasleen aukerak eta gaitasunak berdintasunean garatuko liratekelako (Ramos, 1993).

Nahiz eta lan handia egin den hezkuntzan berdintasunaren alde, begi-bistakoa da oraindik ere hezkuntzan, testuetan eta ikas-materialetan sexismoa presente dagoela eta honek diskriminazioa mantentzen du (Escamez eta Garcia, 2005). Hainbat egilek salatzen dutenez errealitatea oraindik ez da parekidea; estrukturak, hizkuntzak, espektatibak, harremanak, jarrerak eta curriculum ezkutua pautak eta kodigo sexistez zipriztinduta daudelako (Subirats eta Brullet, 1988; Altable, 1998).

Dena den, oraindik gizarte-trabak badiren arren, baieztatu daiteke emakumeek aurrera egin dutela eremu akademikoan eta profesionalean, baina hezkuntza sistemak eta kulturak ez hainbeste. Bonalek (1997) biltzen duenez hezkidetzak estereotipo sexualak eta generoen hierarkia ezabatu nahi duen arren, helburu hori ez da oraindik lortu.

Izan ere, teorialari kritiko askoren ustez, (Torres 1991, Etkin 1993, Pokkewitz 1988, Santos Guerra 1994 eta Apple, 1986) curriculum ezkutuan lantzen, irakasten eta ikasten dira ideologia, balioak, arauak, agintean dagoen taldearen ideologia zabaltzeko eta mantentzeko, esate baterako, transmisio hori gauzatzen da testuliburuetakoko irudi eta diskurtsoekin. Bowles-ek eta Gintis-ek (1985) ezkutuko curriculumaren garrantzi politikoa nabarmendu zuten; testu idatzietan eta ilustrazioetan aurki daitezke garai bakoitzeko gizartearen balio, ideologia eta estereotipoak.

Honi aurre egiteko hainbat lan ezberdin egin izan dira nazioartean. Esate baterako, UNESCOk (1987) hezkuntza-sisteman sexismoa antzemateko lau ikergai nabarmentzen ditu: lehenengoa, hezkuntza sistemaren antolaketan, bigarrena, irakasleen eta ikasleen arteko harremanetan, hirugarrena, ikasleen arteko joko eta harremanetan eta azkenik, eskola materialetan. Parrak (2009)

zerrenda honi beste eremu batzuk batzen dizkio: espazioen eta materialen erabileran, orientazio akademikoan eta profesionalean, familiaren eraginean, teknologia berrien, irudien eta hizkuntzaren erabileran ere sexismoa antzeman daiteke. Beraz, sexismorik gabeko hezkuntza bat lortzeko atal guzti hauek aztertzea beharrezkoa jotzen da.

1995ean Nazio Batuek antolatutako IV Emakumeen Nazioarteko Konferentzian adostu zen lehentasuna zuela eredu sexistak eta diskriminazioa transmititzen dituzten testuak eta eskola materiala agerian uztea, baina arestian aipatua izan den bezala oraindik ez da helburu hori lortu. Gainera, Michelek (1987) esaten du deskribapenetan edo zenbait egoeretan estereotipoak direnean errealitate sozialari eta dibertsitateari muzin egiten zaionean sexismoa agertzen dela eta, egoera horri aurre egingo dion kritikarik eta alternatibarik ez dagoenean ere.

Derrigorrezko hezkuntzan dagoen sexismoaz kezkatutik, Instituto de la Mujer (2000) erakundeak eskola materialean emakumearen eta gizonaren presentzia aztertu zuen kualitatiboan eta kuantitatiboan. Izendapen testualak, irudiak eta agertzen diren pertsonaia ospetsuak kontuan harturik, 100.000 pertsonaietatik emakumeak % 34a dira, eta horrek ez du errealitatea ordezkatzeko, izan ere, Espainian emakume gehiago daude (% 52) gizonak baino. Etxeko rolari dagokionez, gizonen datua % 12,5a den bitartean, emakumeen datua % 20,3a da. Hauek dira maizago agertzen diren emakumeen lanbideak: irakaslea, dendaria eta medikua. Erakundearen ustetan liburu-erakundearen lanbide gehienak estereotipatuak daude eta perfilei dagokionez ere genero estereotipoak errepikatzen direla baieztatzen dute. Bestalde, hurrei zuzendutako ipuinetan, protagonisten %64 a gizonak dira, emakumeak % 26a eta biak % 6a. Protagonista nagusiari dagokionez desberdintasuna handiagoa da: gizonak % 70a eta emakumeak % 30a. Idazlea emakumea denean, gizonen presentzia % 55koa da, emakumeena, aldiz, % 19,5ekoa da, identifikatu gabea % 24,7koa eta mixtoa % 0,7a.

Beste alde batetik, gure ikerketaren esparruan gehien eragiten duten hezkuntza-legeei dagokienez, bai 1990eko LOGSEk (Espainiako Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorraren Lege Organikoa) eta baita ere 2006ko LOEk (Hezkuntzako Lege Organikoa) arauak eskaintzen dituzte genero desberdintasunak saihestu daitezkeen. Era horretan, nesken eta mutilen artean

eskubide eta aukera berdinak bermatuko direlakoan. Euskal Autonomia Erkidegoan 1992an argitaratutako Oinarrizko Curriculum Diseinuak, Zehar Lerroen artean kokatzen du Sexu berdintasuneko Hezkuntza, Hezkidetza. Are gehiago aipatzen da, sexista ez den hezkuntza-zehar lerro bezala- ez da arlo bat gehiago, baizik eta curriculumaren eduki guztietan landu beharrekoa- arlo guztietan eta gai bakoitzean-.

Adibidez, Oinarrizko Curriculumak 111. orrialdean Lehen Hezkuntzan lortu beharreko helburu hauek proposatzen ditu:

- Neskaren eta mutikoaren bilakaera eta egintza autonomia bultzatu bere ingurune fisiko eta sozialean, bere garapen pertsonala aurrez ezarritako rol sexistek markaturik egon ez dadin.
- Neskaren eta mutikoaren komunikazioa oinarrizko tresneriaz hornitu, interpretazioa eta bere ingurune kultural eta sozialarekiko erlazioaren garapenerako, aniztasuna errespetatuz, baina hierarkizazioa sortu gabe.
- Sozializazio maskulino eta femeninoen, bien prozesuen elementu positiboak aitortu eta balioetsi, aitormen horretatik abiatuz beren lagunekiko eta pertsona helduekiko harreman pertsonalezko ingurune aberatsa eskura dakien.

Horrez gain, 2013ko Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza-sisteman hezkidetza eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana justifikatzeko bere 9.orrialdean esaten du, ikerketek erakusten dutela nesken eta mutilen arteko harremanek asimetrikoak izaten jarraitzen dutela, eta egoera asko abusuan oinarrituta daudela; gaitasunak, trebetasunak eta bizitza-proiektuak generoarekin loturik daudela oraindik; curriculum-dukietan, emakumeen ekarpenak ez dira ikusten (emakumearen ikusezintasuna curriculumeko dukietan). Sauk (2000) salatzen duenez, neskak erreferentzia femenino barik geratzen dira eta gabezia honek eskoletan dauden emakumeak oinarrizkoa eta giltzarria izan daitekeen identifikazio sozial barik uzten ditu (Valcarcel, 2004).

Eta 10. orrialdean aipatzen da, plan honek hezkidetza sustatzen duela, hezkuntza-ikuspegi horren helburua genero-desberdintasunak etengabe desagertzea baita, eta ez eskolako egitura formalean bakarrik, baita hezkuntzaren ideologian eta jardunean ere. Gizonezkoen kulturaren eta

emakumezkoen kulturaren alde positiboak berreskuratu nahi dira, eta era dikotomikoan genero bakar bati lotuta ez dauden jokabide-erreferente bihurtzeko, neska eta mutilen giza garapena bultzatzeko, eta identitate pertsonala duten subjektuak direla onartzeko, estereotipoak alde batera utzita.

Umeei leku askotatik (eskola, familia, komunikabideak, literatura...) jasotzen dituzte jarrera-ereduak, iritziak, mezuak eta irudiak eta sarri horiek genero estereotipoz beterik egoten dira. Modu horretan, "maskulinoaren" eta "femeninoaren" eredu homogeneoa eta uniformeak islatzen delarik, emakumea edo gizona izateko modu bakarra egongo bailitzan alegia. Honek haurren bizi-proiektua baldintzatzen du.

Sozializazioko atalean ikusi den bezala bai hezkuntzak eta baita eskolek ere garrantzia handia dute nesken eta mutilen prestakuntzan eta ondorioz genero identitatearen eraikuntzan. Bilbaok (2006) aipatzen duenez, hezkidetzak, pertsona bakoitzaren garapenean, sozializazio prozesuan, genero estereotipoak alde batera uztea esan nahi du.

Hikhasi aldizkarian, (105.alea) hezkidetzaren inguruan eginiko alean, hezkidetzaren ikuspegitik euskal curriculumak honelako ezaugarriak izan beharko lituzkeela aipatzen da:

- Integrala: hezitzen, prestatzen eta birziklatzen lagundu eta bultzatu behar du.
- Eraldaketa bitartekoa izan behar du.
- Sexuen arteko erlazio berriak sortzen lagundu behar du.
- Euskal emakumeek bizi duten eta historian zehar bizi izan duten gutxitze eta diskriminazioen ondorioz pairatzen duten aukera desberdintasunei aurre egin behar die.
- Euskal emakumeen ezaugarri bereizgarriak ikertu eta landu behar ditu.
- Emakumeen presentzia, erreferentziak, eredu anitzak eta parte-hartze soziala (kulturan, zientzian, politikan, eguneroko bizitzan...) berreskuratu behar ditu.
- Emakume eredu desberdinak erabili behar ditu adibideetan, irudietan... edozein eremu edo funtziotan.

-Ezkituko curriculumaren garrantziaz jabetu eta horren lanketa eta aldiro horren ebaluazioa egin beharko luke.

-Balioen eta jarrerren banaketa azaldu beharko lituzke eta aukeraketa pertsonan dagoela erakutsi, eta ez jendarte patriarkalak mailakatzen eta hierarkizatzen dituen elementuetan.

-Baliabideak bilatzerakoan ondo aukeratu behar dira azterketa sakon bat eginez: lanaren banaketa sozial eta sexuala antzezten dituzten liburu zein kontzeptuak saihestu, eduki sexistak dituen edozein materialen bazterketa ziurtatu eta parekidetasunean oinarritutakoak erabili.

-Hizkuntzaren ezaugarri sexistak aztertu eta kritikotasunez horiek aldatzeko lanketak egin, gerora hizkuntza egokia eta sexismorik gabea bultzatzeko.

-Hezkidetzak bultzatu eta bermatuko duen metodologia parte-hartzailea behar du bere baitan.

-Hezkidetzak nahitaezko irakasgaia izan behar luke. Irakasgai berri bat bermatu beharko luke euskal curriculumak: parekidetasunerako baldintzak azalduz, emakumeen zapalkuntza agerraraziz, desberdintasunak sexuak soilik markatzen dituela azalduz...

-Gai honekiko hausnarketa eta eztabaidak sustatu behar ditu etengabe euskal curriculumak hainbat modutan: soilik zehar lerro gisa, irakasgai espezifiko moduan eta baita zehar lerrotasunez, tutoretza orduak erabiliz...

Beraz, lau helburu nagusi lituzke koedukazioak: lehenengoa, eredu maskulinoa unibertsaltzat ez hartzea, bigarrena, estereotipo sexistak zuzentzea, hirugarrena, gizarteko norabide sexistak ezabatzea, curriculum orekatua proposatuz eta laugarrena, genero independentziarekin gaitasun indibiduala garatzea. Izan ere, Altablek (1993) azpimarratzen du berdintasuna ez dela soilik jarrera eta balio maskulinoen eta femeninoen homologazioa, baizik eta bi sexuek berdintasunean partekatu beharko lituzketen zenbait ekintzen eta harreman pribatuen eta publikoen multzoa. Guzti honek aldaketa soziala ekarriko luke.

Laburbilduz, hezkuntza parekidearen bidean aurrerakuntzak egin izan diren arren eta horretarako ere, legeen babesa eduki arren, aipatutako hainbat

ikerketek baieztatzen dutenez, oraindik eskolako esparru desberdinetan sexismoa antzeman daiteke.

IV.2. 1 Hezkidetza eta haur literatura

Haur eta gazteei zuzendutako liburuetan sexismoak duen presentziak kezka handia eragiten du Euskal Herrian eta baita nazioartean ere. UNESCOk 1981. urtetik aurrera hainbat herrialdetan (Txina, Frantzia, Norvegia, Kuwait, Peru, Ukraina eta Zambia) umeei zuzendutako lanetan eta eskola liburuetan transmititzen den emakumearen eta gizonaren irudia aztertu zuen hainbat lanen bitartez. Ikerketa hauetan estereotipo sexisten presentzia antzeman zen. Estereotipo sexista hauek errepresentazio, jarrera, ekintza, iritzi, sentimendu edo irudi baten bidez adierazi daiteke eta emakumeak gutxietsi egiten dute eta gizonari, ordea, balio handiagoa ematen diote. (Michel, 1987).

“Los personajes masculinos y femeninos están estereotipados hasta el extremo de que la valoración de los primeros es inseparable de la desvalorización de los segundos” (Michel, 1987, 18. or.).

Hona hemen ikerketa desberdin horietako zenbait datu esanguratsu: Txinan (1983) egindako ikerketan protagonista gehienak gizonezkoak direla baieztatu zuten eta pertsonaia nagusietan %35,3a emakumea zen. Norvegiako (1983) ikerketan lortutako ondorioen artean nabarmendu daiteke, gizonak aktiboak, arduratsuak eta kanpoan lan egiten dutenak direla eta emakumeak, aldiz, ama eta emazte pasiboak diren etxeko andreak direla. Gainera, familia eredu tradizionala nagusia da. Ukrainan (1982) datuak baikorrak diren arren, ez du esan nahi estereotipo sexistarik ez dagoenik. Izan ere, rol sozialetan eta profesialetan neska eta mutil arduratsuen eta ausarten presentzia orekatua den arren, emakumeen ogibideak naturarekin eta giza-harremanekin loturik dauden heinean gizonenak ekintza teknikoei loturik agertzen dira. Gainera, irakurleek nahiago dituzte gizonezko heroiak emakumezkoak baino eta rol familiarak pisu handiagoa du emakumezko pertsonaietan.

Ikerketa hauen helburuak hiru dira: lehenengoa, fisikoari, adimenari, gaitasunei, afektibitateari eta egoera sozialari erreferentzia egiten dion sexismoaren jatorriaren arrazoiak bilatzea; bigarrena, iritzi publikoa sentsibilizatzea, eta hirugarrena, autoritateen arreta erakartzea konponbideak bilatzeko. Hezkuntza, hezkidetza eta berdintasunaren aldeko legeak lirateke horren adibidea.

Arestian aipatutako 1992ko EAEko Oinarrizko Curriculum Diseinuan, Zehar Lerroen artean kokatzen da sexu-berdintasuneko hezkuntza eta hezkidetzak, eta, besteak beste, haur eta gazte literaturaren bitartez lantzen den gaia da. Luriek (1998) defendatzen du haur eta gazte literaturak, garai guztietan, status quo azentuatzeko joera duela.

Haatik, irakurtzen diren liburuak edo entzuten diren istorioak era kontziente batean zein inkontziente batean gure barnean geratzen dira eta gure pentsamenduetan, sentimenduetan, eta jarduteko eran eragiten dute. Historian zehar tradizio literarioan emakumeen balioa eta gaitasunak gutxietsita agertzen dira (Turin, 1995; Orquin, 1989 eta Colomer 1994). Hortaz, umeengan duten eragina handia dutelako premiazkoa jotzen da edukiak eta zehar lerroen bitartez helarazten diren mezuak generoaren ikuspegitik aztertzea. Hala ere, hezkidetzak irakurketa kritikoa sustatu beharra dauka eta irakurleari beharrezko gaitasun kognitiboak garatzen lagundu behar dio kapaza izateko esateko testua egokia den edo ez, edota egilearen asmoa antzemateko. Ipuinak askatzaileak edo mugatzaileak izan daitezke, horrexegatik beharrezkotzat jotzen da beraien modu kontziente batean lan egitea, kontuan hartu behar delako jarreraren sexisten sustatzaileak direla eta, aldi berean mundu berrien sortzailea (Sasiain eta Mateos, 2006).

Izan ere, liburuetako estereotipo sexistek nesken eta emakumeen giza garapena (intelektuala, afektiboa, borondatezkoa) oztopatzen dute (Michel, 1987).

Horregatik, egungo testuliburuetan eta haurrentzako irakurgaietan gehiago zaintzen da hezkidetzak ipuin klasikoetan eta literatura zaharrean baino, non patriarkalismoa gordintasun osoz islatzen zen (Taberner, 2008), baina Pérez Pérezek eta Gargallo Lópezek (2008) adierazten dutenez, oraindik parekidetasunaren bidean pausuak ematen jarraitu beharra dago, izan ere, liburuek zenbait arlo sozialetan eta okupazionaletan emakumearen ausentzia ez dutenez azaltzen, emakumearen irudi irrealak eta estereotipatuak jarraitzen dute transmititzen. Gainera, beste esparru batzuetan: iragarkietan, telesailetan eta filmetan gizonei eta emakumeei atxikitako rolerak ez dute asko laguntzen hezkidetzan.

Nahiz eta askotan sexismoa soilik lotu izan den ipuin klasikoekin edota Disneyren istorioekin, hainbat ikerketak erakutsi dutenez (Escamez eta Garcia, 2005 eta Du Côté des Filles, 1996) liburu askotan sexismoaren presentzia nabarmena da, bai istorio errealetan bai fikziozkoetan ere, ugariak baitira elementu sexistak dituzten ipuinak.

“Es preciso constatar que las visiones más sexistas aparecen a menudo en los textos más mediocres desde el punto de vista literario, tanto por lo que ese refiere a la forma en que están escritos como por lo que respecta a la estructura general del libro” (Michel, 1987, 33. or.).

Eskoletan erabiltzen diren liburuetan eta testuetan emakumezko pertsonaien presentzia handitu den arren, oraindik ez da nahikoa parekidetasunaz aritzeko (Amoros, 1997).

“La imagen que se da a los alumnos de la mujer y el hombre a través de los contenidos de la enseñanza, contribuye poderosamente a conformar su yo social, sus pautas diferenciales de comportamiento, el modelo al que deben identificarse para ser “más mujer” o “más hombre” y les informa, a la vez, de la diferente valoración que nuestra sociedad hace de los individuos de cada sexo” (Moreno, 1986, 29-30. or.).

Beraz, gomendagarria da ipuinak hautatzerako orduan xehetasunetan erreparatzea, izan ere, hauek umeengan pisu handia daukate. Garrantzitsua da ezagutzea ipuinaren zein elementu azpimarratzen den eta nola aipatzen den, adibidez, etxeko lanen inguruan, askotan, balioa kentzen zaio edo jasotzea, garbitzea, zaintzea... zigor moduan planteatzen dira, bizirauteko ezinbesteko ekintzak direnean (Romero, 2011).

Kontziente izan behar da liburuen azterketa eta hausnarketaren bidez hezkidetzak landu daitekeela. Izan ere, desberdintasun sozialez jabetzeko aukera ematen dute eta horien inguruan eta testuinguruaz hausnartzeko abaroa izan, betiere, errealitate androzentrista aldatzeko xedearekin. Munduan bi pertsona berdina ez daudenez, liburuek ezberdintasun fisikoez ohartzeko eta desberdintasun hauek errespetatzeko aukera eskaini behar dute. Sexismoak garrantzia galtzen du desberdintasun horiek balio positibo bat hartzen dutenean.

lido horretatik, irakaslearen lana da testuetan ageri den genero diskriminazioa ikusaraztea eta honi aurre egitea. Izan ere, testu literarioen irakurketa esperientzia estetikoa izateaz gain, axiologikoa ere bada (Salmeron, 2004); balioen etengabeko ikasketa bat dagoelako.

Argentinan, INADik (2014) aztertutako 40 eskola liburuetan estereotipoak eta rolak erreproduzitzen direla ondorioztatu zuten; emakumea eskolan (% 20,6), familian (% 19,4) eta etxean (% 15,6) ordezkaturik agertzen da eta politikan (%4,4). Gizona, ordea, lan munduan (% 22,8) etxean (% 4,9) eta politikan (% 13) ageri da.

Lanbideetan sakonduz gero honako datuak ageri dira ikerketa honetan: Emakumea irakaskuntzan (% 15,8), etxeko lanekin (% 11,3) eta zaintzekin (% 11,3) zerikusia duten eginkizunetan agertzen da nabarmen eta gizona, aldiz, zaintzekin zerikusia duten ekintzetan % 2,3a, etxeko lanetan % 2,8a eta irakaskuntzan %6,5a oso gutxitan ageri da.

Datu guzti hauek baieztatzen dute gaur egun ere eskoletako testu liburuek emakumeei eta gizonei egozten zaizkien rol tradizionalak erreproduzitzen dituztela.

“Los textos no rescatan los cambios producidos en la sociedad y en las funciones y roles de mujeres y varones, sino que continúan naturalizando los roles tradicionales de género. Estas representaciones contribuyen a perpetuar construcciones simbólicas sociohistóricas que asignan determinados roles y atributos socioculturales a las personas a partir de su sexo, y convierten las diferencias sexuales en desigualdades sociales al establecer una jerarquía por la cual todo lo masculino es valorado como superior” (INADI, 2005, 98. or.).

Beste alde batetik eta gurera etorri, Emakundek, hezkidetzaren ikuspegitik, ikasmateriak aztertzeko gomendioa luzatzen du eta gainera, ikasmaterialetan sexismoaren presentzia handia antzematen denean eta indarrean dauden zenbait lege eta araudiren (4/2005 legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI. Plana) kontrakoak direnean, merkatutik atera daitezela eskatzen du (Eusko

Jaurlaritza, 2013). Hezkidetzak eskatzen baitu curriculumeko lan-dukietan eta materialetan jasotako aztarna sexistak kentzen jarraitzea.

Nazioarteko ikerketa guztiek bat egiten dute estereotipo sexistak umeengan eragin negatiboa dutela eta neskengan, gutxietsiak direnez, eragin negatiboa areagotzen da. Gainera, umea gero eta gazteagoa denean orduan eta ahulagoa diskriminatzaileak diren estereotipoei eta sexismoari aurre egiteko. Hau guztia dela eta haur eta gazte literaturak gizartea islatzeaz gain, aldaketa eta berdintasunaren alde egingo duen eragilea izan behar da.

IV.3 Balioak eta haur eta gazte literatura

Balioaren esanahiak edo definizioak aldaketa ugari izan ditu azken urteotan, izan ere, hainbat arlotatik aztertuak izan dira, hala nola, soziologiatik, psikologiatik edota hezkuntzatik.

1950eko hamarkadan, Kluckhohn-ek (1951) honako hau aipatzen zuen:

“Un valor, es una concepción, explícita o implícita, distintiva de un individuo o característica de un grupo, sobre *lo deseable*, que influye en la selección de modos, maneras y propósitos disponibles de acción” (Kluckhohn, 1951, 396. or.).

Urte batzuk beranduago, Rokeach-ek (1973) modu honetan definitzen zituen balioak:

“Los valores son creencias duraderas de que un modo específico de conducta es personalmente o socialmente preferible a otro contrario o el modo inverso de conducta o estado final de existencia” (Rokeach, 1973, 5. or.).

Ibañezek (1976) bere aldetik zehazten du:

“Toda perfección real o ideal existente o posible que rompe nuestra indiferencia y provoca nuestra estimación, porque responde a nuestras tendencias y necesidades” (Ibañez, 1976, 21. or.).

Aipatu diren definio hauek agerian uzten dute balioek eragina dutela gizaki ororen izaeran eta jarreran. Cerverak (1991) esaten du balioa dela epel edo hotz uzten ez gaituen oro, gure betebeharrak asetzen dituen edo bere duintasunagatik nabarmentzen dena. Schwartz-ek (1992) bere aldetik balioen gida eta laguntza lana azpimarratzen du:

“Los valores son conceptos o creencias correspondientes a intenciones o comportamientos que, trascendiendo las situaciones concretas, sirven de guía para la selección o evaluación de comportamientos y acontecimientos priorizados en función de su importancia relativa” (Schwartz, 1992, 4. or.).

Yuberok (2004), ordea, balioen aldakortasuna nabarmentzen du eta balioak modu honetan ulertzen ditu:

“Creencias básicas a través de las cuales interpretamos el mundo y damos significado a los acontecimientos e, incluso, a nuestra propia existencia. Forman parte de nuestra cultura subjetiva y hemos de considerarlos como realidades dinámicas, sometidas a cambios condicionados en su manifestación y realización por el espacio y el tiempo” (Yubero, et. al., 2004, 10. or.).

Salmerónek (2004) *Transmisión de los valores a través de los cuentos clásicos infantiles* bere tesian balioen ezaugarri hauek aipatzen ditu: polaritatea, mailaketa, amaigabetasuna, kategorizazioa, hierarkia eta dinamismoa.

Halaber, garrantzitsua da Hofsteden (1984) lana. Bera izan baitzen lehenetarikoa kultur ikuspegi batetik balioak ikertu zituena. 40 herrialde baino gehiago aztertu ondoren kulturak desberdintzen dituzten lau faktore aipatzen ditu eta horietako bat maskulinitate-feminitate dimentsioa da. Kultura femeninoetan ez dira jarrera estereotipatuak gailentzen eta kultura maskulinoetan, ordea, sexuen arteko desberdintasunak areagotu egiten dira (Hofstede, 1991).

Definizio desberdin hauetatik ondorioztatzen da balioak sozialak direla eta norbanakoen ekintzak, jarrerak, sinesmenak, sentimenduak, pentsamenduak eta interakzioak baldintzatzen dituela eta horietan guztietan eragina dutela. Sozialak dira gizartean gizakiak eraikitzen eta sortzen diren sinesmen iraunkorrak direlako eta gainera, sozializazioa prozesu baten bitartez transmititzen dira. Prozesu horretan eragile eta faktore ezberdinek parte hartzen dute: hedabideak, liburuak, familiak, eskolak, lagunak, interakzioak eta abar. Modu horretan balioen hezkuntza bat bizitzen da, gizakiaren hezkuntzaren formazioaren parte dira, horrexegatik eta aurrerago ikusi ahal izango denez hezkuntza dekretuen parte dira.

Beraz, balioak edonon topatu daitezke eta bizitzeko eta gizartean txertatzeko beharrezkoak dira. Horretaz gain, historiari erreparatuz gero, balioak aldakorrak eta konplexuak direla ohartu gaitzke eta horrexegatik eboluzionatzen dutela. Aldaketa horiek barne edo kanpo faktoreen arabera gertatu daitezke eta horrek

norbanakoaren edo memento historikoaren arabera gatazkak sor ditzakete gizartearen barruan.

Sousak (2012) bere tesian jasotzen duenez, balioak edozein talde sozialeko arauetan eta legetan topatu daitezke eta norbanakoaren ideologian. Horrexegatik gizakiak egindako edozein produktu kulturaletan, artistikotan eta literariotan balioak egongo dira. Balio guztiak beharrezkoak direla nabarmentzen duen arren ikerlari honek uste du nork eta nola baloratzen dituen kontuan hartu behar dela.

Balioek gainera balio dute giza-harremanen bideratzaile gisa eta beharrianak adierazteko. Horrexegatik hain garrantzitsua izaten da, hasieratik sozializazio eragileen bidez balioetan heztea. Haur hezkuntzaren etapa gizarte-balioak garatzeko unerik garrantzitsuenetako bat izanik, balioak eguneroko bizitzan eta fantasiak ahalbidetzen duen identifikazioaren bidez garatzen dira.

Balioekin gertatzen da estereotipoekin bezala, gizakiak eraikitzen eta sortzen dituela helburu konkretu batzuekin belaunaldiz belaunaldi irakasteko. Yuberok (2004) baieztatzen duenez, ipuinen irakurketa eta narrazioa balio sozialen ikastaldiaren parte dira eta umeen sozializatorako gizarteak erabiltzen duen elementu didaktiko garrantzitsua. Testuan agertzen diren gertakizunek eta pertsonaiek irakurlearen erabakietan, jokabidean eta epaiketa moraletan eragina izan dezakete.

“Las experiencias que transmiten los libros nos permiten vivir otras vidas, identificarnos con otras criaturas o rechazarlas, conocer diferentes escenarios y tiempos, enfrentar multiplicidad de conflictos, explorar nuestras reacciones ante ellos y adoptar determinado criterio o postura” (Rodríguez, 1999, 7. or.).

Literaturara etorruta, Bortolussik (1987) aipatzen du lan literarioek, esplizituki eta beste batzuetan inplizituki, gizarte edo kultura zehatz baten sinbologia adieraziko dutela. Izan ere, balioen irakaspena zeinuen (hitza, kontzeptu abstraktua, objektua) eta bere esanahiaren arteko jardunaren errepikapenaren bidez ematen da eta haur literaturak indartu egiten du prozesu hau.

Ildo beretik, Lluček (2003) adierazten du ez dagoela lan literarioerik ideologiarik transmititzen ez duenik, hots, ez dagoela ideologiarik gabeko obrarik. Eta gauza bera esaten digu Schwartzek eta Bilskyk (1987):

“Según la literatura, los valores son (a) conceptos o creencias, (b) sobre estados finales deseables de conductas, (c) que trasciende situaciones específicas, (d) de una selección guiada o evaluación de conducta y eventos, y (e) ordenadas por su importancia relativa” (Schwartz eta Bilsky, 1987, 551. or.).

Gainera, Rodarik (2004) salatzen du klase dominatzaileak haur literaturaz baliatzen direla beraien ideologia transmititzeko.

Lan literarioen ideologiarekin loturik, Ruizek (2003) *Behinola* aldizkarian bere tesiaren *Análisis de narraciones infantiles para niños de 6-12 años, escritas en castellano entre 1990-98* ondorioak bildu zituen. Tesi horretan 150 haur narrazioen azterketa kritiko-literarioa egin zuen eta lau ondorio nagusi aipatzen ditu:

Lehen ondorioa da 1990eko hamarkadako haur literaturan egokitzapenaren printzipio omnipresentea dela. Alde batetik, moldaketa estilistikoak, hots, irakurketa errazteko egiten direnak; Tuckerrek (1985) esaten zuenez, hiztegi erraza erabiltzea, zailtasunik gabeko estiloa eta diskurtso zuzena maneiatzea. Eta bestetik, gaia aukeraketari berari edo gaiaren beraren tratamenduari dagozkion aldaketak.

“Gaur egungo haur narrazioen munduan egiten diren egokitzapenak, bi multzo desberdinetan banatu daitezke: alde batetik, irakurketa bera eta testuen legibildadea eta ulermena errazteko asmoz zuzendurikoak; bestetik, egokitzapen tematikoa agertzen da, non gaiak haur irakurlearen preferentzi eta gustuei lotzeaz gain, gaien tratamenduan bertan zenbait moldaketa literario, moral eta pedagogiko sartzen dira, beti ere *zuzentasun politiko* delako hori eta arau hezitzaile orokorrak bermatuz.

Lehenengo egokitzapena era da, hain zuzen ere, testuen pobretasun formala eta estilistikoa dakarrena. Bigarrenak, aldiz, gaien tratamendu

bigunak eta inozoak sortzen ditu, nolabaiteko zentzura inplizitua eta izkutatua ezarriz.” (Ruiz, 2003, 33. or.)

Egokitzapen hauek Kiko Ruizek aipatzen duenez, haur irakurleen gustuetatik eta lehentasunetatik, argialetxeen orientabideetatik eta interesetatik, edota haur literaturaren merkatuaren dinamikatik azaltzen eta ulertzen dira. Izan ere, irakurketa errazteko egiten diren moldaketa hauetan sustatzen dira literaturaren ezaugarri estilistiko eta literarioak. Liburuak eskolen, familien eta argialetxeen kontrola gainditu behar izaten dute haurrengana ailegatzeko. Eragile horiek, beraz, erabakitzen dute, neurri handi batean, zer eta nola irakurtzen den. Gainera, uste da neskek mutilei eta neskei zuzendutako liburuak irakurtzen dutela eta mutilek, berriz, ez dutela neskei zuzendutako literatura irakurtzen.

Janerrek (1995) esaten duenez, haur irakurleak ezartzen dituen moldaketak egiteko joera orokor hau da, gaur egungo haur literatura hobekien karakterizatzen duen ezaugarria da.

Nahiz eta irakurketa errazteko, testuen ulermena hobetzeko edo haur irakurleen zaletasunari lotzeko egiten diren moldaketak onuragarriak izan, aldi berean hainbat egilek (Etxaniz (1997), Ruiz (2003), Moreno (1998), Obiols (1998)) salatzen dute moldaketak arau eta joera orokorra bihurtzen direnean haur literatura pobretu egiten dutela kalitate literarioa galduz.

Ruizen tesiko bigarren ondorioa da, 90eko hamarkadako haur narrazioek didaktikoak izaten jarraitzen dutela, didaktismo esplizitua ere nabarmenki azalduz. Kiko Ruizek (2003) salatzen du, gaur egungo haur narrazioak ez direla hain estuki moldatzen tradiziozko ipuin klasikoen didaktismora, baizik eta narrazio hauetan agertzen den didaktismoa, modernitateak ezartzen duen ideologiara egokitua dagoela eta Teresa Colomerren hitz hauekin bat egiten du:

“Parece más bien que la narrativa infantil y juvenil se resiste a abandonar el control de la interpretación moral de los acontecimientos relatados y se halla en una fase de búsqueda de nuevas fórmulas sancionadoras que no resulten tan lesivas para la calidad artística de las obras” (Colomer, 1998, 293. or.).

Hirugarrena, Ruizek uste du, arestian aipatutako egokitzapena eta didaktismoaren fenomenoek, eduki ideologikoetatik eta sozialetatik, didaktismo global batera pasatze hau azaltzen dutela eta Perrotik (1993) dioen bezala, egungo haur narrazioak eta literaturak ezin izan duela bere sorrera didaktiko eta moralizantetik libre geratu eta gainera, gaur egungo gizartearen mentalitateak onartzen dituen balio orokor eta neutroak (elkarbizitza, kultur-aniztasuna, berdintasuna, bakezaletasuna, errespetua, ekologismoa, tolerantzia, askatasuna, justizia soziala...) etengabe errepikatzen direla haur eta gazte narrazioetan, predika aseptikoa bilakatzen direlarik. Beraz, ipuin klasikoaren irakaspen klasikoetatik *zuzentasun politikoaren* printzipioetara (gure mendebaldeko gizartearen mundu ikuspegiak ezartzen duen humanismo demokratiko eta soziala) pasatu da haur literatura.

Cervera (1997) oso kritiko agertzen da narrazioetan antzeman daitekeen gehiegikeria pedagogiko eta didaktismoarekin. Berarentzat kontraesan bat baita askotan kritikatu izan den umearen manipulazioa eta literaturaren instrumentalizazioa haur narrazioetan presentzia nabarmena izatea.

“En nombre de la corrección política se defiende desde la prensa «la batalla para hacer que la literatura infantil sea políticamente aceptable para todos los sectores de la sociedad» en temas como el racismo, las clases sociales, el sexismo...” (Cervera, 1997, 77. or.).

Ruizek (2003) modu honetan laburtzen du haur literaturak izan duen ibilbide didaktikoa: iraganean literatura *moral*a izan zen, mentalitate kristau-burgesak ezarritako irakaspenak erakusten baitziren. XX. mendean, zenbait mementotan, ideologia totalitario eta baztertzailerik batzuen zerbitzura ageri da. Euskal Herriaren kasuan, ikusi izan denez, XX. mendean abertzaletasunaren zerbitzura ageri da neurri handi batean. Gaur egun, ordea, haur literaturak, edozein ortodoxia ideologikoa baztertzeko eta humanismoa, tolerantzia, errespetua, ekologismoa eta antzeko balioak islatzen ditu. Alegia, zuzentasun politiko eta balioz postmodernoz eta demokratikoz beterik ageri da haur eta gazte literatura, nolabaiteko neodidaktismoa begi-bistan geratzen dagoelarik. Beraz, garai bakoitzean indarrean zeuden ohiturak, sinesmenak, pentsaerak eta ideologia finkatzeko eta sendotzeko balio izan du literaturak. Beste era batera esanda, ezagututa hitzen eta irudien boterea umeengan eragina izateko, literaturaren

helburu pedagogikoa erabili izan da umea moralki ideologizatzeko. Mementoko eta balizko balioak nahieran erabili zirelarik eta gaur egun erabiltzen direlarik. Ondorio gisa esan daiteke, denbora aurrera egin ahala ikusten dela, funtsean, gauzak ez direla asko aldatu; hasierako literaturaren funtzio didaktikoa mantentzen jarraitzen da eta aldatu egin direnak balioak eta ideologia izan da. Gizartean indarrean dauden balioek haur eta gazte literaturan islatzen segitzen dute. Egokitzapen printzipioa eta borondate didaktikoarekin batera doazen indar gutxiko eduki ideologiko eta sozialak direla eta, Ruizek ez daki gizarte modernoek mentalitateak ezarritako desideologizazioa ote gauden edo ez.

Azkenik, Kiko Ruizen laugarren ondorioa da, gaur egungo haur literaturak jarraibide ideologiko argiak eskaintzen dituela, gizarte modernoek ideologiak ontzat ematen duen zenbait balore islatzeko agertzen direlarik; lagunkidetasuna, demokrazia, tolerantzia, errespetua, feminismoa, ekologismoa, arrazakeriaren aurkakoa... Azken finean, haur eta gazte literaturan klase ertainaren mentalitate modernoa eta postmodernoa islatzen da.

Lluch (1996) bere aldetik, psikoliteratura kontzeptuaz aritzen da. Bere aburuz, haur eta gazte literaturako psikoliteratura generoaren barruan ideologia konkretu bat bidaltzen da modu zuzen eta era esplizitu baten bidez. Ideologia hori feminista, ekologista, aniztasunarekiko errespetuan, demokratikoa, baina bereziki, baikorra da eta narratzailearen, gaien edo pertsonaien bitartez igorri egiten da.

Gouveiak (2010) literaturan bi funtzio identifikatu ditu: *orientatze* funtzioa, alegia, balioak ekintzen bideratzaile gisa eta funtzio *motibatzailea*; hots, balioak gizakien beharrezkoen errepresentazio moduan.

Nahiz eta Ruiz orokorrean Lluchen tesiarekin ados dagoen, ñabardura bat aipatzen du; zenbait korrante ideologiko ahuldu diren bitartean, beste batzuk, ordea, indarrean dirautela. Horien artean, Kiko Ruizentzat sexismoa salatzen zuen feminismoarekin erlazionatzen diren eduki ideologikoak, adibidez, oso gutxitan agertzen dira eta, agertzen direnean, oso modu makal eta ahulean izaten da. Balio ekologikoak eta gizartean agertzen diren bidegabekerien eta gatazken salaketa (pobrezia, arrazakeria, marjinazioa...), berriz, sarri azaltzen dira. Ideia hori bera ikus daiteke Etxanizen (2004) esanetan:

“Incluso en aquellas editoriales y colecciones que cuidan la transmisión de ideas en sus textos, nos encontramos con que algunos mensajes están tan asumidos por la sociedad (la transmisión de roles sexistas, por ejemplo) que pasan desapercibidos. Al analizar la colección Barco de Vapor en euskara ("Baporea") se descubrió que mientras que en los libros de dicha colección se defendían y potenciaban ideas como la conservación de la naturaleza, la amistad, el compañerismo o la solidaridad, sin embargo se reflejaban, y acentuaban, los estereotipos sexistas de nuestra sociedad” (Etxaniz, 2004, 85. or.).

Laburbilduz, 1990eko hamarkadako haur narrazio gehienek balio moralak (askoz erlatiboagoak) eta formalak islatzen eta transmititzen dituzte didaktismo orokor eta egokitze prozesu baten ondorioz.

Bestalde, haur literaturaren funtzioen atalean ikusi ahal izan denez, haur literaturak garrantzi izugarria du umeen hezkuntzan eta hazkuntzan. Izan ere, haurraren sormena, adierazkortasuna, irudimena eta abar garatzeaz gain, jarrerak eta balioak bultzatzen ditu; haurrari mundua ezagutzen, gaitasun kritikoa eta estetikoa garatzen, kontzientzia hartzen eta, azkenik, erabakiak hartzen laguntzen dio. Ildo honetatik jarraituz, Nobilek (1992) zera esaten du:

“La lectura agudiza el espíritu crítico, refuerza la autonomía de juicio, educa el sentimiento estético, nutre la fantasía, ensancha la imaginación, habla a la afectividad, cultiva el sentimiento, descubre intereses más amplios y autónomos, contribuye a la promoción de una sólida conciencia moral y cívica abierta a los ideales de comprensión humana y de solidaridad social e internacional, resultando esencial para la formación intelectual de la persona” (Nobile, 1992, 20. or.).

Izan ere, Casalsek eta Defisek (1999) balioak hezkuntzaren oinarriaren parte gisa ulertzen dituzte eta pertsonen identitatea eraikitzen laguntzen dituzte. Halaber, pertsonen jarrerak baldintzatzen dituzte eta ondorioz, pertsonen arteko interakzioak ere.

Gainera, Colomer (1998) lan literarioen bi funtzio nagusiz aritzen da: funtzio literarioa eta funtzio pedagogikoa edo hezigarria. Jakinda, istorioa (narrazioa) baten bidez ezagutzak, informazioa, eta ideologia era aberats eta baliotsu baten

bidez transmititu daitekeela, liburuek botere handia dute umeengan eragin izugarria dutelako. Baina haur eta gazte literaturak bere aniztasunari eta balio sozialei eta estetikoei esker umeen hezkuntzan, formazioan eta hazkuntzan asko laguntzen duen arren, ezin da ahaztu literaturaren funtzio nagusia: gozamina. Izan ere, Hezkuntza Dekretuan (2007) jasotzen denez, umeak literaturaz baliatu behar dira gozatzeko, mundua ezagutzeko eta norberaren identitate pertsonala, kulturala eta soziala eraikitzeko.

Esate baterako, Espainiako 2014ko Hezkuntzako 126/2014 Errege Dekretuak pertsonen hezkuntzarako balioen garrantzia jasotzen da eta horien artean, arestian aipatutako pentsaera demokratikoari eta postmodernoari lotzen direnak ageri dira:

“Los valores sociales y cívicos tienen una valía fundamental para las personas en una sociedad democrática; de ahí la importancia de que la educación facilite la construcción de la identidad individual y potencie relaciones interpersonales enriquecedoras para fortalecer la convivencia, de acuerdo a valores cívicos, socialmente reconocidos” (Errege Dekretua, 2014, 19.415. or.).

Bukatzeko, literaturak eta balioek hezkuntzan duten garrantzia Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko 175/2007 Dekretuan (97/2010 Dekretuaren bidez aldatua) antzeman daiteke. Bertan, herritartasunarekiko eta Giza Eskubideetarako hezkuntza nabarmentzen da. Hori lortzeko asmotan edukiak hiru multzotan banatzen dira eta bigarren eduki multzoan emakumezko eta gizonezko guztien arteko berdintasuna onartu behar dela aipatzen du, besteak beste.

“2. eduki multzoak, «Komunitatean bizitzea» izenekoak, honako hauek lantzen ditu: ingurunearekiko harremanetan elkarrekin bizitzea; gizarte demokratikoaren oinarri diren gizabidezko balioak (errespetua, tolerantzia, solidaritatea, justizia, berdintasuna, elkarri laguntzea, lankidetzeta eta bakearen kultura); gure taldeetan bizikidetzari eta gatazkei aurre egiteko erak (familia, ikastetxea, lagunak, herriak); eta pertsona bakoitzak bere taldean dagozkion eskubide eta betebeharrak betetzea, aniztasuna identifikatuz, bereizkeria baztertuz, parte hartzea eta horretarako bideak

aintzat hartuz eta talde eta batzordeetan parte hartuz. Halaber, hurbileko ingurunean dagoen kultura- eta erlijio-aniztasuna onartuta, eta, eskubide eta betebeharrei dagokienez, emakumezko eta gizonezko guztien arteko berdintasuna onartuta, ohitura eta bizimodu desberdinak kritikoki errespetatu daitezkeen lan egin daitezke, eta marjinazio-, bereizkeria eta gizarte-bidegabekeriako egoerak antzemateko eta baztertzeko elementuak lor daitezke” (EAEko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak sortu eta ezartzeko Dekretua, 2007, 215. or.).

Gainera, gizartean parte-hartze kontzientea, arduratsua eta kritikoa bultzatuko da; diskriminazioa eta bidegabekeria eragiten duten jarrerak eta egoerak salatuz, eta jarrera solidarioa hartuko da eskubiderik gabeko edo nahitaezko baliabide ekonomikorik gabeko herri, talde sozial eta pertsonekin. Baita ere, aipatzen da gizonezkoen eta emakumezkoen artean behar den berdintasunak arreta berezia merezi duela. Emakumezkoen bereizkeriaren zergatiak eta faktoreak aztertu behar direla azpimarratuz; pertsonen duintasunaren eta askatasunean berdintasuna izatearen printzipioetan oinarrituta balioetsi behar dira emakumezkoak, eta bereizkeria hori eta emakumezkoen aurkako indarkeria ekiditeko aukera bideragarriak bilatu behar dira.

Berdintasunarekin loturik, arestian aipatutako EAEko Dekretuak Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza ikasgaiak honako gaitasun hauek lortzea du helburu:

-Pertsona guztien eskubide- eta aukera-berdintasuna defendatzea, eta sexuagatik, jatorriagatik, etniagatik, sinesmenengatik, norberaren eta gizarte-desberdintasunengatik, orientazio afektiboagatik edo sexualagatik edo beste edozein arrazoiengatik dauden bidegabekeriak eta bereizkeriak baztertzeko, giza eskubideetan oinarritutako bizikidetzaren bidezkoa eta berdintasunezkoa lortzeko.

-Emakumeen eskubideak onartzea, sexuen arteko desberdintasunak eta gizonezkoen eta emakumezkoen eskubide-berdintasuna balioestea, gizonen eta emakumeen arteko bereizkeria dakarten estereotipoak eta aurreiritziak baztertzeko, eta berdintasun-jarrera bultzatzea, norberaren garapen integrala bermatzeko, bai eta sexu-desberdintasuna eta emakumezkoen aurkako indarkeria desagerraraziko dituen bizikidetzaren bermatzeko ere.

Gaitasun hauek lortzeko, gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasuna eduki-multzoa aurkezten du:

-Berdintasuna eta aniztasuna.

-Emakumezkoek pairatzen duten bereizkeriaren zergatiak eta faktoreak. Eskubide-berdintasuna eta egitatezko berdintasuna.

-Bereizkeriari eraso egiteko mekanismoak. Emakumezkoen aurkako indarkeriari aurre egiteko prebentzio eta babes integrala.

Lege Dekretuan argi eta garbi geratzen da, ideologia eta hezkuntza elkarrekin doazen bi kontzeptu banaezinak direla. Ideologiaren atzean zenbait balio daude eta hezkuntzaren bitartez haurrak ideologizatu nahi dira pentsaera, sinesmen, balio konkretu batzuen barruan, kasuan-kasuan, gizartean indarrean daudenak. Hezkuntzak helburu hori lortzeko dituen bitartekarien artean, haur eta gazte literaturak garrantzia berezia du. Izan ere, balioak inplizituki eta esplizituki, irudien eta hitzen bidez, modu erraz batean ailegatzen dira umeengana.

Idea horien antzekoak ditugu Etxanizek (2004) esaten duenean narrazioa lan batean istorioak narratzeko erabiltzen diren estiloak, hizkuntzak, lexikoak, pertsonaiak, hauen paperak, estereotipo konkretu batzuen aurrean aurkako edo aldeko dituzten jokabideak... ideologia eta diskurtso (moral) konkretu baten eragile direla. Diskurtso hau batzuetan egileek edo marrazkigileek nahita bultzatzen dute, nahitasuna, eta beste batzuetan, ordea, "neutroak" izaten saiatzen diren arren, indarrean dagoen ideologia finkatzen laguntzen dute eta gaur egungo estereotipoak bultzatzen dituzte. Lehenengo kasuan oso modu argian gertatzen denez irakurlea kontzientea da egileen asmo moralizatzaileaz eta bigarrenean, ordea, asmoa ez denez hain argia, zailagoa suertatzen da diskurtso moralizaileaz jabetzea.

Galarronek (1990) *CLIJ* aldizkarian argitaratutako *Literatura con valores* artikuluan Etxanizen ildo honetatik haur literaturari buruzko deskribapen hau idazten zuen:

"Existe una literatura infantil y juvenil que intenta educar en el ejercicio tolerante de la libertad; que desecha los viejos roles machistas; que postula un ideal de paz como única arma posible para ganar el futuro; que

intenta establecer una relación no depredadora con el medio ambiente; que rechaza la marginación social, el racismo, el abuso indiscriminado de las minorías. Existe, en definitiva, una literatura infantil y juvenil que huye de visiones idílicas y proporciona a niños y jóvenes una lectura más certera. Son libros para interpretar la realidad" (Galarrón, 1990, 26. or.).

Artikulu horretan egileak hainbat azpi-gaien deskribapena egiten du: "Giza Eskubideak eta bakezaletasuna", "Ingurumenaren defentsa", "Feminismoa" eta "Bazterkeria".

Galarronek (1990) bukatzen du esaten, hurrei eta gazteei zuzendutako literatura behatzen eta aztertzen baldin bada, literaturaren zati handi bat balioei eskainita dagoela konturatuko zarela, literaturaren zati handi bat jokabideei erreferentzia egiten diola eta errealitatea interpretatzen duela, baina garrantzitsuena, irakurlea hasunarketara daramala.

Emakunde aldizkariak "Cuentos infantiles y roles género" alean (2009), hainbat idazle eta ikerlariren lanak bildu zituen, bertan Lopezek zioen haurrentzat idaztea ez dela haurrak bideratzea. Zenbaki honetan ere Landak aipatzen du haur literaturaren erabilera utilitarista eta didaktikoaren aurka dagoela eta gainera zehazten du literaturan azaltzen diren balioak egilearen ikusmiran barneratuta daudela. Bera sexismoaren kontrako borrokarekiko sentikorra den heinean bere narrazioetan hori era naturalean agertzen delakoan dago. Zubizarreta idazleak ere uste du politikoki zuzenkeria asko dagoela haur liburuetan eta Añorgaren aburuz, literatura ezin da egon balio jakin batzuen menpe eta esanetara. Bestalde, Urkizak literatura mundua aldatzeko lanabesa dela babesten du eta Egañak bere aldetik liburuetan beti errealitate alternatibo bat bilatzen dela dio eta idazlearen eta ilustratzailearen lanetan norberaren ereduak eta balioak halabeharrez islatzen direla modu naturalean.

Haur eta gazte literaturan balio sozialak, literarioak eta estetikoak elkarturik bidaiatu behar dute umeen formazio literarioa eta moralaren oinarria direlako. Argi geratu da irakurketak balioak transmititzen dituela, baina Sanchezek eta Yuberok (2004) esaten dutenez, irakurleak bere kultura subjektiboaren bitartez ez ditu beti testuen egileek edo hezitzaileek aukeratutako balioak jasoko.

IV.4 Balioak eta beraien sailkapenak

Balioak hain ugariak izanik hainbat era desberdinetan sailkatu daitezkeela agerian uzten dute hainbat ikerketak eta egilek. Rokeachen arabera (1973), bi balio mota nagusi bereizten dira: sozialak (adiskidetasuna, bakea...) eta pertsonalak (barne-harmonia, bizitza ernagarria...).

Haatik, hainbat ikerketa enpirikok hirugarren multzo baten berri ematen dute, hauek ez baitira erabat sozialak, ezta erabat pertsonalak ere (Gouveia, 1998; Schwartz eta Bilsky, 1987). Schwartzek (2005) balio hauek (erabat pertsonalak eta sozialak ez direnak) balio mistoak bezala izendatzen ditu edo balio zentralak moduan ere agertu izan dira.

Marinek (1993) Ortega eta Gasseten (1973) lana oinarritzat harturik balioak hiru multzo nagusitan banatu zituen: Munduko balioak (ekonomikoak eta bizitzekoak), balio espiritualak (intelektualak, moralak eta estetikoak) eta balio transzendentak (erlijiosoak, filosofikoak eta mundu-ikuskerakoak).

Beste sailkapen bat da balioak materialistak gisa (pragmatikoak) sailkatzea edo humanitario (idealista) moduan (Braithwaite, Makkai, eta Pitellkow, 1996; Ronen, 1994). Materialistak ideia praktikoekin loturik daude eta gizaldekoak, ordea, ideia eta pentsaera abstraktuagoekin loturik daude.

Gervillak (2003) Espainia mailan nahiko zabaldua izan den balioen beste sailkapen bat aurkeztu zuen: gorputzaren balioak (balioak: osasuna, ongizatea, gozamena eta antibalioak: sufrimendua eta desnutrizioa), balio intelektualak (hausnarketa, arrazoia, logika eta antibalioak: analfabetismoa eta ezjakintasuna), balio afektiboak (ulermena, enpatia, maitasuna eta bestetik, deskonpresio, gorrotoa eta beldurra), norbanako balioak edo askatzaileak (banakotasuna, askatasuna, independentzia eta antibalioak: menpekotasuna, lerrokatze, homogeneotasuna eta esklabotasuna), balio estetikoak (edertasuna, musika eta artea, bestalde, itsustasuna eta desatsegintasuna), balio moralak (justizia, tolerantzia, ontasuna eta antibalioak: bidegabekeria, gaiztotasuna eta intolerantzia), balio sozialak (zintzotasuna, eskuzabaltasuna eta kontrara, bereizkeria eta gerratea), balio ekonomikoak, balio ekologikoak eta balio erlijiosoak.

Bere aldetik, Ibarrolak (2003) *Cuentos para sentir* liburuan balioak elkar harremanean dauden hiru taldetan banatzen ditu:

-Balio intrapertsonalak: norberaren ulermenean datza, norberak bere burua maitatzea eta bere kabuz pentsatzea. Norberak bere jarrerak aztertzea eta horien ondorioak balioestea erabakiak hartzeko orduan era arduratsu batean

-Balio interpertsonalak: elkarrekin bizitzea ikastea, enpatikoa izatea, tolerantzia, solidario, desberdinak aintzat hartzea, laguntasuna balioztatu, partekatzen ikastea, arazoak era baketsu baten bidez bideratzea...

-Ingurume-balioak: ingurumenaren arduradunak izatea, ingurumena errespetatzea eta zaintzea.

Bestalde, Salaberriak (2011) bere lanean poztasuna, adiskidetasuna, motibazioa, autoestimua, autoeskaera, autonomia pertsonala, kooperazioa, elkarrizketa, berdintasuna, justizia, leialtasuna, askatasuna, bakea, errespetua, ardura, elkartasuna eta tolerantzia jorratu zituen.

Balio horiek bost multzotan sailkatu zituen:

1.- Balio afektiboak: sentimenduekin eta afektibitatearekin lotura daukaten balioak eta maitasuna adierazten dutenak (lagunei, senideei) eta maitasun-harremanak; adiskidetasuna eta maitasuna.

2.- Garapenezko balioak edo nia jorratzen dituztenak: norbanakoaren gaitasunen garapenarekin lotura dituztenak eta bakoitzaren heldutasun eta autoerrealizazioa prozesuan harremana dituztenak; motibazioa, autoestimua, autoeskaria, autonomia pertsonala eta ardura.

3.- Bizitzeko balioak: ondo pasatzeko nahiarekin, poztasunarekin eta ongizate pertsonalarekin (osasuna, gorputzarekiko errespetua) zerikusia dituztenak; poztasuna (dibertsioa) eta errespetua (gorputzari).

4.- Balio sozialak: giza harremanetan eta elkarbizitzan inplikaturik daudenak; kooperazioa, elkarrizketa, leialtasuna eta errespetua

5.- Balio etikoak: gizatasunarekin zerikusia duten irudi abstraktuak eta natura zaintzeaz arduratzen direnak; berdintasuna, justizia, askatasuna, elkartasuna, tolerantzia, bakea eta errespetua (naturari).

Berdintasuna modu honetan definitzen da aipatutako tesian:

“Experimentar que los demás tienen el mismo valor y los mismos derechos que uno mismo. Como ideal social incluye la igualdad ante la ley, de poder político, de oportunidades para el proceso social y económico, de recursos, de riquezas, de libertad y de respeto (Honderich, 2001). En los últimos años, se ha incorporado una nueva generación de valores asociados a los derechos civiles, de las minorías y ecológicos que no estaban reconocidos.

Descriptorre: tratar por igual a los demás; defender, experimentar que las personas merecen el mismo trato y las mismas oportunidades; experimentar que nadie es superior a nadie; respetar a las personas que son de diferente raza, cultura, niveles de rendimiento; cuidar de que otros no queden al margen” (Salaberria, 2011, 90. or.).

Amaitzeko, nahiz eta Goiburuk, Urdangarinek eta Ugarteburuk (2011) balioen gaia jorratu zutenean ez zuten balioen inguruko sailkapen zehatzik egin, ipuinetan honako balioak agertzen direla esaten zuten:

Autoestimua, segurtasuna, ongia eta gaizkiaren arteko desberdintasunak, haurraren potentzialaren aitortzea, zorientasuna, motibazioa, maitasuna, bizitzaren esanahia (itxaropena), fantasia eta errealitatearen arteko desberdintasuna, haurtzarako menpekotasunari aurre egitea, esternalizazioa, disoziazioa, elkartasuna eta prestutasuna, betebeharrak/lana, aurreiritzien ezabapena, barkatua izatea, diruak ez duela zorientasunik ematen eta “dirugoseak zakua apurtzen duela”.

Sexu bakoitzean modu ezberdinena eragiten dutelarik eta heziketa parekidea eta berdintasuna zailtzen dutelarik, igortzen diren rol eta estereotipoen inguruan honako banaketa hau egin zuten:

Mutilak: independenteak, ausartak, ziurrak, erasokorrak, infantilak, dinamikoak, zalapartariak, sormenezkoak, naturalak, erresistentzia adierazten dute, indarraren sinboloa, gutxi definitutako aspektu afektiboak adierazten dute.

Neskak: mendekoak, beldurtiak, ez ziurak, gozoak, helduak, pasiboak, arduratsuak, lasaiak, zehatzak, sentiberak, etsikorak, ahuleziaren sinboloa eta afektuzko aspektu oso markatuak adierazten dute.

V. KAPITULUA. Aurrekariak

Euskal Herrian, Espainian eta oro har, mendebaldean haur eta gazte literaturaren inguruko ikerketak eboluzionatzeaz gain, esparru desberdinetatik jorratu izan dira. Irakurritako doktore tesiak eta argitaratutako ikerketak ugaritzen joan dira, gai honen garrantzia eta ikertzeko premia agerian geratzen delarik. Hamaika izan dira haur literatura, emakumea edota balioak jorratu dituzten lanak, baina gai guztiekin gertatzen den bezalaxe, inoiz ez dira nahikoak izaten.

“(…) los diversos estudios sobre literatura infantil y juvenil que se han realizado a lo largo de estos últimos años son reflejo de la riqueza y variedad de la problemática en torno a esta cuestión. Hemos pasado de considerar la literatura como un instrumento al servicio de la enseñanza de la lengua a que sea un elemento esencial en la formación de la persona” (Etxaniz, 2008, 99. or.).

Oso berriak dira haur eta gazte literaturan egindako ikerketak, are berriagoak oraindik, haur eta gazte literaturan sexismoa jorratu dituzten ikerketak. Gai honen inguruko lehenengo ikerketa 1971. urtean New Jersey-ko Princeton unibertsitatean egin zen. Ikerketa horretan, 15 bilduma aztertu ondoren, 15 irakasle feministek honako hau ondorioztatu zuten: 881 ipuinetan protagonista mutila zela eta neska, berriz, 344 istorioetan. Beraz, baieztatu zuten txiki-txikitatik umeez ikasten dutela gizonek emakumeak baino protagonismo handiagoa dutela. Baita ere, lehen hezkuntzako ikasleek liburu horien bitartez, alde batetik, gizonak aktiboak, dominatzaileak, sortzaileak zein antolatzaileak direla barneratzen dute eta bestetik, ordea, emakumeak pasiboak, intuitiboak, ordenatuak eta pozteko desiran dauden pertsonak direla ikasten omen dutela adierazi zuten.

Arestian aipatua izan den bezala, 1980ko hamarkadan UNESCOk munduko zazpi herrialde desberdinetan eskola liburuetakoa sexismoa arakatu zuen identifikatzeko eta ezabatzeko asmoz. Azterketa hiru atal ezberdinetan burutu daiteke: edukiaren azterketa kuantitatiboa, edukiaren azterketa kualitatiboa eta hizkuntzaren erabilera sexistaren azterketa. Dena den, kontuan izan behar da liburu bat sexistatzat jotzeko ez dela nahikoa pertsonaia batek estereotipo sexista bat izatea, baizik eta estereotipo horien irudien eta testuen bidezko

errepikapena izango da adierazlea. Herrialde guztietako haurrei eta gazteei zuzendutako liburuetan estereotipoen presentzia –maila ezberdinetan- ikusi izan da.

“Solo un profundo estudio del sentido de los conceptos igualdad y diferencia, de los valores masculinos y femeninos, sin los estereotipos del género, posibilitará que se produzca un cambio significativo hacia un orden social carente de discriminación” (Orquin, 1994, 106. or.).

Horrexegatik, hain zuzen ere, hain garrantzitsua da esku artean dugun bezalako ikerketa lanak aurrera eramatea. Izan ere, 3 edo 4 urteko umeak gai dira rol sexualak identifikatzeko; mutil batek nola jokatu behar duen eta neska bat nolakoa izan behar den desberdintzeko eta Garatek (1997) aipatzen duenez, haur eta gazte literatura errespetuzko elkarbizitza baterako beharrezkoak diren balio etikoak, sozialak, estetikoak eta afektiboak sustatzeko bitartekari egokia izan behar da.

IX. 1 Haur literaturari buruzko ikerketak

Haur literaturak duen garrantzia begi-bistakoa da bere inguruko ikerketa lan ugarietan eta inportanteetan begi jartzen baldin bada nazioartean nahiz Euskal Herrian ikusi ahal izan dugun bezala.

Haur eta gazte literaturako lehenengo ikerketa historikoak genero honen definizioaren bila, eboluzioa aztertzeraz eta ezaugarriak zehaztera abiatu ziren. Europako haur literaturaren historia Hürlimannek (1968) *Tres siglos de literatura infantil europea* lanean landu zuen. Grimm anaiaen, Saint-Exupery-ren, Cooperren edo Carrollen ipuin klasikoen azterketa sakona egiten duelarik. Mendebaldeko beste ikerketa garrantzitsu bat Hunten (1996) *Encyclopadia of Children's Literature* lan mardula da edo Marc Sorianoaren (1975) *Guide pour la jeunesse*. Generoari egin dioten ekarpenengatik honako lan hauek ere nabarmendu daitezke: Green (1962), Trigon (1950), Escarpit (1986), Bravo-Villasante (1978, 1983, 1987), Cervera (1982), Rovira (1988), Valriu y Llinàs (1994), Padrino (1992), Pazos (1986).

Haur eta gazte literaturari buruz Euskal Herrian garatutako ikerketen artean, hauek dira oihartzun handien izan dutenak:

1980ko hamarkadan Lertxundiren (1982), *Haur literaturaz* ensaioa besterik ez dugu topatzen eta 1990ko hamarkadan euskal haur literaturari buruzko ikerketek jarraipena eta garapena izan zuten: Calleja eta Monasterioren (1998) *La literatura Infantil Vasca. Estudio histórico de los libros infantiles en euskera* lanak garrantzitsuak dira. Baina, bereziki, Etxanizen (1997) euskal haur eta gazte literaturari buruzko *Euskal Haur eta Gazte Literaturaren Historia* tesia nabarmendu behar da gaiari egin dizkion ekarpenengatik. Bertan, euskal literaturan izandako haur eta gazte literaturgintza aztertu eta kokatu egiten du, ez bakarrik euskal literaturaren barnean, baita kanpoko haur eta gazte literaturaren parean. Horretarako, haur eta gazte literatura kontzeptua argitzen saiatu da lehendabizi, eta ondoren haur eta gazteentzat euskaraz idatzitako liburuen azterketa egin du bost garai nagusitan banaturik, lehenengo lanetatik

1900 . urtea arte, 1900-1940 bitartean, 1940tik 1960ra, 1960-1980 garaian eta azkenik 1980tik gaur egun arte.

2000. urtean Lopezek itzulpen lanez arduratuta *Euskara itzultako haur eta gazte literatura: funtzioak, eraginak eta itzulpen estrategiak* tesia plazaratu zuen. Irakasle honek euskal haur eta gazte literaturaren arloko itzulpenak historikoki nola egin diren, nolako funtzioak bete dituzten eta jatorrizko produkzioarekin zer nolako harremanak izan dituzten argitu ditu. 2004ean, Gómezek *Grimm anaien Kinder-und Hausmärchen euskaraz: Itzulpenen eta egokitzearen azterketa* izeneko tesia aurkeztu zuen.

Urte bat beranduago, Alzolak (2005) bere tesia *Propuestas éticas en los libros-álbum de literatura infantil. Diseño y aplicación de un modelo para el análisis de valores* idatzi zuen balio etikoak aztertzeko mekanismo metodologiko garrantzitsuak eskainiz. Ondorioen artean tesi honek dio aztertutako corpusean (1975 eta 2000 artean argitaratutako 50 haurrentzako lanak) proposamen etikoak nabarmenak direla. Hurrengo atalean ere zehaztuko denez, egiten duten ekarpenengatik eta aztertutako gaiagatik garrantzitsuak dira De Sousaren (2012) tesia edo Salaberriarena (2011).

IX. 2 Haur eta gazte literatura eta balioak

Haur eta gazte literatura umeen garapen pertsonalerako, sormenerako eta kritikotasunerako baliabide egokia izanik (Cerrillo, 2007) haur eta gazte literatura eta balioak harremanean jarri dituzten lan aipagarrien artean hainbat tesi eta ikerketa aurki ditzakegu.

“Cada obra literaria con su contenido presenta un abanico de ideas, normas y creencias que van a ser asimiladas por la sociedad lectora y, de un modo u otro, influirá en su estructura social e incluso privada” (Sousa, 2012, 82. or.).

Izan ere, garai bakoitzeko literatura ezagutzea baliagarria da gizarte zehatz batek etorkizuneko haurrentzat nahi duen oinarri ideologikoa ezagutzeko; talde horren sinesmenak, balioak, kontrabalioak eta morala ezagutzeko.

“Aunque algunos escritores consideren que es el lector el que da forma y significado, desde su perspectiva, al contenido del libro, la mayoría de las lecturas está impregnada de valores sociales. Los autores, influidos por sus vivencias y su contexto, nos hacen partícipes de su mundo, al tiempo que nos transmiten sus creencias y valores” (Sánchez, Yubero, 2004, 90. or.).

Corpusaren kopuruari erreparatuz gero, badago Espainiako estatuan haur literatura eta balioak harremantzen dituen tesi garrantzitsu bat. Izan ere, Ruizek (2002) haur literaturako 150 narrazio aztertu zituen *Análisis de narraciones infantiles para niños de 6-12 años escritas en castellano entre 1990-98* izeneko tesian. Ikerketan lan honetan egileak esaten du 1990eko hamarkadako haur narrazioek ez dutela eredu narratzaile berariazkorik ikuspuntu literariotik aztertuta. Bestalde, Salmerónen Granadako Unibertsitatean babestutako lana da, *Transmisión de valores a través de los cuentos clásicos infantiles* (2004). Tesi honek garrantzia handia du gaur egun oraindik ere, ipuin klasikoen bertsio tradizionalak haurraren munduaren parte izaten jarraitzen dutelako. Ipuin hauen bitartez umeek mundu axiologiko baten ezagutza barneratuko dute. Gainera, Bettelheimek (1997) eta Cashdamek (2000) ipuin mota hauek umeen hezkuntzan beharrezkoak direla baieztatzen dute. Tesiaren egilearen helburu nagusia ipuin

klasikoen bidez transmititzen diren balioak deskribatzea izan zen. Hori lortzeko 11 titulu desberdinetako 33 testu aukeratu zituen eta ipuin klasikoaren eta modernoaren profila axiologikoaren arteko alderaketa deskribatzailea egin zuen. Ondorioen artean, egileak balio sozialen (maitasuna, askatasuna, egia...) eta beraien antibalioen (abandonua, tratu txarrak, gezurra, heriotza...) presentzia nabarmena aipatzen zuen. Horrez gain, antibalioak gainditzeak “amaiera zoriontsua” dakarrela baieztatu zuen.

Bestetik, bai bertzio klasikoetan zein bertzio modernoetan presentzia gutxien dituztenak, balio transzendentelak eta balio ekologikoak dira. Ordea, presentzia nabarmenena dituztenak balio sozialak, etikoak, afektiboak eta korporalak dira eta beraien antibalioak. Esate baterako, egileak aipatzen du bertzio klasikoetan edertasun fisikoak duen garrantziak bertzio modernoetan lekua utzi diola balio instrumentalei (moda, luxua, aberastasuna, bitxiak...).

“En las versiones antiguas, se destacarán especialmente los valores sociales de tipo corporal, como la belleza física...y de tipo afectivo, aunque se van a representar en la aspiración y valoración del estatus y la posición social. En las versiones modernas, esta valoración de lo estético va a encontrarse en lo material; van a ser valores instrumentales de tipo corporal.

Entre los valores menos representados y por tanto menos transmitidos desde los cuentos analizados pertenecientes a los dos grupos, serán los transcendentales y los ecológicos. Los valores transcendentales van a ser inexistentes en las versiones modernas, y casi inapreciables en las versiones antiguas. En estas últimas aparecerán de forma simbólica, así como literal, referidas a ceremonias, especialmente a las bodas y a Dios” (Salmeron, 2004, 318. or.).

Dena den, gure tesi honentzako Salmerón-en ikerketa lanaren bosgarren eta seigarren helburuen ondorioak dira ekarpenik inportanteenak. Bertan, genero ikuspegitik ipuin klasikoen pertsonaien (nagusiak eta bigarren mailakoak) profil axiologikoa aztertu zituelako. Hauek dira ateratako ondorio batzuk:

Pertsonaia nagusi positiboan, kontuan hartzeko desberdintasunak igarri ditu pertsonaia femeninoa eta maskulinoaren artean. Hala nola, bertzio klasikoetan

pertsonaia gizonezkoa denean balio sozialak, etikoak eta afektiboak izango dira nagusi: ontasuna, ausardia. Pertsonaia emakumea denean, aldiz, balio sozialak, estetikoak eta afektiboak nabarmenduko dira: ederra, ontasuna, goxoa, konfiantza, eta aldi berean, koldarra, ahula, mendekoa.

Baina bertsio modernoetan, ordea, emakumeek beste irudi bat islatuko dute; hots, bertsio klasikoetako gizonen balio sozial, etiko eta intelektualak izanik, adibidez, emakume ausarta, independentea, arazoei era arrakastatsu batean aurre egiten dionarekin topatuko gara.

Pertsonaia nagusi negatiboetan, generoari dagokionez egileak ez du antzeman desberdintasun handirik. Biak dira okerrak, berekoiak eta gaiztakeriak egiten dituzte: erasoak, gehiegikeriak... Bertsio modernoetan, gainera, zorigaiztoak eta beraien helburuak lortzen ez dituztenak dira.

Bestalde, bigarren mailako pertsonaiei dagokienez, bai gizonezkoetan zein emakumezkoetan antibalio gutxi agertuko dira, eta bestetik, maitasuna edo elkartasuna bezalako balio sozialak, etikoak eta afektiboak. Baita ere pertsonaia nagusia arazoa gainditzen lagunduko dute.

Alzolak 2005. urtean irakurritako tesian *Propuestas éticas en los libros-álbum de literatura infantil. Diseño y aplicación de un modelo para análisis de valores* haur hezkuntzako hainbat album eta balio aztertu zituen irakurketan eragina duten balioak eta bertuteak ezagutarazteko. Horretarako, egileak 1975 eta 2000 bitartean argitaratutako 50 lanen proposamen etikoak aztertu zituen. Tesian erabilitako paradigmaren arabera, aztertutako corpusean, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean jasotzen diren proposamen etikoen presentzia handia da eta gainera, mundu gizatiarrago batekin konprometituta dagoena, adibidez, injustizien, indarkeriaren, intolerantziaren, ankerkeriaren salaketa eginez aztertutako liburuen erdia baino gehiagoan ageri delarik.

Bere aldetik, Salaberriak (2011) tesia aldeztu zuen. Bere abiapuntua edo hasierako hipotesia, haur eta gazte literatura estetikoki eta literaturaz osatuta egoteaz gain, axiologikoki ere osatuta dagoela izan zen. Beste alde batetik ere, interesatzen zitzaion frogatzea ea haur eta gazte literaturak gizarte ekonomikoki eta teknologikoki garatu baten balioak lanetan islatzen diren; hots, gizarte aurreratuen balio postmaterialistek (gizarte beharrianak asetzen dituztenak) eta

hezkuntza legeek agintzen dituzten oinarrizko balioek (LODE eta LOGSE) idatzizko lanetan presentzia nabarmena duten edo ez. Horretarako, 80 liburuko corpusa hautatu zuen, Lehen Hezkuntzari zuzenduta dauden 51 eta DBHko 29 liburu. Emaitzek hasierako hipotesia baieztatu zuten; alegia, haur eta gazte literaturan substratu axiologiko baten existentzia nagusia, gaur egungo kultura eta giza fenomenoekin bat egiten duena. Baita ere, azpimarratzen du liburuetan agertzen den etika hartzailearen adinari egokituta dagoela.

“La dimensión axiológica del universo narrativo existe en tanto que se organiza, representa e imagina en las formas éticas que produce. Los valores, junto con las acciones moralmente orientadas como son los modos de elección de valores, los motivos para la acción moral, las problemáticas morales, las imágenes del mundo y las aspiraciones éticas, manifiestas o latentes en el discurso literario, son elementos esenciales de la configuración ética de la narrativa” (Salabarría, 2011, 60. or.).

Bestetik, de Sousak (2012) bere tesian haur eta gazte literatura modernoan ezartzen den profil ideologiko orokorra aztertu nahi zuen eta bide batez ere, narrazio hauetan balioak transmititzeko era eta bitarteko literariorik erabilienak zeintzuk diren jakin nahi izan zuen. Bere aburuz, haur eta gazte literatura gatazka emozionalerik, jarrera sozialerik eta ekintza etikorik eta moralerik, bustita dago. Bere ikerketaren arabera, emakumea ez da ahula eta otzana, hau da, gizonarekiko ez duela horrenbesteko menpekotasunarik eta eskudunagoa dela. Gizonezkoen irudia, ordea, oraindik menderatzailea da botere soziala eta ekonomiko handikoa, baina emakumearen bizitzan gero eragin gutxiago duena. Familiari dagokionez, eredu tradizionalen oinarritutako familia nagusi da, gatazka gutxienekoa eta gurasoen parte hartze handia umeen bizitzan duena. Balio estetikoek dagokienez, oso presentzia txikia dute, lanen % 8,42an besterik ez dira ageri eta horien artean deigarriena, edertasunarena da % 5,26. Ondorioz, egilek honek azpimarratzen du, narrazioetan sexismoa ez dela nabariki presente dagoen elementu bat.

“Nuestra hipótesis inicial de que nos encontraríamos con una literatura excesiva y exageradamente instrumentalizada no se ha confirmado. En cambio, nos hemos encontrado obras que reúnen en su mayoría, las

características de una obra literaria y a la vez cumplen con un objetivo educativo” (De Sousa, 2012, 359. or.).

Alzolak (2007) *Literatura infantil y educación ética: análisis de un libro* artikuluan haur literaturako liburu bat nola aztertu eta interpretatu behar den eskaintzen digu adibide baten bitartez. Kasu honetan, haur literaturako album bat hautatzen du aztertzeko eta interpretatzeko asmoarekin: Lewisen (1999) *Tener amigos es divertido*. Alzolarentzat oso garrantzitsua da liburuaren azterketa eta interpretazioa egitea, alde batetik, kalitatezko narrazio modernoek etikaz beterik daudelako, eta bestetik, Alzolak uste baitu liburuetakoko pertsonaiak (nagusiak, bigarren mailakoak) eraikita daudela bizitzaren eredu gisara eta umeen identitate moralaren eraikuntzan garrantzi handia dutela.

Azterketa lan hori aurrera eramateko pertsonaiak aztertzen ditu, alde batetik pertsonaia nagusia, eta bestetik, bigarren mailako pertsonaia laguntzaileak. Ondoren, pertsonaia nagusiaren bilakaera erreparatzen du istorioa osatzen duten hiru atal nagusietan: hasieran, korapiloan eta bukaeran. Gero, pertsonaiaren erreakzioa lortzen duen egoera kritikoa identifikatzen du. Jarraian berari zer-nolako identifikazioa egiten dion eta azkenik, istorioan antzematen dituen balio eta antibalio etikoak zerrendatzen ditu.

Azterketa egin eta gero narrazioaren interpretazioa egiten du eta honako ondorio hau ateratzen du:

“Como podemos ver, la importancia de la construcción de la historia, la solidez de los personajes, lo figurativo, lo temático, las identificaciones que provoca, las emociones que suscita son elementos importantísimos en el análisis literario y axiológico de una narración”.

“Por ello, en nuestros proyectos educativos, ya sean en la escuela, en casa o en cualquier comunidad educativa, deberíamos tener en cuenta y saber qué narraciones ponemos en manos de los niños y niñas, quiénes son sus personajes pues las emociones que suscita su lectura y las identificaciones que provocan son elementos muy importantes en la construcción de la identidad moral” (Alzola, 2007, 163-164. or.).

IX. 3 Haur eta gazte literatura, generoa eta ideologia

Ikusita haurren hezkuntzan liburuek duten garrantzia eta espazioa begi-bistakoa da gai honek ardura sortzen duela, izan ere, Gabiriak (2010) aipatzen du ipuinak dagozkien gizartearen ispilu direla eta Cañellasek (1975) aipatzen zuen haur eta gazte literaturan mutilentzat agertzen ziren ekintzak eta jarduerak erakargarriagoak direla emakumearenak baino. Hortaz, garrantzitsua eta premiazkoa jotzen da haur eta gazte literaturan ageri den ideologia eta generoa aztertzea.

“No hay mejor documento que la literatura infantil para saber la forma en la que la sociedad desea verse a sí misma, ya que constituye un mensaje de los adultos a la infancia para contarle cómo debería ver el mundo. Por ello se habla de la literatura infantil y juvenil como de una agencia educativa, en el mismo sentido en que lo son la familia y la escuela” (Colomer, 1999, 44. or.).

Arestian aipatua izan den bezala, generoa ez da gizona eta emakumea bereizten dituzten ezaugarri biologikoen multzoa (hau sexua litzateke), baizik eta desberdintasun natural horietan oinarrituta eratu diren gizarte-eraikuntzak. Tabernerrek (2008) aipatzen duenez, genero-kontuak dira desberdintasun eta desoreka soziokulturalak nahiz desberdintasun psikologikoak, nortasuna giro sexista batean eraikitzeagatik sortuak izan.

Ideologiari dagokionez, Lluhek (2010) ideologia bezala hartzen du mundua ikusteko baliagarriak diren ideien, sinesmen eta kontzeptuen multzoa. Haur eta gazte literaturaren kasuan, narrazio batean agertzen diren ideiek, arauak, balioak, sinesmenak, iritziek, aurreiritziek eta jarrerak osatuko lukete liburuaren ideologia. Beraz, liburu guztiek ideologia transmitituko dute, baina ez modu berdinean. Olaziregik (2009) aipatzen du ideologia ez dela aspektu zehatz bat, baizik eta osagarriak izan daitezkeen elementu desberdinen bitartez adierazten dena. Estebanezek (1995) honela definitzen du ideologia hitza:

“El conjunto de ideas, creencias, valores y representaciones (mitos, símbolos, imágenes, etc.) que conforma una determinada visión del mundo y sirve de pauta a los individuos de un definido grupo o clase

social, o comunidad nacional, religiosa, cultural, etc., para relacionarse con el mundo, con los demás miembros del grupo (...) y con otros grupos o colectividades humanas” (Estebanez, 1995, 544. or.).

Nortasuneko eta estatus-roletako genero-desberdintasunak sozialki eraikitzen direnez eta hainbat ikerketek erakusten dutenez, gizonezkoengan eta emakumezkoengan ezarritako portaera sozialen eredu desberdintasunean sakondu beharra dago, bere jatorrian eta zergatietan eztabaidatuz; portaera sozialen eredu horien aldaketa neurtzea eta bide batez, eraldakuntza soziokulturalak eta mugimendu feministak hauetan duten eraginaz jabetzeko.

1994an ere, Daviesen *Sapos y culebras y cuentos feministas. Los niños de preescolar y el género* liburu garrantzitsuak argia ikusi zuen espainolez. Australian egindako ikerketa batetik ondorioztatzen du umeez aukeratutako egitura maskulinoak eta femeninoak ez direla kasualitatea, baizik eta maskulino-femenino binomioak duen indarraren eragina. Egile berak genero bakoitzari esleitzen zaizkion alderdi negatiboak zerrendatu zituen; femeninoak: ahuldadea, lotsa, itxura ona izateko obsesioa etxebizitza eta maskulinoak, ordea, oldarkortasuna, sentsibilitate eskasa eta laguntza onartu behar izateari uko egitea. Bere aburuz, ezaugarri femenino ezkorrek maskulinitatearen alderdi negatiboak baino negatiboagoak direla gizarteak ez dituela berdin onartzen.

Urte berean, Du Côté des Filles elkarte europarra sortzen da sexismoaren aurka egiteko. Beraien helburuen artean hezkuntza materialean dagoen sexismoa ezabatzea da eta baita hezkuntzan antisexismoa irudikatzen duten irudien alde egitea ere.

Horretarako, 1996. urtean Frantzia, Italia eta Espainian ikerketa bat abiatu zuten album ilustratuei buruz, *Atención álbum*. Bertan, 736 liburu aztertu zirelarik, ikerketa honek baieztatzen du liburuetako irudiek, sarri, familiaren eta gizartearen egitura erabat estereotipatua transmititzen dutela. Horrela emakumea esfera familiarrari lotuta ageri da eta gizona, aldiz, boterearen esferari, alegia, erabaki garrantzitsuenak eta sormena beraien esku geratzen delarik.

Ikerketa honen hasierako hipotesia zen, liburuek, testuaren eta irudiaren bitartez, estereotipo sexistak transmititzen dituztela eta gainera, neskak eta emakumeak diskriminatzen dituztela. Alde batetik, emakumea gutxien duten ezaugarri

fisiko eta psikologiko egotziz eta bestetik, rol eta estatus zehatz batzuk eskainiz. Ikerketak, arestian aipatu bezala, baieztatu du aztertutako liburuak sexistak direla eta mundua, nolabait esateko, maskulinoa dela. “*Los álbumes muestran invariablemente una imagen masculina del mundo*” (Du Côté des Filles, 1998, 5. or.).

Ondoren, Frantziako, Italiako eta Espainiako guraso eta haurrei egindako elkarrizketa batzuen bitartez ondorioztatu zuten, esate baterako, etxeko sofa eta egunkaria maskulinoa direla eta amantala, ordea, femeninoa. Gainera, bai rol profesionalak, bai eta etxeko rolak ez daude parekidetasunean banatuta.

Ikerketa horretan idazleak, ilustratzaileak, gaiak, azalak eta protagonistak aztertu zituzten.

Aitari dagokionez bi aita mota agertzen direla aipatzen da: bata, *aita tradizionalaren* agerpena: etxeko sofán agertzen dena egunkaria irakurtzen edo telebista ikusten edota mahaián eserita janaria noiz zerbitzatua izango den zain dagoena. Bestea, gehien agertzen den aitaren figura da, *aita “ikusezina”* gisa izendatzen dena. Alegia, etxean agertzen ez dena, baina existitzen dena. Amak ez duelako ogibiderik, umeak ondo jantzita daudelako eta etxe eroso bat agertzen delako (etxera dirua ekartzen duena). Gainera, lanbidea ageri denean normalean lanbide maskulinoak izaten dira eta hauek prestigiokoak eta ondo ordainduak izan ohi dira.

Ama, ostera, etxeko lanei eta zaintzei lotuta ageri da. Ogibideari dagokienez, emakumezkoen lanbideak prestigio eta soldata baxukoa eta batzuetan iraingarria. Oro har, dendariak, irakasleak, zaintzaileak edota erizainak.

Laburbilduz, ikerketa honetan Turínek eta Cromerrek (1998) ondorioztatzen eta salatzen dute pertsonaia femeninoen urritasuna eta emakume independentea eta eredu ezberdinen falta sumatzen dutela. Halaber, emakumezkoen erdia etxeko lanak (garbiketa, janaria prestatzen...) eta zaintzak egiten ageri da eta kalean daudenak erosketak edo umeak eskolara eramaten ageri dira.

Beraz, gabezia hauei aurre egiteko eta umeen hezkuntzan liburuaren garrantzia ezagututa betaurreko moreen erabileraren beharria aipatzen da; hots, sexismoa kritikatu duen tresneriaren beharra izan behar da eskuragai.

1995ean, Turinek *Los cuentos siguen contando* liburu garrantzitsua argitaratu zuen, bertan umeentzako irudi-liburuek duten emakumearen irudia ageri delarik eta baita zeintzuk diren sinboloak, paperak, rolak eta abar irudi-liburuetan.

1999an, Etxanizek *Psikodidaktika* aldizkarian artikulu bat argitaratu zuen “Investigación en la literatura juvenil vasca” izenburuarekin. Euskal letretan egindako ikerketa eta argitalpen ezberdinen berri emateaz gain, haur literaturan emakumearen irudiaren inguruan egindako ikerketa bat aurkezten du honako ondorioa azpimarratuz: 1990 hamarkadako euskal haur eta gazte literatura, kontzienteki edo inkontzienteki, ez dago hezkidetza bultzatzen, estereotipo sexualak apurtu ordez sustatu egiten ditu eta bi sexuen berdintasun aukeraren aldeko ideologia eta ideiari mesede egin beharrean, desberdintasuna areagotzen dago.

Egile horrek berak (2004) “La ideología en la literatura infantil y juvenil” artikuluan euskal haur literaturan zenbait ideia nola transmititzen diren aztertu zuen; estereotipoak (emakumearen irudia) indarkeria eta ideia erlijiosoak.

Emakumearen irudiari dagokionez Etxanizek hainbat atal arakatu zituen: egileak, protagonistak, eta lanbideak. Ikerketa honetako corpusa 38 liburuz osatuta dago eta horietatik 8 emakumeek idatzitakoak dira eta 30 gizonenak.

Ikerketa honetako ondorioen artean hauek nabarmendu daitezke: protagonistei dagokionez, gizonen nagusitasuna antzeman daiteke (% 60.61), pertsonaia femeninoak (% 18.18) eta pertsonaia maskulinoak eta femeninoak (% 21.21).

Lanbideei dagokionez, Etxanizek honako koadro hau eskaintzen du:

4 Koadroa:

Lanbide Motak

	Emakumeak	Gizonak
Etxeko lanak	% 31.7	% 0
Gaitu gabeak	% 24.5	% 60.3
Artistikoak	% 4.8	% 8.8
Gaituak	% 39	% 30.1

Datu hauek bat egiten dute Turinen (1995) tesiarekin:

“Los libros actuales la exclusión de las mujeres de la vida profesional es más sutil: es a través de la ausencia de imágenes que muestren sin ironía ingenieras, médicas o astronautas y a través de la presencia de imágenes de ayudantes de laboratorio, enfermeras, cuidadoras de escuelas infantiles y técnicas subordinadas, que se sigue dando a las niñas el mensaje de la segregación profesional” (Turín, 1995, 94. or.).

Barraganek (1989) salatzen du haur eta gazte literaturak, orokorrean, gizarte sexista eta baztertzailer bat eskaini egin duela. Egile berak aipatzen du liburuek gizarte ezagutzak eskaintzen dizkigutela; harreman sozialak nolakoak izan behar diren, gizarte rola, familia nolakoak izan behar den, arazoak nola konpondu behar diren, azken finean, nola jokatu behar dugun eta nolakoak garen. Haur eta gazte literatura ikertzeak premiazko garrantzia du umeei (urte bat eta zazpi urte bitartean) identitate sexuala garatzen dutelako, modu horretan umeak autodefinitzen dira rol sozialak, kulturalak, sexualak eta pertsonalak bereganatuz.

Egile honen arabera literaturak lagundu beharko luke emakumeak munduaren ikuspegi propioa izan dezan eta ez gizonaren ikuspegia. Horretarako proposatzen du eskoletan erabiltzen den haur eta gazte literaturaren dibertsifikazioa.

Emakumeen rola haur literaturan aztertu zuen Colomerrek (1994) “A favor de las niñas” idatzitako artikuluan. Egileak 150 liburu aztertu zituen emakumearengan gizartean egon diren aldaketek haur literaturan isla duten ikusteko. Horretarako, liburu horietan protagonista femeninoen eta maskulinoen pertsonaien banaketan zuten garrantzia aztertu zuen, emakumeek eta gizonek duten lanbideen banaketa (kalifikatuak eta kalifikatu gabeak) eta emakumearen papera eta ezaugarriak aztergai izan zituen.

Colomerrek egindako ikerketan honako ondorio hauek ageri dira: Gehienetan (% 62.8) protagonista nagusia pertsonaia maskulino batek izaten du eta soilik % 29.5 batek dauka protagonismo femeninoa.

Lanbideei dagokienez gizonezkoen ia-erdiak (% 47.2) lanbide kualifikatu bat du, adibidez, zuzendaria, medikua, enpresaburua... emakume kualifikatuak, ordea,

% 10.3a besterik ez dira. Gainera, emakumeen % 69.2a etxeko lanekin arduratzen da.

2009an, *Emakunde* aldizkarian Gabiria idazleak sexu rolek haur literaturan duten pisua eta nolakotasuna aztertu zueneko datuak izan zituen mintzagai “Haur literaturako rola eta gizarte eredu berriak” artikuluan. 1998an 8-10 urte bitarteko haurrei zuzendutako 25 liburu ikuskatu zituen pertsonaien sexuari, jardueri eta izaerari erreparatuz.

Aztertutako liburuetan, pertsonaia nagusi gehienak haurrak (ikasleak) dira eta maskulinoak dira nagusi (% 68.57) eta gainera, erabakiak hartzeko abilezia du, argia, bizkorra, bihurria eta inteligentea da.

Jarduerak sexuaren arabera aztertzean Gabiriak (2009) ohartarazten du neskek oso jarduera gutxi betetzen dituztela eta mutilen jarduera-kopurua askoz ere zabalagoa dela. Halaber, neska protagonisten kasuan, denak dira ikasleak eta mutil protagonisten artean, ordea, ikasleez gain, printzeak, alkateak, abokatuak edo arotzak ere badaude. Bestalde, amak etxekoandre gisa agertzen dira testuetan, eta gutxitan zehazten da beste lanbide bat duten.

Estereotipoekin apurtzeko beste datu ezkor bat da, sarritan garrantzitsuak izaten direla istorioaren garapenerako sarritan garrantzitsuak izan daitezkeen pertsonaia gehienak gizonezkoak direla (osaba bidaiariak, lehengusuak, aitonak eta anaiak) eta, berriz, emakumezkoak (lehengusina, amona edo arrebak) ez dira garrantzitsuak izaten istorioaren garapenerako:

“Liburuetako pertsonaia guzti-guztiak hartuta (beraz, ez soilik protagonistak), oso datu aipagarria da mutil gehienak ikasleak diren bitartean, sexu femeninoan etxekoandreak direla nagusi, eta ez ikasleak” (Gabiria, 2009, 13. or.).

Baita ere, Gabiriak zehaztu du, haurraren gizarteratze-prozesuko bi agenterik garrantzitsuenak (familia eta eskola) emakumeen esku daudela haur literaturan.

Artikuluan soldaten bat jasotzen duten pertsonaien inguruko informazioa ere badator; gizonezkoen kasuan, ia % 34k soldata dauka, eta ia % 37k ez (ikasleak, batez ere). Emakumezkoen artean, berriz, % 20k dauka soldataren bat, eta

soldatarik ez dutenak % 50.4ra heltzen dira (etxeoandreen presentzia handiagatik).

Izaerari dagokionez, haur literaturako liburuetak protagonista irakurlearen adineko gaztetxo abenturazaleak izaten dira: bihurriak, jostalariak eta lotsagabeak izaten dira gehienetan:

“Ipuineko tramari dagokionez, gehienetan mutilak izaten dira abenturaren nondik norakoak erabakitzen dituztenak, ideiarik bikainenak dituztenak eta abenturan garaile irteteko klabeen jabe direnak. Baina ipuinetako mutil eta neska protagonisten arteko maitasunari dagokionez, neskak dira gehienetan lehen pausoa ematen dutenak, alde horretatik mutilak baino helduagoak direla erakutsiz. Ildo beretik, neskak mutilak baino gehiago maitemintzen dira liburuetan (nesken % 18,75, mutilen % 6ren aurrean)” (Gabiria, 2009, 14. or.).

2014ean, Gabiriak hezkidetzak eta berdintasunaren alde egindako lanek haur literaturan “aldaketak” eragingo zituztela iritzita, azterketa bera egin zuen 8 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzenduta 2012an argitaratutako ipuinak aztertuz. Bilbon “*Sexuaren arabera rolak haur literaturan*” izenburupean eskaini zuen hitzaldian ikerketetan batutako datuak, egindako lanaren ezaugarriak eta gertutako aldaketak azaldu zituen.

Gabiriak 1998ko liburuak aztertu zituenean pertsonaia nagusiak maskulinoak (% 68.57) baldin baziren, 2012ko corpusean, aldiz, datu hori irauli egin dela baieztatzen zuen, izan ere, azken azterketa honetan pertsonaia protagonista femeninoak nagusi dira (% 65.21). Dena den, ipuinetan agertzen diren pertsonaia guztiak aztertuz gero, datuak askoz ere paretsuagoak dira, eta, gutxigatik bada ere, pertsonaia maskulinoak gailentzen dira, (% 52.51).

1998ko ikerketan pertsonaia femenino gehienak etxeoandreak, (etxean daudenak mugitu gabe eta gehienez ere erosketak egitera irteten direnak) ikasleak eta irakasleak baldin baziren, 2012ko ikerketan, ordea, ipuinetan agertzen diren emakume langileak gehiago direla esan zuen. Hala ere, ordaindutako lanari dagokionez oraindik ere zehaztapenak falta direla salatu zuen.

Izaerari dagokionez Gabiriak bere ikerketa berrian ere aldaketak sumatu ditu; haur literaturan pertsonaia femeninoei tradizionalki maskulinoak izan diren rolak txertatu zaizkiela, baina beste aldea behar dela esan zuen, pertsonaia maskulinoei tradizionalki femeninoei egozten zaizkien balio eta jarrerak txertatzea. Hala ere, pertsonaia femeninoen ezaugarri nagusia arduratsua izaten zela nabarmendu zuen, batez ere amak direlako. Egileari harrigarria egiten zaio 8-10 urteko hurrei zuzentzen zaizkien liburuetan zenbat ama agertzen diren ikustea.

2012an, Martinezek patriarkatuak baliabide gozoak (iragarkiak, diskurtsoak, politika, publikoak, ipuinak etab.) erabiliz ezartzen duen dikotomiaz kezkatuta, “La construcción de los espacios públicos y privados en la literatura infantil vasca” artikuluan *Zer kontatzen dute euskal ipuinek emakumeei buruz? Emakumeen kontrako biolentzia sinbolikoaren analisi bat* (2012) ikerketaren ondorioak eta emaitzak biltzen ditu.

Ikerketa honen corpusa osatzen duten 22 liburuen (2010. Urtean 0 eta 8 urteetako hurrei zuzendutako euskaraz sortu (itzulpenik ez) eta argitaratutako liburuak) azterketa semantikoa, sinbolikoa eta ikonikoa burutzen da. Liburuek bereziki bi gai jorratzen dituzte: gaur egungo errealitate sozial bat azaltzen duten gaiak (nortasun sexual, bakardadea, helduaroa...) eta haurrentzako ipuin fantasiakoak.

Liburu bakoitzaren analisia egiteko dimentsio kuantitatiboa, kualitatiboa eta analisi sinbolikoari ekin zaio zenbait aldagai medio.

“Se trata de una muestra de 22 libros para analizar principalmente dos aspectos: el proceso de atribución genérica de los espacios público y privado durante la primera etapa de la construcción de la identidad sexual; y el proceso de categorización y jerarquización de esos espacios en pares antagónicos para observar la comprensión del mundo que ofrecen” (Martinez, 2012, 101. or.).

Ikerlan honetako corpuseko idazleen % 68.2a emakumezkoak dira eta marrazkilarien % 86.4a. Hala ere, emakume idazleak ez dira sexismorik gabeko literaturaren bermea (Brugeilles, 2002).

Dena dela, datu hau ez da euskal haur literaturaren isla, gizonetako nagusitasuna baitute arlo honetan, baina ukaezina da emakumeek gero eta ikusgarritasun handiagoa dutela.

Martinezek ikerketa honetako ondorio nagusienetariko bat da haurrentzako ipuinek sexu- genero sistema modu “gozo” batean erreproduzitzen dutela, ia-ia era hautemanezina batean. Espazioari dagokionez, haur literaturak espazioaren banaketa generikoa bi modutan erreproduzitzen du: bat, modu zuzenean (emakume helduak etxean kokatuz eta marraztuz) eta bi, esanahi duten objektuak erabiliz (Turin, 1995).

“No obstante, cabe destacar que dichas atribuciones se dan en menos medida que en la literatura infantil de la década de los 90 como se ha podido concluir de la comparación con otros estudios similares llevados a cabo entre 1970 y finales de la década de 1990 (Turín, 1995, Colomer, 1994, Orquín 1994; Grau, 2006; Bruguilles, 2002; Etxaniz, 2001)” (Martinez, 2012, 106. or.).

Aztertutako corpusean emakumeen presentzia gizonena baino handiagoa da. Hala ere, kantitateak ez duenez kalitatea ziurtatzen, agerpen horiei eta bereziki, agerpen horien espazioari esanahi bat eman behar zaie eta emakume helduak, batik bat, espazio pribatuan eta semi-publikoan kokatzen dira, bertan, zaintzak eta ugaltze-elikatze funtzioak burutuz; alegia, espazio hauetan eremu pribatuan garatzen diren lanen luzapena ematen da: bizitza ugaltze eta zaindu, hain zuzen ere. Emakume gazteak, ordea, eremu publikoan ageri dira, batez ere eskolan. Martinezek (2012) galdera hau luzatzen du: gaur eskolan eserita agertzen diren neska gazte horiek, non egon diren irudikatuta 20 urte barru?

Martinezek azterketak baieztatzen du euskal haur eta gazte literatura modernoak emakumeak, batez ere, espazio publikoan (kanpoan eta merkatu ekonomikoaren parte diren ekintzak eta lanak burutzen) eta espazio semi-publikoan (etxeari dagozkion ekintzak kanpoan burutzea) kokatzen dituela. Modu honetan, emakumea etxean kokatzen zuten ikerketekin (Turin, 1995) desberdintasun bat ezarri. Hala ere, dena ez da baikortasuna eta baieztapen honek ñabardurak adierazten ditu: ipuinen eremu publikoa nagusiki gizonetako betetzen dute eta eremu publikoan topatzen diren emakumeak, orokorrean, eskolan, gelan eta

jolas-orduan ikus daitezke. Gainera, amek eta amamek egiten dituzten ekintza gehienak etxean gertatzen dira eta kanpoan egiten diren akzioak espazio pribatuari dagozkionak dira: zaintzak (irakaslea) eta ugaltzaile funtzioa (ama).

Honako datuak agertzen dira Martinezen ikerketan:

- Espazio pribatuan 12 emakume eta 5 gizon agertzen dira.
- Espazio publikoan 28 emakume eta 33 gizon agertzen dira.
- Espazio semi-publikoan 13 emakume eta 9 gizon.

Sinboloei dagokionez Martinezek aipatzen du egunkaria eta maletina bezalako ikurrak haur literaturaren ikonografiatik desagertu direla. Alabaina, oraindik uste du sexuaren arabera sinbolo batzuk esleitzen direla munduaren ulermen dudala elikatuz; emakumearen kasuan, pribatutasunarekin eta pasibotasunarekin lotura duten sinboloekin aurkeztuz: amantalak, katuak, aulkiak eta leihoak.

Esate baterako aulkia, pasibotasuna eta pazientzia adierazten duen ikurra, kasu guztietan (% 100) emakumearekin agertzen da, katua (emakumearen alderdi otzana, atseginzale eta mukerra adierazten duena) ere kasuen gehienetan emakumearekin ageri da (% 80). Amantala eta garbiketa-ontzia (espazio pribatuaren eta zaintzen adierazle gisa) ere neurri handi batean emakumearekin lotuta ageri dira (% 70).

Beste ikerketekin alderatuta Martinezen ikerketak berritasun bat dakar: txakurra agertu den guztietan emakumearekin agertzen da (% 100). Datu honek emakumea eraikitzeke modu ezberdinak adieraziko lituzke, izan ere, pasibotasunaren eta sentsualitatearen aurrean nortasuna eta aktibitatea kokatuko lituzke.

Datuei erreparatuz hauek dira Martinezek ehunekoetan aurkeztzen dituenak:

5 Koadroa:

Sinbologia

	EMAKUMEAK	GIZONAK
AMANTALA	% 70	% 30
GARBIKETA-ONTZIA	% 70	% 30
IPUINA	% 100	% 0
LEIHOA	% 70	% 30
AULKIA	% 100	% 0
KATUA	% 80	% 20
TXAKURRA	% 100	% 0

“Frente a la invisibilidad que ha caracterizado al patriarcado hasta la actualidad, hoy en día, la reproducción de los binomios que se sitúan en el centro del patriarcado de consentimiento es más sutil y se nutre de la atribución de espacios, labores y símbolos a cada sexo” (Martinez, 2012, 112. or.).

Martinezen ikerketarekin bukatzeko, gaur egungo indarkeria “gozo” eta “leun” baten testuinguruan espazioek eta ikurrek berriazko arreta berezi eta sistematiko bat eskatzen dute, hauek estereotipoak erreproduzitzen baitituzte (Martinez, 2012) eta generoak emakume eta gizonen rol sozial tradizionalei eusteko erabiltzen dira (Turin, 1995).

Laburbilduz, ikerketa honek emakumeen presentzia gutxi eta ikusgarritasun faltarekin apurtzen duen arren, ezin da baieztatu sexismoarekin apurtu denik. Izan ere, kuantitatiboki, bederen, aurrera pausu bat eman bada ere, onetsitako patriarkatua mantentzeko mekanismo eta gailuak ugaltu eta sotildu dira, esate baterako, emakumeei esleitzen zaizkien espazio eta lanak gutxien dira askotan, hauei ematen zaien esanahia mendekotasunaz definituta geratzen direlarik. Orain, erratzadun sorginak desagertu badira ere, onetsitako patriarkatua mantentzeko mekanismo eta dispositiboak ugaltu eta sotildu dira. Araututa ez diren ereduak baztertzen eta kriminalizatzen dira, normaltasunaren legitimazioaren bidez hornitzen ez direnean (Martinez, 2012).

Beste alde batetik, Cañamaresek (2004) bere ikerketan ondorioztatzen du sexismoari aurre egiteko egileek eta editoreek rolen-alderantzikatzea egin dutela; emakumeak tradizionalki gizonei egotzi izan zaizkien jarrerak izatea eta alderantziz. Baina honek arrisku bat dakar: “maskulinoa” izan dena gorai patua izatea eta “femeninoa” izan dena gutxiatea.

“En esta inversión de roles suele ser bastante común que ese presente de forma muy positiva a las niñas que realizan juegos o repiten comportamientos “masculinos”, mientras que las actividades consideradas tradicionalmente femeninas se presentan de un modo jocoso y peyorativo sobre todo si el que ellas realiza es un niño” (Cañamarek, 2004, 157. or.).

Beraz, liburuetan emakumeen presentzia handiagoa izateak eta rolen-alderantzikatzea egoteak ez du sexismoarekin amaitzen. Turinek (1995) salatzen duenez, emakumearen irudiak oraindik ere irrealak eta diskriminatzaileak izaten jarraitzen du, eta haur eta gazte literaturak ez du desberdintasuna areagotu behar, neskek ere, mutilekin batera, eredu sozial egokiak jasotzeko eskubidea baitute. Horretarako liburuak emakume arduratsuak, argiak eta autonomoak ere eskaini behar dituzte, lanbide anitzak dituztenak eta baita bikotearekiko parekidetasun harremanak dituztenak ere (Turin, 1995).

Etxanizek (2007) azpimarratzen du gizarte aurrerakoa, demokratikoa, parte hartzailea eta bizilagunen izpiritu kritikoa bultzatzen duena nahi baldin bada, testu hauek azaleratu eta beraien benetako zama ideologikoa aztertu beharra dagoela. Liburuak ez baitira inozenteak, entretenigarriak, dibertigarriak eta politak besterik gabe, izan ere, arestian aipatu izan den bezala, liburu guztiek ideia eta balio batzuk transmititzen dituzte irudien eta testuen bidez. Zenbait kasutan ilustrazioak sexistagoak direlarik.

Hau guztia dela eta Cañamaresek (2004) eduki eta aipamen sexistetan oinarriturik, corpus bat hiru multzotan sailkatzeko aholkatzen du:

- Liburu sexistak: Liburu hauetan ohiko diskriminazio tradizionala zenbait jarreretan eta egoeretan islaturik ikus daiteke.
- Liburu anti-sexistak: Normalean liburu feministak dira, non aukeren berdintasunaren aldeko borroka antzeman daiteke. Honelako liburu

batzuetan pertsonaia maskulinoei zuzendutako estereotipo berriak agertzen dira.

- Liburu ez sexistak: Liburu hauetan genero diskriminaziorik ez da ageri. Sexu biek presentzia orekatua dute, rol berdinak eta antzeko jarrerak izaten dituzte.

Nabarmendutako ikerketek erakusten dute haur eta gazte literaturan aldaketak egon direla; estereotipoekin apurtzen dituzten liburuak daudela eta identifikatzeko eredu berriak eskaintzen dituztenak alegia, baina oraindik ere merkatuan estereotipo tradizionaletan oinarritutako emakumearen ohiko ereduak eskaintzen dituztenak ugariak dira.

IX. 4 Aurrekarietatik asago

Aurrekari hauen errebasoak argi uzten du “literatura eta emakumea” binomioaren garrantzia. Aurkeztutako hamaika ikerketek adierazten dute haur eta gazte literaturaren inguruko gaiak gizartean ardura eragiten dutela eta beste horrenbeste, emakumearen irudia eta presentzia literatur genero honetan. Hortaz, garrantzi handikoa da ikertzea gure ikasleek, seme-alabek, irakurtzen dituzten liburuetan zer-nolako emakumeak eta gizonak agertzen diren aztertzea.

Baita ere, azpimarragarria da, ikerketen, lanen eta liburuen (euskarakoak eta erdarakoak) ekoizpen eta zabaltze bide horretan, idazleek ez ezik, hainbat erakundek ere parte hartzen dutela, hala nola administrazioak, argitaletxeak, erakunde dibulgetzaileak, erakunde akademikoek, etab. Azken finean, gaiarekin eta berdintasun faltarekin kezkatuta dagoen edonor, gizonaekoak edo emakumezkoak izan.

Nondik dator ardura hau? Puelok (1995) esaten du gizarte garatuak “onestutako patriarkatuan” bizi direla, alegia, mendebaldeko gizarteetako patriarkatu honetan emakume eta gizonaekoaren arteko “ustezko” berdintasun formala ematen den arren, sexu rolen transmisioa gauzatzeko komunikabideek, iragarkiek, gaur egungo sare sozialek eta bestelako egitura sozialek luzatzen dituzten mito eta irudiak erabiltzen dira.

Gure kasuan, lehenengo sozializazio prozesuan estereotipoen transmisioa eta identifikazioa ematen da, eta ardura eta erantzukizun horretan parte hartzen duten egitura sozial horiek (familia eta eskola), beste tresnen artean, haur literatura erabiltzen dutenez euren ideologiak erreproduzitzeko, premiazkoa da baliabide hauek aztertzea eta berdintasunarekin lotutako gabeziak detektatzeko. Modu horretan berdintasunaren alorrean aurrerapauso bat emango delarik.

Halaber, literaturak munduaren interpretazio zehatz bat eskaintzen du, horregatik litzateke hain garrantzitsua literatura ikertzea. Egileek (idazleek eta ilustratzaileek) munduan gertatzen diren fenomenoak azaltzen dituzte liburuen bitartez. Batzuetan azalpen horiek modu inkontziente batean ematen dira eta besteetan nahita egiten dira. Azkenean, idazle bakoitzak baditu bere balio

kultural, sozial, eta pertsonalak eta hauek eragina izan dezakete egilearen lanean modu batean eta bestean (Barragan, 1989).

“La literatura ha sido, durante largos años, un instrumento que ha ido asentando las ideas tradicionales en la sociedad, las costumbres, los hábitos... mostrándonos hoy en día muchas veces una sociedad que no es real. Desde el papel de la mujer como ama de casa hasta la presencia casi exclusiva de personas caucásicas en nuestras calles, escuelas, parques... la literatura no deja de transmitir unos modelos muy determinados de actuación, por ello es necesario conocerlos, estudiarlos y proponer alternativas” (Etxaniz, 2008, 100. or.).

Laburbilduz, bai liburu sexistek eta baita ez-sexistek ere (nahiz eta oso ugariak ez diren arren, adibidez, *A favor de las niñas* bilduma) irakurleari egoera ezberdinetan jokatzeko eredua eskaintzen diote, hau da, nolakoak izan behar gareneko jarraibideak ematen dizkio. Puntu honetan hainbat ikertzailek emakume ereduaren falta salatzen dute (Turin, 1995 eta Colomer, 1998).

Baita ere, agerian geratu da ipuinen azterketa kritikoa egin duten ikertzaileen ondorioak, urteetan zehar, antzekoak izan direla: ipuinetan emakumeen presentzia gutxi dago eta ikusgarritasun falta horri, emakumeei esleitzen zaizkien bigarren mailako rola gehitu behar zitzaizkien. Barraganek (1989) sexismoaren bi ezaugarri nabarmenen aipatzen ditu: bata, hizkera maskulinoaren erabilera eta bigarrena, femeninoa baztertzea rol sozial ezberdinak eta diskriminatzaileak eskainiz.

1970eko hamarkadako mugimendu feministak emakumearen rol soziala aldatzea eta esfera publikoan agertzea ekarri bazuen ere, ikerketetan haur eta gazte literaturan agertzen den emakumearen irudia ez dela asko aldatu baieztatzen da; emakumearen irudi tradizionala eskaintzen dela, sistema patriarkatuak emakumeari ezartzen dizkion balioak agerian geratuz: ederra, pasiboa, amatasuna, zaintzak eta esfera pribatua. (Orquin, 1989 eta Barragan, 1989).

Moik teoria feministaren errepaso egiterakoan (1988) Showalterren lana dakarkigu. Egile honek hiru fasetan banatzen du azpikultur literarioen historia: lehenengo femeninoa, ohiko balioak barneratzen eta imitatzen direnean,

bigarrena feminista, eredu eta balio horien aurka egiten denean eta hirugarrena emakumearena, autoaurkikuntza, barnera begirada bat egiten denean identitate berri baten bila, alegia, menpekotasuna gainditzea. Gaur egungo euskal haur eta gazte literatura hirugarren fase honetan egongo ote da?

Beste alde batetik, haur eta gazte literaturari dagokionez, Even-Zoharrek (1990) genero hau “periferian” kokatzen zuen, hau da, literaturaren sistemaren kanpoaldean eta horrek garrantzia gutxiago duela adierazten zuen, izan ere, erdigunean daudenak eredia dira eta jarraitu beharreko “kanona” ezartzen dute. Hala ere, egoera hau ez da finkoa eta hainbat faktorek eragin dezakete gizartean duen kokapena aldatzea. Urrunegi joan barik, Etxanizek (1999) adierazten du, haur eta gazte literatura, Literatura sistemaren erdigunetik gero eta hurbilago dagoela eta hori baieztatzeko hainbat arrazoi ematen ditu:

- Helduen literaturako idazle ospetsu askok ere haur eta gazte literatura idazten dute.
- Literatura honek merkatuan eta komunikabideetan duen presentzia eta garrantzia.
- Unibertsitatean “Haur eta Gazte literatura” irakastea.
- Eremu honetan egiten diren ikerketa kopuruak

Euskal haur eta gazte literaturak ere hemen aipatutako faktore guztiak betetzen ditu. Honek adierazten du genero honetan ikertzen jarraitzeko beharra.

Tesi honetan aipatu diren aurrekari guztietan oinarriturik baieztatu daiteke, ikerketa lan gehienak produktuan (liburuan) oinarritu direla ikertzaileek bertan arreta ipini dutelako. Esku artean dugun tesi hau ez da salbuespena eta liburuak ditu aztergai. Lan hauetatik guztietatik elikatu da doktorego tesi hau, euskal emakumearen irudia eta errealitatea zeintzuk diren ezagutzeko. Dena den, honek ez du esan nahi Even-Zoharren (1990) literatura sistemako beste elementuak ez direla aztertu behar.

Bukatzeko, ikerketek (tesiak, liburuak, argitalpenak) erakusten dute haur eta gazte literaturan emakumearen irudia, ideologia eta balioak aztertzea lehenetsuneko kontua dela. Gainera, haur eta gazte literatura eremu zabala eta anitza denez, azterketa ereduak eta moduak ere bai. Ildo honetatik Etxanizek

(1999) hainbat ikerketa eremu aipatzen ditu: emakumearen irudia haur eta gazte literaturan, testuen eta irudien arteko harremana (komunikazio bisuala eta testuala, azken urteetako garapena), haur eta gazte literaturako paratestuak, gatazka sozialak, indarkeria, erlijioa, hizkuntzaren jabeakuntza izan dezakeen garrantzia, egileak eta hauen garapena... guztiek premiazko garrantzia lukete.

Laburbilduz, agerian geratu da oraindik ere genero-rolak gure gizartean nahiko finkatuta daudela, beraz, tesi honek egileek beraien liburuetan rol horiek saihesten dituzten edo ez aztertu nahi du. Euskal haur eta gazte literaturan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko harremanei buruzko informazioa lortzeko eta liburuen errealitateak gizonezkoen nahiz emakumezkoen nola eragiten dien ikusi ahal izateko, aurreko egileek egin izan duten bezala, genero-ikuspegiak eskaintzen dituen aukerez baliatu beharra dago. Izan ere, genero-ikuspegiak agerian edo ikusgai jarri nahi baitu sexua edo sexu-joera dela-eta, tradizioz era sistematikoan baztertua eta kanpoan utzita egon diren taldeak eta pertsonak.

II ATALA. IKERKETA ENPIRIKOA

VI. KAPITULUA. Metodoa

VI.1 Testuingurua eta tesiaren garrantzia

Gizartearen parte diren unibertsitateetan, eskoletan, familietan eta norbanakoetan gero eta garrantzi handiagoa izaten dute umeei kontsumitzen dituzten produktu kulturalen gaineko kalitatearen ardura. Haurren eta gazteen hezkuntzan eta formakuntzan parte hartzen duten bi sozializazio eragile nagusiek (eskolak eta familiak) hezkuntza prozesuan lagungarriak izango diren kalitatezko baliabide aproposen eskaera nabarmen igo dute. Horien artean, pisu handia dute hurrei eta gazteei zuzendutako liburuek. Hortaz, gure etorkizuneko belaunaldien formakuntzaren eta hezkuntzaren parte diren heinean, oso beharrezkoa da bertan jorratzen diren balioak ezagutzea eta gure kasuan, zehatzago esanda, emakume eta gizonen inguruan eskaintzen dituzten irudien ereduak ezagutzea. Irudien, balioen eta estereotipoen ikerketa bide bakarra delarik hori lortzeko.

“En la cultura actual (la literatura infantil y juvenil) constituye un instrumento socializador de importancia que interviene en la transmisión de valores educativos y, por tanto, son susceptibles de ser detectados. Estos valores y normas compartidas (consenso valorativo) implican una propuesta moral que legitima el orden social y definen las relaciones sociales entre grupos e individuos. La legitimación implica un consenso social de aprobación que al promover, alentar o desalentar determinadas condiciones sociales y conductuales les confiere valor” (Salaberria, 2011, 51 or).

Umeen garapen integralean eta aldi berean, umearen identitatearen eraikuntzan eragina izan ditzaketen eragileak eta produktuak aztertzea izan da ikerketa hau egitera bultzatu nauen pizgarrietako bat. Izan ere, kasu askotan liburuak izaten baitira haurren munduaren erakusle. Irakurtzean mundu axiologiko batean murgiltzen dira eta topatzen dituzten jarreraren, ereduaren, irudien, patroien eta jarraibideen artean erabakiko dute zeintzuk dituzten gogoko eta zeintzuk ez. Beranduago, akaso, imitatzen saiatuko direnak.

Aurretiaz aipatu den bezala, literaturak eginkizun garrantzitsua du norbanakoaren formakuntzan eta hezkuntzan eta horren ondorioz, baita gizartearen eraikuntzan ere. Etxanizek (2008) gogoratzen duenez, literaturaren bitartez balioak, ideiak eta ideologia transmititzen da, modu horretan, literaturak munduaren inguruko ikuspegi zehatz bat islatzen du. Irizpide eta ikuspegi kritikoen baten faltan haurrak zaurgarriagoak dira; hortaz, beharrezkoa jotzen da literatura mota honek irakurleagoari helarazten dizkion balioak, ereduak, irudiak ezagutzea etorkizunari begira hezkidetzan eta berdintasunean aurrerapausoak emateko.

Salaberriak (2011) jasotzen duenez, irakurtzen denean irakurlea bi mailatan kokatzen da: pentsamendu kontzeptuala (sozializatua dagoena) eta irudimen subjektiboa. Bere alde aurretiko jarrera eta joera bere maila kulturalagatik, irakurketa mailagatik eta bere egoera pertsonalagatik baldintzatua egongo da. Haurren eta gazteen kasuan, baldintza hauek nabarmenagoak direnez, irakurlearen (hartzailearen) ikuspegi eta irizpide kritikoa mugatzen dute.

Aurrekarietan eta marko teorikoan ikusi ahal izan den bezala, gaur egungo liburuek historian zehar literatur lanek izan duten funtzio didaktikoa eta bideratzailea ere mantentzen dute. Beraz, non dago desberdintasuna? Estetikaz eta plazerra lortzeaz gain, gaur egungo literaturak jorratzen dituzten gaiak, balioak, irudiek eta ereduak desberdintzen dute gaurko literatura (moderno) eta antzinakoa (tradizionala).

Eredu tradizionalen botere erlijiosoak eta politikoen beraien interesen arabera haur eta gazte literatura sortzen zuten (Etxaniz, 1997), non, mendebaldeko gizon zuriak nagusitasuna zuen, indibidualizazioa eta obedientzia balio nagusiak ziren eta erlijioak pisu handia zuen. Modu honetan eta salbuespenak salbuespen, emakumea baztertuta, zapaldua, menderatua eta gutxietsita agertzen zen, espazio pribatura zaintzetara eta etxeko lanei lotuta. Gaur egungo egileek, ordea, eredu, irudi eta balio gehiago eskaintzen dituzte (Colomer, 1998; Ruiz, 2003); elkartasuna, tolerantzia, berdintasuna, justizia soziala, ekologismoa, askatasuna, etab. Horrela, aniztasun eta berdintasun handiagoa bermatzen delarik, baina nahikoa izango ote da?

Halaber, Colomerrek (1998) baieztatzen du 1975tik 2000ra haur literaturan ez dela soilik aldaketa kuantitatibo bat egon, baita ere liburuen gaien trataeran

berrikuntza garrantzitsu bat egon dela esaten zuten, eta honekin batera, estetikoki ere aldaketa garrantzitsu bat egon dela.

Testuinguru berri eta moderno honetan galdera asko iradoki daitezke. Zer erakusten eta irakasten du testuak? Zer balio lantzen dira? Zer-nolako emakumea ageri da? Eta gizona? Zein da egileak transmititu nahi duen ideologia? Zein da irakurlearengan lortuko duen eragina? Galdera asko luzatu daitezke liburu bakoitzaren atzean eta denak lagungarriak dira liburuak transmititzen duen ideologia detektatzeko. Izan ere, liburuetatik abiatu iritziak, aurreiritziak, sinesmenak, ideiak, balioak lortzen dira.

“Si observamos la producción literaria para niños y jóvenes, descubriremos que una parte importante se dedica a la literatura con valores, a la literatura que da referencias de comportamiento, que interpreta la realidad y, lo más importante, que hace recapacitar al lector” (Garralón, 1990, 7 or).

Hortaz, agerian geratzen da liburuek hizkuntza literario baten bitartez ideologia transmititzen dutela eta horrek haurrengan eragina du. Puntu honetan legoke lan honen mamia eta helburua; ideologia horretan zein da haur eta gazte literatura modernoak eskaintzen duen emakumearen irudia? Eta gizonaren irudia?

Testuinguru honetan, non euskal haur eta gazte literaturaren produkzioa nahiko altua den eta gainera, eragile sozializataileen aldetik, liburuen erabilera hezitzailea eta didaktikoa burutzen den, liburu hauen azterketa premiazkoa jotzen da. Horrela, umeen eskuetatik eta begietatik pasatzen diren emakume eta gizon ereduak ezagutuko ditugu.

Marko teorikoan eta aurrekarietan antzeman ahal izan dugunez, gai honek ikerketa munduaren arreta piztu du eta gure tesi honetako datuak, emaitzak eta ondorioak beste ikerketa batzuekin alderatuak izango dira. Halaber, jakitun, euskal haur eta gazte literatura modernoa ikuspegi eta eredu anitzetik aztertua izan daitekeela, lan hau beste ikerketa batzuen gehigarria izan daitekeela uste da. Colomerrek (2002) aipatzen zuenez, haur literatura balioesteak erakusten du umeen hezkuntzaren arduraz kontziente garela.

Liburuek transmititzen dituzten estereotipoak eta emakumearen eta gizonaren irudia ezagututa, euskal haur eta gazte literatura modernoa hobeto ezagutzeko aukera ahalbidetuko da, gabeziak eta indarguneak adieraziz.

Egoera honi erantzuteko eta ondorioak ateratzeko asmoz, eta bide batez, gizarteari ekarpen aipagarriak lortzeko xedez, euskal haur eta gazte literatura modernoaren ordezkari izan daitekeen corpus zabal eta anitz bat aukeratu da.

Ikerketa honek euskal haur eta gazte literatura modernoan (1980-2014) emakumearen eta gizonaren irudiaren eboluziorik egon den, eta egotekotan hau nolakoa izan den aztertu nahi du sexismoa detektatzeko asmoz.

Tesi honen bitartez liburuetan ageri diren pertsonaien ezaugarri desberdinak antzeman nahi dira: ezaugarri fisikoak, ezaugarri psikologikoak (izaera), nortasuna, etxean betetzen dituzten ardurak, okupatzen duten espazioa (publikoa edo pribatua), aisialdia, lanbideak, familia ereduak, etab.

Azken finean, tesi honek euskal haur eta gazte literatura modernoan, zuzenean eta zeharka, estereotipoen eta sinbologiaren bitartez transmititzen den sexismoan sakondu nahi du.

Gainera, lan hau baliagarria izan daiteke liburuetakoko egileek eta hezkuntzan adituak direnek gaiaren inguruan hausnartzeko eta bide batez, etorkizunari begira hezkidetzaren aldeko erabakiak hartzeko. Alde batetik, bilatzen dugu egileak oraindik ere kontzienteagoak izatea desberdintasun sozialak sustatzen dituzten estereotipo sexistekin bukatzeko beharrez. Horretarako beraien sormen lanetik ateratzen den haur eta gazte literaturaren indarrak baliatu daitezkeen. Bestetik, irakasleek eta baita familiek ere, irakurketa kritikoak eta eraikitzaileak gara ditzatela. Liburutegietan eta eskoletako liburutegietan irakurketak aukeratzen laguntzeko liburuak adin tartean arabera antolatu ohi dira, eta lantzen dituzten gaien arabera etiketatuta. Horrexegatik ondo egongo litzateke liburutegietako arduradunek ere berdintasuna sustatzen dituzten liburuak etiketatzea eta baita eduki sexistak dituztenak. Honek ere irakurketak gomendatzeko orduan familien eta irakasleen lana erraztuko luke. Izan ere, haur eta gazte literatura baliabide egokia izan daiteke sexismoa transmititzen dituzten estereotipoekin bukatzeko eta berdintasunaren alde hezteko.

VI.2 Tesiaren garrantzia

Agerian dago garaiak eta gizarteak aldatu egiten direla, eta hauekin batera, produktu kulturalak ere aldatzen direla. Ez dagoena hain argi, ordea, zera da, aldaketa horiek abiadura eta maila berdinean gertatzen diren ala ez, edota aldaketa horiek produktu kultural desberdinetan islatuta dauden edo ez.

Gizarte aurrerakoi, post-industrial eta demokratiko baten beharraren barruan kokatuko litzateke produktu kultural horiek eskaintzen dituzten ereduak eta irudiak aztertzea. Ikerketa honen kasuan, haurrek eta gazteek, familiaren zein eskolaren bitartez, eskura dituzten liburuak zer nolako ereduak eta jokabideak eskaintzen dituzten aztertzea eta ikertzea litzateke asmoa. Izan ere, eta aurretiaz argi geratu den bezala, umeen hezkuntzan eta hazkuntzan liburuak oso garrantzitsuak eta beharrezkoak dira; hizkuntza baten hiztegia barneratzen da, ulermena eta irakurketa gaitasuna garatu egiten da, arreta piztu egiten da, irudimena, enpatia eta gaitasun sozialak garatu egiten dira, eta besteak beste, gozamina ere lortzen da. Umeek bizitzen dituzten esperientziak beraien jarreraren oinarriak izango dira. Montesek (2006) aipatzen duenez:

“El lector no es tabula rasa. Lo que lee no cae en el vacío, sino en su espacio personal, en su universo de significaciones (...). Cada nueva lectura va a suponer una reestructuración de ese espacio simbólico” (Montes, 2006: 10).

Liburuak ezagutzak transmititzeko tresna ere badira, eta identitateak erreproduzitzeko eta hauek sortzen eta garatzen laguntzeko bidelagunak izaten dira. Gainera, pertsonen eta kulturen arteko zubi lana ere betetzen dute. Zuzenean eta zeharka balioak ageri dira, munduaren ikuspegiak eta irudiak, jarrera arauak eta bertan parte hartzeko harreman ereduak eskura dituzte umeek eta gazteek.

Gure kasuan, liburuak dituzten irudien eta testuen bitartez munduaren ikuspegi zehatz bat eskaintzen da, irakurleari jarrerak eta pautak zehatz batzuk helaraziz. Hauek, askotan, modu esplizitu batean ematen dira eta beste batzuetan, ordea, modu inplizituan, baina ukaezina da umeengan duten eragina. Izan ere, irakurleak liburuetan islatuta dauden rol sozialak egokitzat hartu ohi ditu. Beraz,

hau da, hain zuzen ere, tesi honi ardura sortzen diona. Euskal haur eta gazte literaturan, produktu soziala eta historikoa den heinean, gizarte honetan momentuan indarrean dagoen emakumearen eta gizonaren irudia islatzen den behatzea.

1980ko hamarkadatik hona gizartea eta honen balioak aldatu egin dira. Aldaketa horien barruan, nahiz eta oraindik berdintasun egoeran ez bizi (bi sexuen arteko soldatak edota emakumeak lan-mundura salto egiteko zailtasunak) emakumearen eta gizonaren rola aldatu egin da. Nola islatuko da emakumearen eta gizonaren irudi berria euskal haur eta gazte literatura modernoan? Gizartea aldatzen den abiadura berdinean aldatuko ote da? Edo geldoago akaso? Tradizionalki emakumeari esleitzen zaizkion rolak gaindituta egongo al dira euskal letretan? Nabarmena da emakumeak eremu pribatutik (etxetik) eremu publikora (lan mundura) salto egin duela, baina egileek islatuko ote dute hori beraien lanetan? Zein izan da emakumeen eta gizonen bilakaera? Aurkezturiko emakumeen errepresentazioa matxista, sexista, estereotipatua eta arketipokoa izango al da? Zein da gure literaturak iradoki duen emakumearen eta bide batez, gizonaren irudia? Irudi horiek berriak izango al dira?

Halaber, gogoratu beharra dago protagonista nagusia emakumea izateak ez duela berdintasuna ziurtatzen, ezta emakumeak tradizionalki gizonaren rolak irudikatzen dituen ere. Horrexegatik gure buruari galdetu behar diogu ea nolakoak diren gure hurrek irakurtzen dituzten liburuetako gizonak eta emakumeak. Eta ez bakarrik protagonista nagusiarri erreparatuz, baizik eta istorioan zehar letren eta irudien bitartez agertzen diren pertsona guztiak, istorioaren nondik norakoan garrantzitsuak izan edo ez. Edozein detaile garrantzitsua izan daitekeelako eta eragina izan dezakeelako irakurlegoarengan.

VI.3 Helburuak

Hau guztia dela eta, ikerketa honen helburu nagusia euskal haur eta gazte literatura modernoan emakumearen eta gizonaren irudiaren eboluzioa aztertzea da genero ikuspegitik sexismoa detektatzeko, 1980ko hamarkadan eta gaur egun (2009-2014).

Beste era batera esanda, euskal literaturan gaur egun eskaintzen diren emakume eta gizonen eredu berriak ezagutzea eta genero estereotipoak transmititzen jarraitzen duten ikertzea.

Kontuan izan behar da, nahiz eta aztertuko den corpus guztia euskal haur eta gazte literatura modernoaren barnean kokatzen den, bi garai ezberdinez ari garela, alde batetik, 1980ko hamarkada eta bestetik, gaur egun (2013ko urtea eta 2009tik 2014ra liburu saridunak).

Literatur kritikaren esparruan, pertsonaiaren azterketak hausnarketa teoriko eta metodologiko ugari eragin dituelarik eta kritika feministaren ardurei jarraikiz, hainbat helburu eta hipotesi izango dira lan honen abiapuntua.

Helburu nagusia:

- Euskal haur eta gazte literatura modernoak transmititzen duen emakumearen eta gizonaren irudiaren eboluzioa aztertzea da: 1980ko hamarkadan eta gaur egun (2009-2014).

Bestelako helburuak:

- 1) 1980ko hamarkadako eta gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan emakumeen eta gizonen kopurua parekidetasunerantz eboluzionatu duen zehaztea.
- 2) 1980ko hamarkadan eta gaur egungo haur eta gazte literaturan sexismoaren ezaugarriak eta islak aurkitzea.
- 3) Pertsonaia horien irudian atzeman diren berrikuntzak aztertzea: ezaugarri fisikoak, ezaugarri psikologikoak, espazioak, ardurak, familia-ereduak, lanbideak, sinboloak eta aisialdia.

- 4) 1980ko hamarkadan eta gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan egiten diren pertsonaien deskribapenak, pertsonaien nortasunaren ezaugarriak eta aberastasunen banaketa parekidea egiten den aztertzea.
- 5) 1980ko hamarkadako eta gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan egilearen sexuak emakumearen eta gizonaren irudiaren ezaugarrietan eragina duen aztertzea.

VI.4 Hipotesiak

Ikerketa lan honen lehenengo helburua 1980ko hamarkadako eta gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan emakumeen eta gizonen presentzien kopuruaz ari da, horri erantzuteko hurrengo hipotesia planteatzen da:

1. 1980ko hamarkadako eta gaur egungo literaturan gizon eta emakumeen irudiak ezberdinak dira: Liburua zenbat eta berriagoa izan eta prestigiotsuagoa izan emakumearen presentzia handiagoa izango da eta mutilen eta nesken presentzia orekatuagoa izango da.

Bigarren helburuaren xedea 1980ko hamarkadan eta gaur egungo haur eta gazte literaturan sexismoaren ezaugarriak eta islak aurkitzea da, horretarako hipotesi nagusi bat dugu eta bere 6 azpi-hipotesi.

2. 1980ko hamarkadan gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan baino sexismo gehiago ematen da.

- 2.1. Gaur egungo haur eta gazte literaturan ezaugarri fisikoei esleitzen zaizkien ezaugarri sexisten (neska eta mutil indartsua, ahula, ederra eta itsusia) presentzia txikiagoa izango da 1980ko hamarkadan baino, hau da, ez dira neska ederrera eta mutil indartsura mugatuko.

- 2.2. Gaur egungo haur eta gazte literaturan pertsonaien ezaugarri psikologikoetan (aktibotasuna, pasibotasuna, menderatasuna, lehiakortasuna, sentikortasuna, ausardia, zitaltasuna, lotsa, ahulezia, sorkuntza, ameslaria, heoria eta jakinduria) ezaugarri sexisten presentzia txikiagoa izango da 1980ko hamarkadan baino.

- 2.3. Etxeko ardurak (etxeko lanak, zaintzak eta lan ordainduak) gaur egungo literatura 1980ko hamarkadakoan baino banatuagoak agertuko dira, hots, ez dira soilik emakumeen esku egongo.

- 2.4. 1980ko hamarkadako corpusean emakume boteretsuen presentzia oso urria den heinean, gaur egungo literaturan, berriz, ugariagoa eta parekideagoa da.

- 2.5. 1980ko hamarkadako corpusean emakumea espazio pribatuan (etxe barruan) kokatu den heinean, gaur egungo literaturan, ordea, espazio biak beteko ditu.

2.6. 1980ko hamarkadako corpusean koloreen (urdinaren eta arrosaren) erabilera sexista nabarmenagoa izango da gaur egungo literaturan baino.

Hirugarren helburuan pertsonaia horien irudian atzeman diren berrikuntzak aztertzea da asmoa: ezaugarri fisikoak, ezaugarri psikologikoak, espazioak, ardurak, familia-ereduak, lanbideak, sinboloak eta aisialdia. Honi buruz ere hipotesi nagusi bat hartu dugu abiapuntutzat eta beste sei azpi-hipotesi.

3. 1980ko hamarkadako euskal haur eta gazte literaturako pertsonaiekin alderatuz gaur egungo pertsonaien irudien ezaugarrietan berrikuntzak eman dira.

3.1. Liburu saridunetan sinbologia sexista (tresnak eta objektuak) gutxiago agertuko da.

3.2. Liburu berrietan emakumearen aisialdia 1980ko hamarkadako literaturan baino aberatsagoa izango da eta gizonen parekoa izango da.

3.3. Gaur egungo literaturan etxean amek eta aitek duten presentzia orekatua den heinean, 1980ko hamarkadakoa, aldiz, desorekatuta dago.

3.4. Gaur egungo literaturan etxean alabek eta semeek duten presentzia orekatua den heinean, 1980ko hamarkadakoa, aldiz, desorekatuta dago.

3.5. 1980ko hamarkadako corpusean oso emakume ospetsu gutxi eta gizon ospetsu asko agertzen diren bitartean, gaur egungo literaturan, ospeak, presentzia txikiagoa izango da eta parekatuagoa izango da.

3.6. 1980ko hamarkadako corpusean etxetik kanpo lan egiten zuten emakume gehienak prestigio gutxiko jardunetan eta zaintzei lotutako lanbideetan (irakaslea, garbitzailea, zaintzailea, zerbitzaria) agertuko diren heinean, gaur egungo liburuetan, emakumearen lanbidea edozein izan daitekeelarik, emakumeen lanbideak ugariagoak, desberdinagoak eta prestigiotsuagoak izango dira: suhiltzailea, gidaria, ugazaba, presidentea etab.

Laugarren helburuaren asmoa 1980ko hamarkadan eta gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan egiten diren pertsonaien deskribapenak, pertsonaien nortasunaren ezaugarriak eta aberastasunen banaketa parekidea egiten den aztertzea da, honi buruz hipotesi hauek ditugu:

4. Gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan egiten diren pertsonaien deskribapenak, pertsonaien nortasuna eta aberastasunen banaketa parekideagoa izango da 1980ko hamarkadan baino.

4.1. Gaur egungo literaturak deskribapen osoagoak (ezaugarri fisikoak, ezaugarri psikologikoak eta trebetasunak aipatzen diren edo ez) eta parekideagoak eskainiko ditu 1980ko hamarkadakoak baino.

4.2. 1980ko hamarkadako literaturan gizona heroia, autonomia, arazoak gainditzeko dituen, indarkeria erabiltzen duena eta erabakiak hartzen dituen den heinean, gaur egungo literaturan emakumeak ere rol hauek agertuko ditu.

4.3. 1980ko hamarkadan aberastasunaren banaketa ez parekidea den heinean, gaur egungo literaturan, ordea, aberastasunaren eta txirotasunaren banaketa parekatuagoa izango da.

Azkenik, bosgarren helburuan 1980ko hamarkadako eta gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan egilearen sexuak emakumearen eta gizonaren irudiaren ezaugarrietan eragina duen aztertzea izan da xedea. Honi erantzuna emateko hipotesi hauek ditugu:

5. Idazlea emakumea denean, 1980ko hamarkadako eta gaur egungo liburuetan mutilen eta nesken irudietan eragina izango du: parekideagoa izango da.

5.1. Gaur egun emakumeek idatzitako liburuetan zein gizonak idatzitako liburuetan neska den protagonista nagusiak presentzia handiago izango du, hau nabarmenagoa izango da emakumeek idatzitako liburuetan.

5.2. Hiru multzoetan emakumea idazlea denean edertasunaren eta indarraren presentzia parekideagoa izango da.

5.3. Idazlea emakumea denean aktibotasunaren eta pasibotasunaren presentzia parekideagoa izango da.

5.4. Idazlea emakumea denean etxeko lanen eta zaintza familiarren banaketa parekideagoa izango da.

5.5. Emakumeen lanetan boterearen banaketak parekidetasunerantz eboluzionatu du.

- 5.6. Idazlea emakumea denean espazio publiko eta pribatuen banaketa nahiko parekideagoa izango da.
- 5.7. Idazlea emakumea denean sinbologia sexistak (maletina, amantala, kolore arrosa eta urdina) presentzia txikiagoa izango du eta parekideagoa izango da.
- 5.8. Emakumeek idatzitako lanetan aisialdia (lagunekin ibiltzea eta kirola) parekideagoa da.

VI.5 Corpusa

Corpusaren hautuan, euskal haur literatura modernoan emakumeak duen irudia aztertzea legoke. Kontuan izanda, 1980ko hamarkadatik aurrera euskaraz argitaratutako liburuak izugarri hazi direla, corpusa mugatu beharra dago. Izan ere, umeei eta gazteei zuzendutako euskal letretan urtero batez beste 100 liburu sortzen dira itzulpenak kenduta (Lopez, 2010), hortaz, mugak direla eta ezinezkoa litzateke denak aztertzea. Horrexegatik, Scribanoren (2007) hitzak aintzat hartuko dira eta lan honetan lagin adierazgarri bat aukeratuko da talde osoa irudikatuz: “Una muestra es una parte del universo de las unidades de análisis del estudio que permite obtener información sobre esa totalidad” (Scribano, 2007: 35).

Badakigu, haur eta gazte literaturaren unibertsoa oso zabala eta anitza dela. Marko teorikoan ikusi ahal izan den bezala, genero askok (narrazioa, poesia, komikia, albuma...) osatzen dute haurrei eta gazteei zuzendutako eskaintza. Gainera, liburuak modu ezberdinetan sailkatu daitezke (adinaren arabera, gaiaren arabera, jatorriaren arabera, egileen arabera, bildumaka, argitaratutako urtearen arabera...). Horrexegatik argi izan behar da zer nahi den ikertu, zertarako eta irizpide batzuen bitartez lagin adierazgarri bat finkatu.

Lehenik eta behin, aurretiaz azaldutako tesi honetako helburuak eta hipotesiak oinarri hartuta, eta lana eta ikerketa errazteko eta aberasteko asmoz, corpusean genero ezberdinak sartu dira, argitaletxe desberdinak, argitaratutako urte eta egile ezberdinak, baita itzulpenak zein euskal jatorrizkoak ere.

Corpusa hiru talde desberdinetan banatu egin dela aipatu beharra dago. Alde batetik, 1980ko hamarkadako corpusa genuke, 70 libururekin, bestetik, 2013. urtean euskaraz argitaratutako liburu multzoa (itzulpenik ez) 55 libururekin, eta azkenik, saridunen taldea, hau da, 2009tik 2014ra sariren bat irabazi duten 19 liburu. Beraz, Corpusa guztira 144 liburuz osatuta dago.

Tesi honetako corpusa osatuko luketen euskal haur eta gazte literaturako lanak hautatzeko eta corpusa ahalik eta osoena izateko asmoarekin zenbait irizpide kontuan hartu dira:

- Haurrei (0-12 urte bitartean) zein gazteei (12-16 urte) zuzendutako liburuak. Adin tarte hauetan, umeen sexu identitateari dagozkion eskema kognitiboen sendotzea gertatzen da eta sexu bakoitzari sozialki esleitzen zaizkion estereotipoak barneratzen dira. Modu horretan, genero identitatea definitzen eta egonkortzen da. Bestalde, tesi honek kontuan hartzen du liburu hauen ezaugarriak oso ezberdinak direla, esate baterako, ume txikiei zuzendutako idazteetan ilustrazioek letrek baino presentzia eta garrantzia handiago dute (albumak esaterako), ordea, gazteei zuzendutako liburuetan ilustrazioen presentzia nahiko urria da. Halaber, corpuseko liburu batzuk espresuki adin tarte hauei zuzenduta idatzitakoak izan direla kontuan hartu da, baina beste batzuk, berriz, (bereziki 80ko hamarkadako zenbait liburu) gazteek eta haurrek irabazitako liburuak lirateke, adibidez, *Fernando amezketarra*.
- Liburua euskaraz argitaratu egotea. Izan ere, Euskal Herriko (baita diasporan ere) eskoletan eta etxeetan euskaraz erabil daitezkeen liburuak ikertu nahi dira. Beraz, ume euskaldunak irakurritakoak lirateke.
- Denborari dagokionez, lehenengo taldea euskal haur eta gazte literatura modernoaren hastapenetan kokatzen da, alegia, 1980ko hamarkadako lagineko liburuak hamarraldi honetan argitaratuak izan behar dira edo urte hauetan editatutako bertsioak. Bigarren taldea, 2013. urtean editatutako euskal liburuek osatutakoa dute eta hirugarren taldea, 2009tik aurrera sariren bat irabazitako euskal lanek osatuko dute. Modu honetan bi garai desberdintzen dira nabarmenki: bata, euskal haur eta gazte literatura modernoaren hastapenak eta bestea, gaur egungo egoera. Gainera, saridunak nahiko berriak izateaz gain, emakumeen irudiarenganako begirunea izango dutela uste da.

Hortaz, hurrengo taulan ikerketa honetan erabili diren 144 liburuek multzo bakoitzean duten maiztasuna eta ehunekoa ikus daiteke (ikus. 1.taula).

1 Taula

Corpusa

1980ko hamarkadakoak	70 liburu	% 48.6
2013koak	55 liburu	% 38.2
Saridunak	19 liburu	% 13.2
Guztira	144 liburu	% 100.0

- Umeen artean ezagunenak eta ospetsuenak diren liburuak: Hamarkadako lan guztiak aztertzea ezinezkoa litzatekenez gizartean eragin handia izan duten obrak bilatu dira. 1980ko hamarkadako lagina Euskal Herrian gehien saldu eta argitaratu diren liburuek osatzen dute. Zerrenda hau osatzeko Juan Mari Torrealdaik euskal liburuei buruz egindako katalogoaz liburuaz baliatu gara eta argitaletxe desberdinekin (Elkar, Erein...) kontaktuan jarriz zerrendako liburu salduenen zerrenda egin da. 2013. urteko corpusa urte horretan euskaraz sortutako liburuak osatuz egin da eta liburu horiek aztertu dira. Bestalde, liburu saridunen laginerako sariren (Etxepare Saria, Mikel Zarate Saria, Euskadi Literatura Saria edota Lizardi Saria) bat irabazi duten obrak hartu dira kontuan.

Tesi honetan aurkezten den 144ko lagina mugatua den arren, kopuru handia izanik eta hautaketako irizpideak kontuan izanik, euskal haur eta gazte literatura modernoaren ordezkaria gisa hartu genezake.

Hemen aipatutako irizpideak kontuan izanik hauek dira 1980ko hamarkadako lagina osatzeko aukeratu diren 70 liburuak:

Aldai, Iñaki (1981). *Portzelanazko irudiak*. Donostia: Erein.

Alonso, Fernando (1987). *Haizearen faroa*. Madril: Anaya.

Alzola, Nikolas "Bitaño" (1982). *Ipuinak*. Bilbo: Mensajero.

Añorga, Pello (1984). *Pottoko*. Donostia: Elkar.

Añorga, Pello (1985). *Pottokoren izeba Juanita*. Donostia: Elkar.

Aristi, Pako (1986). *Martinello eta sei pirata*. Donostia: Erein.

- Arratibel, Jose (1986). *Mari Xor*. Donostia: Elkar.
- Atxaga, Bernardo (1988). *Antonino Apreta*. Donostia: Erein.
- Atxaga, Bernardo (1989). *Asto bat hypodromoan*. Donostia: Erein.
- Atxaga, Bernardo (1985). *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*. Donostia: Erein.
- Atxaga, Bernardo (1987). *Kitarra baten bila gabiltza zoratzen*. Donostia: Elkar.
- Atxaga, Bernardo (1984). *Sugeak txoriari begiratzen dionean*. Donostia: Erein.
- Atxaga, Bernardo (1984). *Txitoen istorioa*. Donostia: Erein.
- Ballaz, Jesus (1989). *Ibai astronauta*. Bartzelona: Timun Mas.
- Ballaz, Jesus (1989). *Ibai esploratzaile*. Bartzelona: Timun Mas.
- Balzola, Asun. et al. (1982). *Lotara joateko ipuinak*. Donostia: Erein.
- Blyton, Enid (1981). *Bostak berriro Kirrin uhartean*. Donostia: Elkarlanean.
- Blyton, Enid (1981). *Bostak ihesi*. Donostia: Elkarlanean.
- Canela, Mercé (1981). *Norena da basoa?* Donostia: Elkar.
- Denou, Violeta (1985). *Teo eta bere arreba*. Bartzelona: Timun Mas.
- Denou, Violeta (1992). *Teo hipermerkatuan*. Bartzelona: Timun Mas.
- Denou, Violeta (1979). *Teo zoo batean*. Bartzelona: Timun Mas.
- Elexpuru, Juan Martin (1984). *Fernando Plaentziarra*. Donostia: Elkar.
- Etxaniz, Xabier (1984). *Nire belarriak*. Donostia: Elkar.
- Etxaniz, Xabier (1985). *Patxiki*. Donostia: Elkar.
- Etxebarria, Ramon (1986). *Izpiak*. Bilbo: Ibaizabal.
- Garzia, Joxerra (1986). *Malen laberinto madarikatuan*. Arrigorriaga: SM.
- Gosciny, Rene (1991). *Asterix Belgikan*. Donostia: Elkar.
- Gosciny, René (1982). *Nikolas Txiki*. Donostia: Elkar.
- Gosciny, René (1994). *Nikolas Txikiren errekreoak*. Donostia: Elkar.

- Gosciny, René (1993). *Nikolas Txikiren oporrak*. Donostia: Elkar.
- Härtling, Peter (1983). *Amona*. Donostia: Elkar.
- Herge (1985). *Castafioreren bitxiak*. Donostia: Elkar.
- Iturralde, Joxe Mari (1987). *Londresen nago aitonarekin*. Donostia: Erein.
- Iturralde, Joxe Mari (1986). *Zikoinen kabian sartuko naiz*. Iruñea: Pamiela.
- Landa, Mariasun (1989). *Aitonaren txalupa*. Donostia: Elkar.
- Landa, Mariasun (1981). *Amets uhinak*. Donostia: Elkarlanean.
- Landa, Mariasun (1983). *Elisabete lehoi domatzailea*. Donostia: Elkarlanean.
- Landa, Mariasun (1982). *Kaskarintxo*. Donostia: Elkar.
- Landa, Mariasun (1984). *Txan fantasma*. Donostia: Elkar.
- Lertxundi, Anjel (1988). *Indiana Jones-en zamarra*. Donostia: Erein.
- Lertxundi, Anjel (1988). *Kaxkajo bahituaren kasua*. Donostia: Elkar.
- Lertxundi, Anjel (1981). *Tristeak kontsolatzeko makina*. Donostia: Erein.
- Lodi, Mario (1982). *Txipi*. Donostia: Elkar.
- Mendiguren, Xabier (1993). *Estitxuk pirata izan nahi du*. Donostia: Elkar.
- Mendiguren, Xabier (1989). *Ezin da ipuinik asmatu ala?* Donostia: Elkar.
- Mendiguren, Xabier (1990). *Harrika*. Donostia: Elkar.
- Muro, Gregorio (1983). *Justin Hiriart itsas gorritan*. Donostia: Erein.
- Olaizola, Jesus Mari (1980). *Till Eulenspiegel*. Donostia: Elkar.
- Olaizola, Mertxe (1982). *Nire ibilaldiak*. Donostia: Elkar.
- Ormazabal, Joxantonio (1981). *Esaera zaharrak eta txiste berriak*. Donostia: Elkar.
- Ormazabal, Joxantonio (1984). *Kotti*. Donostia: Elkar.
- Ormazabal, Joxantonio (1983). *Margolin*. Donostia: Elkar.
- Ormazabal, Joxantonio (1986). *Maripertxenta*. Donostia: Elkar.

- Ormazabal, Joxantonio (1982). *Pernando Amezketarra*. Donostia: Elkar.
- Orwell, George (1982). *Abereen etxaldea*. Donostia: Elkar.
- Pisón, Xesús (1985). *Luxioren abenturak*. Donostia: Elkar.
- Press, Hans Jürgen (1984). *Eskubeltz taldearen abenturak*. Donostia: Elkar.
- Preussler, Otfried (1982). *Tomas txorimalo*. Donostia: Elkar.
- Rodari, Gianni (1981). *Jolas egiteko ipuinak*. Donostia: Elkar.
- Rodari, Gianni (1983). *Telefonozko ipuinak*. Donostia: Erein.
- Sagarzazu, Pako (1986). *Jon Txikiren abenturak*. Donostia: Elkarlanean.
- Sorribas, Sebastián (1980). *Ketxuseen zooa*. Donostia: Elkar.
- Twain, Mark (1981). *Printzea eta eskalea*. Donostia: Elkar.
- Ugarteburu, Anjel (1988). *Abarak*. Donostia: Elkar.
- Verne, Jules (1998). *Mikel Strogoff*. Donostia: Elkarlanean.
- Verne, Jules (1981). *Munduaren azken muturreko faroa*. Donostia: Elkar.
- Vinyes, Jordi (1989). *Hamar hatz*. Donostia: Elkar.
- Yarnoz, Sagrario (1980). *Makilakixki*. Donostia: Elkar.
- Zubeldia, Iñaki (1983). *Euskaldun bat Marten*. Donostia: Elkar.

Hauek dira 2013ko multzoko 55 liburuak, dena den, aipatu beharra dago emaitzak aurkezterako orduan multzo honetako liburu bat edo bi ez direla aintzat hartu animaliak protagonistak direlako edota informazio ezagatik.

- Agirre, Alaine (2013). *Nire potxolina maitea*. Donostia: Elkar.
- Agirre, Katixa (2013). *Amaia Lapitz eta Didoren ermandade sekretua*. Donostia: Elkar.
- Alberdi, Uxue (2013). *Txikitxen zaretenean*. Iruñea: Pamiela.
- Alberdi, Uxue (2013). *Zure denboraren truke*. Donostia: Elkar.

- Alonso, Antton (2013). *Tigreen hizkera*. Bilbo: Aizkorri.
- Andueza, John (2013). *Kankaleko misterioa*. Donostia: Elkar.
- Añorga, Pello (2013). *Augustoren botila*. Bilbo: Giltza.
- Añorga, Pello (2013). *Mux munstroa*. Donostia: Elkar.
- Añorga, Pello (2013). *Zapatagorri*. Iruñea: Denonartean.
- Arana, Aitor (2013). *Aitaren sekretua*. Bilbo: Ibaizabal.
- Arana, Aitor (2013). *Espaziotik etorria*. Bilbo: Ibaizabal.
- Arana, Aitor (2013). *Maitasun sua*. Bilbo: Ibaizabal.
- Arranz, Iñaki (2013). *Hizkimilikiliklik!* Bilbo: Ibaizabal.
- Bilbao, Leire (2013). *Euli bat dut bihotzean*. Donostia: Elkar.
- Bourgoin, Paxkal (2013). *Behruz*. Baiona: Ikas.
- Bourgoin, Paxkal (2013). *Dogomuso neska txiki*. Hazparne: Gatuzain.
- Bourgoin, Paxkal (2013). *Hiru bidaiariak*. Baiona: Ikas.
- Bourgoin, Paxkal (2013). *Katilua*. Baiona: Ikas.
- Bravo, Olatz (2013). *Hiru dragoi*. Donostia: Erein.
- Bravo, Olatz (2013). *Izotz zuloa*. Donostia: Erein.
- Bueno, Rai (2013). *Hamar! Aitonak oparia dakar!* Bilbo: Ibaizabal.
- Cano, Harkaitz (2013). *Zebra efektua*. Donostia: Ikastolen elkarte.
- De Pedro, Jokin (2013). *Etsai gordea*. Donostia: Elkar.
- Egaña, Arrate (2013). *Simon ipuinen munduan*. Donostia: Elkar.
- Egiguren, Ekhiñe (2013). *Pashmina gorria*. Bilbo: Mensajero-Bitarte.
- Elortza, Igor (2013). *Zazpikoloroa*. Donostia: Elkar.
- Etxegarai, Eneko (2013). *Puagg*. Iruñea: Denonartean.
- Gabantxo, Nerea (2013). *Iparzuri*. Iruñea: Denonartean.

- Igerabide, Juan Kruz (2013). *Antzinako ipuintxo bat gauero*. Bilbo: Aizkorri.
- Irasizabal, Iñaki (2013). *Bizkartzainaren lehentasunak*. Donostia: Elkar.
- Iturralde, Joxemari (2013). *Rasputin eta San Petersburgoko gauak*. Donostia: Elkar.
- Kazabon, Antton (2013). *Argazki albuma*. Donostia: Elkar.
- Kazabon, Antton (2013). *Parke bakartia*. Donostia: Elkar.
- Kazabon, Antton (2013). *Sorgin maitagarriak*. Bilbo: Aizkorri.
- Linazasoro, Karlos (2013). *Hau zer lau elementu!* Iruñea: Pamiela.
- Linazasoro, Karlos (2013). *Tripoli doktorea*. Donostia: Elkar.
- Lopez de Muñain, Iratxe (2013). *Ezkilalore*. Iruñea: Txalaparta.
- Mendibil, Mikel (2013). *Bizi*. Iruñea: Denonartean.
- Mendizabal, Antxiñe (2013). *Nire alabak ez du erremediorik*. Donostia: Elkar.
- Morillo, Fernando (2013). *Hiru istripu eta bi amodio*. Irun: Gaumin.
- Morillo, Fernando (2013). *Infernuko arrosak*. Irun: Gaumin.
- Murua, Mixel (2013). *Marimotots errekan*. Donostia: Elkar.
- Murua, Mixel (2013). *Pirritx titia ematen*. Donostia: Elkar.
- Murua, Mixel (2013). *Porrotx ispiluan*. Donostia: Elkar.
- Murua, Mixel (2013). *Pupu eta Lore zilipurdika*. Donostia: Elkar.
- Olaizola, Jesus Mari (2013). *Oihaneko epailea*. Donostia: Elkar.
- Peña, Joseba (2013). *Kilimanjaroko diamantea*. Bilbo: Ibaizabal.
- Perez, Laura (2013). *Dortoka galdua*. Bilbo: Aizkorri.
- Rodriguez, Txani (2013). *Artzaina izan nahi dut, eta zer?* Donostia: Elkar.
- Soria, Natalia (2013). *Loixun, uxu hegalaria*. Iruñea: Denonartean.
- Soria, Natalia (2013). *Txibi inurri laboraria*. Iruñea: Denonartean.
- Suarez, Castillo (2013). *Erikaren ttilikak*. Bilbo: Aizkorri.

Ugarte, Yurre (2013). *Itsaso maleta batean*. Iruñea: Denonartean.

Unzueta, Lourdes (2013). *Kaiuko bat elurretan*. Donostia: Elkar.

Zubeldia, Iñaki (2013). *Eskola sorgindua*. Bilbo: Ibaizabal.

Azkenik, saridunen lagina osatzen dituzten 19 liburuak hauek dira irabazitako sariaren arabera sailkaturik:

2009- Euskadi Saria: Ruiz, Ruben (2008). *Anekdotak*. Iruñea: Pamiela.

2010- Euskadi Saria: Añorga, Pello (2008). *Ipuin-kontalaria*. Bilbo: Aizkorri.

2011- Euskadi Saria: Meabe, Miren Agur (2010). *Errepidea*. Donostia: Erein.

2012- Euskadi Saria: Zaldua, Iban (2011). *Azken garaipena*. Donostia: Euskal Herriko ikastolak.

2014- Euskadi Saria: Cano, Harkaitz (2013). *Orkestra lurtarra*. Donostia: Elkar.

2014- Euskadi Saria: Gurrutxaga, Maite (2013). *Habiak*. Iruñea: Txalaparta.

2008- Etxepare Saria: Zubeldia, Iñaki (2010). *Katalina kontalari*. Iruñea: Pamiela.

2009- Etxepare Saria: Gurrutxaga, Mikel (2010). *Alex, nire laguna*. Iruñea: Pamiela.

2010- Etxepare Saria: Salaberria, Leire (2011). *Euria ari duenean*. Iruñea: Pamiela.

2011- Etxepare Saria: Asiain, Miren (2012). *Hara!* Iruñea: Pamiela.

2013- Etxepare Saria: Bilbao, Leire (2013). *Gerrak ez du izenik*. Iruñea: Pamiela.

2014- Etxepare Saria: Salaberria, Leire (2014). *Hiltzaileak*. Iruñea: Pamiela.

2011- Lizardi Saria: Egaña, Arrate (2011). *Giltza*. Donostia: Erein.

2012- Lizardi Saria: Etxeberria, Idoia (2012). *Ez dago argi*. Donostia: Elkarlanean.

2013- Lizardi Saria: Fernandez, Oihane (2013). *Labarreko itsasargia*. Donostia: Elkar.

2014- Lizardi Saria: Olasagasti, Ramon (2014). *Sugaar*. Donostia: Elkarlanean.

2011- Mikel Zarate Saria: Gabiria, Julen (2011). *Nire aita ikusezina da*. Donostia: Elkarlanean.

2012- Mikel Zarate Saria: Arostegi, Gaizka (2012). *Urrezko orrazia*. Donostia: Elkar.

2013- Mikel Zarate Saria: Bediaga, Irati (2013). *Beldarren hegaldia*. Donostia: Elkar.

VI.6 Tresnak

Ikerketa honetako corpusa osatzen dituzten liburuetatik ahalik eta informazio gehien eta interesgarriena biltzeko asmoz, *tresna* edo *genero analisirako fitxa* bat prestatu egin da. Hasierako eta oharkabeko irakurketa pertsonalak eta atseginak ematen duen subjektibotasuna gainditzeko, sortutako fitxak genero-ikuspegitik hainbat detailetan arreta jartzeko parada eskatzen dizu.

Fitxa hau, bereziki, hipotesien eta helburuen eskakizunei aurre egiteko sortua izan da. Ikerketa tresna hau sortzeko, aurretik argitaratuak izan diren hainbat ikerketa lan eta gida hartu dira kontuan. Hauek lirateke tesi honetako tresnak izan dituen oinarriak: Davies Bronwynen (1994) *Sapos y culebras y cuentos feministas: los niños de preescolar y el género*, Colomerren (1994) *A favor de las niñas*, Turinen (1995) *Los cuentos siguen contando*, Du côté des filles elkartearen (1996) *Attention album!*, Urtxintxa eskolaren (2006) *ipuinak ez sexistak izateko gida*, Emakunde erakundearen (2009) *Cuentos infantiles y roles de género* eta Blancoren (2002) *Educación en Femenino y en Masculino*. Lan hauek uztartuz ikerketa sakon bat egiteko tresna berri bat sortu delakoan gaude.

Fitxa atal ezberdinez osatuta dago eta zati bakoitzak corpuseko liburu bakoitzetik informazioa modu objektibo batean lortzeko balio du. Etorkizunean fitxan agertzen diren atal bakoitzean modu indibidualean (espazioan, deskribapenetan...) sakontzeko aukera egon daiteke.

Fitxaren atal bakoitza erabiliko da berari dagokion informazioa lortzeko. Horretarako, liburua bakoitzaren testuaren azterketa egingo da. Baita ere, istorioan gertatzen diren ekintzetatik eta ilustrazioetatik informazioa atera da fitxa betetzeko. Halaber, batzuetan testuan agertzen dena ilustrazioetan islatuta dagoen arren, beste batzuetan ez dago letren eta irudien arteko harremanik, modu honetan informazio gehigarria helarazten delarik.

Ikerketa kualitatiboaren eta kuantitatiboaren bidez, aukeratu diren liburuen azterketa sakonago bat egiteko aukera dago. Arestian aipatu bezala, gure helburuak betetzeko eta hipotesiak egiaztatzeko garrantzitsuak izan daitezkeen elementuetan zentratuz.

Azken finean, fitxaren bitartez, genero-ikuspegitik, ahalik eta zehaztasun gehien lortu nahi da. Modu honetan, ikerketa lanari zorrotasun minimo bat eman zaio. Bildutako datu objektiboak gure bukaerako ondorioen euskarri izango dira.

Beraz, ikerketa honetako gida izango den azterketa eredua berariazko ikerketatik, haur eta gazte literaturaren kritikatik eta kritika feministatik elikatu da ikuspegi anitza eta irekia emanez. Bertan diziplina desberdinek parte hartzen dute: pedagogia, psikologia, didaktika, literatura eta antropologia. Rosselek (1995) jasotzen zuenez:

“En el caso de la literatura para niños y adolescentes el campo es todavía más complejo debido a la participación de elementos psicopedagógicos, plástico/gráficos y hasta de disciplinas del saber que tienen una participación más o menos elaborada en los libros infantiles que comportan una intención didáctica o informativa” (Rossel, 1995, 26-27 or.).

Zehaztasunetan murgilduz, hauek dira *genero analisirako fitxa* osatzen dituzten atalak:

- Lehenengo atala liburuaren *izenburuari, idazleari, ilustratzaileari eta itzultzaileari* dagokio. Modu horretan liburu bakoitzaren egilearen sexua ezagutuko delarik. Tesiaren aldagaietako bat identifikatuz.

Izenburua:

Egilea:

- Bigarren atalak *pertsonaia nagusiaren* sexua ezagutzeko balio du, baita ere protagonista norbanakoa edo talde bat den eta protagonista nagusia sexua zehazturik ez duen animalia edo objektua den. Izan ere, liburu bateko pertsonaia nagusia da irakurlegoan eragin gehien izan ohi duena.

Protagonista nagusia

	BAKARRA	TALDE BAT
Mutila/ Gizona		
Neska/ Emakumea		
Neska-mutilak		

	ANIMALIA	OBJEKTUA
Zehaztu gabea		

- Hirugarren atalean, *bestelako protagonisten* sexua identifikatuko da. Baita ere, taldeak edo norbanakoak diren istorioan agertzen diren emakumezkoak eta gizonezkoak. Aurreko atalean gertatzen den bezala ere, sexua zehazturik ez dituzten animaliak eta objektuak ere begiratzeko parada dago. Nahiz eta pertsonaia nagusia baino garrantzia gutxiago izan, istorioan zehar bere funtzioa betetzen dute irakurlegoari eredu ezberdinak eskainiz.

Bestelako protagonistak

	BAKARRA	TALDE BAT
Mutila/ Gizona		
Neska/ Emakumea		
Neska-mutilak		

	ANIMALIA	OBJETUA
Zehaztu gabea		

- Laugarren atalean idazleek egiten dituzten *deskribapenen* inguruko informazioa bilduko da. Horretarako, sexu bakoitzean ezaugarri fisikoak, ezaugarri psikologikoak (izaera) eta trebetasunak idazleak aipatzen dituen edo ez apuntatuko da.

Deskribapenak

	Neskak	Mutilak
Ezaugarri fisikoak		
Ezaugarri psikologikoak (izaera)		
Trebetasunak/gaitasunak		

- Bosgarren atalean, sexu bakoitzaren *nortasuna* determinatzen dituzten ekintzak aipatuko dira; ea istorioaren salbatzailea eta heroia neska edo mutila den, ea neskek edo mutilek beraien arazoak gainditzen dituzten, ea neskak eta mutilak dependienteak (mendekoak) eta autonomoak diren, ea nork hartzen dituen erabakiak eta azkenik, indarkeria nork erabiltzen duen erreparatuko zaio. Hauek behintzat irakurlegoari jarrera ereduak eskaintzen dizkiote.

Nortasuna

	Neskak	Mutilak
Salbatzailea/ Konpontzailea/ Heroia		
Arazoak gaitzen ditu		
Menpekotasuna		
Autonomia		
Erabakiak hartzen ditu		
Indarkeriaren erabilera		

- Seigarren atalean, *ezaugarri fisikoak* agertuko dira. Bertan, idazleek adjektibo konkretu batzuk (indartsua, ahula, ederra eta itsusia) zein sexuari esleitzen dizkioten aztertuko da. Izan ere, adjektibo hauek genero-estereotipoak indartzen dituzte.

Ezaugarri fisikoak

	Neskak	Mutilak
Indartsuak		
Ahulak		
Ederrak		
Itsusiak		

- Zazpigarren atalean, *ezaugarri psikologikoak (izaera)* agertuko dira. Bertan neskak eta mutilak aktiboak, pasiboak, menderatzaileak, mantsoak, lehiakorrak, alferrak, sentikorrek, ausartak, zitalak, lotsatiak, ahulak, sortzaileak, ameslariak, heroiak eta jakintsuak diren bilduko da. Adjektibo hauek ere genero-estereotipoak finkatzen lagundu dezakete.

Ezaugarri psikologikoak (izaera)

	Neskak	Mutilak
Aktiboak		
Pasiboak		
Menderatzaileak		
Mantsoak (men egitea)		
Lehiakorrak		
Alferrak		
Sentikorrek		
Ausartak		
Zitalak		
Lotsatiak		
Ahulak		
Sortzaileak/abenturazaleak		
Ameslariak		
Heroiak		
Jakintsuak		

- Zortzigarren atalean *etxeko ardurak, lanbideen estatusari, espazioari eta diruari* erreparatuko zaio. Sexuari prestigioa emateaz gain, gizartean sexu bakoitzak izan dezakeen funtzioa eta eginkizuna determinatzen dute.

Etxeko ardurak/ lanbideak /espazioa

	Neskak	Mutilak
Etxeko lanak		
Zaintza familiarrak		
Lan ordainduak		
Boteredunak (karguak)		
Etxe kanpoan /esfera publikoa/ gizartea		
Etxe barruan / esfera pribatua		
Ospea ematen duena		
Diru asko ematea		
Diru gutxi ematea		

- Bederatzigarren atalean *familia* agertuko da. Etxean nortzuk agertzen diren adieraziko da. Modu honetan, familia ereduak antzemateko aukera dago.

Nor ageri da etxean?

	Aita	Ama	Biak	Semea	Alaba	Beste familiarrak
Nor ageri da etxean						

- Hamargarren atalean, liburu bakoitzean sexu bakoitzaren lanbideen zerrenda egingo da. Horrela, lan merkatuaren errealitateak haur eta gazte literaturan isla duen edo ez ikusiko da.

Lanbideak

Neskak / emakumeak:

Mutilak / gizonak:

- Hamaikagarren atalean *sinbologiari* begia jarriko zaio. Turinek (1995) aipatzen dituen zenbait objektu aztertuko dira ea estereotipoak sustatzen diren edo ez aztertzeko.

Sinbologia

	Neskak	Mutilak
Maletina		
Betaurrekoak		
Egunkaria		
Amantala		
Txakurra		
Katua		
Urdina		
Arrosa		
Etxeko tresnekin		
Kaleko tresnekin		

- Hamabigarren atalak esango du sexu bakoitzaren *aisialdiari* buruzko informazioa. Hala nola, neskak eta mutilak lagunekin paseatzen agertzen diren edo ez, kirola egiten duten edo ez, irakurtzen, telebista ikusten, abenturak bizitzen, zinemara joaten, museoa eta zooa bisitatzen, etxetik kanpo edo etxe barruan jolasten duten, ikasten eta bidaiatzen duten.

Aisialdia

	Neskak	Mutilak
Lagunekin paseatu		
Kirola egin		
Irakurri		
Telebista ikusi		
Abenturak		
Zinemara joan		
Museora joan		
Zoora joan		
Etxetik kanpo jolastu		
Etxe barruan jolastu		
Ikasi		
Bidaiatu		

Bukatzeko, aipatu beharra dago, fitxan ez dela liburuaren argitaratze urtea jasotzen, corpora sailkatzerako orduan hiru multzo ezberdinetan egin delako: 1980ko hamarkada, 2013. urtean argia ikusitakoak, eta 2009tik aurrera sariren bat irabazitakoak.

VI.7 Ikerketa garatzeko prozedura

Metodologia aukeraketa

Ikerketak egiteko dauden metodologiaren artean lan honetarako ikerketa mistoa (kuantitatiboa eta kualitatiboa) aukeratu da. Johnsonek eta Onwuegbuziek (2004) dioten bezala, ikerketa mistoetan ikertzaileak ikerketa kualitatiboaren eta kuantitatiboaren teknikak, metodoak, kontzeptuak, hizkuntzak edo ikuspegiak nahasten ditu ikerketa bakar batean. Izan ere, ikerketa askok erakutsi dute ikerketa kuantitatiboa eta ikerketa kualitatiboa osagarriak direla.

Ikerketa honetako helburuei eta hipotesiei hobeto erantzuten dio bi metodologiak (kuantitatiboa eta kualitatiboa) gurutzatzeak. Creswellek (2007) baieztatzen duenez, ikerketa mistoek, metodologia kuantitatiboak eta kualitatiboak jasotzen dituzenez, ikerketa mistoaren ulermen handiagoa eta zehatzagoa ahalbideratzen dute.

Gure kasuan, alde batetik, kuantitatiboa da egoeraren deskripziorako informazio-datu zehatzak izateko fitxaren bitartez datuak bildu direlako eta datu hauen azterketa eginez, ezarritako hipotesiak baieztatzen edo ezeztatzen diren frogatu ahal izan da. Beraz, zenbaketa eta estadistikaren erabilerari esker, corpusaren patroiak antzeman ahal dira hipotesiak baieztatuz edo ezeztatuz.

Liburuaren protagonista identifikatu da eta baita ere, bestelako pertsonaiak. (ikerketaren beste aldagai bat). Hau argi dagoelarik, idazleek egindako deskribapenetan arreta berezia ipiniko da; ezaugarri fisikoetan, psikologikoetan eta gaitasunetan.

Ekintzen bitartez, liburueta neskak eta mutilen nortasuna identifikatuko da, besteak beste, indarkeria erabiltzen duten, arazoak gainditzeko dituzten, autonomoak diren edo ez etab.

Idazlearen hitzen eta ilustrazioen bidez, liburueta neskak eta mutilek betetzen dituzten espazioak (publikoa edo pribatua), ardurak (etxeke lanak/ zaintzak) edota lanbideak identifikatuko dira. Baita ere etxean agertzen diren pertsonak zeintzuk diren eta neskak eta mutilen aisialdiari ere begia jarriko zaio.

Bestetik, kualitatiboa da ipuinetako irudiak baloratu egin direlako nola galderari erantzuteko eta informazioa zehatzagoa izateko. Turinen (1995) aholkuei


jarraituz, sinbologia sexista antzemateko, bereziki, ilustrazioei erreparatuko zaio. Baita emakumeen eta gizonen lanbideak sailkatzeko irizpide kualitatiboagoak erabili direlako ere. Askotan hitzek datuak hobeto ulertzen laguntzen dute.

Ikerketa burutzeko emandako pausuak

Lehenik, euskal haur eta gazte literatura modernoan sexismoa detektatzeko eta emakumearen eta gizonaren irudia aztertzekeo liburuaren corpusa aukeratu behar da.

Gero, liburu horiek aztertzekeo eta datuak biltzekeo genero-ikuspegian oinarrituta dagoen *genero analisirako fitxa* sortu behar da. Ondoren, corpusa osatzen duten liburuaren irakurketa analitikoa egin beharra dago, sortutako fitxa hori liburu guztietan aplikatu beharra dago. Azkenik, irakurketa egin ahala fitxa betetzen da eta koaderno batean kontu interesgarrienen inguruan apunteak hartzen dira. Behin liburua irakurrita zegoela, apunteekin batera, fitxa betetzen bukatzen da.

Esan beharra dago, ez dela irakurketa arin bat egin behar, gure kasuan detaileek garrantzia handia izan dezaketelako. Baita ere, irudien behaketa sakona egin beharra dago bertatik fitxa osatzeko informazio baliagarria eta beharrezkoa atera daitekeelako.



1 Irudia. Ikerketa Burutzeko Pausuak

Datuen estatistika-azterketa

Jarraian azalduko da ikerketa honetako hipotesiak frogatzeko erabili diren estatistika-analisiak.

Behin corpusa osatzen dituzten liburu guztiak irakurrita daudelarik eta bakoitzaren fitxa beteta dagoelarik, fitxan pilatutako informazioarekin “IBM SPSS Statitics 20.0” programan datu basea sortu da.

Hipotesiak, helburuak eta aldagaiak kontuan izanik, aipatutako programaren bitartez analisiak egiten dira, kasu honetan, maiztasunekin eta ehunekoekin kontigentzia taulak egin dira ondoren beharrezkoak diren konparaketak egin ahal izateko.

Bestalde, modu kualitatiboan lanbideei dagokion informazioa biltzen da. Izan ere, lanak kuantifikatzeaz gain, zeintzuk lanbidek goi-mailako ikasketak behar dituzten aztertu da eta zuzendarien eta jabeen kopuruak.

VII. KAPITULUA. Emaizak

Sarrera

Tesi-lan honen helburu nagusia abiapuntu harturik, euskal haur eta gazte literatura modernoak (1980-2014) transmititzen duen emakumearen eta gizonaren irudiaren eboluzioaren azterketa egin nahi da, horretarako bost atal erabili dira datuak eta emaitzak ezagutarazteko. Emaizetan eta ondorioetan zehar *neska* edo *emakumea* erabiliko da emakumeen inguruko datuen berri emateko eta *mutila* edo *gizona* gizonen berri emateko. Izan ere, askotan protagonistak umeak izaten dira eta inguruko pertsonaiak pertsona nagusiak. Hona hemen atal bakoitzean erabiliko diren adierazleen azalpenak eta bakoitzari dagozkion hipotesiak:

Pertsonaien sexuen kopuruen eboluzioari dagozkion emaitzak: Aztertutako hiru multzoetan (1980ko hamarkada, 2013.urtea eta liburu saridunak) nesken eta mutilen presentzia nolakoa den ezagutzeko bi adierazle erabili dira: alde batetik, protagonista nagusiaren presentziari erreparatu zaio (protagonista nagusia neska edo mutila den) eta bestetik, liburuko bestelako pertsonaiei (neskak edo mutilak agertzen diren edo biak). Hau aztertzeko hurrengo hipotesia kontuan hartuko da:

1. 1980ko hamarkadako eta gaur egungo literaturan gizon eta emakumeen irudiak ezberdinak dira: Liburua zenbat eta berriagoa izan eta prestigiotsuagoa izan emakumearen presentzia handiagoa izango da eta mutilen eta nesken presentzia orekatuagoa izango da.

Sexismoari dagozkion emaitzak: Kasu honetan genero-estereotipoetan oinarritutako hainbat adierazle erabili dira sexismoa detektatzeko asmoz: Lehena, ezaugarri fisikoak: neska eta mutil indartsuaren presentzia, neska eta mutil ahularen presentzia, neska eta mutil ederraren presentzia eta neska eta mutil itsusiaren presentzia. Bigarrena, ezaugarri psikologikoei dagozkionak (aktibotasuna, pasibotasuna, menderatasuna, lehiakortasuna, sentikortasuna, ausardia, zitaltasuna, lotsa, ahulezia, sorkuntza, ameslaria, heoria eta jakinduria); hirugarrena, etxeko lanen banaketari buruzko emaitzak; laugarrena, zaintza familiarrei buruzkoak; bosgarrena, boterearen banaketari dagozkionak;

seigarrena, espazioen banaketa (espazioa publikoa eta pribatuaren banaketa) eta azkenik, kolore urdinak eta kolore arrosak mutiletan eta nesketan duten presentziari erreparatu zaio. Hau aztertzeko hurrengo hipotesiak kontuan hartuko dira:

2. 1980ko hamarkadan gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan baino sexismo gehiago ematen da.
 - 2.1. Gaur egungo literaturan ezaugarri fisikoei esleitzen zaizkien ezaugarri sexisten (neska eta mutil indartsua, ahula, ederra eta itsusia) presentzia txikiagoa izango da 1980ko hamarkadan baino, hau da, ez dira neska ederrera eta mutil indartsura mugatuko.
 - 2.2. Gaur egungo haur eta gazte literaturan pertsonaien ezaugarri psikologikoetan (aktibotasuna, pasibotasuna, menderatasuna, lehiakortasuna, sentikortasuna, ausardia, zitaltasuna, lotsa, ahulezia, sorkuntza, ameslaria, heoria eta jakinduria) ezaugarri sexisten presentzia txikiagoa izango da 1980ko hamarkadan baino.
 - 2.3. Etxeko ardurak (etxeko lanak, zaintzak eta lan ordainduak) gaur egungo literaturan 1980ko hamarkadakoan baino banatuagoak agertuko dira, hots, ez dira soilik emakumeen esku egongo.
 - 2.4. 1980ko hamarkadako corpusean emakume boteretsuen presentzia oso urria den heinean, gaur egungo literaturan, berriz, ugariagoa eta parekideagoa da.
 - 2.5. 1980ko hamarkadako corpusean emakumea espazio pribatuan (etxe barruan) kokatu den heinean, gaur egungo literaturan, ordea, espazio biak beteko ditu.
 - 2.6. 1980ko hamarkadako corpusean koloreen (urdinaren eta arrosaren) erabilera sexista nabarmenagoa izango da gaur egungo literaturan baino.

Pertsonaien ezaugarriei buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak: Liburuetako zenbait pertsonaiaren hainbat ezaugarri berrikuntzarik izan duten ikusteko bost adierazle erabili dira: lehenengo eta behin, sinbologiari dagozkionak (Turin, 1995); bigarrena, aisialdiaren banaketari buruzkoak; hirugarrena, etxean aita, ama, semea, alaba eta beste familiarren presentziari dagozkionak; laugarrena,

osperei dagozkionak eta azkena, lanbideei dagozkion emaitzak. Hona hemen atal honi dagozkion hipotesiak:

3. 1980ko hamarkadako euskal haur eta gazte literaturako pertsonaiekin alderatuz gaur egungo pertsonaien irudien ezaugarrietan berrikuntzak eman dira.
 - 3.1. Liburu saridunetan sinbologia sexista (tresnak eta objektuak) gutxiago agertuko da.
 - 3.2. Liburu berrietan emakumearen aisialdia 1980ko hamarkadako literaturan baino aberatsagoa izango da eta gizonen parekoa izango da.
 - 3.3. Gaur egungo literaturan etxean amek eta aitek duten presentzia orekatua den heinean, 1980ko hamarkadakoa, aldiz, desorekatuta dago.
 - 3.4. Gaur egungo literaturan etxean alabek eta semeek duten presentzia orekatua den heinean, 1980ko hamarkadakoa, aldiz, desorekatuta dago.
 - 3.5. 1980ko hamarkadako corpusean oso emakume ospetsu gutxi eta gizon ospetsu asko agertzen diren bitartean, gaur egungo literaturan, ospeak, presentzia txikiagoa izango da eta parekatuagoa izango da.
 - 3.6. 1980ko hamarkadako corpusean etxetik kanpo lan egiten zuten emakume gehienak prestigio gutxiko jardunetan eta zaintzei lotutako lanbideetan (irakaslea, garbitzailea, zaintzailea, zerbitzaria) agertuko diren heinean, gaur egungo liburuetan, emakumearen lanbidea edozein izan daitekeelarik, emakumeen lanbideak ugariagoak, desberdinagoak eta prestigiotsuagoak izango dira: suhiltzailea, gidaria, ugazaba, presidentea etab.

Parekidetasunari dagozkion emaitzak: Atal honetan egileek egiten dituzten deskribapenak nolakoak diren adieraziko da: neskak eta mutilak deskribatzeko ezaugarri fisikoak, psikologikoak eta trebetasunak deskribapenetan aipatzen diren edo ez direneko datuak aurkeztuko dira. Ondoren, nortasunari buruzkoak (salbatzailea, arazoak gainditzen dituen, menpekotasuna, autonomia, erabakiak hartzen dituen eta indarkeriaren erabilera nori dagokio) eta azkenik, aberastasunaren eta pobreziaren banaketa, hots, diru gutxi edo diru askoren presentzia sexu bakoitzari buruzko datuak. Hau aztertzeke hurrengo hipotesiak kontuan hartuko dira:

4. Gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan egiten diren pertsonaien deskribapenak, pertsonaien nortasuna eta aberastasunen banaketa parekideagoa izango da 1980ko hamarkadan baino.
 - 4.1. Gaur egungo literaturak deskribapen osoagoak (ezaugarri fisikoak, ezaugarri psikologikoak eta trebetasunak aipatzen diren edo ez) eta parekideagoak eskainiko ditu 1980ko hamarkadakoak baino.
 - 4.2. 1980ko hamarkadako literaturan gizona heroia, autonomia, arazoak gainditzen dituena, indarkeria erabiltzen duena eta erabakiak hartzen dituena den heinean, gaur egungo literaturan emakumeak ere rol hauek agertuko ditu.
 - 4.3. 1980ko hamarkadan aberastasunaren banaketa ez parekidea den heinean, gaur egungo literaturan, ordea, aberastasunaren eta txirotasunaren banaketa parekatuagoa izango da.

Idazlearen sexuari dagozkion emaitzak: Kasu honetan corpuseko hiru multzoetako idazleen sexuak eragina duen aztertzeko eta lortutako datuak azaltzeko orduan azter-unitate desberdinak erabiliko dira: protagonista nagusiaren presentzia, ezaugarri fisikoak, aktibotasuna eta pasibotasuna, etxeko lanak, zaintza familiarrak, boterea, espazioa (publikoa eta pribatua), sinbologiaren barruan maletina, amantala, kolore arrosa eta kolore urdina, eta aisialdian lagunekin ibiltzea eta kirola egitea. Azken atal honetarako hurrengo hipotesiak kontuan hartuko dira:

5. Idazlea emakumea denean, 1980ko hamarkadako eta gaur egungo liburuetan mutilen eta nesken irudietan eragina izango du: parekideagoa izango da.
 - 5.1. Gaur egun emakumeek idatzitako liburuetan zein gizonen idatzitako liburuetan neska den protagonista nagusiak presentzia handiago izango du, hau nabarmenagoa izango da emakumeek idatzitako liburuetan.
 - 5.2. Hiru multzoetan emakumea idazlea denean edertasunaren eta indarraren presentzia parekideagoa izango da.
 - 5.3. Idazlea emakumea denean aktibotasunaren eta pasibotasunaren presentzia parekideagoa izango da.
 - 5.4. Idazlea emakumea denean etxeko lanen eta zaintza familiarren banaketa parekideagoa izango da.

- 5.5. Emakumeen lanetan boterearen banaketak parekidetasunerantz eboluzionatu du.
- 5.6. Idazlea emakumea denean espazio publiko eta pribatuen banaketa nahiko parekideagoa izango da.
- 5.7. Idazlea emakumea denean sinbologia sexistak (maletina, amantala, kolore arrosa eta urdina) presentzia txikiagoa izango du eta parekideagoa izango da.
- 5.8. Emakumeek idatzitako lanetan aisialdia (lagunekin ibiltzea eta kirola) parekideagoa da.

Atal bakoitzean aurkeztuko diren emaitzak definitutako helburua eta hipotesia jarraituz aurkeztuko eta azalduko dira.

Modu honetan, euskal haur eta gazte literatura modernoak eskaintzen dituen emakumeen eta gizonen ereduaren eta irudien erradiografia izango dugu, 1980ko hamarkadatik gaur egunera sexismoak izandako eboluzioa ezagutuko dugu, baita ere liburuek eskaintzen dituzten ereduak aldatu diren edo ez, liburuek genero estereotipoak transmititzen jarraitzen duten, ezaugarrietan berrikuntzarik izan den edo ez, eta, azkenik, idazlearen sexuak eta garaiak eragina duen emakumearen eta gizonaren irudiaren parekidetasunean eragina duen edo ez ikusteko aukera izango dugu.

VII.1 Pertsonaien sexuen kopuruen eboluzioari dagozkion emaitzak

Lan honen lehenengo helburua abiapuntutzat harturik, euskal haur eta gazte literatura modernoan neskaren eta mutilaren presentziak parekidetasunerantz eboluzionatu duen edo ez zehaztuko dugu azterketa honen bitartez. Azken batean, 1980ko hamarkadako liburuetan, 2013an argitaratutako liburuetan eta liburu saridunetan pertsonaiek duten sexuak nolako presentzia duen ezagutz gero, lehenengo hipotesia betetzen den edo ez jakingo dugu, alegia, 1980ko hamarkadako eta gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan *mutil/gizonen* eta *neska/emakumeen* presentzia ezberdina da: liburua zenbat eta berriagoa izan eta prestigiotsuagoa (saridunak) izan *neska/emakumearen* presentzia handiagoa izango da eta gainera, mutilen eta nesken presentzia orekatuagoa izango da. Hau frogatu ahal izateko protagonista nagusiaren sexutik eta liburuan agertzen diren bestelako pertsonaien sexutik abiatu gara.

Hurrengo taulan (ikus. 7. taula) corpuseko hiru multzoetan (1980ko hamarkadako 55 liburuetan, 2013.urtean argitaratutako 55 liburuetan eta 19 liburu saridunetan) protagonista nagusia *neska/emakumea* edo *mutila/gizona* den ikus ditzakegu. Aipatu beharra dago, hipotesiari erantzuteko asmoz garrantziarik ez duelakoan, taulan ez direla agertuko animaliak protagonista dituzten liburuak ezta lagun taldeak dituztenak. Hala ere, ehunekoak ateratzeko orduan liburu hauek kontuan hartu dira (ikus. 2.taula).

2 Taula

Protagonista Nagusiaren Sexua

	Liburua			Guztira Maiztasuna (%)
	1980ko hamarkadako Maiztasuna (%)	2013. urtean argitaratutakoa Maiztasuna (%)	Liburu sariduna Maiztasuna (%)	
Protagonista_ nagusia	Emakumea/neska 11 (% 15.7)	18 (% 32.7)	11 (% 57.9)	40 (% 27.8)
	Gizona/mutila 41 (% 58.6)	19 (% 34.5)	7 (% 36.8)	67 (% 46.5)
Guztira	70 (% 100.0)	55 (% 100.0)	19 (% 100.0)	% 100.0

Goiko taulak adierazten duen moduan, lehenengo hipotesi honi dagokionez, liburu gero eta berriagoa eta prestigiotsuagoa denean emakumearen presentzia handiagoa dela egiaztatu ahal izan da eta gainera, liburu berrietan eta prestigiotsuetan mutilen eta nesken presentzia orekatuagoa dago.

1980ko hamarkadako liburuetakoa protagonistak nagusia *mutil/gizonezkoa* (% 58.6) den bitartean, 2013ko corpuseko liburuetan eta liburu saridunetan presentzia hori murrizten da (% 34.5) eta (% 36.8), hurrenez hurren, hau horrela delarik *neska/emakumearen* presentzia igo egiten da eta kopuruak orekatu egiten dira.

Bestalde, 1980ko hamarkadako liburuetan *neska/emakume* protagonista nagusiaren kopurua nahiko baxua (% 15.7) den bitartean, 2013an gora egiten du eta liburuaren % 32.7an *neska/emakumea* protagonista nagusia da, mutil/gizonen oso parekoa izanik. Liburu saridunetan, aldiz, *neska/emakumezko* protagonista nagusia % 57.9koa da. Datu hauek kontuan harturik eta arestian aipatu bezala 1980ko hamarkadako egoera desorekatua irauli egin dela ikus dezakegu.

Gainera, 2013ko liburu berrietan neskak protagonista nagusiak dira liburuaren % 32.7an eta mutilak liburuaren % 34.5ean, egoera ia erabat parekidea delarik. Liburu saridunetan egoera ez dago hain orekatuta neskak liburuaren % 57.9an protagonista nagusiak direlako eta mutilak liburuaren % 36.8an.

Dena den, kuantitatiboki pertsonaia nagusian *mutil/gizonezkoa* eta *neska/emakumearen* kopurua parekidea izateak, edo *neska/emakume* gehiago agertze soilak ez du berdintasunik bermatzen eta ezta eredu berrien transmisioa ziurtatzen ere. Horrexegatik, beste arlo batzuetako emaitzak aztertu behar dira.

Pertsonaien sexuaren presentziarekin jarraituz, oraingoan, liburuetan agertzen diren bestelako pertsonaiak *neska/emakumeak* eta *mutil/gizonak* duten presentzia ikus ditzakegu (ikus. 3. taula). Kasu honetan, ehunekoak kalkulatzeko beste pertsonaiak agertzen dituzten liburuak kontuan hartu dira.

3 Taula

Beste Pertsonaien Sexua

	Liburua		
	1980ko hamarkadakoa	2013. urtean argitaratutakoa	Liburu sariduna
Neskak	% 1.4	% 8.5	% 15.8
Beste_pertsonaiak	% 10.0	% 12.8	% 0.0
Biak	% 88.6	% 78.7	% 78.9

Taula honetan ageri denez, beste pertsonaiei dagokienez, aztertutako hiru multzoetan *neska/emakumeen* eta *mutil/gizonen* presentzia orekatua dagoela esan daiteke; 1980ko hamarkadako liburuetan bi sexuen presentzia ziurtatuta dago liburuen % 88.6an, 2013ko liburuetan kopuru hori jaisten da % 78.7ra eta liburu saridunetan ia-ia antzekoa da (% 78.9). 1980ko hamarkadako corpusean eta 2013an argitaratutako liburuetan pertsonaia maskulinoak gailentzen dira eta liburu saridunetan pertsonaia femeninoak. Ilaratan dauden ehunekoetan arreta ipintzen badugu multzo bakoitzean *nesken/emakumeen* presentzia igo egiten dela ikus daiteke, beraz, orokorrean, nesken kopuruak gora igo duela eta mutilen kopuruak behera egin duela esan dezakegu.

Hala ere, kasu honetan ere presentziak ez du berdintasunik bermatzen eta ez ditu eredu berrien transmisiorik ziurtatzen.

Horrela, emaitzek gure lehenengo hipotesiak dioena baieztatzen digute, guk uste genuen bezala, eboluzioaren ondorioz liburua zenbat eta berriagoa izan eta prestigiotsuagoa izan nesken presentzia handiagoa izango da, eta mutilen eta nesken presentzia orekatuagoa izango da.

VII.2 Sexismoari dagozkion emaitzak

Lan honetako bigarren helburuari heltzeko, alegia, sexismoari dagozkion emaitzak zehazteko liburuak aztertzeke erabilitako fitxako hainbat azter-unitatetatik abiatuko gara. Azken batean, genero-estereotipoetan oinarritutako hainbat adierazle erabiliz, euskal haur eta gazte literatura modernoan 1980ko hamarkadatik gaur egunera sexismo gehiago edo gutxiago ematen den edo ez detektatu ahal izango dugu. Gure bigarren hipotesiak esaten duenez, 1980ko hamarkadan gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan baino sexismo gehiago ematen da.

Hipotesi nagusi honi erantzuna topatzeko beste sei azpi-hipotesiz baliatuko gara. Lehenengoan, ezaugarri fisikoak zehaztuko dira: neska eta mutil indartsuaren presentzia, neska eta mutil ahularen presentzia, neska eta mutil ederraren presentzia eta neska eta mutil itsusiaren presentzia. Izan ere, espero daitekeena da gaur egungo literaturan ezaugarri fisikoei esleitzen zaizkien ezaugarri sexisten presentzia txikiagoa izatea 1980ko hamarkadan baino, hau da, ez dira neska ederrera eta mutil indartsura mugatuko.

Bigarren azpi-hipotesian pertsonaien ezaugarri psikologikoetan (aktibotasuna, pasibotasuna, menderatasuna, lehiakortasuna, sentikortasuna, ausardia, zitaltasuna, lotsa, ahulezia, sorkuntza, ameslaria, heoria eta jakinduria) oinarritu gara. Izan ere espero daitekeena da gaur egungo haur eta gazte literaturan pertsonaien ezaugarri psikologikoetan ezaugarri sexisten presentzia txikiagoa izatea 1980ko hamarkadan baino.

Gure hirugarren azpi-hipotesia baieztatzen den edo ez ikusteko etxeko lanen banaketa eta zaintza familiarrak aztertuko dira. Espero daitekeena da etxeko lanen ardurak (zaintzak eta etxeko lanak) gaur egungo literaturan 1980ko hamarkadakoan baino banatuagoak agertzea, hots, ez direla soilik emakumeen esku egongo.

Gero, boterearen banaketa aztertuko da, izan ere, gure laugarren azpi-hipotesiak esaten du 1980ko hamarkadako corpusean emakume boteretsuen presentzia oso urria den heinean, gaur egungo literaturan ugariagoa eta parekideagoa izango da.

Horren ostean, espazioen banaketa (espazioa publikoa eta pribatuaren banaketa) aztertuko da gure bosgarren azpi-hipotesiari erantzuna emateko; 1980ko hamarkadako corpusean emakumea espazio pribatuan (etxe barruan) kokatzen den heinean, gaur egungo literaturan, ordea, espazio biak beteko ditu.

Azkenik, seigarren azpi-hipotesiari erantzuna bilatzeko kolore urdinak eta kolore arrosak mutiletan eta nesketan duten presentziari erreparatu zaio. Espero daitekeena da 1980ko hamarkadako corpusean koloreen (urdinaren eta arrosaren) erabilera sexista nabarmenagoa izatea gaur egungo literaturan baino.

Aldagai guzti hauek erreparatu ditugu liburuan zehar idazleak egiten dituen deskribapenetan, pertsonaiei gertatzen zaizkien ekintzetan eta marrazkietan ikusten den guztian.

Horrenbestez, uste dugu eboluzioak eta hezkidetzan berdintasunaren aldeko lanak isla izango duela euskal haur eta gazte literatura modernoan. Espero daitekeena da 2013ko liburuetan eta liburu saridunetan 1980ko hamarkadako liburuetan baino genero-estereotipo gutxiago antzematea eta bi sexuen arteko parekidetasun handiagoa egotea, eta honen ondorioz, sexismoa txikiagoa izatea.

Hurrengo taulan (ikus. 4.taula) aztertutako hiru multzoetan ezarritako ezaugarri fisikoen maiztasuna eta ehunekoak erakusten dira. Izan ere, pertsonaien deskribapenetan zer-nolako irudikapena egiten den aztertzean, hau da, zer-nolako adjektiboak erabiltzen diren aztertzean, pertsonaien gorputzen irudikapen estereotipatua egiten den edo ez ikusi ahal izango dugu. Ehunekoek adierazten digute aztertutako multzo bakoitzean egon diren liburu kopuru desberdinak kontutan hartuta, zenbatekoan agertzen diren ezaugarri horiek.

Modu honetan, gure 2.1 azpi-hipotesia baieztatzen den edo ez ikusiko dugu, alegia, gaur egungo haur eta gazte literaturan ezaugarri fisikoei esleitzen zaizkien ezaugarri sexisten presentzia txikiagoa izango da 1980ko hamarkadan baino, hots, ez direla nesken edertasunera eta mutilen indarrera mugatuko.

4 Taula

Ezaugarri Fisikoak

	Liburua		
	1980ko hamarkadakoa	2013. urtean argitaratutakoa	Liburu sariduna
	Maiztasuna (%)	Maiztasuna (%)	Maiztasuna (%)
Neska_indartsua	0 (% 0)	4 (% 7)	0 (% 0)
Mutil_indartsua	21 (% 30)	11 (% 21)	4 (% 21)
Neska_ahula	2 (% 2)	3 (% 5)	1 (% 5)
Mutil_ahula	0 (% 0)	0 (% 0)	0 (% 0)
Neska_ederra	22 (% 31)	20 (% 38)	5 (% 26)
Mutil_ederra	3 (% 4)	9 (% 17)	0 (% 0)
Neska_itsusia	9 (% 12)	4 (% 7)	0 (% 0)
Mutil_itsusia	3 (% 4)	0 (% 0)	1 (% 5)

Aurreko taulan jasotzen diren datuen artean honakoak nabarmendu daitezke: 1980ko hamarkadako liburuetan ez dela *neska indartsurik* topatzen, ezta *mutil ahulik* ere. 2013ko liburuetan *neska indartsua* 4 agertzen den arren, liburu saridunetan 1980ko hamarkadako joera mantentzen da, ez da *neska indartsurik* agertzen.

1980ko hamarkadan nagusi dira *mutil indartsua* (21 aldiz) eta *neska ederra* (22 aldiz). Gaur egun ere bi estereotipo hauek nagusitzen jarraitzen dute, gehien errepikatzen direnak dira, alegia; 2013. urtean *mutil indartsua* 11 aldiz topa daiteke eta *neska ederra* 20 aldiz. Joera hau liburu saridunetan ere errepikatzen dela ikusten da: *mutil indartsua* lautan ageri da eta *neska ederra* bost aldiz. Beraz, kasu honetan egileek genero-estereotipo hauek oraindik sustatzen dituztela esan genezake.

Bestalde, gutxien agertzen diren ezaugarriei dagokionez, honako hau esan dezakegu: 1980ko hamarkadan ez da *neska indartsurik* ageri, ezta *mutil ahulik* ere. 2013. urtean *mutil itsusirik* eta *mutil ahulik* ez da ikusi. Liburu saridunetan, aldiz, ez dira ageri *neska indartsuak*, *mutil ahulak*, *mutil ederrak*, ezta *neska itsusirik* ere. Modu horretan, adjektibo batzuen garrantzia eta bide batez,

presentzia galera antzeman daiteke. Nabarmentzekoa da aztertutako hiru multzoetan ez dela *mutil ahulik* antzeman.

Horregatik, esan genezake neska ederraren eta mutil indartsuaren estereotipoak 1980ko hamarkadan eta gaur egun nagusi direla euskal letretan. Indarra mutilekin eta edertasuna neskekin lotuz ez da sexismoarekin amaitzen.

Hurrengo tauletan adjektibo fisiko desberdinen datu zehatzagoak agertuko dira. Hasteko, *Neska* eta *mutil indartsuaren* presentziari dagozkion datuak hurrengo taulan ikus daitezke:


5 Taula

Mutil eta Neska Indartsua

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadako	Ez da agertzen	49	% 70.0	70	% 100.0
	Agertzen da	21	% 30.0	0	% 0.0
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	40	% 72.7	48	% 87.3
	Agertzen da	11	% 20.0	4	% 7.3
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.6
Liburu sariduna	Ez da agertzen	15	% 78.9	19	%100
	Agertzen da	4	% 21.1	0	% 0.0
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Indarrari dagokionez, aztertutako liburu guztietatik *neska indartsua*, soilik, 2013ko lau liburutan topa daiteke, *mutil indartsua*, berriz, hiru multzoetan ageri da, guztira 36 liburuetan. Indarraren kasuan, nesken eta mutilen arteko diferentzia argiak eta adierazgarriak ikus daitezke. Era berean, aipatzekoa da *mutil indartsuaren* presentzia ez dela oso handia eta gainera murrizten doala: 1980ko hamarkadak liburuen % 30ean agertzen da, 2013an liburuen % 20an eta liburu saridunen % 21.1ean. Orokorrean indarraren presentzia murrizten doan arren, badirudi liburuetan agertzen den *indarra* mutilen ezaugarria dela.

2. irudian *indarra* hiru multzoetan duen presentzia eta eboluzioa era argigarrian ikus daiteke.



2 Irudia. Hiru Multzotan Indarrak duen Presentzia

Datu hauetan oinarriturik, badirudi haurrei eta gazteei zuzendutako euskal letretan agertzen den *indarra* mutilen ezaugarria dela. Gainera, 2013. urteko joera baikorra liburu saridunetan eten egin da. Modu horretan, euskal haur eta gazte literatura modernoak genero-estereotipo hau oraindik indarrean mantentzen duela esan genezake.

Hurrengo taulan (ikus. 6.taula), ordea, indartsuaren aurkakoa den ahuleziaren datuak ikus ditzakegu *nesketan* eta *mutiletan*:

6 Taula

Mutil eta Neska Ahula

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehuneakoak	Maiztasuna	Ehuneakoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	70	% 100.0	68	% 97.1
	Agertzen da	0	% 0.0	2	% 2.9
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	51	% 100.0	49	% 89.1
	Agertzen da	0	% 0.0	3	% 5.5
	Guztira	51	% 100.0	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	19	% 100.0	18	% 94.7
	Agertzen da	0	% 0.0	1	% 5.3
	Guztira	19	% 100.0	19	100.0

Taula honetan ikus daiteke ahuldadea oso gutxitan agertzen dela euskal haur eta gazte literatura modernoan, baina sexuei erreparatuz gero, desberdintasun garrantzitsu bat ageri da; hiru multzoetan *mutil ahulik* ageri ez den bitartean, *neska ahula* hiru multzoetan topatu daiteke. 1980ko hamarkadan liburuen % 2.9an, 2013an liburuen % 5.5ean eta liburu saridunetan % 5.3an. Beraz, gaur egun presentzia handiagoa du *neska ahulak* 1980ko hamarkadan baino. Hortaz, nahiz eta *ahuldadeak* oso presentzia baxua duen, badirudi soilik nesken ezaugarria dela.

Honako taula honek multzo bakoitzean *neska* eta *mutil ederrari* dagokion presentzia (maiztasuna eta ehuneakoak) dakar.

7 Taula

Mutil eta Neska Ederra


Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehuneakoak	Maiztasuna	Ehuneakoak
1980ko hamarkadako	Ez da agertzen	67	% 95.7	48	% 68.6
	Agertzen da	3	% 4.3	22	% 31.4
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	42	% 76.4	32	% 58.2
	Agertzen da	9	% 16.4	20	% 36.4
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	19	% 100.0	14	% 73.7
	Agertzen da	0	% 0.0	5	% 26.3
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Edertasunari dagokionez, *neska ederraren* presentzia *mutil ederraren* presentzia baino handiagoa da aztertutako hiru multzoetan. 1980ko hamarkadako liburuen % 31.4an *neska ederra* ageri da, 2013.urtean ehuneko kopuru hori % 36.4ra igotzen da eta liburu saridunetan, *neska ederren* kopururik baxuena ikus dezakegu: liburuen % 26.3ean.

Bestalde, *mutil ederren* presentzia orohar nahiko baxua dela esan daiteke: 1980ko hamarkadako 70 liburuetatik hirutan ageri da (% 4.3), 2013.urtean 51 liburuetatik bederatzitan (% 16.4) eta liburu saridunetan *mutil ederrik* ez da ageri.

Horrenbestez, azterketa kuantitatibo honetan frogatzen argia lortu dugu sexismoan edertasunaren presentziak duen eraginaz, eta hurrengo grafikoak datu hori berretsi du (ikus. 3. irudia).

Izan ere, adierazgarria da edertasunak 1980ko hamarkadan duen desoreka handia liburu saridunetan errepikatzen dela 2013. urteko joera baikorra apurtuz.



3 Irudia. Hiru Multzotan Edertasunak duen Presentzia

Aurreko grafikoan ikus daitekeen moduan erraz antzeman daiteke datuetan edertasunak presentzia eta garrantzia handiagoa duela nesketan mutiletan baino. Horrexegatik eta indarrarekin gertatu den bezala, euskal haur eta gazte literatura modernoak edertasunaren genero-estereotipoa bultzatzen jarraitzen du.



Zebra efektua (2013)

Adjektibo fisikoekin bukatzeko, jarraian *neska* eta *mutil itsusiei* buruzko datuak ikus daitezke (ikus. 8.taula):

8 Taula

Mutil eta Neska Itsusia

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	67	% 95.7	61	% 87.1
	Agertzen da	3	% 4.3	9	% 12.9
	Total	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	51	% 92.7	48	% 87.3
	Agertzen da	0	% 0.0	4	% 7.3
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	18	% 94.7	19	% 100.0
	Agertzen da	1	% 5.3	0	% 0.0
	Total	19	% 100.0	19	% 100.0

Taula honetan ikus dezakegunez, *neska itsusien* presentzia (guztira 13 liburuetan) mutil *itsusien* presentzia (guztira 4 liburuetan) baino handiagoa da. 1980ko hamarkadako liburuen % 12.9etan *neska itsusia* ageria da, gaur egun presentzia hori murriztu egin da: 2013ko liburuen % 7.3an ageri da neska itsusia eta liburu saridunetan ez da *neska itsusirik* agertzen eta *mutil itsusi* bakarra.

Taulan ikusten den bezala, *mutil itsusien* presentzia txikiagoa da: 1980ko hamarkadako liburuen % 4.3an (lau liburutan), 2013.urtean, aldiz, ez da *mutil itsusirik* agertzen eta liburu saridunen % 5.3an agertzen da, hau da, kasu bakarra.

Honenbestez, esan dezakegu bi sexuetan *itsusi* adjektiboaren presentzia oso urria dela eta gainera, nesken kasuan gero eta garrantzia eta presentzia txikiagoa duela. Dena den, liburu saridunetan izan ezik, neska itsusi gehiago ageri dira euskal haur eta literatura modernoan mutil itsusiak baino.

Datuek erakusten dutenez, euskal haur eta gazte literatura modernoak oraindik ere zenbait genero-estereotipo indarrean mantentzen ditu; edertasuna neskekin eta indarra mutilekin lotuz. Hortaz, 2.1 azpi-hipotesia datu hauekin ezin dugula baieztatu esan dezakegu.

Behin ezaugarri fisikoak aztertu ditugula, 2.2 azpi-hipotesiari erantzuna bilatzeko asmoz, pertsonaien izaera identifikatzen dituzten zenbait ezaugarri psikologikoen (aktibotasuna, pasibotasuna, menderatasuna, lehiakortasuna, sentikortasuna, ausardia, zitaltasuna, lotsa, ahulezia, sorkuntza, ameslaria, heroia eta jakinduria) datuei erreparatuko zaie. Kasu honetan ere, gaur egungo haur eta gazte literaturako pertsonaien ezaugarri psikologikoei dagokienez, ezaugarri sexisten presentzia 1980ko hamarkadarekin alderatuz, txikiagoa izango da (ikus. 9.taula).

9 Taula

Ezaugarri Psikologikoak (izaera)

	Liburua					
	1980ko hamarkadakoa		2013. urtean argitaratutakoa		Liburu sariduna	
	N	Maizt	N	Maizta	N	Maizta
	Balio	asuna	Balio	asuna	Balio	asuna
Neska_aktiboa	70	23	52	20	19	12
Mutil_aktiboa	70	56	51	32	19	9
Neska_pasiboa	70	33	52	25	19	4
Mutil_pasiboa	70	8	51	6	19	1
Neska_menderatzailea	70	1	52	0	19	2
Mutil_menderatzailea	70	11	51	4	19	0
Neska_mantsoa	70	19	52	5	19	4
Mutil_mantsoa	70	7	50	1	19	3
Neska_lehiakorra	70	0	52	0	19	0
Mutil_lehiakorra	70	5	51	0	19	0
Neska_sentikorra	70	17	52	4	19	2
Mutil_sentikorra	70	10	51	0	19	0
Neska_ausarta	70	10	52	10	19	4
Mutil_ausarta	70	28	51	15	19	3
Neska_zitala	70	5	52	9	19	2
Mutil_zitala	70	17	51	11	19	4
Neska_lotsatia	70	0	52	3	19	1
Mutil_lotsatia	70	1	51	2	19	1
Neska_izakera_ahula	70	9	52	10	19	0
Mutila_izakera_ahula	70	3	51	0	19	0
Neska_sortzailea	70	12	52	9	19	3
Mutil_sortzailea	70	43	51	13	19	3
Neska_ameslaria	70	6	52	25	19	6
Mutil_ameslaria	70	9	51	10	19	1
Neska_heroia	70	5	52	1	19	3
Neska_heroia	70	23	51	3	19	3
Neska_jakintsua	70	2	52	5	19	1
Mutil_jakintsua	70	38	51	14	19	5

Taula honetan aztertutako hiru multzoetan zenbait ezaugarri psikologikoren presentzia ikus daiteke. Hauek dira 1980ko hamarkadako liburuetan gehien agertzen diren mutilen hiru ezaugarriak: *mutil aktiboak* (aztertutako 70 liburuetatik 56 liburuetan ageri dira), *mutil sortzaileak* (43 liburutan) eta *mutil jakintsua* (38 aldiz). Ordea, aipatutako hiru ezaugarri hauek nesketan askoz presentzia txikiagoa dute: *neska aktiboa* (23 liburutan), *neska sortzailea* (12 liburutan) eta *neska jakintsua*, soilik, birritan ageri da.

Bestalde, hauek dira 1980ko hamarkadako liburuetan presentzia gehien duten nesken hiru ezaugarriak: *neska pasiboa* (33 liburutan), *neska aktiboa* (23 aldiz) eta *neska mantsoa* (19). Hiru ezaugarri hauek mutiletan ere presentzia desberdina dute, esate baterako, *mutil pasiboa* (8 aldiz ageri da), *mutil aktiboa* 56 eta *mutil mantsoa* 7 liburutan topa ditzakegu.

2013an gehien errepikatzen diren ezaugarri batzuk aldatu egiten dira mutilen eta nesken kasuan; mutiletan presentzia handiena duena *mutil aktiboa* da (32), ondoren, *mutil ausarta* (15) eta *mutil jakintsua* (14). Ezaugarri hauek nesketan aztertuz gero, honako hau ikus dezakegu: *neska aktiboa* (20), *neska ausarta* (10) eta *neska jakintsua* (5). Azpigamagarria da 1980ko hamarkadarekin alderaturik *neskak sortzaileak* izateari utzi egin diotela eta orain *neskak ausartagoak* dira.

Halaber, hauek lirateke 2013an nesketan gehien errepikatzen diren ezaugarri psikologikoak: *neska pasiboa* (25), *neska ameslaria* (25) eta *neska aktiboa* (20). Ezaugarri hauek mutiletan honako presentzia dutelarik: *mutil pasiboa* (6), *mutil ameslaria* (10) eta *mutil aktiboa* (32).

Azkenik, hauek dira liburu saridunetan gehien errepikatzen diren ezaugarri psikologikoak: *mutil aktiboa* (9), *mutil jakintsua* (5) eta *mutil zitala* (4). Ezaugarri hauek nesketan honako maiztasuna ageri dute: *neska aktiboa* (12), *neska jakintsua* (1), *neska zitala* (2). Aurreko bi multzoetan ez bezala, liburu saridunetan *neska aktibo* gehiago topatzen dira *mutil aktiboak* baino.

Bestalde, nesken kasuan honako hau topa dezakegu: *neska aktiboa* (12), *neska ausarta* (4), *neska pasiboa* (4) eta *neska mantsoa* (4). Mutiletan ezaugarri hauek gutxiago ageri dira: *mutil aktiboa* (9), *mutil ausarta* (3), *mutil pasiboa* (1) eta *mutil mantsoa* (3).

Taulan ikus daitekeenez, ezaugarri psikologikoei dagokionez 1980ko hamarkadako corpusean neska eta mutilen artean ezberdintasun handiak antzeman daitezke parekidetasunetik urrun daudelarik (desoreka) eta liburu saridunetan, ordea, ezaugarriak parekideagoak dira.

Hurrengo tauletan ezaugarri psikologiko bakoitza banan-banan modu zehatzagoan aztertua izango da. Lehenengo taula honetan (ikus. 10.taula) aztertutako hiru multzoetan *neska* eta *mutilen aktibotasuna* aztertuko da.

10 Taula


Mutil eta Neska Aktiboa

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	14	% 20.0	47	% 67.1
	Agertzen da	56	% 80.0	23	% 32.9
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	19	% 34.5	32	% 58.2
	Agertzen da	32	% 58.2	20	% 36.4
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	10	% 52.6	7	% 36.8
	Agertzen da	9	% 47.4	12	% 63.2
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Aktibotasunari dagokionez, nesken kasuan eboluzioa antzematen dugu; gero eta *neska aktibo* gehiago ageri baitira euskal haur eta gazte literatura modernoan; 1980ko hamarkadako liburuetan *neska aktiboaren* presentzia % 32.9koa bada, 2013an % 36.4koa da eta liburu saridunetan, aldiz, *neska aktiboaren* presentzia asko igotzen da, liburuaren % 63.2an agertzen delarik.

Mutilen kasuan, aldiz, alderantzizko prozesua antzematen da; izan ere, 1980ko hamarkadako liburuaren % 80an agertzen da *mutil aktiboa*, 2013an presentzia hori txikitzen da liburuaren % 58.2ra eta liburu saridunen erdian ere ez da ageri *mutil aktiboa* (% 47.4).

Ondorengo irudian ezaugarri honetan parekidetasunerantz dagoen joera baikor hau era argiago batean ikus daiteke.



4 Irudia. Aktibotasunak duen Presentzia

1980ko hamarkadako desoreka 2013an asko murrizten da eta gainera, liburu saridunetan neska aktibo gehiago identifikatu dira. Beraz, 2013ko datuek, baina bereziki liburu saridunetako datuek, adierazten digute urte hauetan ezaugarri honek berdintasunerantz eboluzionatu egin duela sexismoa gutxituz.

Hurrengo taulan (ikus. 11.taula) *pasibotasunak* zer-nolako presentzia duen ikusiko da.

11 Taula


Mutil eta Neska Pasiboa

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadako	Ez da agertzen	62	% 88.6	37	% 52.9
	Agertzen da	8	% 11.4	33	% 47.1
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	45	% 81.8	27	% 49.1
	Agertzen da	6	% 10.9	25	% 45.5
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	18	% 94.7	15	% 78.9
	Agertzen da	1	% 5.3	4	% 21.1
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Neska pasiboari dagokionez, bere presentzia liburu saridunetan asko txikitu dela esan daiteke; 1980ko hamarkadan neska pasiboa liburuen % 47.1ean ageri bada eta 2013an liburuen % 45.5ean, liburu saridunetan % 21.1ra murriztu da.

Mutil pasiboaren presentzia hiru multzoetan aldiz oso txikia da; 1980ko hamarkadako liburuen % 11.4an, 2013.urteko liburuen % 10.9an eta liburu saridunen % 5.3an.

5. irudian liburu saridunetan neska pasiboaren presentziak duen beherakada era argigarriago batean ikus daiteke.



5 Irudia. Pasibotasunak duen Presentzia

Goiko irudiak erakusten digu 1980ko hamarkadan eta 2013an argitaratutako liburuetan pasibotasuna neskei atxikitutako ezaugarria dela, baina arestian aipatu bezala, liburu saridunetan egoera askoz parekideagoa da.

Beraz, pasibotasuna bai nesketan zein mutiletan jaitsi egin dela ikus daiteke, hala ere, hiru multzoetan *mutil pasiboen* presentzia txikiagoa da *neska pasiboaren* presentzia baino. Irudian ikus daitekeen joera on honek oraindik ere ez du berdintasunezko egoera bat erakusten.

Ondorengo taulan (ikus. 12.taula) *neska menderatzailearen* eta *mutil menderatzailearen* presentzia ikus dezakegu.

12 Taula

Mutil eta Neska Menderatzailea

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehuneakoak	Maiztasuna	Ehuneakoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	59	% 84.3	69	% 98.6
	Agertzen da	11	% 15.7	1	% 1.4
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	47	% 85.5	52	% 94.5
	Agertzen da	4	% 7.3	0	% 0
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	19	% 100.0	17	% 89.5
	Agertzen da	0	% 0.0	2	% 10.5
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Datuak aztertuz gero esan dezakegu *neska menderatzailea* oso gutxitan agertzen dela euskal haur eta gazte literatura modernoan; 3 liburuetan besterik ez. Azpimarragarria da hiru horietatik bi liburu saridunetan aurkitzen dela, hau da, liburu saridunen % 10.5ean. 2013an ez da neska menderatzailearik topatu eta 1980ko hamarkadako liburuetan behin bakarrik.

Mutil menderatzailearen presentzia nabarmen handiagoa da; aztertutako hiru multzoetan 15etan identifikatua izan baita. 1980ko hamarkadako liburuen % 15.7ean agertzen bada, 2013an ehuneko hori erdira murrizten da (% 7.3) eta liburu saridunetan, ordea, desagertzen da. Ondorioz, *neska menderatzaileak* pisua hartu duen bitartean (nahiz eta kasu bitan bakarrik izan) *mutil menderatzailearen* figurak presentzia galdu du.

Hurrengo taulan *neska mantsoa* eta *mutil mantsoaren* datuak ikus ditzakegu (ikus. 13.taula).

13 Taula

Mutil eta Neska Mantsoa

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	63	% 90.0	51	% 72.9
	Agertzen da	7	% 10.0	19	% 27.1
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	49	% 85.5	47	% 85.5
	Agertzen da	1	% 9.1	5	% 9.1
	Guztira	50	% 94.5	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	16	% 84.2	15	% 78.9
	Agertzen da	3	% 15.8	4	% 21.1
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Aztertuak izan diren hiru multzoetan *neska mantsoaren* presentzia handiago da *mutil mantsoarena* baino. 1980ko hamarkadako liburuetan *neska mantsoa* % 27.1ean agertzen da eta *mutil mantsoa* % 10.0an. 2013an bi kopuru horiek gutxitzen dira: *neska mantsoa* 2013an argitaratutako liburuen % 9.1ean eta *mutil mantsoa* liburuen % 1.8an. Liburu saridunetan, aldiz, kopuru horiek gora egiten dute: *neska mantsoaren* kasuan liburuen % 21.1ean, baina 1980ko hamarkadakoekin alderatuta baxuagoa da eta *mutil mantsoa* liburuen % 15.8an identifikatua izan da. Orduan, esan dezakegu liburu saridunetan mantsotasunaren presentzia orekatuago ikus dezakegun arren, *neska mantso* gehiago ageri dira, hala ere, aldea ez da bat ere ez esanguratsua.

Hurrengo taulan *lehiakortasunari* dagozkion datuak ikus ditzakegu (ikus. 14.taula).

14 Taula

Mutil eta Neska Lehiakorra

Liburua		Maiztasuna	Ehuneakoak	Maiztasuna	Ehuneakoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	65	% 92.9	70	% 100.0
	Agertzen da	5	% 7.1	0	% 0.0
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	51	% 92.7	52	% 94.5
	Agertzen da	0	% 0.0	0	% 0.0
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	19	% 100.0	19	% 100.0
	Agertzen da	0	% 0.0	0	% 0.0
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Lehiakortasunari dagokionez, aipatu beharra dago *neska lehiakorrik* ez dela identifikatua izan aztertutako hiru multzoetan eta *mutil lehiakorra* 1980ko hamarkadako bost liburuetan (% 7.1).

Hortaz, gaur egun euskal haur eta gazte literatura modernoak lehiakortasuna egoera parekidean aurkezten du. Horrexegatik datu hauetan ez da sexismorik ikusten. Hala ere, ez agertzeak zalantzak sor ditzake trataera eza agian ez delako parekidetasunaren ondorioa.

Hurrengo taula honetan neskei lotu izan zaion *sentikortasunari* dagozkion datuak ikus daitezke mutiletan eta nesketan (ikus. 15.taula).

15 Taula

Mutil eta Neska Sentikorra

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehuneakoak	Maiztasuna	Ehuneakoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	60	% 85.7	53	% 75.7
	Agertzen da	10	% 14.3	17	% 24.3
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	51	% 92.7	48	% 87.3
	Agertzen da	0	% 0.0	4	% 7.3
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	19	% 100.0	17	% 89.5
	Agertzen da	0	% 0.0	2	% 10.5
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Aztertu diren hiru multzoetan *neska sentikorraren* presentzia handiagoa da *mutil sentikorra* baino. Izan ere, *neska sentikorra* hiru multzoetan ageri den bitartean, *mutil sentikorra* soilik agertzen da 1980ko hamarkadako liburuetan. 1980ko hamarkadako liburuen % 24.3an *neska sentikorra* ageri da eta *mutil sentikorra* liburuen % 14.3an. 2013an kopuru horiek gutxitu egiten dira; *neska sentikorra* 2013an argitaratutako liburuen % 7.3an ageri da eta *mutil sentikorra* ez da ageri. Azkenik, liburu saridunetan *mutil sentikorrik* ez da antzeman eta *neska sentikorra* birritan, hau da, arakatu diren liburuen % 10.5ean. Kasu honetan ez da egoera parekiderik identifikatu, *neska sentikorraren* estereotipoa sustatuz ez baita sexismoa desagertzen.

Hurrengo taulan tradizionalki mutilei atxikitu izan zaion *ausardiari* dagozkion datuak ikus daitezke nesketan eta mutiletan (ikus. 16.taula).

16 Taula

Mutil eta Neska Ausarta

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehuneakoak	Maiztasuna	Ehuneakoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	42	% 60.0	60	% 85.7
	Agertzen da	28	% 40.0	10	% 14.3
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	36	% 65.5	42	% 76.4
	Agertzen da	15	% 27.3	10	% 18.2
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	16	% 84.2	15	% 78.9
	Agertzen da	3	% 15.8	4	% 21.1
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Aztertu diren hiru multzoak kontuan hartuz *mutil ausarten* kopurua (46) *neska ausarten* (24) kopurua baino handiagoa da. Hala ere, *neska ausarten* presentzia gero eta handiago den heinean, *mutil ausarten* presentzia gero eta txikiagoa da.

1980ko hamarkadako liburuen % 14.3an *neska ausarten* bat ageri da eta *mutil ausarten* bat, berriz, liburuen % 40an. 2013an, *neska ausarten* presentzia igotzen da liburuen % 18.2ra eta *mutil ausarten* presentzia % 27.3ra jaisten da, urte honetan oraindik ere *mutil ausarta* gehiago ageri dira. Liburu saridunetan, ordea, *neska ausarta* liburuen % 21.1ean agertzen da eta *mutil ausarta* liburuen % 15.8an. Kasu honetan, *neska ausarta* gehiago ageri dira *mutil ausartak* baino. Ondorioz, ausardiak parekidetasunerantz eboluzionatu egin duela eta sexismoa murriztu egiten dela esan dezakegu.

Ondorengo taulan (ikus. 17.taula) *neska zitalen* eta *mutil zitalen* datuak ikusgai ditugu.

17 Taula

Mutil eta Neska Zitala

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	53	% 75.7	65	% 92.9
	Agertzen da	17	% 24.3	5	% 7.1
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	40	% 72.7	43	% 78.2
	Agertzen da	11	% 20.0	9	% 16.4
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	15	% 78.9	17	% 89.5
	Agertzen da	4	% 21.1	2	% 10.5
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Aurreko taula hauetan ikus dezakegu *neska zitalaren* presentzia 1980ko hamarkadatik gaur egunera gero eta handiagoa dela, eta aldi berean *mutil zitalaren* presentzia euskal haur eta gazte literatura modernoan apur bat murriztu dela.

1980ko hamarkadako liburuen % 7.1ean *neska zitala* bat topatu daiteke eta *mutil zitala* liburuen laurdenean % 24.3an. 2013an *neska zitalaren* presentzia handiagoa da (% 16.4) eta *mutil zitalaren* presentzia 1980ko hamarkadan baino murriztagoa (% 20). Liburu saridunen % 10.5ean *neska zitala* agertzen da eta *mutil zitalaren* presentzia bikoitza da (% 21.1). Bi sexuei dagozkion aldeak 1980tik gaur egunera murriztu diren arren, zitalkeria gehiagotan ageri da mutiletan nesketan baino.

18. taulan *lotsari* dagokion maiztasunaren eta ehunekoaren informazioa bildu da.

18 Taula

Mutil eta Neska Lotsatia

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	69	% 98.6	70	% 100.0
	Agertzen da	1	% 1.4	0	% 0
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	49	% 89.1	49	% 89.1
	Agertzen da	2	% 3.6	3	% 5.5
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	18	% 94.7	18	% 94.7
	Agertzen da	1	% 5.3	1	% 5.3
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Bi sexuei dagokionez, pertsonaia lotsatien presentzia nahiko txikia da. 1980ko hamarkadan ez da *neska lotsatirik* antzeman eta mutil bakarra (% 1.4). 2013an, hiru *neska lotsati* identifikatu dira (% 5.5) eta bi *mutil lotsati* (% 3.6). Liburu saridunetan *neska* eta *mutil lotsati* kopuru berdina, bakarra alegia; liburuen % 5.3an. Hortaz, adjektibo honen erabilera nahiko urria eta parekidea dela esan daiteke.

Hurrengo taulan *izaera ahularen* presentziari erreparatuko zaio (ikus. 19.taula).

19 Taula

Mutil eta Neska Izaera Ahula

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadako	Ez da agertzen	67	% 95.7	61	% 87.1
	Agertzen da	3	% 4.3	9	% 12.9
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	51	% 92.7	42	% 76.4
	Agertzen da	0	% 0.0	10	% 18.2
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	19	% 100.0	19	% 100.0
	Agertzen da	0	% 0	0	% 0
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

1980ko hamarkadan argitaratutako liburuetan eta 2013an argitaratutakoetan *izaera ahula duen neskaren* presentzia *mutilarena* baino handiagoa da, hala ere, liburu saridunetan ez dira ageri *izaera ahula duen neskarik*, ezta *mutilik* ere.

1980ko hamarkadan *izaera ahula duen neskaren* presentzia % 12.9koa da eta *mutilarena* neskarenarekin alderatuta herena da, % 4.3a. 2013an, ordea, ez da *izaera ahula duen mutilik* identifikatu eta *izaera ahula duen neska* 10 liburuetan antzeman izan da, hau da, liburuen % 18.2an. 2013an 1980an baino *izaera ahula* duten neska gehiago identifikatu egin dira, dena den, egoera hau 1980ko hamarkadan neskek duten presentzia txikiari eta 2013an duten presentzia handiagoari atxikitu ahal zaio. Liburu saridunetan egoera guztiz parekidea da, ez baita identifikatu *izaera ahula* duen neskarik ezta mutilik ere. Hortaz, 1980ko hamarkadan eta 2013an *izaera ahula nesketan* nagusi den bitartean, liburu saridunetan berdintasuna ikus daiteke.

Hurrengo taulan (ikus. 20.taula) *neska sortzailearen* eta *mutil sortzailearen* presentzia ikus dezakegu.

20 Taula

Mutil eta Neska Sortzailea

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	28	% 40.0	58	% 82.9
	Agertzen da	41	% 58.6	12	% 17.1
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	38	% 69.1	43	% 78.2
	Agertzen da	13	% 23.6	9	% 16.4
	Guztira	51	% 92.7	51	% 94.6
Liburu sariduna	Ez da agertzen	16	% 84.2	16	% 84.2
	Agertzen da	3	% 15.8	3	% 15.8
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

1980ko hamarkadako liburuetan eta 2013an argitaratutakoetan *mutil sortzailearen* presentzia *neska sortzailearen* baino handiago da, liburu saridunetan, ordea, *neska eta mutil sortzaileen* kopurua berdina da.

Aztertutako hiru multzoetan *neska sortzailearen* kopurua antzekoa da; 1980ko hamarkadan liburuen % 17.1ean agertzen da, 2013an liburuen % 16.4an eta liburu saridunetan % 15.8, beraz, *neska sortzailearen* presentzia txikitzen joan den arren, oso parekoa dela esan daiteke; ez da eboluziorik antzematen.

Mutil sortzailearen presentzia, ordea, 1980ko hamarkadatik gaur egunera asko murriztu dela baieztatu daiteke; 1980ko hamarkadako liburuen erdian baino gehiagotan ageri da (% 58.6), 2013an liburuen % 23.6an eta liburu saridunetan % 15.8an.

Honenbestez, nahiz eta *neska sortzaileen* presentzia nahiko berdintsua den 1980ko hamarkadan eta gaur egun, pertsonaia sortzaileen presentziak

parekidetasunerantz eboluzionatu duela esan dezakegu bereziki mutiletan duen presentzia jaitsi egin delako, modu horretan ere sexismoa gutxitu egin da. Hurrengo taulan (ikus. 21. taula) *neska ameslariaren eta mutil ameslariaren* datuak ditugu ikusgai.

21 Taula

Mutil eta Neska Ameslaria

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	61	% 87.1	64	% 91.4
	Agertzen da	9	% 12.9	6	% 8.6
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	41	% 74.5	36	% 65.5
	Agertzen da	10	% 18.2	15	% 27.3
	Guztira	51	% 92.7	51	% 92.8
Liburu sariduna	Ez da agertzen	18	% 94.7	13	% 68.4
	Agertzen da	1	% 5.3	6	% 31.6
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Taulako datuek erakusten dutenez, *neska ameslariaren* presentzia gero eta handiagoa da: 1980ko hamarkadako liburuen % 8.6an agertzen da, 2013an liburuen % 27.3an eta liburu saridunen % 31.6an.

1980ko hamarkadan *mutil ameslari* gehiago daude *neska ameslariak* baino, liburuen % 12.9an. 2013an eta liburu saridunetan, aldiz, *mutil ameslariaren* presentzia txikiagoa da, liburuen % 18,2an eta % 5.3an, hurrenez hurren.

Ondorioz, ezaugarri honi dagokionez, sexismoa garatzen duen berdintasun eza nabarmendu dezakegu; datuek erakusten baitute gaur egun ameslari izatea nesken ezaugarria dela eta gainera, gero eta presentzia handiagoa du.

Hurrengo taulan *neska heroia* eta *mutil heroia* dagozkion datuak ikus ditzakegu (ikus. 22.taula).

22 Taula

Mutil eta Neska Heroia

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoak	Ez da agertzen	47	% 67.1	65	% 92.9
	Agertzen da	23	% 32.9	5	% 7.1
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoak	Ez da agertzen	48	% 87.3	51	% 92.7
	Agertzen da	3	% 5.5	1	% 1.8
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	16	% 84.2	16	% 84.2
	Agertzen da	3	% 15.8	3	% 15.8
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

1980ko hamarkadan eta 2013.urtean *mutil heroien* kopurua *neska heroien* kopurua baino handiagoa da; 1980ko hamarkadan liburuen % 7.1ean ikus dezakegu *neska heroia* eta *mutil heroia* liburuen % 32.9an. 2013an ehuneko horiek murrizten diren arren, *mutil heroi* gehiago daude; *neska heroiak* liburuen % 1.8an eta *mutil heroia* liburuen % 5.5ean. Bestalde, liburu saridunetan ehuneko horiek gora egiten dute eta *neska heroien* eta *mutil heroien* presentzia parekatu egiten dira, hots, liburuen % 15.8an agertzen direlarik.

Horregatik mutil heroia izateak mutil ezaugarri gisa indarra galdu duela esan daiteke eta neska heroria izateak, ordea, ez. Azpimarragarria da liburu saridunetan neska heroien presentziak gora egin duela nabarmen mutil heroien kopuruaren presentzia berdinduz. Hortaz, ezaugarri honi dagokion egoera parekidea dela baieztatu dezakegu, sexismoa gutxituz.

Hurrengo taulan (ikus. 23.taula) *neska jakintsuaren eta mutil jakintsuaren* presentziari dagozkion datuak ikus daitezke.

23 Taula

Mutil eta Neska Jakintsua

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehuneakoak	Maiztasuna	Ehuneakoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	33	% 47.1	68	% 97.1
	Agertzen da	36	% 51.4	2	% 2.9
	Guztira	69	% 98.5	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	37	% 67.3	47	% 85.5
	Agertzen da	14	% 25.5	5	% 9.1
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	14	% 73.7	18	% 94.7
	Agertzen da	5	% 26.3	1	% 5.3
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Aztertu diren hiru multzoetan *mutil jakintsuaren* presentzia *neska jakintsuarena* baino askoz handiagoa da. Horretaz gain, aipatu beharra dago, *mutil jakintsuaren* presentzia 1980ko hamarkadatik gaur egunera erdira jaitsi den bitartean *neska jakintsuaren* presentzia igo egin dela.

1980ko hamarkadan *neska jakintsua* liburuen % 2.9an soilik agertzen da eta ordea *mutil jakintsua* liburuen erdian baino gehiagotan (% 51.4). 2013an *neska jakintsuaren* kopurua hirukoiztu egiten da (% 9.1) eta *mutil jakintsuaren* presentzia erdira jaisten da (% 25.5). Liburu saridunetan, *neska jakintsuaren* presentzia liburuen % 5.3ra mugatzen da eta *mutil jakintsuarena* liburuen laurdenera gutxi gorabehera (% 26.3).

Orduan, datuek baieztatzen digute euskal haur eta gazte literatura modernoan jakintsua izatea mutiletan gutxitzen ari den arren, oraindik neskena baino mutilen ezaugarria da. Hala ere, 1980ko hamarkadatik gaur egunera neska jakintsuaren presentzia igotzen ari da.

Izaerari dagokion azter-unitatea aztertuz, ikus daiteke sexismoa gutxitu egin dela eta parekidetasunerantz eboluzionatu egin dela gure 2.2 azpi-hipotesia neurri batean baieztatuz. Dena den, oraindik zenbait ezaugarrik sexismoa agerian uzten dute, esate baterako, ameslaria izatea, jakintsua izatea edota sentikorra izatea.

Gure 2. hipotesi nagusiari erantzuten jarraitzeko eta bide batez, sexismoa detektatzen jarraitzeko asmoz, ohikoak diren beste azter-unitate batzuk aztertuko dira: etxeko lanen (ikus. 24. taula) eta zaintza familiarren banaketa (ikus. 26. taula). Hori dela eta, beste azpi-hipotesi bat formulatu dugu horren inguruan, 2.3 azpi-hipotesia hain zuzen ere, zeinak aurreikusten duen etxeko ardurak (etxeko lanak eta zaintzak) gaur egungo haur eta gazte literaturan 1980ko hamarkadan baino banatuagoak agertuko diren, hau da, ez direla soilik emakumeen esku egongo.

Hurrengo taulan sexismoa detektatzeko sarri aztertua izan den *etxerako lanen* aldagaia aurkeztuko da.

24 Taula

Etxeko lanak

Liburua		Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	18	% 25.7
	Neskak	40	% 57.1
	Mutilak	1	% 1.4
	Biak	11	% 15.7
	Guztira	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	30	% 54.5
	Neskak	14	% 25.5
	Mutilak	4	% 7.3
	Biak	6	% 10.9
	Guztira	54	% 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	4	% 21.1
	Neskak	11	% 57.9
	Mutilak	0	% 0
	Biak	4	% 21.1
	Guztira	19	% 100.0

Etxeko lanei dagokionez, 1980ko hamarkadako liburuen datuak eta liburu saridunen datuak nahiko antzekoak direla ikus dezakegu eta ordea, 2013an etxeko lanen presentziak badirudi garrantzia galtzen duela eta liburuen erdian baino gehiagotan ez direla ageri (% 54.5).

1980ko liburuen erdian baino gehiagotan *neska bakarrik* ageri da etxeko lanak egiten (% 57.1), liburu bakarrean ageri da *mutila bakarrik* etxerako lanak egiten eta *biak* liburuen % 15.7an. Beraz, liburu hauen % 72.8an *neskak* agertzen dira *etxeko lanak* egiten eta *mutilak* liburuen % 17.1ean.



Fernando Plaentziarra (1984)

2013an *neska* soilik *etxeko lanak* egiten dagozkion datua liburuen laurdenera jaisten da (% 25.5) eta *mutila* soilik *etxeko lanak* egiten igo egiten da %7.3ra. *Biak* 2013ko liburuen %10.9an ageri dira. Nabarmentzekoa da urte honetan etxeko lanen presentzia asko murriztu dela, lehen aipatu bezala, liburuen erdian baino gehiagotan ez dira etxeko lanak ageri. Liburu hauen % 36.4an *neskak* agertzen dira *etxeko lanak* egiten eta *mutilak* ehuneko horren erdian: % 18.2an. 1980ko hamarkadan dagoen alde handia asko murriztu den arren, oraindik nesken datua mutilen bikoitza da.

Ehunekoari erreparatuz, liburu saridunetan antzeman diren datuak 1980ko hamarkadako datuekin alderatuz nahiko antzekoak direla esan dezakegu. *Etxeko lanak* ez dira liburuen % 21.1an ageri, *neska* soilik etxeko lanak egiten liburuen erdian baino gehiagotan agertzen da (% 57.9), *mutila* bakarrik ez da ageri etxerako lanak egiten eta *biak* liburuen % 21.1ean. Hortaz, liburu hauen %79an *neskak* agertzen dira *etxeko lanak* egiten eta *mutilak* liburuen % 21.1ean. Badirudi zentzu honetan 1980ko hamarkadako joera berreskuratu egin dela eta etxerako lanak nagusiki neskei lotuta agertzen dira.

Hurrengo taula honen ehunekoak kalkulatzeko, bakarrik kontuan hartu dira etxeke lanak agerian dituzten obrak (ikus. 25.taula). Bai neskek, mutil zein biak agertzen diren liburuak alegia. 1980ko hamarkadako 52 liburu, 2013. urteko 24 liburu eta sarituak izan diren 15 liburu.


25 Taula

Etxeko Lanak Bakarrik agertzen dituzten Liburuak (%)

	Emakumeak	Gizonak
1980ko hamarkada	% 98	% 23
2013. urtea	% 83	% 42
Liburu sariduna	% 100	% 36.4

Goiko taulan ikus daitekeenez, etxeke lanen ardura nagusiki emakumeen ardura dira, hau da, oraindik eginkizuna honetan ez dago berdintasunik. Izan ere, etxeke lanak ageri diren liburu gehienetan emakumea ageri da ardura hori betetzen eta gizona ez da liburuen erdira ere ailegatzen. Daturik baikorrena 2013. urteko liburuetan ikus daiteke, non emakumeak liburuen % 83an ageri diren eta gizonak liburuen % 42an.

Hurrengo grafikoan (ikus. 6.irudia) datu hauen joera era argigarriago batean ikus dezakegu.



6 Irudia. Etxeko Lanen Bilakaera

Irudian ikus dezakegunez, 1980ko hamarkadako egoera liburu saridunetan errepikatzen da eta 2013. urteko joera ona ez da liburu saridunetam islatzen. Horrexegatik joera ona dela esan dezakegu, baina aldaketa oso oso poliki ematen ari dela eta horrexegatik ez da berdintasunik ikusten.

Hau guztia dela eta euskal haur eta gazte literatura modernoan *etxeko lanen* banaketan ez da eboluziorik antzeman eta egoera ez parekide honetan jokabide sexista begi-bistakoa da, dagokion azpi-hipotesia ezeztatuz.

Hurrengo taulan sexismoa detektatzeko baliagarria den *zaintza familiarren* aldagaia ikus dezakegu (ikus. 26.taula).

26 Taula

Zaintza familiarrak

Liburua	Maiztasuna	Ehunekoak	
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	13	% 18.6
	Neskak	41	% 58.6
	Mutilak	3	% 4.3
	Biak	13	% 18.6
	Guztira	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	10	% 18.2
	Neskak	22	% 40.0
	Mutilak	3	% 5.5
	Biak	19	% 34.5
	Guztira	54	% 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	2	% 10.5
	Neskak	9	% 47.4
	Mutilak	0	% 0
	Biak	8	% 42.1
	Guztira	19	% 100.0

Zaintza familiarrei dagokionez, 1980ko hamarkadako liburuen erdian baino gehiagotan *neska* soilik agertzen da zaintza familiarren arduradun gisa (% 58.6), *mutila* bakarrik, aldiz, oso gutxitan; liburuen % 4.3an eta *biak* liburuen % 18.6an. Beraz, neskak soilik eta biak (neskak eta mutilak) agertzen diren liburuak batzen baditugu ikusten dugu liburu hauen % 77.2an *neska* agertzen dela zaintza familiarren bat egiten eta *mutilen* bat, berriz, liburuen % 22.9an. Hamarkada honetan bi sexuen arteko aldea handia dela esan dezakegu.

2013.urtean *neska* soilik zaintza familiarraz arduratzen liburuen % 40an ikus daiteke, *mutila* bakarrik liburuen % 5.5ean eta *biak* zaintza familiarraz arduratzen liburuen herenean baino gehiagotan (% 34.5). Liburu hauen % 74.5ean *neskaren bat* topatu dugu zaintza familiarren bat egiten, bai neska soilik agertzen d diren liburuak kontuan hartzen baidutgu, zein biak agertzen diren liburuak. Baita ere kontuan hartzen badugu zaintza familiarrak egiten soilik agertzen diren mutilak edo biak agertzen diren liburuak *mutilen* datua hazi egin da liburuen % 40ra. Urte

honetan *zaintza familiarren* banaketak sexismoa gutxituz eboluzionatu eta parekatzen egin diren arren, oraindik ardura honen banaketa ez da parekidea,

Liburu saridunen % 42.1ean *biak* ageri dira *zaintza familiarren* bat egiten ardura honi dagokion banaketa oraindik parekideagoa eginez. Hala ere, *nesken* presentzia soila igo egiten da liburuen % 47.4ra, beraz, kontuan hartzen badugu *zaintza familiarrak* neskak soilik agertzen diren liburuak eta *biak* agertzen diren liburuak, esan genezake liburu saridunen liburu gehienetan, % 89.5ean *neskak* agertzen direla *zaintzak* egiten eta *mutilak* liburuen % 42.1ean; azpimarragarria baita *mutila* bakarrik *zaintzaz* arduratzen ez dela identifikatua izan. Liburu mota hauen % 89.5ean *neska* agertzen da *zaintza familiarren* bat egiten eta *mutila* liburuen % 42.1ean.

Hurrengo taula honen ehunekoak kalkulatzeko, bakarrik kontuan hartu dira *zaintza familiarrak* agerian dituzten obrak (ikus. 27.taula). Bai neskak, mutil zein *biak* agertzen diren liburuak alegia. 1980ko hamarkadako 57 liburu, 2013. urteko 44 liburu eta sarituak izan diren 17 liburu.


27 Taula

Zaintza Familiarrak Bakarrik agertzen dituzten Liburuak (%)

	Emakumeak	Gizonak
1980ko hamarkada	% 94.7	% 28
2013. urtea	% 93.2	% 50
Liburu sariduna	% 100	% 47

Datu hauetan ikus dezakegu *zaintza familiarrak* agertzen direnean gehienetan emakumeak agertzen direla, hala ere, gaur egungo haur eta gazte literaturako liburuen erdian ere gizonak eginkizun hauek betetzen agertzen dira; 2013ko liburuen % 50ean eta liburu saridunen % 47an.

Hurrengo grafikoan joera baikor hau argiago ikus dezakegu.



7 Irudia. Zaintza Familiarren Bilakaera

1980ko hamarkadan antzematen den ardura honen banaketa desorekatua desagertzen doan arren, oraindik ez da berdintasunik ikusten, alegia, zaintza familiarrak hein handi batean emakumeei atxikitzen zaion ezaugarria da. Hala ere, baikorratzat jo daiteke geo eta gizon gehiago agertzea ardura hau betetzen.

Horrexegatik esan dezakegu, *zaintza familiarren* banaketak eboluzionatu eta parekatuz doazela, baina oraindik arlo honetan, etxeko lanen banaketan bezala, berdintasunetik urrun gaudela ikus dezakegu. Ezaugarri honi dagokion sexismoa gutxitu da, baina ez da desagertu eta gainera, oso urriak dira mutilak bakarrik agertzen diren adibideak. Azken finean, gehiketa eman da mutilak “ere” agertzen direlako eta ez ardura honetan emakumeen presentzia gutxitu delako.

Hau guztia dela eta, bi aldagai hauetan agertu diren datuak aztertu eta gero esan dezakegu gure 2.3 azpi-hipotesia ez dela baieztatu; etxeko lanen eta zaintza familiarren banaketan izandako eboluzioa oso txikia izan da eta nahiz eta mutil gehiago agertzen diren ardurak hauek betetzen, nagusiki emakumeen esku agertzen jarraitzen dute. Hortaz, azpi-hipotesi honi dagokionez, jokabide sexista oraindik begi-bistakoa da.

Sexismoa detektatzen jarraitzeko, gure 2.4 azpi-hipotesian aurreikusten dugu gaur egungo haur eta gazte literaturan emakume boteretsuen presentzia ugariagoa eta parekideagoa izango dela. Lehenik eta behin, *lan ordainduen* (ikus. 28. taula) kopuruaren datuak ikusiko ditugu eta jarraian, kargu boteredunei buruzkoak aztertuko (ikus. 29. taula) ditugu.

28 Taula

Lan Ordainduak

Liburua	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoak	Ez da agertzen	2 % 2.9
	Neskak	2 % 2.9
	Mutilak	23 % 32.9
	Biak	43 % 61.4
	Guztira	70 % 100.0
2013. urtean argitaratutakoak	Ez da agertzen	18 % 32.7
	Neskak	4 % 7.3
	Mutilak	9 % 16.4
	Biak	23 % 41.8
	Guztira	54 % 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	3 % 15.8
	Neskak	1 % 5.3
	Mutilak	5 % 26.3
	Biak	10 % 52.6
	Guztira	19 % 100.0

Lan ordainduei dagokionez, 1980ko hamarkadako liburuetan lan ordainduen presentzia oso handia da. Sexuei dagokionez, *neskak* liburuen % 64.3an agertzen dira ordaindutako lanen bat egiten, *mutilak*, aldiz, liburu gehienetan, % 94.3an.

2013an *lan ordainduen* presentzia murriztu egiten da, izan ere, liburuen % 32.7an ez dira lan ordainduak agertzen. Sexuei erreparatuz, datuak parekideagoak direla esan daiteke; *neskak* 2013ko liburuen % 49.1an agertzen dira ordaindutako lanen bat egiten eta *mutilak* liburuen % 58.2an. Honek eboluzioa adierazten duen arren, lan moten azterketa egitea eskatzen du.

Liburu saridunetan, ehunekoei erreparatuz datuak hazi egin direla esan dezakegu, baina baita bi sexuen arteko aldea ere; *neskak* liburuen % 57.9an agertzen dira ordaindutako lanen bat burutzen eta *mutilak* liburuen % 78.9an.

Honen ondorioz, azter-unitate honetan ere, mutilen eta nesken arteko datuen diferentzia murriztu den arren, ez da parekidetasunik somatzen. Gainera, ordaindutako lanen kopuruen presentzia berdintsuagoa izateak ez du parekidetasuna bermatzen. Horretarako kargu botereduna aztertuko dira eta beste atal kualitatiboago batean sexu bakoitzari dagozkion lan motak zehaztuko dira.

Jarraian, kargu boteredunei buruzko datuak ikus ditzakegu (ikus. 29. taula).

29 Taula

Boteredunak

Liburua	Maiztasuna	Ehunekoak
	Ez da agertzen	29 % 41.4
1980ko hamarkadakoa	Neskak	0 % 0
	Mutilak	37 % 52.9
	Biak	4 % 5.7
	Guztira	70 % 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	38 % 69.1
	Neskak	2 % 3.6
	Mutilak	10 % 18.2
	Biak	4 % 7.3
Liburu sariduna	Guztira	54 % 98.2
	Ez da agertzen	16 % 84.2
	Neskak	1 % 5.3
	Mutilak	2 % 10.5
	Biak	0 % 0
	Guztira	19 % 100.0

1980ko hamarkadako liburuen % 52.9an *mutilak* bakarrik identifikatu izan dira *kargu boteredunetan*, *neskak* soilik ez dira ageri eta *biak* liburuen % 5.7an.

Hortaz, hamarkada honetako liburuen % 58.6an *mutilak* ageri dira kargu boteredunetan eta *neskak* liburuen % 5.7an, eta gainera, neska hauek mutilekin batera ageri dira. Hamarkada honetan bi sexuek kargu boteredunetan agertzen duten presentzia oso desorekatua dago, jokabide sexista handia agerian utziz.

2013an kargu boteredunei dagozkion ehunekoak parekatu egin dira; izan ere, *neska* bakarrik liburuen % 3.6an ageri da eta *mutila* soilik urte honetako liburuen % 18.2an, *biak* batera liburuen % 7.3an. Hortaz, urte honetako liburuen % 10.9an *neskaren bat* aurkituko dugu kargu boteredunetan eta *mutilen bat* liburuen % 25.5ean. Datuak parekatu diren arren eta sexismoa gutxitu den arren, oraindik arlo honetan ez da berdintasunik lortu eta sexismoa antzematen jarraitzen da.

Liburu saridunetan, kargu boteredunek garrantzia galtzen dute, izan ere, liburuen % 84.2an ez dira agertzen. *Nesken presentziari* dagokionez, 19 liburuetatik bakarrean identifikatua izan da, hau da, liburuen % 5.3an eta bi *mutil*, liburuen % 10.5a.

Hurrengo taula honen ehunekoak kalkulatzeko, bakarrik kontuan hartu dira boterea agertu duten liburuak (ikus. 30.taula). Bai, neskak, mutil zein biak agertzen diren liburuak alegia. 1980ko hamarkadako 41 liburu, 2013. urteko 16 liburu eta sarituak izan diren 3 liburu.

30 Taula


Boterea Bakarrik agertzen dituzten Liburuak (%)

	Emakumeak	Gizonak
1980ko hamarkada	% 9.7	% 100
2013. urtea	% 37.5	% 87.5
Liburu sariduna	% 33.3	% 66.6

Taula honetan ikus daitekeenez, boterea agertzen den 1980ko hamarkadako liburu guztietan gizon boteretsuen bat agertzen da (% 100) eta emakume boteretsua liburuen % 9.7an. 2013an gizon boteretsuen presentzia jeitsi egiten da boterea agertzen duen liburuen % 87.5era eta emakume boteretsuen presentzia igo egiten da liburuen % 37.5era. Liburu saridunetan datuak oraindik

ere baikorrakoak dira; gizon boteretsua liburuaren % 66.6an ageri da eta emakumea % 33.3an.

Hurrengo irudian joera baikor hau argiago ikus dezakegu.



8 Irudia. Boterearen Presentziaren Bilakaera

Aurreko grafikoan ikus daitekeen moduan joera ona da, eta ezaugarri honetan berditasunerantz hurbiltzen goaz; alde batetik, gizon boteretsuen presentzia gutxitu delako eta bestetik, emakume boteretsuen presentzia igo delako.

Beraz, gure 2.4 azpi-hipotesian esaten genuen bezala, 1980ko hamarkadako liburuetan emakume boteretsuen presentzia oso urria da. Hala ere, ezin dezakegu baieztatu gure azpi-hipotesia guztiz betetzen denik. Izan ere, kargu boteredunek gero eta garrantzia eta presentzia gutxiago duten arren, arlo honetan ere egoera oraindik ez da erabat parekidea mutiletan pisu handiago duelako, eta egoera honi dagokion sexismoa gutxitu bada ere, oraindik ez da desagertu.

Bigarren hipotesi nagusiari erantzuten jarraitzeko, liburuetan agertzen diren pertsonaiak zein espaziotan agertzen diren aztertzea izan da. Horretarako 2.5 azpi-hipotesia planteatzen dugu, non 1980ko hamarkadako corpusean

emakumea nagusiki espazio pribatuan kokatzen den eta gaur egungo haur eta gazte literaturan espazio biak betetzen dituen (espazio pribatua eta publikoa). Hona hemen espazio publikoari eta pribatuari dagokion taula.

31 Taula

Esfera Publikoa eta Esfera Pribatua

Liburua		Esfera publikoa		Esfera pribatua	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	0	% 0	9	% 12.9
	Neskak	0	% 0	7	% 10.0
	Mutilak	15	% 21.4	4	% 5.7
	Biak	55	% 78.6	50	% 71.4
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	6	% 10.9	12	% 21.8
	Neskak	3	% 5.5	3	% 5.5
	Mutilak	4	% 7.3	3	% 5.5
	Biak	41	% 74.5	36	% 65.5
	Guztira	54	% 98.2	54	% 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	0	% 0	2	% 10.5
	Neskak	3	% 15.8	8	% 42.1
	Mutilak	2	% 10.5	0	% 0
	Biak	14	% 73.7	9	% 47.4
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Esfera publikoari dagokionez, 1980ko hamarkadako corpusean *neskaren* presentzia liburuen % 78.6an agertzen da espazio publikoan eta *mutila* liburu guztietan (% 100.0). 2013an datu horiek parekatu egiten dira; *neskak* espazio publikoan liburuen % 80.0an agertzen dira eta *mutilak* liburuen % 82.8an. Liburu saridunetan, ordea, espazio publikoan neskaren presentzia handiago da mutilaren presentzia baino; *neska* liburu saridunen % 89.5an agertzen bada, *mutila* liburuen % 84.2an.

Hortaz, esan genezake espazio publikoan bi sexuek duten presentziak parekidetasunerantz eboluzionatu egin duela eta gaur egun egoera nahiko parekidea dela. Halaber, espazio publikoetan bi sexuen presentzia bermatuta dagoela ikusi dugu.

Esfera pribatuari dagokionez, 1980ko hamarkadako corpusean bi sexuen presentzia nahiko parekidea da; *neskak* liburuen % 81.4an agertzen da noizbait espazio pribatuan eta *mutilak* liburuen % 77.1ean. 2103an ehunekoak murrizten dira eta gainera, erabat parekideak dira: *bi sexuak* liburuen % 71an agertzen direlarik esfera pribatuan. Liburu saridunetan aldaketa handia ikusten da, izan ere, *neskak* liburuen % 89.5ean espazio pribatuetan agertzen dira eta *mutilak* aztertutako liburuen % 47.4an.

Esan genezake euskal haur eta gazte literaturan espazio pribatuetan nesken eta mutilen presentzia bermatuta bada ere, liburu saridunetan aldea esanguratsua dela.

Aztertu ditugun hiru multzoetan esfera publikoak esfera pribatuak baino pisu handiagoa du eta sexuen banaketari dagokionez, 2013. urteko egoera parekidea azpimarragarria da.

lkerketaren emaitzei erreparatuz, pertsonaiak toki desberdinetan ageri dira espazio publikoa zein pribatua okupatuz; hau horrela delarik leku pribatuetan mutilaren eta neskaren agerpena bermatuta daude eta baita leku publikoetan ere, gure 2.5 azpi-hipotesian aurreikusten genuen bezala. Beraz, espazioak betetzeari dagokionez esan dezakegu ez dela apenas sexismorik ikusten nahiz eta oraindik liburu saridunetan sexismo pixka bat nabaritu daitekeen espazio pribatua nabarmen egin neskekin identifikatze aldera.

Bukatzeko, sexismoa detektatzeko erabiliko den azken azter-unitatea pertsonaiei atxikitzen zaien kolorea da. Gure 2.6 azpi-hipotesian esaten genuen 1980ko hamarkadako corpusean koloreen (urdinaren eta arrosaren) erabilera sexista nabarmenagoa izango dela gaur egungo literaturan baino. Horretarako ilustrazioetan pertsonaiek arropetan ageri duten koloreei erreparatu zaio. Oro har, koloreen aniztasuna nabaria den arren, sexu bakoitzean genero-estereotipoen lotutako koloreetan arreta ipini da; kolore urdina (ikus. 32.taula) eta kolore arrosa, hain zuzen (ikus. 34.taula).

32 Taula

Kolore Urdina

Liburua	Maiztasuna	Ehunekoak	
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	57	% 81.4
	Neskak	1	% 1.4
	Mutilak	10	% 14.3
	Biak	2	% 2.9
	Guztira	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	30	% 54.5
	Neskak	6	% 10.9
	Mutilak	12	% 21.8
	Biak	6	% 10.9
	Guztira	54	% 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	11	% 57.9
	Neskak	4	% 21.1
	Mutilak	1	% 5.3
	Biak	3	% 15.8
	Guztira	19	% 100.0

Taulan ikusten den bezala, orokorrean neskenzako kolore urdinaren erabilera handitu egin dela esan dezakegu. 1980ko corpuseko liburuen % 4.3an *neskaren* bat urdinez agertzen da eta *mutilen* bat liburuen % 17.2an. Hamarkada honetan kolore urdinak mutiletan nesketan baino askoz pisu handiagoa erakusten du.

2013an bi sexueta urdinaren erabilera handiagoa da. Datuak hurbildu diren arren, oraindik mutiletan presentzia handiagoa da; *nesketan* liburuen % 21.8an agertzen den bitartean, *mutiletan* liburuen % 32.7an. Bestalde, liburu saridunetan kolore urdina maizago agertzen da nesketan mutiletan baino; saritutako liburuen % 36.9an agertzen da *neskaren* bat kolore urdinez jantzirik eta *mutilen* bat liburuen % 21.1ean.

Datuak argiago ikusteko asmoz, hurrengo taulan bakarrik kontuan hartu diren kolore urdina agertzen dituzten liburuak (ikus. 33.taula).


33 Taula

Kolore Urdina Bakarrik Agertzen dituzten Liburuak (%)

	Emakumeak	Gizonak
1980ko hamarkada	% 23	% 92.3
2013. urtea	% 50	% 75
Liburu sariduna	% 87.5	% 50

1980ko hamarkadan kolore urdina agertzen dituzten liburu gehienetan gizonei atxikitzen zaio (% 92.3), emakumea, ordea, liburu hauen ia laurdenean agertzen dira (% 23). 2013an, kolore urdina agertzen dituzten liburuen hiru laurdenetan (% 75) gizona ageri da urdinez eta emakumea liburuen erdian (% 50). Liburu saridunetan, ordea, kolore urdina agertzen denean, gehiagotan ageri da emakumean (% 87.5) gizonetan baino (% 50).

Hurrengo grafikoan datu hauek nola gurutzatzen diren ikus dezakegu.



9 Irudia. Kolore Urdinaren Bilakaera

Azterketa honek erakusten digu 1980ko hamarkadan kolore urdinean dagoen desoreka gainditu egin dela. Halaber, 2103an antzematen den joera baikorra liburu saridunetan baieztatu egiten da kolore urdina emakumeetan presentzia handiagoa izanik.

Orduan, esan genezake kolore urdinaren erabilerak eboluzionatu egin duela. Izan ere, nesketan gero eta gehiagotan ageri da kolore hau eta gainera, liburu saridunetan presentzia handiago du kolore honek nesketan eta mutiletan baino. Kolore urdinaren erabilerari dagokionez ezin dugu esan sexismoa dagoenik.

Ikus dezagun orain kolore arrosaren erabilerak zer-nolako datuak erakusten dituen.

34 Taula

Kolore Arrosa

Liburua		Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	62	% 88.6
	Neskak	7	% 10.0
	Mutilak	0	% 0
	Biak	1	% 1.4
	Guztira	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	43	% 78.2
	Neskak	5	% 9.1
	Mutilak	3	% 5.5
	Biak	3	% 5.5
	Guztira	54	% 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	9	% 47.4
	Neskak	9	% 47.4
	Mutilak	0	% 0
	Biak	1	% 5.3
	Guztira	19	% 100.0

Lehenik eta behin, kolore arrosak kolore urdinak baino presentzia txikiagoa duela ikus dezakegu. Halaber, sexuei eta multzoei dagokionez, esan dezakegu hiru multzoetan nesketan mutiletan baino gehiago agertzen dela kolore arrosa.

1980ko hamarkadako liburuen % 11.4an kolore arrosa neskaren batean agertzen da eta mutilen batean liburuen % 1.4an.

2013an kolore arrosaren presentzia handitu egiten da eta nahiko parekoa da; arrosa kolorez jantzitako neskaren bat liburuaren % 14.6an agertzen da eta mutilen bat liburuaren %11n.

Liburu saridunetan, ordea, desberdintasuna nabarmena da: neskak arrosaz jantzirik liburu saridunen % 52.7an agertzen den bitartean, mutila, soilik, liburu bakarrean (% 5.3). Badirudi liburu saridunetan bi kolore estereotipatu hauek (urdina eta arrosa) nesketan presentzia handia dutela.

Kolore urdinarekin egin dugun bezala, ondorengo taula egiteko bakarrik aintzat hartu dira kolore arrosa agertzen dituzten liburuak.


35 Taula

Kolore Arrosa Bakarrik Agertzen dituzten Liburuak (%)

	Emakumeak	Gizonak
1980ko hamarkada	% 100	% 12.5
2013. urtea	% 72.8	% 54.5
Liburu sariduna	% 100	% 10

Kolore arrosa 1980ko hamarkadako liburuetan eta liburu saridunetan agertzen den guztietan emakumeren bat ageri da arrosaz jantzirik eta multzo hauetan, ordea, oso gizon gutxi topatu daitezke arrosa erabiltzen, 1980ko hamarkadako liburuaren % 12.5ean eta liburu saridunen % 10ean. Beraz, esan dezakegu kolore arrosa agertzen denean 1980ko hamarkadako egoera eta liburu saridunetako egoera nahiko antzekoa dela. Bestalde, 2013an, liburu gehiagotan kolore arrosaz jantzirik emakume gehiago ageri diren arren (% 72.8), liburuaren erdian baino gehiagotan gizonen bat ageri da (% 54.5). Hortaz, urte honetan egoera askoz parekideagoa da.

Joera hauek argiago ikusteko asmoz, hurrengo grafikoa egin da.



10 Irudia. Kolore Arrosaren Bilakaera

Irudian ikus dezakegunez, kolore arrosaren agerpenari dagokionez 1980ko hamarkadako egoera eta liburu saridunetako nahiko antzekoa da eta 2013. urtekoa, aldiz, nahiko parekidea da, hala ere, hiru multzoetan kolore arrosak presentzia handiagoa du emakumeetan gizonetan baino.

Ondorioz, bi kolore hauetan agertu diren datuek, neurri handi batean, gure 2.6 azpi-hipotesiak esaten duena baieztatzen dute; 1980ko hamarkadako corpusean koloreen erabilera sexista nabarmenagoa da gaur egungo liburuetan baino. Hala ere, ñabardurak ere antzeman dira: kolore arrosaren presentzia nesketan mutiletan baino handiagoa da, eta, datu hau liburu saridunetan areagotzen dela ikusirik, kolore honen erabilera sexistarekin oraindik ez dela bukatu baieztatu dezakegu, edo beste modu batean esanda, neskak urdinera hurbildu diren bitartean mutilek arrosatik urrun jarraitzen dutela. Hau da, datuek erakusten dute urdina neskekin gehiago erlazionatzen dela kolore arrosa mutilekin baino, eta honek, kasu honetan, adierazten du parekidetasunaren izenean neskak “mutilen” balioak bereganatzen ari direla eta ez alderantziz.

Laburpena

Laburbilduz, gure 2. hipotesia neurri handia batean baieztatu egin dela ikusi badugu ere, datuek erakusten dute oraindik gaur egungo haur eta gazte literatura sexismoz zipriztinduta dagoela. Hala ere, aurreikusten genuen bezala, 1980ko hamarkadan gaur egungo literaturan baino sexismo gehiago ematen da.

Horrexegatik, hipotesi honi dagozkien datuek zapore gazi-goza uzten digute. Alde batetik, zenbait aldagaietan sexismoa mantentzen dela antzemateko aukera izan dugu eta bestetik, zenbait aldagaietan sexismoa gutxitu egin dela ikusi dugu.

Ezaugarri fisikoei esleitzen zaizkien ezaugarri sexisten presentzia oraindik handia da, eta edertasuna bezalako ezaugarria neskei loturik agertzen jarraitzen duen bitartean, indarra nagusiki mutilen ezaugarria dela ikusi da. Gainera, etxeko ardurei (etxeko lanak eta zaintza familiarak) dagokienez, eboluzioa oso txikia izan da eta mutil gehiago agertzen diren arren, nagusiki emakumeen daude. Emakume boteretsuen presentzia ere oraindik ez da gizonen parekoa eta aldagai honetan sexismoa gutxitu bada ere, oraindik ez da desagertu.

Ezaugarri psikologioak aztertzerako orduan hainbat aurrerapausu ikusi ditugun arren, egoera oraindik ez da erabat parekidea eta atal honetan ere, sexismoa antzeman daiteke. Euskal letretan gero eta neska aktibo gehiago daude, neska pasibo gutxiago, neska ausartak eta neska heoriak ere gehiago dira. Bestalde, sexismoa sustatzen duten zenbait ezaugarri oraindik ez dira desagertu; sentikortasuna eta ameslaria izatea nagusiki nesken ezaugarria da eta jakintsua izatea mutilena.

Datuek ere erakutsi digute emakumeen presentzia espazio pribatuan zein publikoan bermatuta dagoela eta koloreen (urdinaren eta arrosaren) erabilera sexista ere gutxitu egin dela.

Kontuan izanda gure 2. hipotesian aurreikusten genuela 1980ko hamarkadako euskal haur eta gazte literaturan sexismo gehiago emango dela, baieztatu dezakegu gaur egungo literaturan sexismoa gutxitu egin dela, baina oraindik ez dela desagertu eta agian gizarte parekide bat baino nesken artean mutilen ezaugarriak ezartzen ari direla dirudi. Gainera, datuetan ikusi ahal izan denez, 2013. urteko liburuek liburu saridunek baino sexismo gutxiago erakusten dute;

Emaizak: Sexismoari dagozkion emaitzak

esate baterako, kolore arrosaren erabileran, espazio pribatuen banaketan, zaintza familiarren eta etxerako lanen banaketan.

VII.3 Pertsonaien ezaugarri buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak

Pertsonaien ezaugarri buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak aztertzeke eta azaltzeke, hots, liburuetakoz zenbait pertsonaiaren hainbat ezaugarri berrikuntzarik izan duten ikusteko, bost adierazle erabili dira: lehenengo eta behin, sinbologiari dagozkionak (Turin, 1995); bigarrena, aisialdiaren banaketari buruzkoak; hirugarrena, etxean aita, ama, semea, alaba eta beste familiarren presentziari dagozkionak; laugarrena, ospeari dagozkionak eta azkena, lanbideei dagozkion emaitzak. Horrela gure 3. hipotesia egiaztatzen den edo ez ikusi ahal izango dugu; 1980ko hamarkadako euskal haur eta gazte literaturako pertsonaiekin alderatuz gaur egungo pertsonaien irudien ezaugarrietan berrikuntzak eman dira.

Lehenengo eta behin, sinbologiari erreparatu zaio, hain zuzen ere, gure 3.1 azpi-hipotesian adierazi dugunez liburu saridunetan sinbologia sexista (tresnak eta objektuak) gutxiago agertuko da. Horretarako, pertsonaiei atxikitzen zaizkien honako elementu hauek aztertu ditugu: maletina, betaurrekoak, egunkaria, amantala, txakurra, katua, etxeko tresnak eta kaleko tresnak.

Hurrengo taulan *maletinaren* erabilerari buruzko datuak aurkeztuko dira, tradizionalki mutilei lotuta egon izan ohi den objektua (ikus. 36. taula).

36 Taula

Maletina

Liburua	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	47 % 67.1
	Neskak	2 % 2.9
	Mutilak	18 % 25.7
	Biak	3 % 4.3
	Guztira	70 % 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	49 % 89.1
	Neskak	1 % 1.8
	Mutilak	2 % 3.6
	Biak	2 % 3.6
	Guztira	54 % 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	13 % 68.4
	Neskak	2 % 10.5
	Mutilak	2 % 10.5
	Biak	2 % 10.5
	Guztira	19 % 100.0

Maletinari dagokionez, esan dezakegu bere erabilera parekatu egin dela. 1980ko hamarkadako liburuetan maletina gehiagotan ageri da mutilen eskuetan *nesken* eskuetan baino; *mutiletan* liburuen % 30.0an eta nesketan liburuen % 7.2an. 2013an datu horiek nabarmen jaisten dira ia-ia parekatzeraino: maletina *mutilen* eskuetan urte honetako liburuen % 7.2an agertzen da (2 liburutan) eta *nesken* eskuetan liburuen % 5.4an (liburu batean). Liburu saridunetan erabilerak gora egiten du eta erabat parekatzen da: liburu saridunen % 21ean *bi sexuen* eskuetan agertzen delarik maletina.

Ondorioz, maletinaren erabilera asko gutxitu egin den arren, datuetan antzematen da 1980ko hamarkadatik gaur egunera maletinaren erabilera parekatu egin dela mutiletan gutxiago ageri delako eta nesketan gehiago. Horrexegatik, objektu honen erabileran ez da sexismorik antzematen eta gainera, 1980ko hamarkadako erabilera sexista gainditu egin denez, egoera hau berrikuntzat har dezakegu.

Hurrengo taulan *betaurrekoen* erabilerrari dagozkion datuak ikusgai ditugu. Turinek (1995) esaten du betaurrekoak inteligentziaren ikurra direla, baina nesken kasuan ere itsusitu egiten direla beraien inteligentzia eta edertasunaren arteko bateraezintasuna ezarriz.

37 Taula

Betaurrekoak

Liburua	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoak	Ez da agertzen	33 % 47.1
	Neskak	9 % 12.9
	Mutilak	19 % 27.1
	Biak	9 % 12.9
	Guztira	70 % 100.0
2013. urtean argitaratutakoak	Ez da agertzen	36 % 65.5
	Neskak	6 % 10.9
	Mutilak	7 % 12.7
	Biak	5 % 9.1
	Guztira	54 % 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	5 % 26.3
	Neskak	4 % 21.1
	Mutilak	5 % 26.3
	Biak	5 % 26.3
	Guztira	19 % 100.0

Betaurrekoen erabilera 1980ko hamarkadatik gaur egunera nahiko parekatua dela esan dezakegu. 1980ko hamarkadako liburuetan ugariagoa zen mutiletan nesketan baino; liburuen % 40an *mutilen bat* ageri da betaurrekoekin eta *neskaren bat* liburuen % 25.8an.

2013an betaurrekoen erabilera jaisten da eta ia-ia parekidea da; urte honetako liburuen % 20an *neskaren bat* ageri da betaurrekoekin eta liburuen % 19.8an *mutilen bat*.

Liburu saridunetan betaurrekoen presentziak gora egiten du nabarmen, eta sexuei dagokionez ere nahiko parekoa dela baieztatu dezakegu; liburu saridunen

Emaitzak: Pertsonaien ezaugarriei buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak

% 52.6an *neskaren bat* ageri da betaurrekoak jantzirik eta liburuen % 47.4an *mutilen bat*.

Hortaz, esan genezake gaur egun betaurrekoen erabilerak eboluzionatu egin duela eta sexuei dagokionez bere erabilera nahiko parekatua dela, horren ondorioz, ez da objektu honen erabilera sexistarik identifikatu. Ezaugarri hau ere berrikuntzatzat har dezakegu. Gainera, liburu hauetan betaurrekoen erabilera mutilen kasuan ez da azkartasunarekin lotzen eta nesken kasuan ez da itsusitasunarekin lotzen.

Hona hemen *egunkarien* irakurketari dagozkion datuen azterketa. Turinek (1995) aipatzen du egunkariak informazioaren eta modernitatearen direla eta tradizionalki aitek, aitonek eta kaleko gizonek irakurtzen dituztela.

38 Taula

Egunkaria

Liburua	Maiztasuna	Ehunekoak	
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	49	% 70.0
	Neskak	2	% 2.9
	Mutilak	17	% 24.3
	Biak	2	% 2.9
	Guztira	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	48	% 87.3
	Neskak	2	% 3.6
	Mutilak	4	% 7.3
	Biak	0	% 0
	Guztira	54	% 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	19	% 100.0
	Guztira	19	% 100.0

Euskal haur eta gazte literatura modernoan *egunkariaren* erabilerak behera egin du nabarmen. 1980ko hamarkadako liburuetan egunkaria nagusi da *mutilen* eskuetan, alegia, liburuen % 27.2an eta *nesken* kasuan, liburuen % 5.8an.

2013an egunkariaren presentziak bi sexuetan behera egiten du; urte honetako liburuen % 7.3an ageri da *mutilen* bat egunkaria irakurtzen eta liburuen % 3.6an *neskaren* bat ageri da. Liburu saridunetan, ordea, ez da egunkariaren irakurketarik identifikatu bi sexuetan.

1980ko hamarkadan bi sexuen artean egunkariaren erabilerari dagokion aldea ia-ia erabat desagertu denez, gaur egun egunkariaren erabileran ere ez da sexismorik identifikatzen. Egoera hau ere berrikuntzatzat har dezakegu.

Hurrengo taulan *amantalaren* erabilerari buruzko datuak aurkeztuko dira, izan ere, tradizionalki neskei atxikitu ohi izan zaion elementua da (ikus. 39.taula).

39 Taula:

Amantala

Liburua	Maiztasuna	Ehunekoak	
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	43	61.4
	Neskak	26	37.1
	Mutilak	0	0
	Biak	1	1.4
	Guztira	70	100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	46	83.6
	Neskak	7	12.7
	Mutilak	1	1.8
	Biak	0	0
	Guztira	54	98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	13	68.4
	Neskak	5	26.3
	Mutilak	1	5.3
	Biak	0	0
	Guztira	19	100.0

Amantalaren erabilerari dagokionez, 1980ko hamarkadako liburuetan nagusi zen *nesketan*, izan ere, liburuen % 38.5ean ageri da neskaren bat amantala jantzirik eta *mutiletan* liburuen % 1.4an. 2013.urtean amantalaren erabilera *nesketan* murrizten egiten da liburuen % 12.7ra eta *mutilen* erabilera, gutxi gorabehera,

Emaitzak: Pertsonaien ezaugarriei buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak

mantendu egiten da % 1.8an (liburu bakarria). Liburu saridunen % 26.3an *neskaren* bat ageri da amantalaz jantzirik eta liburuen % 5.3an *mutilen* bat ageri da amantala jantzirik (hau ere, lan bakarria).

Kontuan izanik sinbolo honen garrantzia, hurrengo taula egiteko amantala soilik agertzen dituzten liburuak erabili dira (ikus. 40.taula).


40 Taula

Amantala Bakarrik Agertzen dituzten Liburuak (%)

	Emakumeak	Gizonak
1980ko hamarkada	% 100	% 3.8
2013. urtea	% 87.5	% 12.5
Liburu sariduna	% 83.3	% 16.6

1980ko hamarkadan amantala ia emakumeen sinbolo eksklusibotzat agertzen da, alegia, elementu hau agertzen den liburu guztietan emakumeren bat ageri da amantala jantzirik eta gizonen bat solik liburu hauen % 3.8an. 2013an datuak apur bat aldatzen diren arren, emakumea amantala agertzen duten urte honetako liburuen % 87.5ean ageri da eta gizona liburu hauen % 12.5ean. Liburu saridunetan egoera nahiko antzekoa da; amantala janzten duen emakumea liburuen % 83.3an ikus dezakegu eta gizona liburuen % 16.6an.

Zentzu honetan hurrengo grafikoa argigarria da:



11 Irudia. Amantalaren Erabileraren Bilakaera

Aurreko grafikoan ikus daitekeen moduan erraz antzeman daiteke amantalak duen joera baikorra; mutiletan gero eta gehiagotan ageri da eta emakumetan gero eta gutxiago. Dena den, oraindik ere alde nabarmena denez ezin dezakegu egoera parekide bati buruz hitzik egin.

Horrenbestez, esan dezakegu amantalaren erabilerak ez duela gehiegi eboluzionatu eta oraindik ere, neskari atxikitzen zaion objektu gisatzat agertzen dela. Egoera honek izan dezakeen karga sexistagatik berrikuntzarik ez dela eman esan dezakegu.

Euskal letretan zenbait animalia-aren presentzia ere aztertu egin da: alde batetik, *txakurra* eta bestetik, *katua*. Turinek (1995) txakurra “kanpoko” animalia denez mutilarekin lotzen du eta katua “barukoa” denez neskekin. Hurrengo taulan multzo bakoitzean txakurra eta katua zein sexuarekin batera identifikatua izan den aztertuko da (ikus. 41.taula).

41 Taula

Txakurra eta Katua

Liburua		TXAKURRA		KATUA	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadako	Ez da agertzen	52	% 74.3	64	% 91.4
	Neskak	5	% 7.1	4	% 5.7
	Mutilak	7	% 10.0	2	% 2.9
	Biak	6	% 8.6	0	% 0.0
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	42	% 76.4	45	% 81.8
	Neskak	5	% 9.1	4	% 7.3
	Mutilak	3	% 5.5	5	% 9.1
	Biak	4	% 7.3	0	% 0.0
	Guztira	54	% 98.2	54	% 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	13	% 68.4	18	% 94.7
	Neskak	3	% 15.8	1	% 5.3
	Mutilak	1	% 5.3	0	% 0.0
	Biak	2	% 10.5	0	% 0.0
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Txakurrari dagokionez, datuak nahiko parekoak direla esan dezakegu; kontuan hartzen badugu txakurrak neskarekin bakarrik agertzen diren liburuak eta txakurrak biekin agertzen diren liburuak, 1980ko hamarkadan liburuen % 15.7an *neskaren* batekin agertu izan da. Bestalde, txakurra mutilarekin bakarrik agertzen denean eta biekin agertzen denean kontuan hartzen badugu txakurra *mutilen* kasuan liburuen % 18.6an agertzen da.

2013an berdina kontuan hartzen badugu, txakurra liburuen % 16.4an agertu da *neskekin* eta liburuen % 12.8an *mutilekin*. Liburu saridunetan bi sexuen arteko aldea igo egiten da, izan ere, saritutako liburuen % 26.3an txakurren bat *neskaren* batekin ageri da eta *mutilen* kasuan, liburuen % 15.8an. Dena den, ez da desberdintasun esanguratsurik sumatu hiru multzoetan eta ez da txakurraren erabilera sexistarik agertu.

Beste alde batetik, aztertutako hiru multzoetan bi sexuetan *katuaren* presentzia txakurrarena baino txikiagoa dela ikus dezakegu. 1980ko hamarkadako liburuen % 5.7an *neskaren* batekin batera agertzen da katua eta *mutilen* batekin liburuen % 2.9an. 2013an *katuaren* presentziak gora egiten du eta urte honetan *mutiletan* nesketan baino presentzia handiago du; *nesketan* liburuen % 7.3an eta *mutiletan* liburuen % 9.1ean. Liburu saridunetan, katua soilik liburu bakarrean identifikatu izan da eta kasu honetan *neska* batekin agertzen da; aztertutako liburuen % 5.3an. Datuetan ikusten dugunez, katuen kasuan, txakurren kasuan bezala, ez da animalien erabilera sexistarik ikusten.

Beste azter-unitate bat tresnen erabilera da. Kasu honetan bi tresna mota identifikatu dira: alde batetik, etxe barruko tresnak (amantala, erratza, platera, panpina,...) eta bestetik, kaleko tresnak (maletina, baloia, kaskoa...) izan daitezkeenak (ikus. 42. Taula).

42 Taula

Etxeko Tresnak eta Kanpoko Tresnak

Liburua		Etxeko tresnak		Kanpoko tresnak	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	36	% 51.4	28	% 40.0
	Neskak	19	% 27.1	1	% 1.4
	Mutilak	6	% 8.6	33	% 47.1
	Biak	9	% 12.9	8	% 11.4
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	37	% 67.3	43	% 78.2
	Neskak	7	% 12.7	1	% 1.8
	Mutilak	7	% 12.7	8	% 14.5
	Biak	3	% 5.5	2	% 3.6
	Guztira	54	% 98.2	54	% 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	5	% 26.3	12	% 63.2
	Neskak	8	% 42.1	1	% 5.3
	Mutilak	1	% 5.3	2	% 10.5
	Biak	5	% 26.3	4	% 21.1
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Emaitzak: Pertsonaien ezaugarriei buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak

1980ko hamarkadan *etxeko tresnek* presentzia handiagoa dute nesketan mutiletan baino, 2013an, ordea, datu horiek erabat parekatu egiten dira eta liburu saridunetan bi sexuetan etxeko tresnen presentziak gora egiten du, baina askoz handiagoa nesketan mutiletan baino.

Datuei erreparatuz, 1980ko hamarkadako liburuen % 40an ageri dira etxeko tresnak *nesken* eskuetan eta liburuen % 21.5ean *mutilen* eskuetan. 2013an etxeko tresnak bi sexuetan liburuen % 18.2an ageri dira. Liburu saridunetan, etxeko tresnak liburuen % 68.4an *nesketan* ageri dira eta *mutilen* eskuetan liburuen % 31.6an.

Etxeko tresnei dagokionez, 2013. urteko datu parekidea izan ezik, esan dezakegu 1980ko hamarkadan eta liburu saridunetan tresna mota hauen erabilera sexista ematen dela. Izan ere, askoz liburu gehiagotan ageri dira nesken eskuetan mutilen eskuetan baino. Hortaz, kasu honetan ez da berrikuntzarik identifikatu.

Kaleko tresnen erabilerari dagokionez, esan dezakegu etxeko tresnekin ez bezala liburu saridunetan kaleko tresnen erabilera nahiko parekidea dela.

1980ko hamarkadako corpusaren erdian baino gehiagotan kaleko tresnak *mutilen* eskuetan ageri dira (% 58.5), *nesken* eskuetan liburuen % 12.8an agertzen direlarik. 2013an, kaleko tresnen presentziak behera egiten du eta *mutilen* eskuetan liburuen % 18.1an ageri dira eta *nesken* eskuetan liburuen % 5.4an. Hala ere, 2013ko datuetan hiru aldiz handiagoa da mutilen datua nesken datuarekin konparatuz. Liburu saridunetan datuek gora egiten dute, ia-ia parekatuz; *mutilen* kasuan liburuen % 31.6an eta *nesken* kasuan liburuen % 26.4an.

Kasu honetan nahiz eta egoera ez den guztiz parekidea, esan dezakegu ez dela sexismorik ikusten kaleko tresnen erabilpenari dagokionez. Gainera, 1980ko hamarkadako desoreka handia murriztu egin da nolabaiteko berrikuntza antzemanaz.

Ikerketan planteatu dugun liburu saridunetako sinbologia (tresnak eta objektuak) sexistari buruzko hipotesia, 3.1 azpi-hipotesia egiztatu da. Ikusi dugunez, Turinek (1995) aipatzen dituen zenbait objektu sexisten erabilera gaur egun 1980ko hamarkadan baino askoz parekideagoa da, beraz, sinbologia sexistaren

inguruan euskal letretan eboluzioa ikusten da eta hau, berrikuntzat hartzen da. Maletinaren erabileran, betaurrekoen erabileran, egunkariaren irakurketan, animalien (katua eta txakurra) presentzian ez da sexismorik antzeman eta hau berrikuntzat jo daiteke. Gainera, kaleko tresnen erabileran 1980ko hamarkadako liburuetan dagoen desoreka gaur egun murriztu egin da.

Beste alde batetik, beste aldagai batzuetan nahiz eta eboluzioa igarri den, espero zitekeena baino berrikuntza txikiagoa ageri da; kasu honetan, amantalaren erabilerak ez duela gehiegi eboluzionatu nabarmendu daiteke, eta honek neskari atxikitzen dion karga sexistagatik ezin da berrikuntzat hartu. Baita ere, 1980ko hamarkadan bezala, liburu saridunetan etxeko tresnak emakumeen esku liburu gehiagotan agertzen dira.

Hau guztia dela eta, esan daiteke sinbologiak aditzera eman dezakeen sexismoa ia-ia desagertzen da euskal haur eta gazte literatura modernoan.

Euskal haur eta gazte literatura modernoko pertsonaien ezaugarrietan berrikuntzarik eman den ikusteko aztertu den beste atal bat pertsonaien aisialdia da. Atal honetan ere, garrantzitsua da estereotipoak gainditzea, bai mutileri eta baita neskei ere atsegina zaizkien jolas eta denbora pasa parekideak eskaintzea, modu horretan, bi sexuei aukera berdina eskainiko zaiolako.

Gure 3.2 azpi-hipotesian aisialdia izan dugu aztergai. Bertan aurreikusten da liburu berrietan emakumearen aisialdia 1980ko hamarkadako literaturan baino aberatsagoa izango dela eta baita gizonen parekoa ere. Aisialdiari dagokionez, honako atal hauek kontuan izan dira: nortzuk ageri diren lagunekin (ikus. 43.taula), nor ageri den kirola egiten (ikus. 44.taula), nor ageri den irakurtzen (ikus. 45.taula), telebista ikusten (ikus. 46.taula), nor doan zinemara (ikus. 47.taula), museora (ikus. 48.taula) eta zora (ikus. 49.taula), nork jolasten duen etxetik kanpo (ikus. 50.taula) eta etxe barruan (ikus. 51.taula), nork ikasten duen (ikus. 52.taula) eta azkenik, nork bidaiatzen duen (ikus. 53.taula).

Hurrengo taulan (ikus. 43.taula) *lagunekin kuadrillan* egoteari dagozkion datuak ditugu aztergai.

43 Taula

Lagunekin egon

Liburua		Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	24	% 34.3
	Neskak	1	% 1.4
	Mutilak	22	% 31.4
	Biak	23	% 32.9
	Guztira	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	26	% 47.3
	Neskak	2	% 3.6
	Mutilak	6	% 10.9
	Biak	19	% 34.5
	Guztira	53	% 96.4
Liburu sariduna	Ez da agertzen	9	% 47.4
	Neskak	1	% 5.3
	Mutilak	1	% 5.3
	Biak	8	% 42.1
	Guztira	19	% 100.0

Lagunekin egoteari dagokionez, 1980ko hamarkadan mutilak gehiago ageri dira lagunekin neskak baino, izan ere, liburuen % 64.3an *mutilak* lagunekin ageri dira eta *neskak* liburuen % 34.3an. 2013n datu horiek parekatu egiten dira, *neskak* urte honetako liburuen % 38.1ean ageri dira lagunekin eta *mutilak* liburuen % 45.4an. Liburu saridunetan bi sexuei dagozkion datuak erabat parekatu egiten dira; liburuen % 47.4an agertzen baitira *bi sexuak* bere lagunekin aisialdian.

Beraz, kasu honetan parekidetasunerantz eboluzioa antzematen da eta azpi-atal honetan euskal haur eta gazte literatura modernoan berrikuntza ikusten da.

Hona hemen *kirola* egiteari dagokion taula. Datuak biltzerako orduan kontuan hartu dira ilustrazioetan edo idazlearen hitzetan agertu diren kirolak: futbola, saskibaloia, txirrindularitza...

44 Taula

Kirola Egin

Liburua	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	44 % 62.9
	Neskak	1 % 1.4
	Mutilak	19 % 27.1
	Biak	6 % 8.6
	Guztira	70 % 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	38 % 69.1
	Neskak	2 % 3.6
	Mutilak	8 % 14.5
	Biak	6 % 10.9
	Guztira	54 % 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	10 % 52.6
	Neskak	1 % 5.3
	Mutilak	3 % 15.8
	Biak	5 % 26.3
	Guztira	19 % 100.0

Kirolari dagokionez, aztertutako hiru multzoetan mutil gehiago ageri dira kirola egiten neskak baino, hala ere, 1980ko hamarkadako liburuetan bi sexuen arteko aldea handiena da.

1980ko hamarkadako liburuen % 35.7an *mutilak* kirolen bat praktikatzen ageri dira eta *neskak* aztertutako liburuen %10ean ageri dira. 2013an nesken agerpenak gora egiten du eta mutilen agerpenak behera; *neskak* liburuen % 14.5ean ageri dira kirola egiten eta *mutilak* liburuen % 25.4an. Liburu saridunetan datuak altuagoak dira; *neskak* liburuen % 31.6an ageri dira kirola praktikatzen eta *mutilak* liburuen % 42.1ean.

Emaitzak: Pertsonaien ezaugarriei buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak

Atal honetan parekidetasunerantz joera eta eboluzioa dagoen arren, oraindik ere kirola lotuago agertzen da mutilen nesken baino. Hortaz, kirolari dagokionez, ikusten den berrikuntza nahikoa ez dela esan dezakegu.

Hona hemen *irakurketari* dagozkion datuak. Kasu honetan, kontuan hartu dira liburu, egunkari edo aldezkarri bat irakurtzen agertu diren pertsonaia ezberdinak.

45 Taula

Irakurketa

Liburua	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoak	Ez da agertzen	43 % 61.4
	Neskak	3 % 4.3
	Mutilak	16 % 22.9
	Biak	8 % 11.4
	Guztira	70 % 100.0
2013. urtean argitaratutakoak	Ez da agertzen	34 % 61.8
	Neskak	6 % 10.9
	Mutilak	5 % 9.1
	Biak	9 % 16.4
	Guztira	54 % 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	15 % 78.9
	Neskak	3 % 15.8
	Mutilak	1 % 5.3
	Biak	0 % 0
	Guztira	19 % 100.0

Irakurketari dagokionez, 1980ko hamarkadatik gaur egunera eboluzioa nabarmena dela ikus dezakegu. Taulan ikus daitekeenez, 1980ko hamarkadako liburuetan mutil gehiago ageri dira irakurtzen nesken baino, joera hau, aldiz, ez da 2013ko corpusean eta liburu saridunetan errepikatzen.

Datuei dagokionez, 1980ko hamarkadako liburuen % 15.7an *neskaren bat* liburuen bat irakurtzen agertzen den bitartean, *mutilak* aztertutako liburuen % 34.3an ageri dira. 2013an nesken agerpenak gora egiten du eta mutilenak, berriz, behera, modu honetan datua nahiko parekoa da eta liburu gehiagotan ageri dira

Emaitzak: Pertsonaien ezaugarriei buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak

neskak irakurtzen mutilak baino; *mutilak* liburuen % 25.5ean ageri dira eta *neskak* liburuen % 27.3an. Liburu saridunetan irakurketaren presentziak behera egiten du eta nesketan oraindik ere handiagoa da; *neskak* liburuen % 15.8an ageri dira eta *mutilak*, soilik, liburuen % 5.3an. Hortaz, irakurketari dagokionez eboluzioa eta berrikuntza begi-bistakoa dela esan dezakegu.

Hauek dira *telebistaren* aurrean agertzen diren pertsonaien inguruan bildutako datuak.

46 Taula

Telebista Ikusi

Liburua	Maiztasuna	Ehunekoak
	Ez da agertzen	53 % 75.7
1980ko hamarkadakoa	Neskak	4 % 5.7
	Mutilak	7 % 10.0
	Biak	6 % 8.6
	Guztira	70 % 100.0
		Ez da agertzen
2013. urtean argitaratutakoa	Neskak	1 % 1.8
	Mutilak	4 % 7.3
	Biak	6 % 10.9
	Guztira	54 % 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	14 % 73.7
	Neskak	1 % 5.3
	Mutilak	2 % 10.5
	Biak	2 % 10.5
	Guztira	19 % 100.0

Telebista ikusten dauden pertsonaiei dagokionez, datuak nahiko parekoak direla esan dezakegu, beti ere, aztertutako hiru multzoetan mutil gehiago ageri dira telebista ikusten neskek baino.

Datuei dagokionez, 1980ko hamarkadako liburuen % 18.6an *mutilezko* pertsonaien bat ageri da pantaila aurrean eta *nesken bat* liburuen % 14.3an. 2013an 1980ko hamarkadarekin alderatuz gero, datuak nahiko antzeko dira;

Emaitzak: Pertsonaien ezaugarriei buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak

mutilak urte honetan argitaratu diren liburuen % 18.6an ageri dira telebista ikusten eta neskak liburuen % 12.7an. Liburu saridunetan datuek gora egiten duten arren, joera mantentzen da; mutil gehiago ageri dira telebista aurrean (% 21) neskak baino (% 15.8).

Horrenbestez, 1980ko hamarkadatik gaur egunera telebista ikusteari dagokionez, datuek ez dutela eboluzionatu eta ez dutela berrikuntzarik adierazten esan dezakegu, hala ere, aurretik esan dugun bezala, aztertu ditugun hiru multzoetan datuak nahiko parekoak dira, beraz, atal honetan ez zen berrikuntzarik behar.

Orain, *zinemari* dagokion taula aztertuko da.

47 Taula

Zinemara joan

Liburua	Maiztasuna	Ehunekoak	
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	62	% 88.6
	Neskak	1	% 1.4
	Mutilak	2	% 2.9
	Biak	5	% 7.1
	Guztira	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	53	% 96.4
	Neskak	0	% 0.0
	Mutilak	0	% 0.0
	Biak	1	% 1.8
	Guztira	54	% 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	16	% 84.2
	Neskak	1	% 5.3
	Mutilak	0	% 0.0
	Biak	2	% 10.5
	Guztira	19	% 100.0

Zinemara joateari dagokionez, datuek oso portzentaia txikiak erakusten dute eta nahiko parekideak direla ikus dezakegu. 1980ko hamarkadako corpuseko %

Emaizak: Pertsonaien ezaugarriei buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak

10ean *mutilak* ageri dira zineman eta *neskak* liburuen % 8.5ean. 2013an datuek behera egiten dute eta erabat berdindu egiten dira: urte horretan argitaratutako liburuen % 1.8an soilik agertzen dira *bi sexuak* zineman. Liburu saridunetan zinemaren presentziak gora egiten du eta liburu gehiagotan ageri dira neskak zineman mutilak baino: *neskak* saritutako liburuen % 15.8an eta *mutilak* liburuen % 10.5ean.

Azpi-atal honetan ez da desberdintasun esanguratsurik antzematen eta datuak nahiko parekoak direla esan dezakegu, hortaz, berdintasuna islatzeko berrikuntzarik ez da behar. Zinemara joateren presentzia hain urria da ez dugula nahiko daturik ondorio gehiago ateratzeko.

Aisialdirako beste plan bat *museora joatea* da, hona hemen museora joandakoen datuak (ikus. 48. taula).

48 Taula

Museoa Bisitatzea

Liburua		Kopuruak	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	66	% 94.3
	Neskak	0	% 0.0
	Mutilak	0	% 0.0
	Biak	4	% 5.7
	Guztira	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	52	% 94.5
	Neskak	0	% 0.0
	Mutilak	0	% 0.0
	Biak	2	% 3.6
	Guztira	54	% 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	19	% 100.0
	Neskak	0	% 0.0
	Mutilak	0	% 0.0
	Biak	0	% 0.0
	Guztira	19	% 100.0

Museoak bisitatzeari dagokionez, bi ezaugarri nabarmendu ditzakegu: alde batetik, museoen presentzia urria eta bestetik, bi sexuen arteko berdintasuna; aztertutako hiru multzoetan ez baita egon sexuen arteko desberdintasunik. Horren ondorioz ez daukagu daturik neskak eta mutilak alderatzeko.

1980ko hamarkadako liburuen % 5.7an agertzen dira bi sexuak museoaren batean. 2013an datu hori jaitsi egiten da apur bat: liburuen % 3.6 ageri dira biak eta liburu saridunetan ez da museorik identifikatu.

Beraz, atal honetan, 1980ko hamarkadan egondako berdintasuna mantendu egin dela baieztatu dezakegu eta berrikuntza gisa museoek gero eta pisu gutxiago dutela esan dezakegu.

Hona hemen etxetik kanpo egiten den beste plan bateko taula, alegia, *zooa* bisitatzeari buruzko taula.

49 Taula

Zooa

Liburua	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	64 % 91.4
	Neskak	1 % 1.4
	Mutilak	2 % 2.9
	Biak	3 % 4.3
	Guztira	70 % 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	54 % 98.2
	Neskak	0 % 0.0
	Mutilak	0 % 0.0
	Biak	0 % 0.0
	Guztira	54 % 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	19 % 100.0
	Neskak	0 % 0.0
	Mutilak	0 % 0.0
	Biak	0 % 0.0
	Guztira	19 % 100.0

Esan beharra dago euskal haur eta gazte literatura modernoan zooten presentzia oso urria dela eta sexuei dagokionez, nahiko parekoa. Kasu honetan ere, neskak eta mutilak alderatzeko daturik ez dugu.

Izan ere, 1980ko hamarkadako liburuetan soilik identifikatu izan da zooa eta datuei dagokionez, neskak liburuen % 5.7an ageri dira zooten batean eta mutilak liburuen % 7.2an. 2013an argitaratutako liburuetan zein liburu saridunetan ez da zoorik identifikatu.

Modu honetan esan dezakegu, atal hau oso parekidea dela eta berrikuntza modura desagerpenerantz eboluzionatu duela baieztatu dezakegu.

Umearen garapenean etxeko eta kaleko jolasa oinarrizko tresna da. Jolasaren bitartez umeak hainbat ezagutza eta gaitasuna eskuratzen ditu; sozializazioan laguntzen du, bere ingurua ezagutzeko eta moldatzeko aukera eskaintzen dio,

Emaitzak: Pertsonaien ezaugarriei buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak

rol sozialak praktikatzeko aukera, gaitasun sozialak garatzea...Hurrengo taulan *etxetik kanpo jolasteari* buruzko datuak bildu egin dira.

50 Taula

Etxetik Kanpo Jolastu

Liburua	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	25 % 35.7
	Neskak	3 % 4.3
	Mutilak	19 % 27.1
	Biak	23 % 32.9
	Guztira	70 % 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	33 % 60.0
	Neskak	3 % 5.5
	Mutilak	5 % 9.1
	Biak	13 % 23.6
	Guztira	54 % 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	7 % 36.8
	Neskak	2 % 10.5
	Mutilak	1 % 5.3
	Biak	9 % 47.4
	Guztira	19 % 100.0

Etxetik kanpo jolasten agertzen diren pertsonaiei dagokienez, ikus dezakegu 1980ko hamarkadako liburu gehiagotan ageri direla mutilak etxetik kanpo jolasten neskak baino, hala ere, datu horiek gaur egun parekatu egin direla ikus dezakegu.

Datuei dagokionez, 1980ko hamarkadako liburuen % 60an agertzen dira *mutilak* etxetik kanpo jolasten eta *neskak* liburuen % 37.2an.

2013an datuek behera egiten dute eta nahiko parekatu egiten dira; hala nola, liburuen % 32.7an ageri dira *mutilak* etxetik kanpo jolasten eta *neskak* liburuen % 29.1ean.

Emaitzak: Pertsonaien ezaugarriei buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak

Liburu saridunetan datuek gora egiten dute eta neska gehiago ageri dira etxetik kanpo jolasten mutilak baino. Datuei dagokionez, liburuen % 57.9an *neskak* ageri dira etxetik kanpo jolasten eta *mutilak* liburuen % 52.7an.

Horrenbestez, ikus dezakegu 1980ko hamarkadatik hona parekidetasunerantz eboluzioa egon dela eta gainera, neskek etxe barruan jolastetik etxe kanpora jolastera salto egin dutela. Beraz, nesken kasuan argi eta garbi berrikuntza ikusten da.

Hurrengo taulan *etxe barruan jolasteari* dagozkion datuak jaso dira.

51 Taula

Etxe Barruan Jolastu

Liburua	Kopuruak	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	50 % 71.4
	Neskak	6 % 8.6
	Mutilak	9 % 12.9
	Biak	5 % 7.1
	Guztira	70 % 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	45 % 81.8
	Neskak	3 % 5.5
	Mutilak	4 % 7.3
	Biak	2 % 3.6
	Guztira	54 % 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	15 % 78.9
	Neskak	2 % 10.5
	Biak	2 % 10.5
	Guztira	19 100.0

Etxe barruan jolasten duten pertsonaiei erreparatuz, ikus dezakegu nola 1980ko hamarkadako liburu gehiagotan ageri dira *mutilak* (% 20) etxe barruan jolasten *neskak* baino (%15.7). 2013an datuek behera egiten dute eta nahiko parekideak dira; *mutilak* liburuen % 10.9an ageri dira etxe barruan jolasten eta *neskak* liburuen % 9.1ean. Liburu saridunetan, *neskak* gehiago ageri dira etxe barruan jolasten (%21) *mutilak* baino (% 10.5). Eboluzioa ikusten da, eta datuen artean

ez da desberdintasun esanguratsurik ikusten. Gainera, jolasari dagokionez, kaleak etxeak baino presentzia handiago duela ikus daiteke.

Hurrengo taulan liburuetan eskolan, unibertsitatean, liburutegian, etxean...nor ageri den *ikasten* ikus dezakegu.

52 Taula

Ikasi

Liburua	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	41 % 58.6
	Neskak	3 % 4.3
	Mutilak	14 % 20.0
	Biak	12 % 17.1
	Guztira	70 % 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	29 % 52.7
	Neskak	2 % 3.6
	Mutilak	4 % 7.3
	Biak	19 % 34.5
	Guztira	54 % 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	15 % 78.9
	Neskak	1 % 5.3
	Mutilak	0 % 0
	Biak	3 % 15.8
	Guztira	19 % 100.0

Ikasketei dagokionez, 1980ko hamarkadako liburu gehiagotan ageri dira *mutilak* ikasten (% 37.1) *neskak* baino (% 21.4). 2013an datuek gora egiten dute eta parekatu egiten dira, hala ere, oraindik liburu gehiagotan ageri dira *mutilak* (% 41.8) ikasten *neskak* baino (% 38.1). Liburu saridunetan, aldiz, alderantzizkoa gertatzen da; datuek behera egiten dute eta liburu gehiagotan ageri dira *neskak* (% 21.1) ikasten *mutilak* (% 15.8) baino, dena den, desberdintasuna nahiko txikia da.

Orduan, esan genezake 1980ko hamarkadatik gaur egunera ikasteari dagokionez pertsonaietan berrikuntza ikusten da; ikasteko egoerei dagokionez

Emaitzak: Pertsonaien ezaugarriari buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak

eboluzioa egon da eta gaur egun datuak parekideagoak dira eta argi ikusten da neskak nahiz mutilak antzeko prestatzen direla gizartearen erronkei erantzuteko.

Aisialdiarekin bukatzeko, *bidaiatzeari* dagozkion datuak aurkeztuko dira. Bertan, pertsonaiek liburuan zehar bidaiaren bat (oporretan, asteburu pasa...) egiten duten kontuan hartu da.

53 Taula

Bidaiatu

Liburua	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	28 % 40.0
	Neskak	5 % 7.1
	Mutilak	21 % 30.0
	Biak	15 % 21.4
	Guztira	69 % 98.6
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	31 % 56.4
	Neskak	3 % 5.5
	Mutilak	8 % 14.5
	Biak	12 % 21.8
	Guztira	54 % 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	10 % 52.6
	Neskak	3 % 15.8
	Mutilak	2 % 10.5
	Biak	4 % 21.1
	Guztira	19 % 100.0

Bidaiatzeari dagokionez, aurreko atalean ikusitako joera behera ikus dezakegu hemen. Izan ere, 1980ko hamarkadan aztertutako liburu gehiagotan ageri dira *mutilak* (% 51.4) bidaiatzen *neskak* (% 28.5) baino. 2013an datu horiek behera egiten duten arren, urte honetan ere liburu gehiagotan ageri dira *mutilak* (% 36.3) bidaiatzen *neskak* (% 27.3) baino. Liburu saridunetan, ordea, datuak parekideagoak dira eta liburu gehiagotan ageri dira *neskak* (% 36.9) bidaiatzen *mutilak* (% 31.6) baino. Horrexegatik, bai ikasten zein bidaiatzen berrikuntzak eta eboluzioak parekidetasunerantz jo dutela ikus dezakegu.

Datu guzti hauen ondorioz, liburu berrietan emakumearen aisialdia 1980ko hamarkadako literaturan baino aberatsagoa dela esan dezakegu eta baita gizonen parekoa ere, modu horretan gure ikerketako 3.2 azpi-hipotesia baieztatu egiten da. Aisialdian lagunekin egoteak, ikasteak, bidaiatzeak, irakurtzeak, etxe barruan eta etxetik kanpo jolasteak parekidetasunerantz eboluzionatu dute egon zitekeen sexismoa desagertuz, eta hau berrikuntzat jotzeko daiteke. Badaude berrikuntzarik behar ez duten beste aldagai batzuk 1980ko hamarkadan eta gaur egungo erakusten dituzten datuak parekideak direlako: museora joatea, zooa edo telebista ikustea. Bestalde, kirolak ere eboluzionatu duen arren, oraindik lotuago agertzen da mutilei neskei baino. Berrikuntza guzti hauek direla medio, esan daiteke aisialdiak aditzera eman dezakeen sexismoa euskal haur eta gazte literatura modernoan ia-ia desagertu egin dela.

Pertsonaien ezaugarrien berrikuntzekin jarraituz, liburuetakoa *etxeetan nor agertzen* den aztertuko da, alegia, arakatutako hiru multzoetan zenbat liburutan aita eta ama agertzen diren etxean (ikus. 54.taula), semea eta alaba (ikus. 55.taula) eta azkenik, beste senideak (ikus. 56.taula). Gai honen inguruan bi azpi-hipotesi formulatu ditugu.

3.3 azpi-hipotesian aurreikusten da gaur egungo literaturan etxean amek eta aitek duten presentzia orekatu den heinean, 1980ko hamarkadakoan desorekaturik dagoela. Azpi-hipotesi erantzuna bilatzeko asmoz, hurrengo taulan aitek eta amek etxean agertzen duten presentzia aurkezten da (ikus. 54. taula).

54 Taula

Aita eta Ama Etxean

Liburua		AITA ETXEAN		AMA ETXEAN	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	23	% 32.9	17	% 24.3
	Agertzen da	41	% 58.6	47	% 67.1
	Guztira	64	% 91.4	64	% 91.4
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	15	% 27.3	15	% 27.3
	Agertzen da	34	% 61.8	35	% 63.6
	Guztira	49	% 89.1	50	% 90.9
Liburu sariduna	Ez da agertzen	9	% 47.4	7	% 36.8
	Agertzen da	10	% 52.6	12	% 63.2
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

*Aitare*n etxeko presentziari dagokionez, hiru multzoetan ikus dezakegu liburuen erdian baino gehiagotan ageri dela liburuaren momenturen batean etxe barruan. Zehatzago esanda, 1980ko hamarkadako liburuen % 58.6an ageri da aita etxean, 2013an ehuneko horrek gora egiten du apur bat % 61.8ra eta liburu saridunetan datu hori % 52.6koa da. Kasu honetan ez da berrikuntzarik ikusten.

Amaren presentziari dagokionez, esan dezakegu hiru multzoetako liburu gehiagotan ageri dela etxean aita baino, hala ere, bien arteko aldea ez da oso handia. Gainera, 1980ko hamarkadatik gaur egunera etxean duen presentzia murriztu egin dela baieztatu dezakegu. Datuei erreparatuz, 1989ko hamarkadako liburuen % 67.1an ageri da ama etxean liburuaren momenturen batean, 2013an datu horrek behera egiten du % 63.6ra eta liburu saridunetan amaren presentzia liburuen % 63.2an ikus dezakegu.

Hortaz, esan dezakegu gure 3.3 azpi-hipotesia neurri handi batean bete egin dela aita eta amaren presentzia nahiko orekatua delako, bereziki 2013. urteko liburuetan. Nahiz eta etxea bien esparrua den, oraindik ama gehiago ageri da etxe barruan aita baino, eta joera, hobekuntza txiki batekin, mantentzen da.

Emaitzak: Pertsonaien ezaugarriari buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak

Semeek eta alabek etxean duten presentzia aztertzeke gure ikerketaren 3.4 azpi-hipotesira jo dugu. Bertan ere aurreikusten dugu gaur egungo literaturan etxean alabek eta semeek duten presentzia orekatua dela eta 1980ko hamarkadan desorekatuta dagoela.

Hurrengo taulan *semeek eta alabek etxean* duten presentzia aztertuko da.

55 Taula

Semea eta Alaba Etxean

Liburua		SEMEA ETXEAN		ALABA ETXEAN	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadako	Ez da agertzen	23	% 32.9	35	% 50.0
	Agertzen da	41	% 58.6	29	% 41.4
	Guztira	64	% 91.4	64	% 91.4
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	23	% 41.8	25	% 45.5
	Agertzen da	26	% 47.3	25	% 45.5
	Guztira	49	% 89.1	50	% 90.9
Liburu sariduna	Ez da agertzen	14	% 73.7	8	% 42.1
	Agertzen da	5	% 26.3	11	% 57.9
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Semeak etxean duen presentziari dagokionez, esan dezakegu 1980ko hamarkadatik gaur egunera nahiko jaitsi egin dela, eta datu hau nabarmenagoa da liburu saridunen multzoan. Izan ere, 1980ko hamarkadako liburuen erdian baino gehiagotan semea etxean ageri da (% 58.6), 2013an datu hori murriztu egiten da liburuen % 47.3ra eta liburu saridunetan semearen etxeko presentzia asko jaisten da, liburuen laurdenetan agertuz, hau da, liburuen % 26.3an.

Kasu honetan ikusten da berrikuntzak semea etxetik ateratzen duela, baina datu sexistatzat hartu ahal izateko alaben datuari erreparatu behar zaio.

1980 hamarkadan *alabak etxean* semeak baino presentzia txikiago duela ikus dezakegu, liburuen % 41.4an agertzen da alaba etxe barruan liburuaren momenturen batean. 2013an alabaren eta semearen presentzia nahiko parekoa da, alaba liburuen % 45.5an ageri da eta liburu saridunetan alabaren presentziak

Emaitzak: Pertsonaien ezaugarriei buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak

gora egiten du eta semearen bikoitza dela esan dezakegu, alegia, liburuen % 57.9an ageri da alaba etxe barruan.

1980ko hamarkadan askoz seme gehiago agertzen dira etxe barruan liburu hauetan mutilen presentzia neskena baino askoz handiagoa delako. Liburu saridunetan askoz alaba gehiago ageri dira etxe barruan multzo honetako liburuetan alaba gehiago daudelako. 2013. urtean zenbakiak nahiko parekatuak daude. Horrexegatik, neurri handi batean, gure 3.4 azpi-hipotesia bete egin dela esan dezakegu, 1980ko egoera desorekatua orekatu egin delarik.

Azkenik, hurrengo taulan *beste familiarren* presentzia aztertuko da.

56 Taula

Beste Familiarrak Etxean

Liburua		Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	52	% 74.3
	Agertzen da	12	% 17.1
	Guztira	64	% 91.4
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	49	% 89.1
	Agertzen da	2	% 3.6
	Guztira	51	% 92.7
Liburu sariduna	Ez da agertzen	15	% 78.9
	Agertzen da	4	% 21.1
	Guztira	19	% 100.0

Etxean *beste familiarrek* duten presentzia nahiko urria dela esan genezake. 1980ko hamarkadako liburuen % 17.1an beste familiarren bat ageri da etxe barruan, 2013an datu horrek behera egiten du nabarmen liburuen % 3.6ra jaitsiz eta liburu saridunetan, ordea, gora egiten du liburuen % 21.1era. Nahiz eta beste familiarren artean askotan izeba edo amona agertu, datu honek ez du gehiegirik adierazten, izan ere liburu askok ez dute azaltzen pertsona horiek zergatik agertzen diren etxean.

Lan honetako 3.5 azpi-hipotesian ospari dagokionez esaten dugu gaur egungo haur eta gazte literaturak 1980ko hamarkadako desoreka parekatzen duela. Izan

Emaitzak: Pertsonaien ezaugarriei buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak

ere, 1980ko hamarkadako corpusean oso emakume ospetsu gutxi aurreikusten dira eta gizon ospetsuak asko. Beraz, gaur egun ospeak presentzia txikiagoa izango due eta gainera, parekatuagoa izango da.

Hurrengo taulan (ikus. 57. taula) aztertutako hiru multzoetan *pertsonaia ospetsuen* (alkatea, presidentea, erregea, erregina...) datuak aurkeztuko dira.

57 Taula

Ospea

Liburua		Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	35	% 50.0
	Neskak	0	% 0
	Mutilak	34	% 48.6
	Biak	1	% 1.4
	Guztira	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	43	% 78.2
	Neskak	0	% 0
	Mutilak	9	% 16.4
	Biak	2	% 3.6
	Guztira	54	% 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	16	% 84.2
	Neskak	1	% 5.3
	Mutilak	2	% 10.5
	Biak	0	% 0
	Guztira	19	% 100.0

Ospeari dagokionez, bi sexuen artean alde handia ikus dezakegu, hala ere, liburu saridunetan bien artean alde txikiena agertzen da.

1980ko hamarkadako liburuetan neska ospetsuren bat liburuen % 1.4an identifikatua izan da eta mutil ospetsuren bat liburuen erdian (% 50.0). Gaur egun, ordea, ospeak ez du presentzia handirik euskal haur eta gazte literatura modernoan; 2013an neska ospetsuaren presentzia liburuen % 3.6ra mugatzen da eta mutil ospetsuren baten presentzia liburuen % 20an antzeman da. Liburu saridunetan, mutil ospetsuaren presentziak behera egiten jarraitzen du, kasu

Emaitzak: Pertsonaien ezaugarriei buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak

honetan 19 liburutik bitan agertzen delarik (% 10.5) eta multzo honetan aztertutako 19 liburuetatik neska ospetsuren baten presentzia identifikatzerako orduan, sexu honi dagokion ehunekoak gora egiten du % 5.3ra.


Ondorengo taulan bakarrik kontuan hartu dira ospea ageri dituzten liburuak.

58 Taula

Ospea Bakarrik Agertzen dituzten Liburuak (%)

	Emakumeak	Gizonak
1980ko hamarkada	% 3	% 100
2013. urtea	% 18	% 100
Liburu sariduna	% 33	% 66

Kontuan izanik bakarrik ospea ageri duten obrak ikusiko genuke 1980ko hamarkadako eta 2013ko liburu guztietan gizon ospetsuren bat ageri dela eta liburu saridunetan bere presentzia liburuen % 66ra jeisten dela. Emakume ospetsuaren presentzia 1980ko hamarkadan oso urria da, ospea agertzen den liburuen % 3an. 2013an presentzia honek gora egiten du liburuen % 18ra eta liburu saridunen herenera (% 33). Zentzu honetan grafikoa argigarria izan daitekeelakoan.



12 Irudia. Ospearen Bilakaera

Grafikoan joera baikorra antzematen da; liburuetan ospea agertzen denean, gero eta gehiagotan ikusten da emakume ospetsu bat eta gero eta gutxiagotan gizon ospetsu bat. Dena den, eta 1980ko hamarkadako desoreka gainditzen goazen arren, oraindik ere gizon ospetsu gehiago ageri dira emakumeak baino.

Datuek oraindik ere egoera guztiz parekidea erakusten ez duten arren, gure 3.5 azpi-hipotesia egiaztu dela esan daiteke. Izan ere, 1980ko hamarkadako desoreka handia murrizten doa mutil ospetsuaren presentziak behera egin izanagatik eta hau, berrikuntzat hartu genezake, hala ere, neska ospetsuen presentzia hain txiki izanik, ezin genezake hitz egin erabateko berdintasunaz.

3. hipotesi nagusiarekin amaitzeko 3.6 azpi-hipotesiari heldu diogu. Bertan honako hau esaten dugu: 1980ko hamarkadako corpusean etxetik kanpo lan egiten zuten emakume gehienak prestigio gutxiko jardunetan eta zaintzei lotutako lanbideetan (irakaslea, garbitzailea, zaintzailea, zerbitzaria) agertuko diren heinean, gaur egungo liburuetan, emakumearen lanbidea edozein izan daitekeelarik, emakumeen lanbideak ugariagoak, desberdinagoak eta prestigiotsuagoak izango dira: suhiltzailea, gidaria, ugazaba, presidentea, etab.

Emaitzak: Pertsonaien ezaugarriei buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak

Hortaz, pertsonaien ezaugarrietan berrikuntzarik antzeman den ikusteko lanbideak (ikusi II. eranskina) aztertu dira modu kuantitatiboan eta modu kualitatiboan. Atal honetan, sexu bakoitzean agertzen diren lanbideen aniztasuna aztertu da, lanbide horietatik zenbatek goi-mailako ikasketak behar dituzten, zeintzuk diren multzo bakoitzean sexu bietan maiztasun handienak dituzten lanbideak (ikusi III. eranskina) eta, azkenik, aztertu egin da zuzendarien eta jabeen kopuruak.

1980ko hamarkadan argitaratuak izan diren liburuak aztertzerako orduan, gizonak 210 lanbide desberdinetan identifikatuak izan dira (abokatuak, medikua, dendaria, polizia, irakaslea, ugazaba, arrantzalea, apaiza, soldadua...) eta emakumeak, ordea, 55 lanpostu desberdinetan (etxekoandrea, tailerreko langilea, andereñoa, erizaina, azafata, saltzailea, banatzailea, taxista...). Bi sexuen arteko aldea nabarmena dela esan genezake. Gainera, goi-mailako ikasketak behar dituzten lanbideak identifikatzerakoan aldea ere esanguratsua dela esan genezake, izan ere, gizonetan goi-mailako ikasketak eskatzen dituzten 31 lanpostu identifikatu dira (arkitektoa, abokatuak, medikua...) eta emakumeetan goi-mailako ikasketak behar dituzten 10 lanpostu antzeman dira (kazetaria, zientzialaria, ikertzailea...), gizonen lanpostuen herena hain zuzen ere.

Datuak era argiago batean ikusteko, hurrengo taula egiteko kontuan hartu dira 1980ko hamarkadako liburuetan emakumeek eta gizonek zenbat lan desberdin egin dituzten eta horietatik goi-mailako ikasketak behar dituztenak.

59 Taula

1980ko hamarkadako Lanbideak eta Goi-Mailako Ikasketak

	LANBIDEAK (%)	GOI-MAILAKO IKASKETAK
EMAKUMEAK	55 (% 21)	10
GIZONAK	210 (% 79)	31

Beraz, 1980ko hamarkadako liburuetan gizonen lanbideak askoz anitzagoak izateaz gain, goi-mailako ikasketak behar dituzten lanen presentzia gizonetan ere askoz nabarmenagoa da.

Emaitzak: Pertsonaien ezaugarriei buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak

2013an bi sexuei dagozkion lanbideen datuak aztertzerako orduan desberdintasuna txikitu egin den arren, oraindik gizonena askoz anitzagoa eta prestigiotsuagoa dela antzeman da. Urte honetan gizona 114 lanbide desberdinetan identifikatua izan da (medikua, alkatea, udaltzain-burua, gidaria, idazlea...) eta emakumea 47 lanbidetan (irakaslea, udaltzaingoa, garbitzailea, presidenta, prostituta...). Goi-mailako ikasketak behar dituzten lanpostuei dagokionez, gizonetan 21 lanpostu antzeman dira (medikua, unibertsitateko irakaslea, epailea, bankaria...) eta emakumeetan 13 (zientzialaria, psikologoa, abokatua, unibertsitateko irakaslea...). Horren ondorioz, esan dezakegu 1980ko hamarkadatik gaur egunera lanbideei dagokionez berrikuntza egon den arren, bi sexuen artean dagoen desberdintasuna ez dela desagertu. Atal hau ez denez parekatu egindako ahalegina ez dela nahikoa izan esan dezakegu.

Hurrengo taula egiteko kontuan hartu dira 2013ko liburuetan emakumeen eta gizonen lan desberdinak eta horietatik goi-mailako ikasketak behar dituztenak.

60 Taula

2013. urteko Lanbideak eta Goi-Mailako Ikasketak

	LANBIDEAK (%)	GOI-MAILAKO IKASKETAK
EMAKUMEAK	47 (% 29)	13
GIZONAK	114 (% 71)	21

2013an 1980ko hamarkadako desoreka txikiagoa den arren, oraindik ere gizonen lanak anitzagoak dira eta gainera, lan horietan goi-mailako ikasketen beharra duten lanak gehiago dira.

Halaber, liburu saridunetan bi sexuen arteko aldea txikiagoa den arren, gizonena oraindik ere anitzagoa dela eta baita prestigiotsuagoa dela ere esan dezakegu. Liburu multzo honetan gizona 41 lanpostu desberdinetan identifikatua izan den bitartean (mezularia, polizia, musikaria, ministroa...), emakumea gizonekin alderaturik gutxi gorabehera erdian, hots, 22 lanpostutan (polizia, idazkaria, saltzailea, irakaslea...). Goi-mailako ikasketako lanpostuak aztertuz, gizona 8 lanpostutan ikusi izan da (abokatua, kazetaria, medikua, ingeniaria...) eta

Emaitzak: Pertsonaien ezaugarriei buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak

emakumea kopuru horren erdian: 4 lanpostutan (abokatua, forensea, irakaslea eta erizaina). Multzo honetan ere berrikuntza sumatzen den arren, datuak ez direla parekideak nabarmendu daiteke.

Datuak era argiago batean ikusteko, hurrengo taula egiteko kontuan hartu dira liburu saridunetako emakumeek eta gizonen zenbat lan desberdin egin dituzten eta horietatik goi-mailako ikasketak behar dituztenak.


61 Taula

Liburu Saridunetako Lanbideak eta Goi-Mailako Ikasketak

	LANBIDEAK (%)	GOI-MAILAKO IKASKETAK
EMAKUMEAK	22 (% 34)	4
GIZONAK	41 (% 66)	8

Aurreko bi multzoetan geratu den bezala, liburu saridunetan ere gizonen lanbideak anitzagoak dira eta goi-mailako ikasketak behar dituzten lanen presentzia ere handiagoa da. Dena den, aurreko multzoetako desoreka handia murrizten doa, beraz, joera baikorra den arren, oraindik jokabide sexista nabari da.

Hau guztia era argiago batean ikusteko, hurrengo grafikoan kontuan hartu dira 1980ko hamarkadan, 2013an eta liburu saridunetan identifikatu diren emakumeen eta gizonen lanbide guztien banaketan ehunekoak (ikus. 13. irudia).



13 Irudia. 1980ko hamarkadan, 2013an eta Liburu Saridunetan Sexu Bakoitzean Lanbide desberdinen presentzia

Aztertutako liburuetan, 1980ko hamarkadatik gaur egunera arte lan munduan emakumeek gero eta pisu gehiago dutela antzematen den arren, oraindik datua ez da parekidea. 1980ko hamarkadako liburuetan identifikatu diren lan guztien % 21a emakumeenak dira, 2013an kopurua hori handitu egiten da % 29ra arte eta liburu saridunetan oraindik ere datu hori handiagoa da (% 34). Hala ere, irudi honetan aztertutako hiru multzoetan gizonen lanak emakumeen lanak baino ugariagoak direla ikusten da.

Orain, aztertutako multzo bakoitzean, sexu bakoitzean gehien agertzen diren lanbideak zehaztuko dira.

1980ko hamarkadako corpusean hauek dira gizonetan gehien errepikatzen diren lanbideak: gizon polizia 21 liburutan agertzen da, irakaslea 18 liburutan, apaiza eta medikua 16 liburutan, alkatea eta zerbaiten jabea izatea 14 liburutan. Emakumeetan maiztasun handiena erakutsi duten lanbideak, berriz, hauek dira: emakume irakaslea 21 liburutan agertzen da, neskame eta etxeko lanak egiten beste 21 liburuetan, saltzailea 10 liburuetan eta erizaina sei liburutan. 1980ko hamarkadan desberdintasun eza begi-bistakoa da.

Hurrengo taulan, 1980ko hamarkadako datuak era argiago batean ikusteko aukera izango dugu (ikus. 62.taula). Ehunekoek adierazten dute hamarkada

Emaitzak: Pertsonaien ezaugarriei buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak

honetako liburu guztietatik zenbatetan agertu diren lanbide horiek sexu bakoitzean.

62 Taula

1980ko hamarkadan Gehien Errepakitzen diren Lanbideak

EMAKUMEAK (liburu kopuruak)	Ehunekoak (%)	GIZONAK (liburu kopuruak)	Ehunekoak (%)
Irakaslea (21 liburu)	% 30.0	Polizia (21 liburu)	% 30.0
Neskamea (21 liburu)	% 30.0	Irakaslea (18 liburu)	% 25.7
Saltzailea (10 liburu)	% 14.2	Medikua eta apaiza (16 liburu)	% 22.8
Erizaina (6 liburu)	% 8.5	Alkatea eta jabea (14 liburu)	% 20.0

2013an argitaratuak izan diren liburuetan honako datuak antzeman dira: gizon alkatea eta polizia bederatzi liburutan, irakaslea zazpi liburutan, zerbitzaria eta medikua sei liburutan. Emakumeetan gehien errepikatzen den lanpostua irakaslearena da 10 liburutan, ondoren tabernaria bost liburutan eta neskamea eta kazetaria lau liburutan. Urte honetan ere, berrikuntza igartzen den arren, mutilei eta neskei ez zaizkiela aukera eta eredu berdinak ematen ikus dezakegu.

Hurrengo taulan, 2013. urteko datuak era argiago batean ikusteko aukera dago. Horretarako, lanbide bakoitza urte honetako zenbat liburuetan agertzen den kontuan hartu da eta jarraian, ehunekoak kalkulatu dira. Ehunekoek adierazten dute urte honetako liburu guztietatik zenbatetan agertu diren lanbide horiek sexu bakoitzean.

63 Taula

2013. urtean Gehien Errepakitzen diren Lanbideak

EMAKUMEAK (liburu kopuruak)	Ehunekoak (%)	GIZONAK (liburu kopuruak)	Ehunekoak (%)
Irakaslea (10 liburu)	% 18.1	Alkatea eta polizia (9 liburu)	% 16.3
Tabernaria (5 liburu)	% 9.0	Irakaslea (7 liburu)	% 12.7
Neskamea eta kazetaria (4 liburu)	% 7.2	Zerbitzaria eta medikua (6 liburu)	% 10.9

Hauek dira sarituak izan diren liburuetan maiztasun handiena erakutsi duten lanbideak: gizon dendaria da gehien errepikatzen dena, bost liburutan agertzen delarik, gero musikaria eta soldadua hiru liburutan eta bi liburutan medikua, irakaslea eta zientzialaria. Emakumeetan gehien errepikatzen dena irakaslea da, sei liburutan agertzen delarik, saltzailea bost liburutan eta garbitzailea hirutan. Liburu saridunetan ere lanpostuei dagokionez eman den berrikuntza berdintasunerako nahiko ez dela antzematen da.

Hurrengo taulan, liburu saridunetan gehien errepikatzen diren lanbideen datuak era argiago batean ikusteko aukera dago:


64 Taula

Liburu saridunetan Gehien Errepakitzen diren Lanbideak

EMAKUMEAK (liburu kopuruak)	Ehunekoak (%)	GIZONAK (liburu kopuruak)	Ehunekoak (%)
Irakaslea (6 liburu)	% 31.5	Dendaria (5 liburu)	% 26.3
Saltzailea (5 liburu)	% 26.3	Musikaria eta soldadua (3 liburu)	% 15.7
Garbitzailea (3 liburu)	% 15.7	Medikua, irakaslea eta zientzialaria (2 liburu)	% 10.5

Bukatzeko, hiru multzoetan beste azter-unitate bi azalduko dira: negozio baten jabea izateari eta zuzendaria izateari erreparatuko zaio.


Hurrengo irudian 1980ko hamarkadako zenbat liburutan identifikatu diren gizon eta emakume jabeak ikus daiteke eta baita zenbat liburutan identifikatu diren gizon eta emakume zuzendariak ere.



14 Irudia. 1980ko hamarkadako Liburuetan Jabeen eta Zuzendarien Presentzia

1980ko hamarkadan gizonak negozio baten jabe gisa 17 liburutan ageri dira eta emakumeak hirutan. Halaber, hamarkada honetan zuzendari postuetan ere alde nabarmena antzeman da, izan ere, 11 gizonezko zuzendari identifikatu dira eta emakume bakarra. Hamarkada honetan azter-unitate hauei dagokionez egoera desorekatuta dagoela ikus dezakegu.

Hurrengo irudian ikus dezakegu 2013ko zenbat liburutan identifikatu diren gizon eta emakume jabeak eta baita ere zenbat liburutan identifikatu diren gizon eta emakume zuzendariak.



15 Irudia. 2013. urteko liburuetan jabeen eta zuzendarien presentzia

Bestalde, 2013an datuak parekatuagoak direla ikus dezakegu; gizon jabea birritan identifikatua izan den bitartean emakumea behin eta zuzendaritzari dagokionez, gizona hiru liburutan antzeman da eta emakumea behin bakarrik. Kasu honetan, antzematen den berrikuntza berdintasunerantz hurbiltzen gaituela esan dezakegu, hala ere, oraindik ez da nahikoa.

Hau guztia dela eta, lanbideei dagokionez esan dezakegu gure 3.6 azpi-hipotesia neurri handi batean egiaztatu dela. Izan ere, 1980ko hamarkadako euskal haur eta gazte literaturak erakusten duen desberdintasun egoera gaur egun murriztu egin da, pertsonaien ezaugarri hauetan nolabaiteko berrikuntza sumatuz. Alde batetik, jabeen eta zuzendarien presentzia zerbait parekatu da. Bestetik, aniztasunari dagokionez, 1980ko hamarkadan ikusten den desberdintasuna gutxitu egin da, baina kopuruei erreparatuz oraindik ere gizonetan anitzagoak izaten dira lanbideak.

Errepikapenei dagokienez, hainbat estereotipo errepikatzen direla esan dezakegu; 1980ko hamarkadako liburuetan emakumeei atxikitzen zaizkien lanbide errepikatuenak irakaslea, neskamea eta saltzailea izatea badira, 2013. urtean irakaslea, tabernaria eta neskamea dira; liburu saridunetan irakaslea, saltzailea eta garbitzailea direlarik.

Emaizak: Pertsonaien ezaugarriei buruzko berrikuntzei dagozkion emaitzak

Laburbilduz, eta gure 3. hipotesi nagusiari helduz, atal honetan agertu diren datuetan oinarriturik, hipotesia egiaztatu dela baieztatu dezakegu. Izan ere, 1980ko hamarkadako euskal haur eta gazte literaturako pertsonaiekin alderatuz gaur egungo irudien ezaugarrietan berrikuntza nabarmenak eman dira: sinbologia sexista gutxiago agertzen da, emakumearen aisialdia aberatsagoa da eta ia-ia gizonen parekoa, etxean aitek, amek, semeek eta alabek duten presentzia nahiko orekatua da eta emakumeen lanbideak ugariagoak eta desberdinagoak dira.

VII.4 Parekidetasunari dagozkion emaitzak

Gure iritziz, gaur egungo haur eta gazte literaturan egiten diren pertsonaien deskribapenak osoagoak eta parekideagoak izango dira, baita pertsonaien nortasuna eta aberastasunen banaketa ere parekideagoa izango da. Horrela adierazi dugu 4. hipotesi nagusian.

Atal honetan, egileek liburuan zehar egiten dituzten deskribapenak nolakoak diren adieraziko da: neska eta mutilak deskribatzeko ezaugarri fisikoak, psikologikoak eta trebetasunak erabiltzen diren datuak aurkeztuko dira. Horrela jakingo da pertsonaiak deskribatzeko orduan parekidetasunean oinarritzen diren edo ez. Ondoren, nortasunari buruzko datuak ikusiko dira (salbatzailea, arazoak gainditzen dituen, menpekotasuna, autonomia, erabakiak hartzen dituen eta indarkeriaren erabilera nori dagokio). Azkenik, aberastasunaren eta pobreziaren banaketa aztertuko da, hots, aukera izango dugu ezagutzeko nor ageri den diru askorekin eta diru gutxirekin. Hurrengo 3 azpi-hipotesiei esker jakingo dugu corpusean parekidetasunaren inguruan formulatu dugun laugarren hipotesia baieztatzen den edo ez.

Hasteko, deskribapenetan ageri diren ezaugarri motekin hasiko gara neskak eta mutilak desberdin deskribatzen diren ala ez ikusi ahal izateko. Gure 4.1 azpi-hipotesian esaten dugu gaur egungo haur eta gazte literaturak eskaintzen dituen deskribapenak 1980ko hamarkadakoak baino parekideagoak direla, alegia, mutilen eta nesken ezaugarri fisikoei, psikologikoei eta trebetasunei antzeko garrantzia emango zaiela. Izan ere, ezaugarri fisikoek emakumeengan mutilengan baino askoz pisu handiagoa izatea ez litzateke parekidetasuna izango ezta gizonen trebetasunak nesken trebetasunak baino askoz aipatuagoak izatea ere. Hona hemen aztertutako hiru multzoetako deskribapenetan identifikatu diren datuak (ikus 65.taula).

65 Taula

Ezaugarri Fisikoak, Psikologikoak eta Trebetasunak Deskribapenetan

	Liburua					
	1980ko hamarkadako		2013. urtean argitaratutakoa		Liburu sariduna	
	N	Maiztasuna	N	Maiztasuna	N	Maiztasuna
	Balio	(%)	Balio	(%)	Balio	(%)
Nesken_fisikoak	70	39 (% 55)	52	28 (% 53)	19	9 (% 47)
Mutilen_fisikoak	70	53 (% 75)	51	22 (% 43)	19	11 (% 57)
Nesken_ezaugarri_psikologikoak	70	28 (% 40)	52	22 (% 42)	19	7 (% 36)
Mutilen_ezaugarri_psikologikoak	70	49 (% 70)	51	27 (% 52)	19	9 (% 47)
Nesken_trebetasunak	70	9 (% 12)	52	10 (% 19)	19	3 (% 15)
Mutilen_trebetasunak	70	41 (% 58)	51	13 (% 25)	19	10 (% 52)

Goiko taula honetan, egileek euskal haur eta gazte literaturako liburuetan (1980ko hamarkadan, 2013. urtean eta liburu saridunetan) neskei eta mutilei egiten dizkieten deskribapenetan zer ezaugarri mota aipatzen dituzten antzeman daiteke, hau da, ezaugarri fisikoen, ezaugarri psikologikoen eta trebetasunen presentzia ikus ditzakegu.

1980ko hamarkadako 70 liburuetatik 39tan agertzen dira (% 55) *nesken ezaugarri fisikoak*, ordea, *mutilen fisikoa* 53tan (% 75). 2013.urtean, aldiz, *nesken ezaugarri fisikoak* 52 liburuetatik 28tan agertzen dira (% 53) eta *mutilen ezaugarri fisikoak* 51tik 22tan (% 43). Bestalde, aztertutako 19 liburu saridunetan, 9 liburuetan ageri dira *nesken ezaugarri fisikoak* (% 47) eta *mutilenak* 11 aldiz (% 57). 1980ko hamarkadan pertsonaien artean askoz mutil gehiago daudenez mutilen ezaugarri fisikoek presentzia handiagoa dute. 2013an nesken ezaugarri fisikoak presentzia handiagoa du eta liburu saridunetan mutilen ezaugarri fisikoak, hala ere, azken bi multzo hauetan datuak nahiko parekatuak agertzen dira, gure 4.hipotesia azter-unitate honetan egiaztatuz.

Ezaugarri fisikoekin alderatuz gero, ikus daiteke, *ezaugarri psikologikoen* presentzia orokorrean txikiagoa dela. 1980ko hamarkadako 70 liburuetatik 28tan ageri dira (% 40) *nesken ezaugarri psikologikoak* eta 49 liburuetan agertu dira

mutilen ezaugarri psikologikoak (% 70). 2013. urtean, berriz, maiztasuna orekatuagoak ageri dira; *nesken ezaugarri psikologikoak* 52tik 22tan (% 42) eta *mutilenak* 51tik 27tan (% 52). 19 liburu saridunetan 7tan ageri dira *nesken ezaugarri psikologikoak* (% 19) eta 9tan *mutilenak* (% 25).

Hiru multzoetan mutilen ezaugarri psikologikoek pisu handiagoa dutela ikus daitekeen arren, gaur egun (2013 eta liburu saridunak) datuak parekatuak dira, modu honetan ere gure 4.hipotesia baieztatuz.

Trebetasunei dagokienez, 1980ko hamarkadan *nesken trebetasunak* oso gutxitan agertzen dira (% 12)) eta *mutilen trebetasunak*, ordea, sarri topatu daitezke (% 58)). 2013. urtean maiztasuna era orekatuago batean banatuta ageri dira; *nesken trebetasunak* 52 liburuetatik 10etan irakur daitezke (% 19) eta *mutilen trebetasunak* 51 liburuetatik 13tan (% 25). Liburu saridunetan berriz ere nesken eta mutilen trebetasunen artean desberdintasun handiak ikus daitezke, alegia, *nesken trebetasunak* 19 liburuetatik 3tan soilik ageri dira (% 15) eta *mutilenak* 19tik 10etan (% 52). 2013.urtean gure laugarren hipotesia egiaztatzen den arren, ezin daiteke esan gure hipotesia erabat egiaztatzen denik; izan ere, 1980ko hamarkadako liburuetan eta liburu saridunetan antzekotasun handia ikus daiteke sexuen arteko desberdintasunari dagokionez.

Halaber, bai 1980ko hamarkadako liburuetako deskribapenetan eta baita liburu saridunetan ere, mutilen fisikoen presentzia nagusi da eta nesken trebetasunak presentzia gutxien duen ezaugarria da. Bestalde, 2013. urtean emakumeen fisikoa da nagusi eta gutxien nesken trebetasunak.

Mutilen eta nesken deskribapenei dagokienez, mutilen ezaugarrien presentzia beti handiagoa da, 2013ko liburuetako ezaugarri fisikoetan izan ezik, non emakumeen ezaugarri fisikoak 28 liburutan agertzen diren (% 53) eta mutilen ezaugarri fisikoak 22 liburutan (% 43).

Nesken deskribapenei dagokienez, hiru multzo horietan (1980ko hamarkada, 2013. urtean eta liburu saridunetan) nesken ezaugarri fisikoak du presentzia handiena (1980ko hamarkadan 39 liburutan, 2013. urtean 28etan eta liburu

saridunetan 9), ondoren ezaugarri psikologikoak (28, 22 eta 10) eta azkenik, presentzia gutxien duena trebetasunak (9, 7 eta 3) dira. Ehunekoak erreparatzen badira, nesken/emakumeen deskribapenetako ezaugarri fisikoak 1980ko hamarkadako liburuen % 55ean ageri dira, 2013. urteko liburuen % 53an eta sarituak izan diren liburuen % 47an. Beherako joera leuna izan duela ikus daiteke. Deskribapenetan nesken ezaugarri psikologikoak 1980ko hamarkadako liburuen % 40an ageri dira, 2013ko liburuen % 42an eta liburu saridunen % 36an ageri dira. Azkenik, nesken trebetasunei dagokienez, 1980ko hamarkadako liburuen % 12an ageri dira, 2013. urteko liburen % 19an eta liburu saridunen % 15an ageri dira. Hortaz, nesken trebetasunek oso presentzia urria dutela esan daiteke.

Mutilen deskribapenei dagokienez, maiztasuna parekatuago agertzen da: 1980ko hamarkadan mutilen ezaugarri fisikoak (53) du presentzia handien, gero ezaugarri psikologikoak (49) eta azkenik, mutilen trebetasunak (41). 2013. urteko liburuetan, mutilen ezaugarri psikologikoek (27) dute presentziarik handiena, bigarren, ezaugarri fisikoak (22) eta hirugarrenik, mutilen trebetasunak (13). Liburu saridunetan, presentzia handien duena mutilen ezaugarri fisikoak dira (11), ondoren, mutilen trebetasunak (10) eta azkenik, mutilen ezaugarri psikologikoak (9). Ehunekoak aztertuz gero, mutilen/gizonen deskribapenetako ezaugarri fisikoak 1980ko hamarkadako liburuen % 75an ageri dira, 2013. urteko liburuen % 43an eta liburu saridunen % 57an. Kasu honetan ere beherako joera leuna antzematen da. deskribapenetan mutilen ezaugarri psikologikoak 1980ko hamarkadako liburuen % 70ean ageri dira, 2013ko liburuen % 52an eta liburu saridunen % 47an ageri dira. Bukatzeko, mutilen trebetasunei dagokienez, 1980ko hamarkadako liburuen % 58an ageri dira, 2013. urteko liburuen laurdenean (% 25) eta liburu saridunen % 52an. Beraz, eta neskekin gertatzen ez den bezala, mutilen trebetasunek pisu handia dutela esan daiteke.

1980ko hamarkadan mutilen deskribapenek toki gehiago hartzen dute, ziur aski multzo honetan mutilen presentzia askoz handiagoa delako. 2013an neskak eta mutilak era nahiko parekatuan deskribatzen direla esan dezakegu. Liburu saridunetan mutilen eta nesken ezaugarri fisikoak eta ezaugarri psikologikoak era nahiko parekatuan agertzen dira, baina trebetasunei dagokionez, mutilen eta

nesken artean multzo honetan desberdintasuna ikus dezakegu; mutilen trebetasunek presentzia handia duten bitartean nesken trebetasunek presentzia urria erakusten dute. Modu honetan 1980ko hamarkadako egoera desorekatua errepikatzen delarik. Badirudi garrantzi handiagoa ematen zaiela mutilen trebetasunei neskenei baino.

Hurrengo tauletan, gure 4.1 azpi-hipotesiari erantzuna eman ahal izateko, modu zehatzago batean ikusiko ditugu nesken fisikoa, mutilen fisikoa, nesken ezaugarri psikologikoak, mutilen ezaugarri psikologikoak, nesken trebetasunak eta mutilen trebetasunak liburuetan duten presentzia ehunekoetan eta kopuruetan. Hona hemen deskribapenetan neska eta mutilen *fisikoa* agertzen den edo ez dagokion taula eta azterketa.

66 Taula

Mutilen eta Nesken Ezaugarri Fisikoen Agerpena

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadako	Ez da agertzen	17	% 24.3	31	% 44.3
	Agertzen da	53	% 75.7	39	% 55.7
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	29	% 52.7	24	% 43.6
	Agertzen da	22	% 40.0	28	% 50.9
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	8	% 42.1	10	% 52.6
	Agertzen da	11	% 57.9	9	% 47.4
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Ehunekoei erreparatuz, ezaugarri fisikoei dagokionez, 1980ko hamarkadako liburuen erdian baino gehiagotan *nesken ezaugarri fisikoak* agertzen dira (% 55.7) eta *mutilen ezaugarri fisikoak*, aldiz, liburu gehienetan irakur daitezke (% 75.7).

2013. urtean datu horiek orekatu direla ikus genezake. *Nesken ezaugarri fisikoak* liburuen erdian ageri dira (% 50.9) eta *mutilen ezaugarri fisikoak* aztertutako liburuen erdian baino gutxiagoan ageri dira (% 40).

Bestalde, liburu saridunetan gure hipotesia baieztatu egiten da; *nesken ezaugarri fisikoen* presentzia ez da erdira ailegaten (% 47.4), gero eta garrantzia gutxiago dutelarik nesken ezaugarri fisikoak aipatzeak. *Mutilen ezaugarri fisikoen* kasuan aztertutako liburuen erdian baino gehiagoan topa ditzakegu (% 57.9).

Hurrengo taulan, deskribapenetan pertsonaien *ezaugarri psikologikoak* agertzen diren edo ez ikus dezakegu.

67 Taula

Mutilen eta Nesken Ezaugarri Psikologikoen Agerpena

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	21	% 30.0	42	% 60.0
	Agertzen da	49	% 70.0	28	% 40.0
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	24	% 43.6	30	% 54.5
	Agertzen da	27	% 49.1	22	% 40.0
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	10	% 52.6	12	% 63.2
	Agertzen da	9	% 47.4	7	% 36.8
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Aztertutako hiru multzoetan (1980ko hamarkada, 2013. urtean eta liburu saridunak) *ezaugarri psikologikoei* dagokionez, *nesken* kasuan gehiagotan ez dira liburuetan agertzen, aipatzen direnak baino; liburuen erdian baino gehiagotan ez dira nesken ezaugarri psikologikoak aipatzen: 1980ko hamarkadako corpusean % 60an ez dira ageri, 2013. urtekoan % 54.5ean ez dira ageri eta liburu saridunetan % 63.2an ez dira ageri.

Mutilei dagokienez, 1980ko hamarkadan ezaugarri psikologikoen presentzia oso handia da (% 70) eta 2013. urtean eta liburu saridunetan ez da erdira ailegutzen, % 49.1 eta % 47.4, hurrenez hurren. Esan daiteke mutilen maiztasuna orekatuagoa dela, hala ere, liburu saridunetan eta 2013an ez da desberdintasun esanguratsurik ikusten.

Hurrengo taulan, deskribapenetan pertsonaien *trebetasunak* agertzen diren edo ez ikus dezakegu.

68 Taula

Mutilen eta Nesken Trebetasunen Agerpena

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	29	% 41.4	61	% 87.1
	Agertzen da	41	% 58.6	9	% 12.9
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	38	% 69.1	42	% 76.4
	Agertzen da	13	% 23.6	10	% 18.2
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	9	% 47.4	16	% 84.2
	Agertzen da	10	% 52.6	3	% 15.8
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Deskribapenetan *nesken trebetasunak* aipatzeari dagokionez ez da apenas aldaketarik egon 1980ko hamarkadatik gaur egunera. 1980ko hamarkadako corpuseko % 87.1eko liburuetan ez badira deskribatzen, 2013. urtean liburuen % 76.4an ez dira aipatzen eta liburu saridunetan % 84.2an ez dira aipatzen nesken trebetasunak.

Mutilen trebetasunen presentzia handiagoa da eta gainera, *agertu* eta *ez agertu* artean ehunekoak parekatuagoak direla ikus dezakegu: 1980ko hamarkadako liburuetatik % 58.6an aipatzen dira mutilen trebetasunak eta ez dira agertzen % 41.4an, 2013. urtean agertzen dira liburuen % 23.6an eta ez dira agertzen %

69.1ean eta liburu saridunen % 52.6an agertzen dira mutilen trebetasunak eta ez dira agertzen % 47.4an.

Lehen aipatu dugun bezala, 2013.urteko datuak izan ezik, egoera desorekatua agertzen da 1980ko hamarkadako liburuetan eta saritutako liburuetan. Hau guztia dela eta, gure 4.1 azpi-hipotesia neurri handi batean bete egiten dela esan dezakegu. Izan ere, gaur egungo haur eta gazte literaturak deskribapen osoagoak eskaintzen ditu eta orokorrean parekideagoak. Hala ere, puntu beltza izan liteke liburu saridunetan nesken trebetasunak aipatzerako orduan ez dagoela apenas aldaketarik 1980ko hamarkadako datuekin alderatuz. Gainera, nahiz eta multzo honetan neska protagonista gehiago dauden mutilen trebetasunak askoz gehiagotan aipatzen dira, beraz, ezin dezakegu erabateko parekidetasunaz hitz egin.

Gure 4.2 azpi-hipotesian *nortasunari* erreparatu diogu. Gure ustez, 1980ko hamarkadako gaur eta gazte literaturan gizona heroia, autonomoa, arazoak gainditzen dituen, indarkeria erabiltzen duena eta erabakiak hartzen dituen den heinean, gaur egungo literaturan emakumeak ere rol hauek agertuko ditu.

Hurrengo taulan (ikus. 69. taula) *nortasunari* dagozkion ezaugarrien datuak ikus ditzakegu: zenbat liburutan agertzen den mutila eta neska salbatzailea, zenbat liburutan neskek eta mutilek gainditzen dituzten arazoak, mutil eta neska menpekoen kopurua, mutil eta neska autonomoak zenbat liburutan agertzen diren, nor den erabakiak hartzen dituen eta azkenik, nor erabiltzen duen indarkeria.

69 Taula

Nesken eta Mutilen Nortasunaren Ezaugarriak

	Liburua					
	1980ko hamarkadako		2013. urtean argitaratutakoa		Liburu sariduna	
	N	Maiztasuna	N	Maiztasuna	N	Maiztasuna
	Balio	(%)	Balio	(%)	Balio	(%)
Neska_salbatzailea	70	17	52	14	19	8
Mutil_salbatzailea	70	44	51	24	19	8
Neskak_arazoak_gainditu	70	24	52	25	19	10
Mutilak_arazoak_gainditu	70	46	51	24	19	7
Neska_menpekoa	70	46	52	34	19	10
Mutila_menpekoa	70	19	51	18	19	5
Neska_autonomoa	70	11	52	26	19	9
Mutila_autonomoa	70	54	51	37	19	7
Neskak_erabakiak_hartu	70	19	52	22	19	13
Mutilak_erabakiak_hartu	70	59	51	32	19	9
Neskak_indarkeria_erabiltzen	70	11	52	7	19	5
Mutilak_indarkeria_erabiltzen	70	37	51	15	19	7

1980ko hamarkadako liburuetan eta 2013. urtean argitaratutakoetan *mutil salbatzaile* gehiago agertzen diren bitartean, liburu saridunetan *mutil salbatzaile* eta *neska salbatzaileen* kopurua berdina da (bakoitza 8 liburuetan agertuz). 1980ko hamarkadako egoera desorekatu handia 2013an txikiagoa da eta liburu saridunetan erabat desagertzen da, parekidetasuna lortuz.

Arazoak gainditzeari dagokionez, 1980ko hamarkadan orokorrean *mutilak dira arazoak gainditzen* dituztenak (46 liburuetan) eta *neskak* 24etan. Gaur egungo liburuetan *neska* gehiagotan agertzen da *arazoak gainditzen* mutila baino: 2013.urtean 25 aldiz ageri da *neska arazoak gainditzen* eta *mutila* 24 aldiz. Gainera, liburu saridunetan desberdintasuna nabarmenagoa da; *neskak* 10 liburuetan agertzen dira *arazoak gainditzen* eta *mutilak* 7 aldiz. *Arazoak*

gainditzeari dagokionez, 1980ko hamarkadan ez bezala, gaur egungo euskal haur eta gazte literatura egoera nahiko parekatua dela esan dezakegu.

Menpekotasunari dagokionez, hiru multzoetan *neska menpekoa* nagusi da: 1980ko hamarkadan, 46 liburuetan agertzen da *neska menpekoa* eta *mutila menpekoa* 19tan. 2013an datuak antzekoak dira; neska menpekoen kopurua ere ia bikoitza da (34 liburuetan neskak eta 18etan mutilak). Liburu saridunetan, *neska menpekoen* kopurua bikoitza da, 10 liburuetan eta mutilena, aldiz, bost liburuetan. Honen ondorioz, menpekotasunari dagokionez ez da egoera parekiderik ikusten.

Autonomiari dagokionez, *mutil autonomoa* 1980ko hamarkadan eta 2013an nagusi den bitartean, liburu saridunetan *neska autonomo* (9) gehiago ikus ditzakegu *mutilak* (7) baino. 1980ko hamarkadan neska autonomo gutxi agertzen dira euskal letretan, eta gaur egun gehiago agertzen direnez, ezaugarri honetan egoera parekatuagoa ikusten da.

Aurrekoarekin lotuta erabakiak hartzen dituzten pertsonaiak ditugu. Nahiz eta maiztasuna apur bat desberdinak diren arren, bilakaera antzeko da; 1980ko hamarkadan nagusi dira *erabakiak hartzen dituzten mutilak* (59) eta neskak 70 liburuetatik 19tan agertzen dira erabakiak hartzen. 2013. urtean ere nagusi dira erabakiak hartzen dituzten mutilak, baina maiztasuna parekatuagoak ageri dira: mutilak 51 liburuetatik 32etan agertzen dira eta neskak 52 liburuetatik 22tan. Liburu saridunetan, berriz, neska gehiago ageri dira erabakiak hartzen (13) mutilak baino (9).

Indarkeriaren erabilerari dagokionez, hiru multzoetan nagusi da mutilen kasuan. Aipagarria da 1980ko hamarkadan eta 2013. urtean indarkeria erabiltzen dituzten mutilen maiztasuna handiagoak diren heinean (1980ko hamarkadan 37 mutil eta 11 neska, 2013. urtean 15 mutil eta 7 neska), liburu saridunetan nahiko parekatuak daude (7 mutil eta 5 neska). Nahiz eta 1980ko hamarkadan indarkeria nagusiki mutilen rola izan, gaur egun datuak parekatu direla esan genezake.

4.2 azpi-hipotesiari erantzun osoagoa eman ahal izateko datu horiek banan-banan aztertuko dira maiztasunei eta ehunekoei erreparatuz, lehenengo *neska* eta *mutil salbatzaileei* buruzko taula ikus dezakegu.

70 Taula

Mutil eta Neska Salbatzaileak

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehunekoa	Maiztasuna	Ehunekoa
1980ko hamarkadako	Ez da agertzen	26	% 37.1	53	% 75.7
	Agertzen da	44	% 62.9	17	% 24.3
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	27	% 49.1	38	% 69.1
	Agertzen da	24	% 43.6	14	% 25.5
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	11	% 57.9	11	% 57.9
	Agertzen da	8	% 42.1	8	% 42.1
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

1980ko hamarkadatik gaur egunera *neska saltzailearen* presentzia handituz joan da: 1980ko hamarkadako liburuen % 24.3an ageri da, 2013.urteko liburuen % 25.5ean eta liburu saridunetan % 42.1ean. *Mutil salbatzaileen* presentzia, ordea, txikituz joan da: 1980ko hamarkadako liburuen % 62.9an ageri da, 2013. urtean ez da liburuen erdira ailegatzen (% 43.6) eta azkenik, liburu saridunen % 42.1ean agertzen da *mutil salbatzailea*. 1980ko hamarkadako desoreka gaur egun desagertu egin dela esan dezakegu.

Hurrengo taulan (ikusi 71.taula) *arazoak gainditzen* dituzten nesken eta mutilen presentzia aztertuko da.

71 Taula

Arazoak Gainditzen dituzte

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehuneakoak	Maiztasuna	Ehuneakoak
1980ko hamarkadakoak	Ez da agertzen	24	% 34.3	46	% 65.7
	Agertzen da	46	% 65.7	24	% 34.3
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoak	Ez da agertzen	27	% 49.1	27	% 49.1
	Agertzen da	24	% 43.6	25	% 45.5
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	12	% 63.2	9	% 47.4
	Agertzen da	7	% 36.8	10	% 52.6
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Arazoak gainditzen dituzten neskei dagokionez, 1980ko hamarkadatik gaur egunera eboluzioa antzeman daiteke. Izan ere, gaur egun arazoak gainditzen dituzten nesken presentzia handiagoa da: 1980ko hamarkadan ez da erdira ailegaten, liburuen % 34.3an agertzen da, 2013. urtean liburuen erdira hurbiltzen da (% 45.5) eta liburu saridunen erdian baino gehiagotan ageri da (% 52.6).

Arazoak gainditzen dituzten mutilei dagokionez, 1980ko hamarkadatik gaur egunera bere presentzia murriztu egin dela esan daiteke. 1980ko hamarkadako liburuen erdian baino gehiagotan agertzen da (% 65.7), 2013. urtean, erdian baino gutxiagotan (% 47.1) eta liburu saridunetan (% 36.8). Liburu saridunak eta 1980ko hamarkadakoak alderatuz gero nesken eta mutilen datuak inbertitu egin direla esan daiteke eta 2013. urtean datuak oso parekatuak direnez, egoera parekidea da

Taula honetan *menpekotasunari* dagozkion datuak ditugu ikusgai (ikus 72. taula).

72 Taula

Menpekotasuna

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehuneakoak	Maiztasuna	Ehuneakoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	51	% 72.9	24	% 34.3
	Agertzen da	19	% 27.1	46	% 65.7
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	33	% 60.0	18	% 32.7
	Agertzen da	18	% 32.7	34	% 61.8
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	14	% 73.7	9	% 47.4
	Agertzen da	5	% 26.3	10	% 52.6
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Neska menpekoari dagokionez, aztertutako hiru multzoetako liburuen erdian baino gehiagoetan ageri da. Baita ere esan daiteke, bere presentzia gero eta txikiagoa den arren, mutil menpekoa baino askoz gehiagoetan ageri dela. 1980ko hamarkadako corpuseko % 65.7an *neska menpekoa* ageri da eta *mutil menpekoa* % 27.1. 2013. urtean *neska menpekoa* liburuen % 61.8an ageri da eta *mutil menpekoa* % 35.3. Azkenik, liburu saridunetan *neska menpekoa* liburuen % 52.6an topatu daiteke eta mutila % 26.3an.

Datuak apur bat aldatu diren arren, ezin dezakegu parekidetasunaz hitz egin, izan ere, menpekotasunak nesketan presentzia handiagoa duela ikusten dugu. Hurrengo taulan *neska autonomoen* eta *mutil autonomoen* presentzia aztertuko da (ikus. 73.taula).

73 Taula

Autonomia

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	16	% 22.9	59	% 84.3
	Agertzen da	54	% 77.1	11	% 15.7
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	14	% 25.5	26	% 47.3
	Agertzen da	37	% 67.3	26	% 47.3
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	12	% 63.2	10	% 52.6
	Agertzen da	7	% 36.8	9	% 47.4
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Neska autonomoari dagokionez ere 1980ko hamarkadatik gaur egunera eboluzioa antzeman daiteke; 1980ko hamarkadako liburuen % 15.7an soilik agertzen da, 2013an ia liburuen erdian agertzen da (% 47.3) eta liburu saridunetan ere ehunekoa oso antzekoa da (% 47.4). Hala ere, oraindik liburu gehiagotan ez da agertzen *neska autonomia* agertzen dena baino.

Mutil autonomoen presentzia 1980ko hamarkadatik gaur egunera asko jaitsi da. Izan ere, 1980ko hamarkadako liburu gehienetan (% 77.1) *mutil autonomia* ageri da, 2013an ehunekoa apur bat murrizten da (% 67.3) eta aldaketa nabarmenena liburu saridunetan antzematen da, non *mutil autonomia* liburuen % 36.8an agertzen den.

Bai 1980ko hamarkadako liburuetan, zein 2013an argitaratutako liburuetan *mutil autonomoen* presentzia *neska autonomoen* presentzia baino askoz handiagoa da. Hala ere, liburu saridunetan *neska autonomoen* presentzia (% 47.4) *mutil autonomoen* presentzia (% 36.8) baino handiagoa da. Beraz, ezaugarri honi dagokion egoera parekatuz doala esan dezakegu.

Hurrengo taulan (ikus. 74.taula) neskek eta mutilek *erabakiak hartzen* agertzen dituzten datuak aurkeztuko dira.

74 Taula

Erabakiak Hartu

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehuneakoak	Maiztasuna	Ehuneakoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	11	% 15.7	51	% 72.9
	Agertzen da	59	% 84.3	19	% 27.1
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	19	% 34.5	30	% 54.5
	Agertzen da	32	% 58.2	22	% 40.0
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	10	% 52.6	6	% 31.6
	Agertzen da	9	% 47.4	13	% 68.4
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Taula hau autonomiaren taularekin lotuta dagoen arren, bilduta dauden datuak ez dira guztiz berdinak. Izan ere, liburu batean zehar erabaki garrantzitsu desberdinak daude eta denek ez dute bat egiten autonomiaren ezaugarriarekin. Hala ere, datuen bilakaera *erabakiak hartzen dituzten nesken eta mutilen artean* nahiko antzekoak diren.

1980ko hamarkadan *erabakiak hartzen dituzten neskak* nahiko gutxi dira (liburuen % 27.1), 2013an datua igotzen da % 40ra arte eta liburu saridunetan, aldiz, gehiago dira *erabakiak hartzen dituzten neskak mutilak baino* (% 68.4). Datuak nesken kasuan ia inbertitu egin direla aipatu daiteke.

Erabakiak hartzen dituzten mutilen artean prozesua alderantzizkoa izan dela baieztatu daiteke; 1980ko hamarkadan *erabakiak hartzen dituzten mutilak* nagusi dira (% 84.3), 2013ko liburuen erdian baino gehiago (% 58.2) eta liburu saridunetan, aldiz, erdia baino gutxiago (% 47.4).

1980ko hamarkadan eta 2013an argitaratutako liburuetan *erabakiak hartzen dituzten mutil* gehiago topatu daitezke neskak baino. Dena den, egoera hau ez da liburu saridunetan ematen, bertan *erabakiak hartzen dituzten neska* gehiago (%68.4) baitaude mutilak baino (% 47.4).


Hurrengo taulan neskek eta mutilek *indarkeria erabiltzen* agertzen dituzten datuak ikus ditzakegu.

75 Taula

Indarkeriaren Erabilera

Liburua		MUTILAK		NESKAK	
		Maiztasuna	Ehunekoak	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	33	% 47.1	59	% 84.3
	Agertzen da	37	% 52.9	11	% 15.7
	Guztira	70	% 100.0	70	% 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	36	% 65.5	45	% 81.8
	Agertzen da	15	% 27.3	7	% 12.7
	Guztira	51	% 92.7	52	% 94.5
Liburu sariduna	Ez da agertzen	12	% 63.2	14	% 73.7
	Agertzen da	7	% 36.8	5	% 26.3
	Guztira	19	% 100.0	19	% 100.0

Indarkeriaren erabilerari dagokionez, euskal haur eta gazte literatura modernoan askoz mutil gehiago agertzen dira indarkeria erabiltzen neskek baino. Hala ere, gaur egun bi sexuen arteko desberdintasuna ez da 1980ko hamarkadan bezain nabarmena.



Antzinako Greziako ipuintxo bat gauero (2013)

Indarkeria erabiltzen duten *neskei* dagokionez, 1980ko hamarkadako liburuen % 15.7an ikus daitezke, 2013an % 12.7an eta liburu saridunetan ehuneko hori ia bikoizten da (% 26.3).

Indarkeria erabiltzen duten *mutilei* dagokionez, 1980ko hamarkadako liburuen erdian baino gehiagotan ageri dira (% 52.9), 2013an kopuru hori ia erdira jaisten da (% 27.3) eta liburu saridunetan berriro gora egiten du maiztasuna % 36.8ra.

Horrela, gure 4.2 azpi hipotesiari dagokionez, esan behar dugu gaur egungo haur eta gazte literaturan emakumea heroia dela, arazoak gainditzen dituen, autonomoa dela eta erabakiak hartzen dituen dela. Joera hau gainera nabarmenagoa da liburu saridunetan. Azken multzo honetan ere gero eta indarkeria erabiltzen duten emakume gehiago agertzen dira, hala ere, indarkeriaren erabilerari dagokionez, mutilak dira nagusi. Nahiz eta azpi-hipotesi honetako joera orokorrean baikorra den eta 1980ko hamarkadako desoreka desgertzen duen parekidetasunaren mesedetan badago datu ezkor bat: oraindik ere menpekotasuna nagusiki nesken ezaugarria dela dirudi. Zorionez datu hau ez da 1980ko hamarkadan bezain nabarmena.

Bukatzeko, laugarren hipotesi nagusiari erantzuteko azken azpi-hipotesi bat daukagu, gure 4.3 azpi-hipotesia hain zuzen ere. Bertan, 1980ko hamarkadan aberastasunaren banaketa ez parekidea aurreikusten genuen, eta gaur egungo literaturan, ordea, aberastasunaren eta txirotasunaren banaketa parekatuagoa.

Hurrengo tauletan aztertutako hiru multzoetan bi sexuetan diruaren banaketa ikus ditzakegu; lehenengo, aberastasun (*diru asko*) handien banaketa ikusiko dugu (ikus. 76.taula) eta ondoren, txirotasunaren (*diru gutxi*) banaketa (ikus 78.taula).

76 Taula

Diru Asko

Liburua	Maiztasuna	Ehunekoak
Ez da agertzen	30	% 42.9
1980ko Neskak	0	% 0
hamarkadako Mutilak	38	% 54.3
Biak	2	% 2.9
Guztira	70	% 100.0
Ez da agertzen	42	% 76.4
2013. urtean Neskak	1	% 1.8
argitaratutakoa Mutilak	8	% 14.5
Biak	3	% 5.5
Guztira	54	% 98.2
Ez da agertzen	14	% 73.7
Liburu sariduna Neskak	0	% 0
Mutilak	5	% 26.3
Biak	0	% 0
Guztira	19	% 100.0

Diru ugaritasunaren banaketari dagokionez, ikus dezakegu hiru multzoetan aberastasunak mutiletan presentzia handiagoa duela nesketan baino, gainera, desberdintasuna handia dela baieztatu dezakegu. Dena den, 1980ko hamarkadan diru asko izateak askoz presentzia handiago du beste bi multzoetan baino.

1980ko hamarkadako corpusean *mutilak* diru askoren jabe agertzen dira liburuen erdian baino gehiagotan (% 57.2), *neska* aberatsak, aldiz, liburuen % 2.9an. Beraz, desberdintasuna oso handia da eta ez dago orekatua. 2013an, *mutil* aberatsen presentziak behera egiten du liburuen % 20ra eta *neska* aberatsen presentziak gora liburuen % 7.3ra. Liburu saridunetan, ordea, ez da *neska* aberatsik identifikatu eta *mutil* aberatsak liburuen % 26.3an identifikatua izan da.


Hurrengo taulan ikusiko dugu nola liburuetan aberastasuna agertzen den bakoitzean, ia beti gizon dirudunen bat agertzen dela eta emakume aberatsen bat oso gutxitan.

77 Taula

Aberastasuna Bakarrik Agertzen dituzten Liburuak (%)

	Emakumeak	Gizonak
1980ko hamarkada	% 5	% 100
2013. urtea	% 33	% 92
Liburu sariduna	% 0	% 100

Goiko taulan aberastasunen banaketari dagokionez, 1980ko hamarkadako egoera eta liburu saridunetako egoera nahiko antzekoa eta desorekatua dela ikus daiteke. Izan ere, bi multzo hauetan aberastasuna agertzen bada gizon dirudunen bat agertuko da (% 100) eta emakume dirudunen bat liburuen %5ean. Liburu saridunetan aberastasuna identifikatu den liburuetan ez da emakume aberatsik antzeman. 2013an egoera parekideagoa da aberastasuna ageri duten liburuen herenean (% 33) emakume dirudunen bat ageri delako eta gizon aberatsen bat liburuen % 92an. Egoera hauek argiago ikusteko hurrengo grafikoa lagungarria izan daiteke (ikus. 17.Irudia).



16 Irudia. Aberastasunak Sexuetan izan duen Bilakaera

Goiko irudiak erakusten digu egoera desorekatu bat; izan ere, gizonetan aberastasunak duen presentziak ez du apenas aldaketarik erakusten, hau da, haur eta gazte literaturako liburuetan aberastasuna agertzen denean ia ziurra da gizon aberatsen bat egotea. Bestalde, emakume aberatsen presentziak 2013an gora egin duen arren, 1980ko hamarkadan eta liburu saridunetan ia hutsala da. Hortaz, esan genezake nahiz eta diru askoren presentziak indarra galdu duen euskal haur eta gazte literatura modernoan 1980ko hamarkadatik gaur egunera, diruaren banaketa ez dela bat ere parekatua.

Bestalde, 78. taula antolatu da euskal haur eta gazte literaturan *txirotasunaren* banaketa norekin harremantzen den ikusteko.

78 Taula

Diru Gutxi

Liburua	Maiztasuna	Ehunekoak
1980ko hamarkadakoa	Ez da agertzen	44 % 62.9
	Neskak	9 % 12.9
	Mutilak	5 % 7.1
	Biak	12 % 17.1
	Guztira	70 % 100.0
2013. urtean argitaratutakoa	Ez da agertzen	44 % 80.0
	Neskak	2 % 3.6
	Mutilak	6 % 10.9
	Biak	2 % 3.6
	Guztira	54 % 98.2
Liburu sariduna	Ez da agertzen	16 % 84.2
	Neskak	1 % 5.3
	Mutilak	0 % 0.0
	Biak	2 % 10.5
	Guztira	19 % 100.0

Bi sexuei dagokionez txirotasunaren banaketa aberastasunaren banaketa baino parekatuago dela ikus dezakegu. Baita ere, 1980ko hamarkadatik gaur egunera *diru gutxi* izatearen presentziak bi sexueta behera egin du.

1980ko hamarkadako euskal haur eta gazte literatura modernoan liburu gehiagotan ageri dira diru gutxi duten neskak mutilak baino. Liburuen % 30an *neska txiroren bat* agertzen den bitartean, *mutil txiroa* liburuen % 24.an antzeman izan da. Ehunekoak nahiko antzekoak diren arren, kontuan izan behar da hamarkada honetan askoz mutil gehiago agertzen direla liburuetan neskak baino, hortaz, datuek engaina gaitzakete.

2013an, ordea, mutil txiroaren presentzia neska pobrearena baino handiago dela ikus dezakegu. Datuei erreparatuz, liburuen % 14.5an *mutil txiroren bat* identifikatua izan eta *neska txiroaren* presentzia kopuru horren erdia da, hots, liburuen % 7.2an.

Liburu saridunetan berriz ere neska txiroaren presentzia handiagoa da mutil pobrearena baino, hala ere, ez da diferentzia esanguratsurik antzeman. Datuei dagokionez, aztertutako liburuen % 15.8an diru gutxi duen *neskaren bat* antzeman da eta diru gutxi duen *mutila* liburuen % 10.5ean.

Horrenbestez, esan dezakegu euskal haur eta gazte literatura modernoan txirotasunaren presentzia nahiko parekidea dela eta gainera, 1980ko hamarkadatik gaur egunera bide horretan eboluzionatu egin duela.

Bestalde, aberastasunen banaketan ez da parekidetasunik somatu. Nahiz eta 2013an datuen artean ez egon desberdintasun nabarmenik, 1980ko hamarkadako liburuetan eta baita liburu saridunetan ere bi sexuen arteko datuak ez dira bat ere parekideak, beti ere aberastasunak mutiletan askoz presentzia handiagoa duelarik.

Horrexegatik, esan dezakegu gure 4.3 azpi-hipotesia erdizka egiaztatu dela; alde batetik, guk aurreikusten genuen gaur egungo haur eta gazte literaturan aberastasunaren banaketa parekidea emango zela eta datuek erakutsi digute hau oraindik ez dela betetzen. Bestalde, txirotasunaren banaketa nahiko parekidea dela ikusi ahal izan dugu.

Laburpena

Hiru azpi-hipotesi hauetan ikusitakoaren arabera, honako hau ondoriozta daiteke. Gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan egiten diren pertsonaien deskribapenak osoagoak eta parekideagoak dira, hala ere, faltan botatzen da

nesken trebetasunak mutilen trebetasunen pare egotea, bereziki liburu saridunetan. Baita ere baieztatu izan ahal dugu emakumeak rol berriak hartu dituela, besteak beste, heroia izatea, autonomia izatea, erabakiak hartzen dituen izatea, arazoak gainditzen dituen izatea eta neurri txikiago batean indarra erabiltzen duena. Hala ere, atal honetan ere beste puntu beltz bat identifikatu da: menpekotasuna oraindik ere nagusiki emakumeen ezaugarri gisa. Bukatzeko, txirotasunaren banaketa nahiko parekidea den arren, ikusi dugu oraindik aberastasunaren banaketa ez dela parekidea, izan ere, nagusiki mutilei lotzen den ezaugarri gisa agertzen delako.

Hau guztia dela eta, gure 4. hipotesia baieztatzen dela esan dezakegu; gaur egungo euskal haur eta gazte literatura deskribapenei dagokionez, pertsonaien nortasunari dagokionez eta aberastasunen banaketari dagokionez 1980ko hamarkadako literatura baino parekideagoa delako.

VII.5 Idazlearen sexuari dagozkion emaitzak

Azkenik, idazlearen sexuak aztertutako hiru multzoetan eragina duen aztertuko da. Gure 5. hipotesian aurreikusten dugun bezala, liburuaren egilea emakumea denean 1980ko hamarkadako eta gaur egungo liburuetan mutilen eta nesken irudietan eragina izango du eta irudi hori parekideagoa izango da. Horretarako, azter-unitate desberdinetan lortutako datuak azalduko dira: lehenengo eta behin, protagonista nagusiari erreparatuko zaio, ondoren, ezaugarri fisikoei eta aktibotasunari eta pasibotasunari arreta ipiniko zaio, gero, etxeko lanen eta zaintza familiarren banaketari, baita boterearen banaketari ere. Horren ostean, espazioaren banaketa aurkeztuko da (espazio publikoa eta espazio pribatua); jarraian, sinbologiaren barruan maletina, amantala, kolore arrosa eta kolore urdinaren datuak ikusiko ditugu, eta azkenik, aisialdian lagunekin ibiltzea eta kirola egitea.

Hurrengo taulan, multzo bakoitzean zenbat emakumezko eta gizonezko idazle aztertuak izan diren ikus dezakegu.

79 Taula

Idazleen Sexua

	Liburua			Guztira (%)
	1980ko hamarkadako (%)	2013. urtean argitaratutakoa (%)	Liburu sariduna (%)	
Idazlearen_sexua Emakumea	12 (% 17.6)	19 (% 34.5)	10 (% 52.6)	41 (% 28.9)
Gizona	56 (% 82.4)	36 (% 65.5)	9 (% 47.4)	101 (% 71.1)
Guztira	68 (% 100.0)	55 (% 100.0)	19 (% 100.0)	142 (% 100.0)

Guztira 142 liburu agertzen dira aztertutako liburu guztietatik biren egilea ezezaguna delako. Hau ikusirik esan genezake, 1980ko hamarkadako corpuseko liburu gehienek idazleak gizonak direla, 2013an bi sexuen arteko aldea hain nabarmena ez den arren, oraindik gizonezko idazle gehiago aztertu dira eta azkenik, liburu saridunetan zenbakia ia parekidea da eta gainera, emakumeek idatzitako lan bat gehiago aztertu da.

Lehenengo taula honetan, aztertutako hiru multzoetan emakumezko idazleen eta gizonezko idazleen liburuetakoa protagonista nagusiaren sexuaren ehunekoa ikus

dezakegu (ikus. 80. taula). Zehatzago adierazita, 1980ko hamarkadako corpuseko emakumezko eta gizonezko idazleen liburuen protagonista nagusiak zein sexua duen ikusiko dugu eta baita 2013an argitaratutako liburuetan eta liburu saridunetan ere. Horrela jakin genezake multzo bakoitzean emakume idazlea edo gizon idazlea izateak eragina duen protagonista nagusia neska edo mutila izateko. Gure 5.1 azpi-hipotesian aurreikusten genuen gaur egungo haur eta gazte literaturan emakumeek idatzitako liburuetan zein gizonek idatzitako liburuetan neska den protagonista nagusiak presentzia handiago izango du, eta hau nabarmenagoa izango da emakumeek idatzitako liburuetan.

80 Taula

Idazleen Sexua eta Protagonista Nagusia

		Idazlearen sexua					
		Emakumea			Gizona		
		Liburua			Liburua		
		1980ko hamarkada	2013. urtea	Liburu sariduna	1980ko hamarkada	2013. urtea	Liburu sariduna
		Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)
Protagonista nagusia	Neska	25.0	52.6	70.0	14.3	22.2	44.4
	Mutila	25.0	21.1	20.0	64.3	41.7	55.6
	Mutilen taldea	0.0	0.0	10.0	1.8	2.8	0.0
	Nesken taldea	0.0	0.0	0.0	0.0	2.8	0.0
	Neska-mutilen taldea	33.3	5.3	0.0	8.9	22.2	0.0
	Animaliak	8.3	21.1	0.0	8.9	5.6	0.0
	Bestelakoak	8.3	0.0	0.0	1.8	2.8	0.0

1980ko hamarkadako corpuseko emakumezko idazleek protagonista nagusiaren sexua aukeratzeko orduan berdintasuna dela nagusi ikus dezakegu; emakumeek idatzitako liburuen %25ean mutila da protagonista eta %25ean neska, gainera, liburuen % 33.3an neska-mutilen taldea da protagonista. Gizonezkoek idatzitako liburuetan, ordea, protagonista nagusia bezala mutilak topatu genitzake liburu

gehienetan. Ehunekoei erreparatuz, gizonetako idatzitako liburuen % 64.an mutilak dira protagonista nagusia eta neskek liburuen % 14.3an.

2013an emakumezkoek idatzitako liburu gehienetan protagonista nagusia neska da, liburuen erdian baino gehiagotan (% 52.6) eta mutilezko protagonista nagusia liburuen % 21.1ean. Kasu honetan eboluzioa begi-bistakoa da eta nesken presentzia parekidetik egotetik neska gehiago egotera pasatu gara. 2013an gizonetako idatzitako liburuetan, berriz, mutilak dira nagusi liburuen % 41.7an eta neskek liburuen % 22.an. Hemen ere eboluzioa antzematen den arren, oraindik askoz liburu gehiagotan ageri dira mutilak protagonistan.

Emakumeek idatzitako liburu saridunen % 70ean neska da protagonista nagusia. Bestalde, gizonetako idatzitako liburu saridunetan datuak parekideagoak dira: liburuen % 44.4an neska da protagonista nagusia eta liburuen % 55.6an mutila.

Horrenbestez, esan dezakegu bai emakumeek idatzitako liburuetan zein gizonetako idatzitako liburuetan neska den protagonista nagusiaren presentzia handiago duela, eboluzionatu egin duela alegia. Modu horretan gure 5.1 azpi-hipotesian aurreikusten genuena egiaztatu da.

Sexuei erreparatuz, badirudi emakumezko idazleek hautua egin dutela beraien liburuetako protagonista nagusia neska izateko eta hau oraindik nabarmenagoa da saritutako liburuetan. Gizonetako idatzitako liburuetan aldeak txikituz joan diren arren, oraindik mutilak dira gehientsuenak protagonistan nagusiaren paperean.

Hurrengo taulan, emakumeek eta gizonetako idatzitako hiru multzoetako liburuetan ezaugarri fisikoetan agertu ohi diren neska ederraren eta mutil indartsuaren estereotipoen presentzia aztertuko dugu (ikusi 81. taula) gure 5.2 azpi-hipotesia baieztatzen den edo ez ikusteko. Bertan aurreikusten genuen aztertutako hiru multzoetan idazlea emakumea denean edertasunaren eta indarraren presentzia parekatuagoa izango dela.

81 Taula

Idazlearen Sexua eta Ezaugarri Fisikoak

		Idazlearen sexua					
		Emakumea			Gizona		
		Liburua			Liburua		
		1980ko hamarkada	2013. urtea	Liburu sariduna	1980ko hamarkada	2013. urtea	Liburu sariduna
		Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)
Neska_ederra	Ez da agertzen	75.0	78.9	80.0	66.1	51.5	66.7
	Agertzen da	25.0	21.1	20.0	33.9	48.5	33.3
Mutil_ederra	Ez da agertzen	100.0	89.5	100.0	94.6	78.1	100.0
	Agertzen da	0.0	10.5	0.0	5.4	21.9	0.0
Neska_indarts	Ez da agertzen	100.0	89.5	100.0	100.0	93.9	100.0
	Agertzen da	0.0	10.5	0.0	0.0	6.1	0.0
Mutil_indarts	Ez da agertzen	66.7	89.5	70.0	69.6	71.9	88.9
	Agertzen da	33.3	10.5	30.0	30.4	28.1	11.1

1980ko hamarkadako liburuei erreparatuz, idazlea emakumea denean neska ederra liburuen % 25ean topa dezakegu eta mutil indartsua liburuen % 33.3, halaber, idazle hauek ez dute mutil ederrik ezta neska indartsurik ere erabili beraien liburuetan. Gizonak idatzitako liburuei dagokionez, neska ederren presentzia handiagoa den arren (% 33.9), ez da bien artean desberdintasun esanguratsurik ikusten. Mutil indartsuaren presentzia nahiko antzekoa da eta kasu honetan ere, ez da neska indartsurik ageri. Hortaz, esan genezake

estereotipo hauei dagokionez, 1980ko hamarkadako emakume idazleek eta gizon idazleek erabilera antzekoa izan dutela.

2013an emakumeek idatzitako liburuetan neska eder gutxiago ageri dira, guztira aztertutako liburuen % 21.1an, baita mutil indartsu gutxiago; liburuen % 10.5an. Gizonek idatzitako liburuetan, aldiz, neska ederrek presentzia handiagoa dute; liburuen ia-ia erdian ageri baitira (% 48.5) eta mutil indartsua liburuen % 28.1ean. Urte honetan nahiz eta presentzia oso baxua izan bi sexuek neska indartsuaren eta mutil ederraren presentzia islatu dute liburuetan. Beraz, urte honetan ikusten den desberdintasun aipagarriena da, gizonezkoek idatzitako lanetan neska ederrek duten presentzia bikoitza baino gehiago dela.

Emakumeek idatzitako liburu saridunen % 20an neska ederra ageri da eta mutil indartsua liburuen % 30ean. 1980ko hamarkadan bezala, multzo honetan ez dira ageri mutil ederrik ezta neska indartsurik. Gizonek idatzitako liburu saridunetan neska ederraren presentzia emakumeek idatzitako liburuetan baino handiagoa da (% 33), baina mutil indartsuaren presentzia txikiagoa (% 11.1). Hemen ere ez dira identifikatu izan mutil ederrik ezta neska indartsurik.

Hau guztia dela eta, aztertutako hiru multzoetan ikusten dugu emakumeek idazten dutenean neska ederraren presentzia nahiko antzeko dela, eta gizonek idazten dutenean neska ederraren presentzia handiagoa da, bereziki 2013an gizonek idatzitako liburuetan.

Emakumeek idatzitako liburuetan mutil indartsuaren presentzia 1980ko hamarkadan eta liburu saridunetan nahiko antzekoa da, eta 2013an idatzitako liburuetan mutil indartsuaren presentzia nahiko baxua. Gizonek idatzitako liburuetan mutil indartsuaren presentzia gero eta txikiagoa da, hala ere, 2013.urtean gizonek idatzitako liburuetan emakumeek idatzitako liburuetan baino presentzia handiago du. Neska indartsuari presentzia nahiko baxua da eta bi sexuek presentzia antzekoa ematen diote. Bukatzeko, mutil ederraren presentzia ere nahiko baxua da eta idazlea gizonezkoa denean handiagoa da bere presentzia.

Orohar, esan genezake gure 5.2 azpi-hipotesia ez dela egiaztatu emakumea idazlea denean neska ederraren eta mutil indartsuaren estereotipoek presentzia handien dituzten ezaugarriak direlako. Gainera, liburu saridunetan agertu diren

datuak eta 1980ko hamarkadakoak nahiko antzekoak dira; emakumeek idatzitako liburuetan ez dira mutil ederrik ezta neska indartsurik ere identifikatu.

5.3 azpi-hipotesian idazlea emakumea denean aktibotasunaren eta pasibotasunaren presentzia parekideagoa dela aurreikusten genuen. Ondorengo taula honetan hiru multzoetan emakume eta gizon idazleek bi sexuetan aktibitatearen eta pasibotasunaren presentzia ikus dezakegu. Modu horretan, idazlearen sexuak pertsonaien aktibotasunean eta pasibotasunean eragina duen ikusi ahal izango da (ikus. 82.taula).

82 Taula

Idazlearen Sexua eta Pertsonaien Aktibotasuna eta Pasibotasuna

		Idazlearen_sexua					
		Emakumea			Gizona		
		Liburua			Liburua		
		1980ko hamarkada	2013. urtea	Liburu sariduna	1980ko hamarkada	2013. urtea	Liburu sariduna
		Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)
Neska_aktib	Ez da agertzen	41.7	63.2	30.0	71.4	60.6	44.4
	Agertzen da	58.3	36.8	70.0	28.6	39.4	55.6
Mutil_aktibo	Ez da agertzen	41.7	57.9	40.0	16.1	25.0	66.7
	Agertzen da	58.3	42.1	60.0	83.9	75.0	33.3
Neska_pasib	Ez da agertzen	58.3	63.2	70.0	50.0	45.5	88.9
	Agertzen da	41.7	36.8	30.0	50.0	54.5	11.1
Mutil_pasibo	Ez da agertzen	100.0	94.7	90.0	85.7	84.4	100.0
	Agertzen da	0.0	5.3	10.0	14.3	15.6	0.0

Emakumeek idazten dituzten liburuetan gizonetzkoek idazten dituztenetan baino neska aktibo gehiago identifikatu dira, gainera, neska aktibo gehien emakumeek idatzitako liburu saridunetan ikus dezakegu; liburuen % 70ean neska aktiboak ageri direlarik.

Gizonek idatzitako liburuetan emakumeek idatzitako liburuetan baino mutil aktibo gehiago ageri dira, liburu saridunetan izan ezik non emakumeek idatzitako liburu saridunen % 60an mutil aktiboa ageri da eta gizonek idatzitako liburu saridunen % 33.3 ageri den.

Emakumeek idatzitako liburuetan bi sexuek antzeko aktibotasuna erakusten duten arren, gizonetzkoek idatzitako liburuetan, orohar, mutil aktiboak askoz presentzia handiago du neska aktiboak baino, salbuespena liburu saridunetan ikusten dugu, non neska aktibo gehiago agertzen diren mutilak baino.

Bestalde, pasibotasunari dagokionez, esan dezakegu emakumeek idatzitako liburuetan neska pasiboaren presentzia gero eta urriagoa den bitartean, gizonetzkoek idatzitako 1980ko hamarkadako liburuetan eta 2013an idatzitako liburuen erditik gora mantentzen dela. Hala ere, gizonetzkoek idatzitako liburu saridunetan emakumeek idatzitako liburuetan baino askoz presentzia txikiagoa du neska pasiboak.

Bai emakumeek idatzitako hiru multzoetako liburuetan zein gizonek idatzitako hiru multzoetako liburuetan mutil pasiboaren presentzia neska pasiboarena baino askoz txikiagoa da.

Datuek erakutsi digute idazlea emakumea denean aktibotasunaren eta pasibotasunaren presentzia parekideagoa dela, modu horretan gure 5.3 azpi-hipotesia egiaztatu dugularik. Honez gain, emakumeek idazten dituzten liburuetan neska aktibo gehiago identifikatu dira eta hau nabarmenagoa da emakumeek idatzitako liburu saridunetan. Hala ere, bai emakumeek zein gizonek idatzitako liburuetan pasibotasuna, nagusiki, neskei loturik antzeman dugu.

Aurreko azpi-hipotesitan bezala, 5.4 azpi-hipotesian ere idazlea emakumea denean etxeko lanen eta zaintza familiarren banaketa parakideagoa izango dela aurreikusten dugu.

Hurrengo taulan, idazleen sexuak aztertutako liburuetaiko multzoetan etxeko lanen eta zaintza familiarren banaketek erakusten dituzten datuei erreparatuko zaie (ikus. 83. taula).

83 Taula

Etxekoa Lanak eta Zaintza Familiarrak Idazlearen Sexuaren arabera

		Idazlearen sexua					
		Emakumea			Gizona		
		Liburua			Liburua		
		1980ko hamarkada	2013. urtea	Liburu sariduna	1980ko hamarkada	2013. urtea	Liburu sariduna
		Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)
Etxeko_lanak	Ez da agertzen	16.7	57.9	10.0	28.6	54.3	33.3
	Neskak	58.3	10.5	70.0	57.1	34.3	44.4
	Mutilak	0.0	15.8	0.0	0.0	2.9	0.0
	Biak	25.0	15.8	20.0	14.3	8.6	22.2
Zaintza_familiarrak	Ez da agertzen	0.0	15.8	10.0	23.2	20.0	11.1
	Neskak	75.0	42.1	40.0	55.4	40.0	55.6
	Mutilak	0.0	5.3	0.0	3.6	5.7	0.0
	Biak	25.0	36.8	50.0	17.9	34.3	33.3

Etxeko lanei dagokienez, 1980ko hamarkadan emakumeek eta gizonek idatzitako liburuetaiko datuak nahiko antzekoa direla ikus dezakegu; neskak gehiago ageri dira etxeko lanak egiten mutilak baino, gainera, emakumeek idatzitako liburuetaiko pisu handiagoa dute etxeko lanek gizonezkoek idatzitakoetan baino.

2013an emakume idazleek mutil gehiago agertzen dituzte etxeko lanak egiten neskak baino, hala ere, ez da desberdintasun esanguratsurik ikusten. Urte honetan gizona idazlea denean askoz neska gehiago ageri dira etxeko lanak egiten mutilak baino.

Emakumeek eta gizonek idatzitako liburu saridunetan etxeko lanen ardura neskei atxikitzen zaie gehiago, hau oraindik nabarmenagoa da emakumeek idatzitako liburuetan.

Bestalde, 1980ko hamarkadan emakumeek eta gizonek idatzitako liburu bakar batean ere ez da mutila bakarrik ageri etxeko lanak egiten eta egoera hau emakumeek eta gizonek idatzitako liburu saridunetan ere ikus daiteke.

Laburbilduz, emakumeen idazleen kasuan esan dezakegu liburu saridunetako liburuetako datuak eta 1980ko hamarkadakoak nahiko antzekoak direla; neska nagusi etxeko lanak egiten ageri dela eta 2013an, ordea, datuak nahiko parekideak direla. Gizonek hiru multzoetan idatzitako liburuetan neska ageri da nagusi etxeko lanak egiten.

Zaintza familiarrei dagokienez, 1980ko hamarkadan emakumeek idatzitako liburu guztietan zaintza familiarrak nesken esku ageri dira eta mutilen esku liburuen laurdenean (% 25). Idazleak gizonak direnean ere zaintza familiarrak gehienbat nesken esku ageri dira, baina datuak ezberdinak dira, izan ere, nesken ardurapean liburuen % 73.3an ageri dira eta mutilen esku liburuen % 21.5ean.

2013an emakumeek idatzitako liburuetan 1980ko hamarkadako liburuetan baino banatuago ageri diren arren zaintza familiarrak, nesken esku maizago ageri dira; liburuen % 78.9an eta mutilen esku liburuen % 42.1ean. Idazlea gizona denean datuak oso antzekoak dira: neskak liburuen % 74.3an eta mutilak liburuen % 40an.

Emakumeek idatzitako liburu saridunen % 90ean ageri dira neskak zaintza familiarren bat egiten eta mutilak liburuen erdian (% 50). Gizona denean liburu saridunaren idazlea neska zaintza familiarren ardura liburuen % 88.9an ageri da eta mutila liburuen % 33.3an.

1980ko hamarkadan emakumeek idatzitako liburu bakar batean ere ez da mutila bakarrik ageri zaintza familiarrak egiten eta egoera hau ere emakumeek eta gizonek idatzitako liburu saridunetan ikus daiteke.

Orduan, idazlea emakumea edo gizona izan zaintza familiarren banaketa nahiko antzekoa dela esan genezake, izan ere, bi sexuek gehiagotan kokatzen

dute ardura hau nesken esku, beraz, baiezta genezake egoera hau bi sexuetan ez dela bat ere parekidea.

Hau guztia dela eta, bi aldagai hauetako datuek gure 5.4 azpi-hipotesia ez dela egiaztatu adierazten dute eta hortaz, idazlea emakumea denean euskal haur eta gazte literaturan etxeko lanen eta zaintza familiarren banaketa ez da parekideagoa, beraz, etxeko ardurak, orokorrean, ez dira egoera parekidean aurkezten.

5 hipotesiarekin jarraituz, 5.5 azpi-hipotesian boterearen banaketa aztertu da. Bertan, aurreikusten dugu idazlea emakumea denean boterearen banaketak parekidetasunerantz eboluzionatu duela. Hortaz, ondorengo taulan, idazlearen sexuak boterearen banaketan eragina duen edo ez aztertuko da.

84 Taula

Idazlearen Sexua eta Boterearen Banaketa

	Idazlearen sexua					
	Emakumea			Gizona		
	Liburua			Liburua		
	1980ko hamarkada	2013. urtea	Liburu sariduna	1980ko hamarkada	2013. urtea	Liburu sariduna
	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)
Ez da agertzen	50.0	78.9	100.0	39.3	65.7	66.7
Boteredunak Neskak	0.0	0.0	0.0	0.0	5.7	11.1
Mutilak	50.0	15.8	0.0	53.6	20.0	22.2
Biak	0.0	5.3	0.0	7.1	8.6	0.0

1980ko hamarkadan emakumeek idatzitako liburuetan ez da neska boteredunik identifikatu eta mutil boteredunak liburuen erdian agertzen dira (% 50). Gizonek idatzitako liburuetan ere nagusi dira mutil boteredunak (% 60.7) eta neska boteredunak liburuen % 7.1ean agertzen dira.

2013an emakumeek idatzitako liburuen % 5.3an neska boteredunak agertzen dira eta mutil boteredunak liburuen % 21.1ean. Gizonek idatzitakoetan neska boteredunen presentzia handiagoa da (% 14.3) eta baita mutil boteredunena ere

(% 28.6). Hortaz, urte honetan gizonezkoek boterea era parekatuagoan banatzen duten arren, ez da berdintasunik ikusten.

Emakumeek idatzitako liburu saridunetan ez da neska boteredunik identifikatu ezta mutil boteredunik ere. Gizonek idatzitako liburu saridunetan mutil boteredunen presentzia handiagoa da (% 22.2) neskena baino (% 11).

1980ko hamarkadan eta 2013. urtean emakumeek idatzitako liburu bakar batean ere ez da neska botereduna bera bakarrik ikusten (2013an mutilarekin batera agertu da). Gizonek idatzitako 1980ko hamarkadako liburretan ere ez da neska bera bakarrik boteredun gisa agertzen (neska boteretsua mutil boteretsuarekin batera agertu da). Bestalde, 2013an gizonek idatzitako liburuen % 5.7an eta gizonek idatzitako liburu sarituen % 11.1an neska botereduna bakarrik agertu da, alegia, liburu horietan ez da mutil boteredunik identifikatu eta bai neska.

Dena den, emakumeen lanetan boterearen banaketak berdintasunerantz jo duenez, gure 5.5 azpi-hipotesia neurri handia batean bete egin dela esan dezakegu. Gainera, gizonezkoen lanetan ere eboluzioa antzematen da, baina oraindik atal honetan ez da erabateko parekidetasunik lortu.

5.6 azpi-hipotesian idazlearen sexuaren arabera espazio publiko eta pribatuen banaketa aztertu ditugu eta gure ustez, idazlea emakumea denean espazio hauen banaketa nahiko parekidea izango da (ikusi 85. taula).

85 Taula

Idazlearen Sexua eta Espazioen Banaketa

		Idazlearen sexua					
		Emakumea			Gizona		
		Liburua			Liburua		
		1980ko hamarkad akoa	2013. urtean argitaratutak oa	Liburu sariduna	1980ko hamarkad akoa	2013. urtean argitaratutak oa	Liburu sariduna
		Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)
Esfera publikoan	Ez da agertzen	0.0	5.3	0.0	0.0	14.3	0.0
	Neskak	0.0	5.3	20.0	0.0	5.7	11.1
	Mutilak	0.0	5.3	10.0	25.0	8.6	11.1
	Biak	100.0	84.2	70.0	75.0	71.4	77.8
Esfera pribatuan	Ez da agertzen	8.3	10.5	0.0	14.3	28.6	22.2
	Neskak	16.7	5.3	50.0	8.9	5.7	33.3
	Mutilak	0.0	0.0	0.0	5.4	8.6	0.0
	Biak	75.0	84.2	50.0	71.4	57.1	44.4

Espazio publikoari dagokionez, 1980ko hamarkadako corpuseko emakume idazleek bi sexuak kokatzen dituzte espazio publikoan. Idazlea gizonezkoa denean, liburu guztietan mutila agertzen da espazio publikoan eta neska liburuen % 75ean.

2013an emakumeek idatzitako liburuetan bi sexuak modu parekatuan agertzen dira espazio publikoan kokatuta (% 89.5) eta gizonek idatzitako liburuen datuak nahiko parekatuak dira: mutilak liburuen % 80an eta neskak liburuen % 77.2an.

Emakumeek idatzitako liburu sarituen % 90ean neskak ikusiko ditugu espazio publikoan eta mutilak liburuen % 80an. Bi sexuen arteko alderik handiena multzo honetan ikus daiteke. Gizonek idatzitako liburu sarituetan espazio publikoari dagokionez berdintasuna ikus dezakegu, hau da, liburuen % 88.9an bi sexuak agertzen dira espazio publikoan.

Ondorioz, esan genezake espazio publikoan agertzeari dagokionez parekidetasuna nagusi dela eta desberdintasun handiena emakumeek idatzitako liburu saridunetan ikusi izan dugu, non liburu gehiagotan ageri den neska espazio publikoan mutilak baino. Espazio publikoan agertzeaz gain, espazio pribatuan nor ageri den ere aztertu egin da.

Espazio pribatuari erreparatuz, 1980ko hamarkadan emakumeek idatzitako liburuen % 91.7an neskak ageri dira espazio pribatuan eta mutilak liburu hauen % 75ean. Gizonek idatzitako liburuen % 80.3an neskak espazio pribatuan agertzen dira eta mutilak liburuen % 76.8an. Desberdintasun handiagoa dago emakumea idazlea denean gizona denean baino, hala ere, desberdintasuna ez da esanguratsua.

2013.urteari dagokionez, datuak parekatuagoak direla ikus dezakegu: emakumeek idatzitako liburuen % 89.5ean neskak espazio pribatuan agertzen dira eta mutilak liburuen % 84.2an. Gizonek idatzitako liburuetan espazio pribatuaren presentzia txikiagoa, parekatuagoa da eta mutil gehiago agertzen dira neskak baino: mutilak liburuen % 65.7an eta neskak liburuen % 62.8an.

Emakumeek idatzitako liburu saridun guztietan neskak ageri dira espazio pribatuan eta mutilak liburuen erdian (% 50). Gizonek idatzitako liburu saridunetan espazio pribatuaren presentzia txikiagoa da eta bi sexuen arteko ezberdintasuna ere handia da, izan ere, liburuen % 77.7an neskak ageri dira espazio pribatuetan eta mutilak liburuen % 44.4an.

Horrexegatik esan genezake espazio publikoak espazio pribatuak baino presentzia handiago duela eta egilearen sexuei erreparatuz ez da desberdintasun esanguratsurik ikusten. Idazlea emakumea izan edo gizona izan espazioen banaketa nahiko parekidea dela ikus daiteke. Beraz, gure 5.6 azpi-hipotesia egiaztatu dela esan genezake. Hala ere, idazlearen bi sexuetan neskek mutilek baino presentzia handiago dute espazio pribatuetan eta mutilek espazio publikoetan.

5.7 azpi-hipotesia betetzen den edo ez sinbologiari erreparatu zaio. Izan ere, espero daitekeen da idazlea emakumea denean sinbologia sexistak (maletina, amantala, kolore arrosa eta urdina) presentzia txikiagoa izatea eta bide batez, parekideagoa.

Ondorengo taulan, bi kolore estereotipatuena (kolore arrosa eta kolore urdina) datuak aurkeztuko dira.

86 Taula

Idazlearen Sexua eta Kolore Urdina eta Arrosaren Erabilera

		Idazlearen sexua					
		Emakumea			Gizona		
		Liburua			Liburua		
		1980ko hamarkada	2013. urtea	Liburu sariduna	1980ko hamarkada	2013. urtea	Liburu sariduna
		Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)
Urdina	Ez da agertzen	75.0	42.1	40.0	83.9	62.9	77.8
	Neskak	8.3	15.8	30.0	0.0	8.6	11.1
	Mutilak	16.7	21.1	0.0	12.5	22.9	11.1
	Biak	0.0	21.1	30.0	3.6	5.7	0.0
Arrosa	Ez da agertzen	66.7	68.4	40.0	92.9	85.7	55.6
	Neskak	33.3	21.1	50.0	5.4	2.9	44.4
	Mutilak	0.0	0.0	0.0	0.0	8.6	0.0
	Biak	0.0	10.5	10.0	1.8	2.9	0.0

Kolore urdinari dagokionez, 1980ko hamarkadako emakume idazleek eta gizonezko idazleek idatzitako liburu eta mutiletan kolore urdinak antzeko ehunekoak erakusten du (% 16), bestalde, nesketan kolore urdinak presentzia handiago du emakumea idazlea denean; gizonezkoek idatzitako liburuen % 3.6an neskaren bat ageri da urdinez eta emakumeek idatzitako liburuen % 8.3an neska ageri da urdinez. Hortaz, esan genezake hamarkada honetan bi sexuetan kolore urdinak pisu handiago duela mutiletan.

2013an kolore urdinaren presentzia hazi egiten da emakumea idazlea denean zein gizona idazlea denean. Emakumeek idatzitako liburuetan sexuari dagokionez kolore urdinaren agerpena nahiko parekidea da, hala ere, mutiletan liburu gehiagotan ageri da (% 42.2). Gizonek idatzitako liburuetan ere kolore

urdinak presentzia handiagoa du 1980ko hamarkadan baino. Gizonek idatzitako liburuen % 14.3an neskaren bat ageri da urdinez eta mutilen kasuan nesken bikoitza, hau da, liburuen % 28.6an. Beraz, bi sexuetan kolore urdinaren presentzia hazi egin den arren, gizonezkoa idazlea denean emakumea idazlea denean baino desberdintasun handiagoa erakusten du kolore urdinak.

Emakumeek idatzitako liburu saridunen % 60an neskaren bat ageri da urdinez eta mutiletan datu hori erdira jaisten da, alegia, emakumeek idatzitako liburuen % 30an mutilen bat ageri da urdinez. Orduan, emakumeek idatzitako liburu saridunetan kolore urdina nesketan nagusi dela baieztatu dezakegu. Bestalde, gizonek idatzitako liburu saridunetan banaketa erabat parekidea; liburuen % 11.1an ageri dira neskak eta mutilak urdinez jantzirik.

Kolore arrosari erreparatuz, 1980ko hamarkadan emakumeek idatzitako liburuen % 33.3an neskak ageri dira kolore arrosaz eta ez da mutilik identifikatu kolore arrosarekin jantzirik. Gizonezkoek idatzitako liburuetan ere kolore arrosa nesketan ageri da nagusi, baina aldea txikiagoa da; gizonek idatzitako liburuen % 7.2an neskaren bat ageri da arrosaz eta mutilen bat liburuen % 1.8an. Hamarkada honetan kolore arrosa nagusiki neskarena dela esan dezakegu eta ezaugarri hau nabarmenagoa da emakumeek idazten dutenean.

2013an gizonek idatzitako liburuetan kolore arrosa erabiltzen duten nesken presentzia txikitu egiten da % 4.8ra eta kolore arrosa erabiltzen duten mutilen datua hazi egiten da % 11.5era. Beraz, urte honetan gizonek idatzitako liburu gehiagotan ageri dira mutilak arrosaz neskak baino. Emakumeek idatzitako liburuei erreparatuz, ikus daiteke kolore arrosaz janzten diren nesken presentzia 1980ko hamarkadakoaren antzeko dela (% 31.6), baina kolore arrosa erabiltzen duten mutilen datua hazi egiten da nabarmen; ez egotetik liburuen % 10.5era. Hortaz, emakumeek idatzitako liburuetan oraindik ere kolore arrosa nagusi da nesketan.

Liburu saridunetan bai emakumeek idatzitako liburuetan zein gizonek idatzitakoetan kolore arrosaren erabilera nagusia da nesketan; emakumeek idatzitako liburuen % 60an ageri da mutiletan liburuen %10ean. Bestalde, gizonezkoek idatzitako liburuetan ez da kolore arrosa erabiltzen duen mutilik

identifikatu eta kolore arrosa erabiltzen duten neskek liburuen % 44.4an ikus daitezke.

Emakume idazlearen datuak aztertuz gero, 1980ko hamarkadan, 2013an eta saritutako liburu bakar batean ere ez da ageri mutil bat bakarrik arrosa erabiltzen, alegia, arrosa agertzen denean edo neska ageri da edo biak ageri dira, baina mutila bakarrik ez. Gainera, egoera hau ere gizonek 1980ko hamarkadan idatzitako liburuetan eta liburu saridunetan ikusten da.

Horrenbestez, kolore arrosaren agerpena hazi egin dela esan daiteke, eta egilearen bi sexuek nagusiki neskekin lotzen duten kolorea izaten jarraitzen duela. Halaber, idazlearen bi sexueta kolore urdinaren erabilera parekideagoa da. Laburbilduz, esan genezake nesketan kolore urdinak espazioa irabazi duela eta hau emakumea idazlea denean areagotzen dela, baina ez da berdina gertatzen kolore arrosarekin eta mutilekin. Egia da idazlea emakumea denean kolore arrosak mutiletan presentzia handiagoa duela, hala ere, oraindik ez da kolore arrosa mutilekin lotzen.

5.7 azpi-hipotesiarekin jarraituz, hurrengo taulan sexistak izan daitezkeen bi objektuen datuak aurkeztuko dira (ikus. 87. taula): alde batetik, jatorriz neskekin lotu izan den amantala eta bestetik, jatorriz mutilekin lotu izan den maletina.

87 Taula

Idazlearen Sexua eta Maletinaren eta Amantalaren Erabilera

		Idazlearen_sexua					
		Emakumea			Gizona		
		Liburua			Liburua		
		1980ko hamarkada	2013. urtea	Liburu sariduna	1980ko hamarkada	2013. urtea	Liburu sariduna
		Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)
Amantala	Ez da agertzen	58.3	73.7	60.0	60.7	91.4	77.8
	Neskak	41.7	21.1	30.0	37.5	8.6	22.2
	Mutilak	0.0	5.3	10.0	0.0	0.0	0.0
	Biak	0.0	0.0	0.0	1.8	0.0	0.0
Maletina	Ez da agertzen	58.3	84.2	60.0	67.9	94.3	77.8
	Neskak	8.3	5.3	20.0	1.8	0.0	0.0
	Mutilak	33.3	0.0	10.0	25.0	5.7	11.1
	Biak	0.0	10.5	10.0	5.4	0.0	11.1

1980ko hamarkadako gizonezko eta emakumezko idazleek amantala nesketan irudikatu egin dutela ikus dezakegu. Datuei erreparatuz, emakumeek idatzitako liburuen % 41.7an neskaren bat ageri da amantalaz jantzirik eta liburu batean ere ez da ageri mutilik amantalarekin. Gizonek idatzitako liburuen % 39.3an ageri da neska amantalarekin eta liburuen % 1.8an mutilen bat.

2013an amantalaren erabilera gutxitu egiten da; urte honetan emakumeek idatzitako liburuen % 26.4an neskaren bat ageri da amantalaz eta 1980ko hamarkadan ez bezala, liburuen % 5.3an ageri da mutilen bat amantalarekin. Gizonek idatzitako liburuetan ere amantalaren erabilera gutxitu egiten da eta soilik neskak ageri dira amantalarekin; liburuen % 8.6an.

Liburu saridunetan ere gizonezkoek eta emakumezkoek idatzitako liburuetan amantala nagusiki neskei lotuta ageri da eta 2013 urtearekin alderatuz gero, erabilera handiagoa dela ikus dezakegu. Datuei erreparatuz, emakumeek idatzitako liburu sarituen %30ean neska ageri da amantalarekin eta mutila liburuen % 10ean. Gizonezkoek idatzitako liburu sarituetan ez da mutilik agertzen amantalarekin eta neskak liburuen % 22.2an.

Hortaz, amantalaren erabilerak gora-beherak izan dituen arren, aztertutako hiru multzoetan idazlearen bi sexuei erreparatuz, amantala neskari atxikitzen zaion objektua dela egiaztatu dezakegu, eta hau nabarmenago da idazlea emakumea denean, alegia emakume idazleek amantala gehiago atxikitzen diote neskei mutilei baino.

Maletinari dagokionez, 1980ko hamarkadan gizonek eta emakumeek idatzitako liburuetan datuak nahiko antzekoak direla esan dezakegu, gainera, maletina mutilei lotuago ageri da neskei baino. Datuei erreparatuz, emakumeek idatzitako liburuen % 8.3an neskaren bat ageri da maletina eskuan duela eta liburuen % 33.3an mutilen bat. Gizonek idatzitako liburuetan maletinaren presentzia pittin bat txikitzen da: liburuen % 7.2an neskaren bat agertzen da maletinarekin eta liburuen % 30.4an mutilen bat.

2013an egilearen sexuei erreparatzen badiogu ikus dezakegu nola maletinak pisua galtzen duen, baina desberdintasun garrantzitsua antzeman daiteke. Izan ere, emakumeek idatzitako liburu gehiagotan ageri dira neskak maletinarekin mutilak baino. Datu hau ordea ez da ematen gizona idazlea denean. Datuei dagokionez, urte honetan emakumeek idatzitako liburuen % 15.8an neskaren bat ageri da maletinarekin eta mutilen bat liburuen % 10.5ean. Gizonek idatzitako liburuetan ez da maletina duen neskarik ageri eta liburuen % 5.7an ageri da mutilen bat. Ondorioz, esan dezakegu urte honetan maletinak pisu handiagoa duela emakumea idazlea denean eta gainera, kasu honetan liburu gehiagotan ageri dela neska maletinarekin mutila baino.

Emakumeek eta gizonek idatzitako liburu saridunetan maletina erabilera hazi egiten da. Emakumeek idatzitako liburu hauetan neska gehiago ageri dira maletinarekin eta gizonek idatzitako liburuetan mutil gehiago. Datuak azterturik, emakumeek idatzitako liburu saridunen % 30an neskaren bat ageri da

maletinarekin eta liburuen % 20an mutilen bat. Gizonek idatzitako liburuen % 11.1ean neskaren bat ageri da maletinarekin eta mutiletan datu hau bikoiztu egiten da liburuen % 22.2ra.

Beraz, maletinari dagokionez esan genezake idazlearen sexuak eragina duela eta erabilerak eboluzionatu egin duela. Modu horretan, 1980ko hamarkadan bi sexuetan maletina nagusi zen mutiletan, baina gaur egun bai 2013.urtean eta baita liburu saridunetan ere emakumeek idatzitako liburu gehiagotan ageri da neska maletinarekin eta gizonek idatzitako liburu gehiagotan ageri da maletina mutilekin. Amantalaren erabilera mutiletan apenas ez den agertzen bitartean, maletinak pisu handiagoa hartu du nesketan.

Datu guzti hauetan oinarriturik, gure interpretazioa da idazlea emakumea denean sinbologi sexistak presentzia txikiagoa duela eta parekideagoa dela, hain zuzen ere gure 5.7 azpi-hipotesian aurreikusten genuen bezala. Hala ere, ñabardurak ere antzeman dira: idazle emakumeek kolore arrosa eta amantala nagusiki neskekin lotzen jarraitzen dute

Amaitzeko, eta 5. hipotesi nagusiari erantzuna emateko 5.8 azpi-hipotesia esaten genuena baieztatzen den ala ez ikusiko dugu. Izan ere, espero daitekeena da emakumeek idatzitako lanetan aisialdia (lagunekin ibili eta kirola) parekideagoa izatea (ikus 88. taula).

88 Taula

Idazlearen Sexua eta Aisialdia

		Idazlearen_sexua					
		Neska			Mutila		
		Liburua			Liburua		
		1980ko hamarkada	2013. urtea	Liburu sariduna	1980ko hamarkada	2013. urtea	Liburu sariduna
		Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)	Ehunekoak zutabeko (%)
Lagunekin_egon	Ez da agertzen	33.3	57.9	30.0	33.9	44.1	66.7
	Neskak	0.0	5.3	10.0	1.8	2.9	0.0
	Mutilak	8.3	10.5	10.0	35.7	11.8	0.0
	Biak	58.3	26.3	50.0	28.6	41.2	33.3
Kirola egiten	Ez da agertzen	75.0	78.9	60.0	58.9	65.7	44.4
	Neskak	0.0	5.3	10.0	1.8	2.9	0.0
	Mutilak	8.3	5.3	10.0	32.1	20.0	22.2
	Biak	16.7	10.5	20.0	7.1	11.4	33.3

Lagunekin egoteari dagokionez, 1980ko hamarkadan bi sexuek idatzitako liburu gehiagotan ageri dira mutilak lagunekin egoten neskak baino. Bi sexuek idatzitako liburuen ehuneko berdinean ageri dira mutilak lagunekin (% 64.6), baina neskei dagozkion datuak aztertzen baditugu, ikus dezakegu datuak parekideagoak direla; hamarkada honetan emakumeek idatzitako liburuen % 58.3an ageri dira neskak lagunekin eta mutilak liburuen % 64.6an. Gizonek idatzitako liburuen % 30.4an ageri dira neskak lagunekin eta mutilen kasuan datua bikoiztu egiten da liburuen % 64.3ra.

2013an bi sexuetan datuak parekideagoak direla ikus dezakegu. Hala ere, oraindik bi sexuek idatzitako liburu gehiagotan ageri dira mutilak lagunekin neskak baino. Datuak aztertuz gero, emakumeek urte honetan idatzitako liburuen % 36.8an mutilak ageri dira lagunekin eta liburuen % 31.6an neskak. Gizonek

idatzitako liburuetan datuak altuagoak dira; liburuen % 53an mutilak ageri dira lagunekin solasean eta neskak liburuen % 44.1ean.

Bi sexuek idatzitako liburu saridunetan lagunekin egoteari dagozkion datuak erabat parekideak direla ikus dezakegu. Hala ere, adiskidetasunak pisu handiago du emakumea idazlea denean. Datuetan ikus dezakegu nola emakumeek idatzitako liburuen % 60an biak ageri direla lagunekin eta gizonek idatzitako liburuen kasuan bai neskak eta mutilak liburuen % 33.3an ageri dira lagunekin.

Hortaz, lagunekin egoteari dagokionez egilearen sexuari erreparatuz datuek parekidetasunerantz eboluzionatu dutela esan dezakegu; gaur egun gizonek eta emakumeek idatzitako liburuetan mutilak eta neskak lagunekin era parekidean agertzen dira, eta hau maiazago ematen da idazlea emakumea denean.

Kirolari dagokionez, 1980ko hamarkadako liburuetan mutil gehiago ageri dira kirola egiten neskak baino, gainera, idazlea gizonezkoa denean bi sexuen arteko aldea handiagoa da. Ehunekoei erreparatuz, emakumeek idatzitako liburuen % 16.7an neskak ageri dira kirola egiten eta mutilak liburuen laurdenean (% 25). Idazlea gizona denean eta emakumeek idatzitako liburuekin alderatuz, kirola egiten duten mutilek presentzia handiagoa dute kirola egiten neskak presentzia gutxiago. Izan ere, gizonek hamarkada honetan idatzitako liburuen % 39.2an ageri dira mutilak kirola egiten eta neskak liburuen % 8.9an.

2013an emakume idazleen lanetan erabateko parekidetasuna ikus daiteke. 1980ko hamarkadarekin alderatuz kirolak presentzia txikiagoa du; bi sexuak liburuen % 15.8an ageri dira kirola praktikatzeko. Idazlea gizona denean eta 1980ko hamarkadarekin alderatuz, ikus dezakegu nola kirola egiten duten nesken presentzia gora egiten eta mutilen presentzia behera, hala ere, kirola egiten duten mutilak askoz presentzia handiagoa du, bikoitza baino gehiago. Datuei dagokionez, gizonek idatzitako liburuen % 31.4an mutilak ageri dira kirola praktikatzeko eta neskak liburuen % 14.3an.

Bi sexuek idatzitako liburu saridunetan nesketan zein mutiletan kirolaren presentzia hazi egiten da. Emakumeek idatzitako liburuetan datuak parekideak dira; liburuen % 30ean biak ageri dira kirola egiten. Gizonek idatzitako liburuetan, ordea, mutil gehiago ageri dira kirola egiten, datuei dagokionez, liburuen erdian baino gehiagotan (% 55.5) ageri dira mutilak eta neskak gizonek idatzitako liburu

sarrituen herenean (% 33.3). Orduan, esan genezake gaur egun emakume idazleek kirolari dagokionez beraien lanetan parekidetasuna erakusten dutela eta gizonezko idazleek ere eboluzionatu duten arren, gehiagotan erakusten dute mutila kirola praktikatzen neska baino.

Hau guztia dela eta, emaitzek gure 5.8 azpi-hipotesiak dioena baieztatu digute, guk uste bezala, idazlea emakumea denean mutilei eta neskei dagokion aisialdia (lagunekin ibili eta kirola) parekideagoa da.

Laburpena

Bukatzeko, atal honetan ikusiko ditugun datu guztiak aintzat harturik, gure interpretazioa da liburuetakoa idazlea emakumea denean, 1980ko hamarkadako eta gaur egungo liburuetan mutilen eta nesken irudia parekideagoa dela, hain zuzen ere, gure 5. hipotesian aurreikusten genuen bezala. Alde batetik, emakumeek idatzitako liburuetan neska den protagonista nagusiak presentzia handiagoa du, eta hau nabarmenagoa da emakumeek idatzitako liburu saridunetan. Idazlea emakumea denean ere aktibotasunaren eta pasibotasunaren presentzia parekideagoa da, hala ere, pasibotasuna oraindik nagusiki nesken ezaugarri gisa ikusi dugu. Halaber, emakumeek idatzitako lanetan boterearen banaketak parekidetasunerantz eboluzionatu du, sinbolo sexistaren presentzia txikiagoa da eta aisialdia modu parekideagoan aurkezten digute.

Bestalde, datu gaziak ere atera direla ikusi dugu, esate baterako, etxeko lanen eta zaintza familiarren banaketa desorekatua eta amantalaren eta kolore arrosaren erabileran. Gure aurreikuspenei aurre eginez, emakumeek idatzitako lanetan etxeko lanen eta zaintza familiarren ardurek presentzia handiagoa dute nesken eskuetan gizonek idatzitako lanetan baino. Era berean, kolore arrosaren eta amantalaren agerpenek ere ez dute erabilera parekidea erakusten.

VIII. KAPITULUA. Ondorioak

Nolakoak dira euskal haur eta nerabeek irakurtzen dituzten liburueta neskak/emakumeak eta mutilak/gizonak? Zeintzuk dira euskal haur eta gazte literatura modernoak transmititzen dituen rola eta estereotipoak? Ba ote dago sexismoa haurrei eta nerabeei zuzendutako euskal letretan? Urte hauetan indarrean jarritako hezkidetza planek eta berdintasunerako legeek eragina izan al dute euskal haur eta gazte literaturan? Azken finean, eboluzioa egon al da 1980ko hamarkadako liburuen eta gaur egungo (2009-2014) liburuen artean?

Gaur egungo gizartean oraindik sexismoa dagoela ikusirik, premiazkozat jotzen da txiki-txikitatik umee eta nerabeek jasotzen dituzten nesken/emakumeen eta mutilen/gizonen irudiak aztertzea eta bide batez, sexismoa eta parekidetasun eza identifikatzea. Horregatik, kasu honetan euskal haur eta gazte literatura modernoari erreparatu zaio. Kapitulu honetan, ikerketa enpirikoan azaldutako emaitzen ondorioak aurkeztuko dira.

Ikerketa lan honen helburu orokorra euskal haur eta gazte literatura modernoak transmititzen duen neskaren/emakumearen eta mutilaren/gizonaren irudiaren eboluzioa aztertzea da: 1980ko hamarkadan eta gaur egun (2009-2014). Helburu hau lagungarria izango zaigu sexismoa aurkitzeko edota berrikuntzak aztertzeko.

Helburu nagusi honetatik abiatuz, argi dugu gizartearen eboluzioaren eta kontzientziazioaren eraginez eta baita berdintasunaren aldeko lanaren ondorioz, euskal haur eta gazte literatura modernoan neskaren/emakumearen irudia parekideagoa dela.

Aurreko atalean, hautatutako liburuen azterketaren emaitzak aztertu dira, eta jarraian, horiek kontuan hartuz atera diren ondorioak aurkeztuko dira. Ondorioak azaltzeko orduan, lan honetarako planteatuta zeuden bost helburuetako bakoitzean arreta ipiniko da:

- 1) 1980ko hamarkadako eta gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan emakumeen eta gizonen kopurua parekidetasunerantz eboluzionatu duen zehaztea.

- 2) 1980ko hamarkadan eta gaur egungo haur eta gazte literaturan sexismoaren ezaugarriak eta islak aurkitzea.
- 3) Pertsonaia horien irudian atzeman diren berrikuntzak aztertzea: ezaugarri fisikoak, ezaugarri psikologikoak, espazioak, ardurak, familia-ereduak, lanbideak, sinboloak eta aisialdia.
- 4) 1980ko hamarkadan eta gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan egiten diren pertsonaien deskribapenak, pertsonaien nortasunaren ezaugarriak eta aberastasunen banaketa parekidea egiten den aztertzea.
- 5) 1980ko hamarkadako eta gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan egilearen sexuak emakumearen eta gizonaren irudiaren ezaugarrietan eragina duen aztertzea.

Ondorio orokor hauek idazteko, ikergaiaren helburu bakoitzeko hipotesiak berriz hartuko dira.

Lehenengo hipotesian aurreikusten genuen 1980ko hamarkadako eta gaur egungo literaturan gizon eta emakumeen irudiak ezberdinak direla; liburua zenbat eta berriagoa eta prestigiotsuagoa den heinean, emakumearen presentzia handiagoa izango da eta gainera, mutilen eta nesken presentzia orekatuagoa izango da.

Ikerketa enpirikoko datuek berretsi egin dute liburua gero eta berriagoa eta prestigiotsuagoa denean emakumeen presentzia handiagoa dela eta gainera, gizonekin orekatuagoa dagoela. Hortaz, datuek erakusten digute presentziari dagokionez eboluzioa egon dela eta 1980ko hamarkadan emakumeak zuen presentzia urria eta egoera desorekatua irauli egin dela eta ondorioz, orekatu egin dela.

Beste ikerketa batzuekin alderatuz gero (Etxaniz, 1999; Turin, 1995 eta Colomer, 1999), gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan emakumearen presentzia handiagoa eta orekatuagoa da. Izan ere, Etxanizen ikerketan gizon protagonistak liburuen % 60.6an agertzen dira, emakumeak % 18.2an eta gizon-emakumeak % 21.2an. Colomerren ikerketan gizona liburuen % 62.8an agertzen da eta emakumea % 29.5an. Turinen ikerketan ehunekoak, ordea, parekideagoak dira; emakumeak % 43-45 eta gizonak % 55-57. Gure ikerketako datuek esaten

digute, 1980ko hamarkadan gizona protagonista nagusia bezala liburuen % 58.6an ageri dela eta emakumea liburuen % 15.7an. Gaur egun datuak askoz parekideagoak dira: 2013an gizona liburuen % 34.5ean ageri da protagonista nagusiaren rolean eta emakumea liburuen % 32.7an. Bukatzeko, liburu saridunetan erabateko eboluzioa antzematen da emakume gehiago ageri direlako protagonista nagusi moduan (% 57.9) gizonak baino (% 36.8).

Dena den, emakume gehiago egoteak ez du berdintasunik bermatzen, ezta eredu berrien transmisioa ziurtatzen ere, horregatik, beharrezkotzat jotzen da emakumea nola agertzen den aztertzea, eta horretarako beharrezkoa da beste arlo batzuk arakatzea.

Gure bigarren hipotesian esaten genuen 1980ko hamarkadan gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan baino sexismo gehiago ematen dela eta datuak aztertuta esan genezake ñabardura batzuekin bada ere hipotesia baieztatu egiten dela.

Ezaugarri fisikoei dagokionez, 2.1 hipotesian esaten genuen gaur egungo literaturan ezaugarri fisikoei esleitzen zaizkien ezaugarri sexisten (neska eta mutil indartsua, ahula, ederra eta itsusia) presentzia txikiagoa izango dela 1980ko hamarkadan baino, hau da, ez direla neska ederrera eta mutil indartsu ezaugarrietara mugatuko. Orokorrean nahiz eta estereotipoek presentzia galdu duten, esan genezake, neska ederraren eta mutil indartsuaren estereotipoak 1980ko hamarkadan eta gaur egun oraindik ere nagusi direla euskal letretan, izan ere, mutil indartsuak eta neska ederrak dira gehien errepikatzen diren ezaugarriak. Hortaz, egileek oraindik genero-estereotipo hauek sustatzen dituzte eta indarra mutilekin eta edertasuna neskekin lotuz jarraitzen da (mutil indartsua identifikatua izan da 1980ko hamarkadako liburuen % 30ean, 2013ko liburuen % 20an eta saritutako liburuen % 21ean eta emakume ederra 1980ko hamarkadako liburuen % 31an, 2013ko liburuen % 38an eta saritutako liburuen % 26an). Bi ezaugarri fisiko hauek izan dira sexu bakoitzean gehien agertu direnak. Alde horretatik, esan dezakegu gure 2.1 hipotesia ez dela bete.

Ezaugarri psikologikoei dagokionez, aipa genezake ezaugarri batzuek parekidetasunerantz eboluzionatu egin dutela eta beste batzuek, aldiz, ez. 1980ko hamarkadako corpusean neska eta mutilen artean ezberdintasun

handiak antzeman daitezke eta liburu saridunetan, ordea, ezaugarriak parekideagoak dira.

Ondorio esanguratsu batzuk aipatzearen, esan dezakegu 1980ko hamarkadatik hona neskak sortzaileak izateari utzi egin diotela eta orain ausartagoak direla. Baita neskak gero eta aktiboagoak direla ere, hau bereziki liburu saridunetan ikusten da, non neska aktiboen presentzia mutil aktiboena baino handiagoa den. Neska aktibo gehiago egonda eta mutil aktibo gutxiago antzemandanda ondorioztatu dezakegu aktibotasunak parekidetasunerantz eboluzionatu egin duela euskal letretan zegoen bereizketa sexista hori gutxituz. Sexismoa murriztuz berdintasunerantz eboluzionatu egin duen beste adjektibo bat ausardia da.

Sortzailea izateari dagokionez, datuak nahiko parekoak direla baieztatu dezakegu mutil sortzaileen presentzia jaitsi egin delako eta ez neska sortzaileen presentzia asko igo delako.

Azpimagarria da liburu saridunetan neska heroien presentziak gora egin duela mutil heroien presentzia berdinduz eta hori oso ona da. Baita ere baikorra da gaur egun 1980ko hamarkadan baino neska jakintsu gehiago daudela, nahiz eta oraindik mutil jakintsuen presentzia ugariagoa izan.

Bestalde, pasibotasunari dagokionez, nahiz eta neska pasiboen presentzia asko txikitu den, bereziki liburu saridunetan, oraindik mutil pasiboen presentziarekin alderatuz gero, aldea nahiko handia da. Horrexegatik pasibotasunak ez duela berdintasunezko joera erakusten ondorioztatu dezakegu. Gainera, neska sentikorraren presentzia ere handiagoa da eta estereotipoa sustatuz gero sexismoa ez da desagertzen. Datuek ere erakutsi digute ameslari izatea nesken ezaugarria dela eta berdintasun ezak sexismoa indartzen du.

Beste ezaugarri batzuekin honako hau ikusi dugu: neska menderatzaileak pisu hartu duen bitartean mutil menderatzaileak presentzia galdu duela, mantsotasunak liburu saridunetan presentzia orekatuagoa duela beste multzoetan baino. Hala ere, neska mantso gehiago ageri dira mutilak baino. Gaur egungo liburuetan mutiletan eta nesketan ez da lehiakortasunik identifikatu, neska zitalaren presentzia gero eta handiagoa den arren, oraindik ez da mutilen parekoa; hala ere, diferentzia ez da esanguratsua, lotsaren erabilera nahiko urria

eta parekidea da eta azkenik, izaera ahula izatea nesken ezaugarria den arren, liburu saridunetan ez da izaera ahula duen neskarik identifikatu.

Hau guztia dela eta izaerari dagokionez, esan dezakegu sexismoa gutxitu egin dela eta parekidetasunerantz eboluzionatu egin dela, baina oraindik ere egoera ez da parekidea hainbat rolen errepikapena ikusten delako; esate baterako, ameslari izateak eta sentikorra izateak nesketan presentzia handiagoa du eta jakintsua izateak mutiletan. Ikusi dugu neskei tradizionalki mutilei atxikitu izan zaizkien ezaugarri batzuek gora egin dutela eta, aldi berean, mutiletan behera egin dutela, baina ez al litzateke berdintasuna mutiletan mantentzea eta nesketan igotzea?

2.2 hipotesian etxeko ardurei erreparatu diegu, uste genuen etxeko ardurak (zaintzak eta etxeko lanak) gaur egungo literaturan 1980ko hamarkadakoan baino banatuagoak agertuko direla, hots, ez direla soilik emakumeen esku egongo.

Etxeko lanei dagokionez, espero zitekeenaren kontrara euskal haur eta gazte literatura modernoan etxeko lanen banaketan ez da eboluziorik antzeman eta egoera ez-parekidea mantentzen da. Gainera, liburu saridunetan eta 1980ko hamarkadako corpuseko datuak nahiko antzekoak dira; etxerako lanak nagusiki neskei lotuta. 1980ko hamarkadan etxeko lanak ageri diren liburuen % 98an emakumeak ageri dira ardura hau betetzen eta gizonak liburuen % 23an. Liburu saridunetan datuak nahiko antzekoak dira; etxeko lanak ageri diren liburu guztietan emakumeak ageri dira eta gizonak, aldiz, liburu horien % 36.4an.

Bestalde, emaitzetan ikusi izan dugu zaintza familiarren banaketak eboluzionatu egin duela eta parekatuz doazela, baina oraindik ez dela nahikoa izan eta etxeko lanen banaketan bezala, berdintasunetik urrun gaude. 1980ko hamarkadan zaintzak familiarrak ageri diren liburuen % 94.7an emakumeak ageri dira eta gizonak liburuen % 28an. Gaur egun gizonen presentzia igo egin da (2013an liburu hauen % 50ean eta liburu saridunen % 47an), baina emakumeen presentzia ez da jeitsi (2013ko liburuen % 93.2 eta liburu saridun guztietan, % 100). Zaintza familiarrei dagokionez sexismoa gutxitu den arren ez da desagertu. Hau guztia ere gizartearen ispilua izan daiteke. Izan ere, Eustatek (2016) egindako ikerketaren arabera, oraindik gizonek emakumeek baino gutxiago

laguntzen dute etxeko lanetan; Euskal Autonomi Erkidegoan emakumeek batez beste etxeko lanei 2,1 ordu eskaintzen dioten bitartean, gizonek 1,2 eta zaintza familiarrei dagokienez, emakumeek 4, 5 ordu eta gizonek 2,9. Gizartean hainbat urtetan zehar aldatu ez den gaia ez da literaturan aldatu eta badirudi nolabaiteko gizartearen isla dela. Ikerketan lortu ditugun datuak ikusirik, ezin dugu esan gure 2.2 hipotesia bete egin denik.

2.3 hipotesian aurreikusten genuen 1980ko hamarkadako corpusean emakume boteretsuen presentzia oso urria den heinean, gaur egungo literaturan, berriz, ugariagoa eta parekideagoa dela.

Lan ordainduei dagokionez, mutilen eta nesken arteko datuen diferentzia murriztu den arren, ez da parekidetasunik somatzen. Gainera, ordaindutako lanen kopuruen presentzia berdintsuagoa izateak ez du parekidetasuna bermatzen eta kargu botereduna aztertzea lagungarria izango zaigu.

Datuek erakutsi digute kargu boteredunek gero eta garrantzia eta presentzia gutxiago dutela, baina egoera oraindik ez dela parekidea mutiletan pisu handiago dutelako. Neurri batean gure hipotesia baieztatu egin den arren eta egoera honi dagokion sexismoa gutxitu bada ere, oraindik ez da desagertu.

2.4 hipotesian espazioetan arreta ipini dugu eta gure hipotesiak zera dio: 1980ko hamarkadako corpusean emakumea espazio pribatuan (etxe barruan) kokatu den heinean, gaur egungo literaturan, ordea, espazio biak beteko ditu.

Emaitzetan ikusi dugu espazio publikoan bi sexuek duten presentziak parekidetasunerantz eboluzionatu egin duela eta gaur egun egoera nahiko parekidea dela. Espazio pribatuari dagokionez, euskal haur eta gazte literaturan espazio pribatuetan ere nesken eta mutilen presentzia bermatuta dago. Agerian geratu da liburuetako pertsonaiak toki desberdinetan ageri direla espazio publikoa zein pribatua okupatuz; hau horrela delarik leku pribatuetan mutilaren eta neskaren agerpena bermatuta daude eta baita leku publikoetan ere. Beraz, espazioak betetzeari dagokionez esan dezakegu ez dela apenas sexismorik ikusten eta gure hipotesia bete egiten dela. Gure datuek berresten dute Martinezek (2012) bere ikerketan esaten duena; espazioaren banaketa tradizionalaren transformazioa egin dela. Hala ere, espazioak betetzeaz gain,

premiazkoa da jakitea nola betetzen duten, alegia, zer egiten agertzen diren: lanak, zaintzak, kirola...

Gure 2.5 hipotesian esaten genuen 1980ko hamarkadako corpusean koloreen (urdinaren eta arrosaren) erabilera sexista nabarmenagoa izango dela gaur egungo literaturan baino.

Datuetan ikusi dugunez, kolore urdinaren erabilerak eboluzionatu egin du. Izan ere, nesketan gero eta gehiagotan ageri da kolore hau eta gainera, liburu saridunetan presentzia handiago du kolore honek nesketan mutiletan baino. Kolore urdinaren erabilerari dagokionez ezin dugu esan sexismoa dagoenik.

Beste alde batetik, kolore arrosaren presentzia nesketan mutiletan baino handiagoa da, eta, datu hau liburu saridunetan areagotzen dela ikusirik, kolore honen erabilera sexistarekin oraindik ez dela bukatu baieztatu dezakegu. Orokorrean, esan dezakegu gure 2.5 hipotesia bete egiten dela 1980ko hamarkadan koloreen erabilera sexista nabarmenagoa delako.

Bost azpi-hipotesiak aztertu ostean, ondorioztatu dezakegu gure 2. hipotesian aurreikusten genuen bezala 1980ko hamarkadako euskal haur eta gazte literaturan sexismo gehiago eman dela gaur egungo literaturan baino. Ondorioz, baieztatu dezakegu gaur egungo literaturan sexismoa gutxitu egin dela eta parekidetasunerantz eboluzionatu egin dela, baina, tamalez, sexismoa oraindik ez da desagertu eta egoera ez da erabat parekidea.

Hirugarren hipotesian frogatu izan dugu gaur egungo pertsonaien ezaugarrietan berrikuntzak egon direla, modu horretan, 1980ko hamarkadako euskal haur eta gazte literaturako pertsonaiekin alderatuz gaur egungo pertsonaien irudien ezaugarrietan berrikuntzak eman direla berretsi egin digute datuek.

3.1 hipotesian esaten genuen liburu saridunetan sinbologia sexista (tresnak eta objektuak) gutxiago agertuko dela. Lehenik eta behin, esan behar dugu gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan Turinek (1995) aurkitutako ikur sinboliko gutxiago nabaritu dugula, eta hau nabarmenagoa da liburu saridunetan, esate baterako egunkariaren agerpena desagertu egin da.

Berrikuntzen hipotesiarekin dagokionez, zenbait sinboloren banaketa generikoa berrikuntzat jo daiteke, adibidez, maletinaren erabilera 1980ko hamarkadan oso desberdina da eta gaur egun, ordea, parekatu egin da mutiletan behera egin duelako eta nesketan gora. Betaurrekoei dagokionez ere esan dezakegu erabilerak eboluzionatu egin duela eta gaur egun erabilera nahiko parekatua dela, 1980ko hamarkadan gertatzen ez den bezala, non gizonetan maizago agertzen den. Pertsonaiekin animalien (txakurra eta katua) agerpena, datuetan ikusten dugunez, ez da animalien erabilera sexistarik ikusten. Azkenik, kaleko tresnen erabileran nahiz eta egoera ez den guztiz parekidea, esan dezakegu ez dela sexismorik ikusten kaleko tresnen erabilpenean. Gainera, 1980ko hamarkadako desoreka handia murriztu egin da nolabaiteko berrikuntza antzemanaz.

Bestalde, badaude bi sinbolo ez dutenak berrikuntzarik erakutsi sexismoa sustatzen dutenak, amantala eta etxeko tresnak alegia. Izan ere, amantalaren erabilerak ez du gehiegi eboluzionatu eta oraindik ere, neskari atxikitzen zaion objektu gisatzat agertzen da. Amantala ageri den liburuetakoko % 100 lotua da neskekin 1980ko hamarkadan eta mutilekin % 4ean, 2013an neskekin % 87.5ean eta mutilekin % 11.5ean eta liburu saridunetan neskekin % 83.3an eta mutilekin % 16.6an. Egoera honek izan dezakeen karga sexistagatik kasu honetan berrikuntzarik ez dela eman esan dezakegu. Etxeko tresnei dagokionez, 2013. urteko datu parekidea izan ezik, esan dezakegu 1980ko hamarkadan eta liburu saridunetan tresna mota hauen erabilera sexista ematen dela. Izan ere, askoz liburu gehiagotan ageri dira nesken eskuetan mutilen eskuetan baino. Hortaz, kasu honetan ez da berrikuntzarik identifikatu. Honek zerikusia dauka etxeko lanen banaketa desorekatuarekin.

Horrexegatik ondorioztatu dezakegu amantalaren eta etxeko tresnaren erabilera izan ezik, beste sinbologia guztian (maletina, betaurrekoak, animaliak, egunkaria eta kaleko tresnak) ez dela sexismorik antzematen eta gainera, 1980ko hamarkadako erabilera sexista gainditu egin denez, egoera hau berrikuntzat har dezakegu.

3.2 hipotesian aurreikusten genuen liburu berrietan emakumearen aisialdia 1980ko hamarkadako literaturan baino aberatsagoa izango dela eta ondorioz gizonen parekoa izango dela. Aisialdian emandako zenbait aldaketa direla medio emakumeen aisialdia aberatsagoa dela eta ia-ia gizonen parekoa dela ondorioztatu dezakegu.

1980ko hamarkadan mutilak askoz liburu gehiagotan ageri dira lagunekin neskak baino eta gaur egungo literaturan ez da desberdintasun hori nabaritzen, horregatik, aisialdi mota honetan parekidetasunerantz eboluzioa antzematen da eta hori, noski, berrikuntza bat da. Irakurketak ere datu positiboak erakusten ditu, izan ere, 1980ko hamarkadan irakurketaren banaketa nahiko desorekatua dago; mutilek askoz gehiago irakurtzen dute eta gaur egungo liburuetan, berriz, neskak agertzen dira gehiago irakurtzen mutilak baino. Etxetik kanpo jolasteko datuak aztertuz gero, beste ondorio positibo bat ateratzen dugu: bertan, ikus dezakegu 1980ko hamarkadatik hona parekidetasunerantz eboluzioa egon dela eta gainera, neskek etxe barruan jolastetik etxe kanpora jolastera salto egin dutela. Beraz, nesken kasuan argi eta garbi berrikuntza ikusten da. 1980ko hamarkadako corpusean nagusiki mutilak badira ikasten eta bidaiatzen agertzen direnak, esan genezake, 1980ko hamarkadatik gaur egunera ikasteari eta bidaiatzeari dagokionez, pertsonaietan berrikuntza ikusten dela; ikasteko eta bidaiatzeko egoerei dagokionez, beraz, eboluzioa egon da eta gaur egun datuak parekideagoak dira. Gainera, liburu saridunetan neska gehiago ageri dira ikasten eta bidaiatzen mutilak baino.

Aisialdiari dagokionez, badaude beste ekintza batzuk ez dutenak berrikuntzarik behar, izan ere, aztertutako hiru multzoetan datuak nahiko parekoak eta presentzia txikikoak dira: telebista ikusi, museoa eta zooa bisitatu eta zinemara joatea. Bestalde, kirolari dagokionez, parekidetasunerantz joera eta eboluzioa dagoen arren, oraindik ere kirola lotuago agertzen da mutilei neskei baino.

Hau guztia dela eta ondorioztatu egiten dugu emakumearen aisialdia 1980ko hamarkadako literaturan baino aberatsagoa dela eta kirolean izan ezik gizonen parekoa dela. Hortaz, eboluzioa eta berrikuntza begi-bistakoa dela esan dezakegu.

Bi azpi-hipotesi hauetan ikusi dugunaren arabera, pertsonaiekin batera agertzen den sinbologiari dagokionez, hainbat aldagaitan eboluzioa eta berrikuntza ikusten da: maletinaren eta betaurrekoen erabileran, animalien (txakurren eta katuen) presentzian, kaleko tresnen erabileran, etxetik kanpo jolastean, lagunekin egotean, irakurtzean, ikastean eta bidaiatzean. Bestalde, beste aldagai batzuetan nahiz eta eboluzioa igarri den, espero zitekeena baino berrikuntza txikiagoa ageri da, esate baterako, amantalaren erabileran, kirolean eta etxeko tresnen erabileran. Hau guztia dela eta esan daiteke sinbologiak aditzera eman dezakeen sexismoa ia-ia desagertzen dela euskal haur eta gazte literatura modernoan.

3.3 hipotesiari dagokionez, aztertutako hiru multzoetan, esan dezakegu, nahiz eta etxea bien esparrua den, oraindik ama gehiago ageri dela etxe barruan aita baino, eta honek ez du berrikuntzarik adierazten. Gaur egungo literaturan etxean amek eta aitek duten presentzia orekatuagoa da 1980ko hamarkadan baino, hala ere, desberdintasuna ez da nabarmena multzo honetan.

3.4 hipotesian gaur egungo literaturan etxean alabek eta semeek duten presentzia aztertu da. Hiru multzoetan datuak nahiko parekoak diren arren, liburu saridunetan, alaba semea baino askoz gehiago ageri da etxean, dena den, hau izan liteke multzo honetan neska gehiago ageri direlako mutilak baino edota egileek etxekotasuna goraiatzeko asmoarekin lotuta.

Hala ere, bi azpi-hipotesi hauetan ez da datu sexistarik antzeman eta espero zitekeenaren kontrara aztertutako hiru multzoetan datuak nahiko parekoak dira, hortaz, esan dezakegu etxea aitaren, amaren, semearen eta alabaren esparrua dela.

3.5 hipotesian ospea aztertu da; 1980ko hamarkadako corpusean oso emakume ospetsu gutxi eta gizon asko agertzen diren bitartean, gaur egungo literaturan ospeak presentzia txikiagoa izango du eta parekatuagoa izango da. 1980ko hamarkadan ospea agertzen den liburu guztietan gizonen bat agertzen da (% 100) eta neska liburuen % 3an. 2013an ere liburu guztietan gizonen bat ageri da eta neskaren bat liburuen % 18an. Azkenik, liburu saridunetan ospea agertzen denean gizonen bat identifikatu da liburu horien % 66an eta neskaren bat liburuen % 33an, baina kopuruak oso txikiak dira.

1980ko hamarkadako corpusean ospea mutilen kontua dela ikusi dugu. Gaur egun, ordea, mutilaren presentziak behera egin du eta datu hau berrikuntzat hartu genezake. Bestalde, neska ospetsuen presentzia oso txikia da, ondorioz, ospeari dagokionez ezin genezake hitz egin erabateko berdintasunaz.

3.6 hipotesian lanbideak aztertu dira. 1980ko hamarkadan gizonak 210 lanbide ezberdinetan identifikatu dira eta horietatik 31tan goi-mailako ikasketak behar dira eta emakumeak, soilik, 55 lanpostutan antzeman dira eta horietatik 10etan behar dira goi-mailako ikasketak. Gaur egun datuak ez dira hain desberdinak: 2013ko multzoan gizona 114 lanbide desberdinetan identifikatua izan da eta horietatik 21etan goi-mailako ikasketak beharrezkoak dira. Emakumea 47 lanbidetan eta horietatik 13tan goi-mailako ikasketak behar dira. Liburu saridunetan, gizona 41 lanpostu desberdinetan identifikatu da eta horietatik 8tan goi-mailako ikasketak behar dira eta emakumea 22 lanpostutan eta horietatik 4tan goi-mailako ikasketak behar dira. 2015ean Emakundek ateratako datuetan ikusten da goi-mailako ikasketak dituen biztanleriaren artean emakumeak gehiago direla (% 79.8) gizonak baino (% 76.3). Hortaz, haur eta gazte literatura modernoak errealitate hau islatzen ez duelakoan gaude.

Horrexegatik ikusten dugu, 1980ko hamarkadatik gaur egunera lanbideen aniztasunari dagokionez aldea murriztu den arren, oraindik ere, gizonen lanbideak askoz anitzagoak dira eta gainera, goi-mailako ikasketak behar dituztenak ere ugariagoak dira. Emakundek 2015ean Euskadin egindako ikerketan lan-merkatuan sartu diren emakumeen tasa 12 portzentaje-puntu baino gehiago gehitu dela (1991ko 38.5ekoa zen, eta 2014an %51.9koa) esaten zuen eta gaur egun gizonen datuarekin alderatuz (% 63.0) 11,1 puntu gutxiagokoa da. Beraz, honek bat egiten du gure ikerketan ikusi dugunarekin, alegia, gizonen jarduera-tasa handiagoa denez, lanak anitzagoak izateko aukera gehiago dago.

1980ko hamarkadan gizonetan gehien errepikatzen diren lanbideak polizia, irakaslea, medikua, apaiza, alkatea eta negozio baten jabeak dira. Emakumeetan gehien errepikatzen diren lanbideak irakaslea, neskamea, saltzailea eta erizaina dira. Gizonenak prestigiotsuak diren heinean, emakumeei lotutako gehienak zaintzei lotutakoak dira.

2013an, gehien agertzen diren lanbideen artean batzuk errepikatu egiten dira eta berriak ere agertzen dira. Gizonen kasuan, gehien errepikatzen direnak hauek dira: alkatea, polizia, irakaslea, zerbitzaria eta medikua. Emakumeen kasuan, irakaslea, tabernaria, neskamea eta kazetaria.

Liburu saridunetan, gizonetan hauek dira gehien agertzen diren lanpostuak: dendaria, musikaria, soldadua, medikua, irakaslea eta zientzialaria. Emakumeetan, ordea, irakaslea, saltzailea eta garbitzailea.

2013an eta liburu saridunetan berrikuntza igartzen den arren, berdintasunerako nahikoa ez dela ondorioztatu dezakegu eta horrela, mutilei eta neskei ez zaizkiela aukera eta eredu berdinak ematen ikus dezakegu.

Azkenik, ikusi da 1980ko hamarkadan negozio baten jabeak eta zuzendariak diren gizonak presentzia handiago dutela emakumeek baino. 2013an eta liburu saridunetan datuak parekatuagoak diren arren, oraindik ez da nahikoa berdintasunaz hitz egiteko.

Hau guztia dela eta lanbideei dagokionez, esan dezakegu 1980ko hamarkadako euskal haur eta gazte literaturak erakusten duen desberdintasun egoera gaur egun, Euskal Autonomi Erkidegoko datuetan bezala, murriztu egin dela, pertsonaien ezaugarri hauetan nolabaiteko berrikuntza sumatuz. Izan ere, jabeen eta zuzendarien presentzia parekatu da, aniztasunari dagokionez desberdintasuna gutxitu egin da, baina oraindik gizonetan anitzagoak izaten dira lanbideak. Errepikapenei dagokionez hainbat estereotiporen agerpena ikusi izan dugu.

Gaur egungo liburuetan, emakumearen lanbidea edozein izan daitekeelarik, emakumeen lanbideak ugariagoak, desberdinagoak eta prestigiotsuagoak dira.

Hirugarren hipotesiak baieztatu egiten digu gaur egungo euskal haur eta gazte literaturako pertsonaiak 1980ko hamarkadako liburukoak baino parekideagoak direla. Hau ikusi ahal izan dugu hainbat ataletan agertu diren berrikuntzei esker: sinbologian, aisialdian, ospean eta lanbideetan.

4.hipotesian gaur egungo euskal haur eta gazte literaturan egiten diren pertsonaien deskribapenak, pertsonaien nortasuna eta aberastasunen banaketa

aztertu da. Bertan aurreikusten dugu gaur egun parekideagoa izango dela 1980ko hamarkadako baino.

Hasteko, 4.1 hipotesian gaur egungo literaturak 1980ko hamarkadako baino deskribapen osoagoak (ezaugarri fisikoak, ezaugarri psikologikoak eta trebetasunak) eta parekideagoak eskainiko dituela aurreikusten genuen.

Ñabarduraren bat izan ezik hipotesia bete egin dela esan dezakegu eta gaur egun deskribapenak osoagoak eta parekideagoak dira. 1980ko hamarkadan egileek egiten dituzten deskribapenetan mutilen ezaugarri fisikoak, psikologikoak eta trebetasunak gehiagotan aipatzen dira askoz mutil gehiago daudelako hamarkada horretako liburuetan. 2013ko multzoan eta liburu saridunetan mutilen eta nesken deskribapenetan ezaugarri fisikoen eta psikologikoen presentzia nahiko parekoa da, baina liburu saridunetan mutilen trebetasunek askoz presentzia handiagoa dute, 1980ko hamarkadan bezala.

Aztertutako hiru multzoetan nesken fisikoa gehiagotan aipatzen da trebetasunak eta ezaugarri psikologikoak baino. 1980ko hamarkadan nahiz eta emakume gutxi agertzen diren beraien ezaugarri fisikoek pisu handia dute. Honek iradoki lezake nesken fisikoak duen gehiegizko garrantzia. Gainera, datuak aztertuz gero, hiru multzoetan mutilen deskribapenak parekatuagoak direla esan dezakegu.

Bestalde, aipagarria da liburu saridunetan nesken ezaugarri fisikoek presentzia txikiagoa dutela mutilenek baino eta 2013an mutilen eta nesken trebetasunen presentzia nahiko parekatua dago.

1980ko hamarkadako liburuetakoko deskribapenetan eta baita liburu saridunetan ere, mutilen fisikoen presentzia nagusi da eta nesken trebetasunak presentzia gutxien duen ezaugarria da. Bestalde, 2013. urtean emakumeen fisikoa da nagusi eta gutxien nesken trebetasunak.

Laburbilduz, 1980ko hamarkadan mutilen deskribapenek toki gehiago hartzen dute, ziur aski multzo honetan mutilen presentzia askoz handiagoa delako. 2013an neskak eta mutilak era nahiko parekatuan deskribatzen dira. Liburu saridunetan mutilen eta nesken ezaugarri fisikoak eta ezaugarri psikologikoak era nahiko parekatuan agertzen dira, baina trebetasunei dagokionez, mutilen eta nesken artean multzo honetan desberdintasuna ikus dezakegu; mutilen

trebetasunek presentzia handia duten bitartean nesken trebetasunek presentzia urria erakusten dute. Modu honetan, liburu saridunetan espero ez zen bezala 1980ko hamarkadako egoera desorekatua errepikatzen da.

Deskribapenei dagokionez, gaur egungo egoera 1980ko hamarkadako baino parekideagoa da, baina liburu saridunetan emakumeen trebetasunen presentzia handiagoa faltan botatzen da.

4.2 hipotesian 1980ko hamarkadako literaturan gizona heroia, autonomia, arazoak gainditzeko dituen, indarkeria erabiltzen duena eta erabakiak hartzen dituen den heinean, gaur egungo literaturan emakumeak ere rol hauek agertuko dituela aurreikusten genuen.

Analisi empirikoak hipotesian esaten duguna berretsi egin digu; 1980ko hamarkadan gizona da salbatzailea, arazoak gainditzeko dituen, indarkeria erabiltzen duena eta erabakiak hartzen dituen eta gaur egun rola hauek emakumeetan ere presentzia handiagoa dute, bereziki liburu saridunetan.

Salbatzailea izateari dagokionez, 1980ko hamarkadan egoera oso desorekatu dago, 2013an mutil salbatzailearen presentzia txikitu egiten denez eta neska salbatzailearen presentzia mantendu egiten denez, desoreka txikiagoa da. Liburu saridunetan, ordea, desoreka erabat desagertzen da erabateko parekidetasuna lortuz. Hortaz, salbatzailea edo heroia izateari 1980ko hamarkadako desoreka gaur egun desagertu egin dela esan dezakegu.

Arazoak gainditzeari dagokionez, 1980ko hamarkadan ez bezala, gaur egungo euskal haur eta gazte literatura egoera nahiko parekatua dela esan dezakegu. Gainera, liburu saridunak eta 1980ko hamarkadakoak alderatuz gero nesken eta mutilen datuak inbertitu egin direla esan daiteke eta 2013.urtean datuak oso parekatuak direnez, egoera parekidea da. Hau izan liteke emakumeei protagonismo baikorra bilatzearen ondorioa.

Datu gazia menpekotasunean ikus dezakegu. Datuak apur bat aldatu diren arren, ezin dugulako parekidetasunaz hitz egin, izan ere, aztertutako hiru multzoetan menpekotasunak nesketan presentzia handiagoa duela ikusten dugu. 1980ko hamarkadako 46 liburutan menpeko neskaren bat identifikatu den bitartean (% 65), menpeko mutilen bat 19 liburutan (% 27). 2013ko 34 liburutan menpeko

neskaren bat ikusi da (% 61) eta mutila 18 liburutan (% 32). 10 liburu saridunetan menpeko nesken bat ageri da (% 52) eta mutilen bat bost liburutan (% 26). Honen ondorioz, eta portzentaia gutxitu den arren, oraindik menpekotasunari dagokionez ez da egoera parekiderik ikusten.

Autonomiari dagokionez, 1980ko hamarkadako liburuetan, zein 2013an argitaratutako liburuetan mutil autonomoen presentzia neska autonomoen presentzia baino askoz handiagoa da. Bestalde, liburu saridunetan neska autonomoen presentzia mutil autonomoen presentzia baino handiagoa da. Datuak erreparatzen baditugu, 1980ko hamarkadako liburuen % 15ean neska autonomoen bat identifikatu da eta mutil autonomoen bat liburuen % 77an. Gaur egun datu hauek parekideagoak dira; 2013ko liburuen % 47an neska autonomoen bat ageri da eta mutil autonomoen bat liburuen % 67an. Liburu saridunetan errazagoa da neska autonomoen bat topatzea (% 47) eta mutil autonomoen bat liburuen % 36an. Beraz, ezaugarri honi dagokion egoera ere parekatuz doala esan dezakegu; 1980ko hamarkadan neska autonomo gutxi agertzen dira euskal letretan, eta gaur egun gehiago agertzen dira.

Indarkeriaren erabilerari dagokionez, euskal haur eta gazte literatura modernoan askoz mutil gehiago agertzen dira indarkeria erabiltzen neskek baino. Hala ere, gaur egun bi sexuen arteko desberdintasuna ez da 1980ko hamarkadan bezain nabarmena. Nahiz eta 1980ko hamarkadan indarkeria nagusiki mutilen rola izan, gaur egun datuak parekatu direla esan genezake neskek ere agertzen direlako indarkeria erabiltzen.

Hau guztia dela eta esan genezake menpekotasunean izan ezik, salbatzaileari izateari, arazoak gainditzeari, autonomia izateari eta indarkeria erabiltzeari dagokionez, emakumeak esparru hauek irabazi egin dituela parekidetasunetik hurbilago egonik.

4.3 hipotesian aurreikusten genuen 1980ko hamarkadan aberastasunaren banaketa ez dela parekidea izango eta gaur egungo literaturan, ordea, aberastasunaren eta txirotasunaren banaketa parekatuagoa izango dela.


Aberastasunari dagokionez, aztertutako hiru multzoetan aberastasunak mutiletan presentzia handiagoa duela ikusi dugu, gainera, desberdintasuna handia dela baieztatu dezakegu. Bestalde, 1980ko hamarkadan diru asko izateak

askoz presentzia handiago du beste bi multzoetan baino. Datuek adierazten digute 1980ko hamarkadan ospea agertzen den liburu guztietan gizon aberatsen bat dagoela (% 100) eta emakume aberatsen bat liburu horien % 5ean ageri dela. 2013an datu horiek pixka bat parekatzen diren arren, oraindik ez da parekidetasunik ikusten, izan ere, urte honetan ospea agertzen den liburuen % 92an gizon aberatsen bat ageri da eta emakume aberatsen bat liburuen % 33an topa daiteke. Gainera liburu saridunetan ez da emakume aberatsik antzeman eta gizon aberatsa aberastasuna agertzen den liburu guztietan ageri da (5 liburu). Hortaz, esan genezake nahiz eta diru askoren presentziak indarra galdu duen euskal haur eta gazte literatura modernoan 1980ko hamarkadatik gaur egunera, diruaren banaketa ez dela bat ere parekatua eta aberastasunak mutilen atxikitzen zaien ezaugarria izaten jarraitzen du.

Datuetan txirotasunaren banaketa aberastasunaren banaketa baino parekatuago dela ikusi dugu. 1980ko hamarkadatik gaur egunera diru gutxi izatearen presentziak bi sexuetan behera egin du. Diru gutxi izateak presentzia handiago du nesketan mutilen baino 1980ko hamarkadan eta liburu saridunetan.

Horrenbestez, esan dezakegu euskal haur eta gazte literatura modernoan txirotasunaren presentzia nahiko parekidea dela. Bestalde, aberastasunen banaketan ez da parekidetasunik somatu beti ere aberastasunak mutilen askoz presentzia handiagoa duelako. Datu hau Euskal Autonomi Erkideogoko egoeraren isla izan liteke; Eustaten datuek (2011) erakusten dutenez, gizonaren diru-sarrerak emakumearenak baino nabarmen handiagoak dira. Hurrengo irudian Euskal Autonomi Erkidegian 2011. urtean familiek, famili errentaren geruzari jarraiki, hartzaile nagusiaren sexuaren arabera dituzten diru sarrerak ikus daitezke.

Familiak, famili errentaren geruzari jarraiki, hartzaille nagusiaren sexuaren arabera. Euskal AE (%) . 2011



17 Irudia. Familiak, famili errentaren geruzari jarraiki, hartzaille nagusiaren sexuaren arabera. Euskal AE. 2011. (EUSTAT, 2011)

Bukatzeko, egilearen sexuak ea eragina duen aztertu dugu. Gure 5. hipotesian esaten genuen, idazlea emakumea denean, 1980ko hamarkadako eta gaur egungo liburuetan mutilen eta nesken irudietan eragina izango duela: parekideagoa izango dela.

5.1 hipotesian esaten genuena baieztatu egin da; hau da, gaur egun emakumeek idatzitako liburuetan zein gizonek idatzitako liburuetan neska den protagonista nagusiak presentzia handiago du, eta hau gainera, nabarmenagoa da emakumeek idatzitako liburuetan.

Emakumeek eta gizonek idatzitako liburuetan emakumezko protagonista nagusiak eboluzionatu egin du eta ondorioz presentzia handiago du. Gainera, egileen sexuei erreparatuz, badirudi emakumezko idazleek hautua egin dutela beraien liburuetakoa protagonista nagusia neska izateko eta hau oraindik nabarmenagoa da saritutako liburuetan. Bestalde, gizonek idatzitako liburuetan aldeak txikituz joan diren arren, oraindik mutilak dira gehientsuenak protagonista nagusiaren paperean.

5.2 hipotesian esaten genuen hiru multzoetan emakumea idazlea denean edertasunaren eta indarraren presentzia parekideagoa izango dela.

Edertasunari eta indarrari dagokionez, 1980ko hamarkadako, 2013ko eta liburu saridunetako emakume idazleek eta gizon idazleek erabilera antzekoa egiten dute.

Aztertutako hiru multzoetan ikusten dugu emakumeek idazten dutenean neska ederraren presentzia nahiko antzeko dela, eta gizonek idazten dutenean neska ederraren presentzia handiagoa dela, bereziki 2013an gizonek idatzitako liburuetan. 1980ko hamarkadan eta liburu saridunetan emakumeek eta gizonek idatzitako liburuetan ez da neska indartsurik eta mutil ederrik identifikatu eta hau sexismoa sustatzeko larria izan daiteke.

5.3 hipotesian ere aurreikusten dugu idazlea emakumea denean aktibotasunaren eta pasibotasunaren presentzia parekideagoa izango dela. Orokorrean emakumeek idazten dituzten liburuetan gizonezkoek idazten dituztenetan baino neska aktibo gehiago identifikatu dira, gainera, neska aktibo gehien emakumeek idatzitako liburu saridunetan ikus dezakegu. Beste alde batetik, liburu saridunetan izan ezik, gizonek idatzitako liburuetan emakumeek idatzitako liburuetan baino mutil aktibo gehiago ageri dira.

Hipotesian esaten genuen bezala, emakumeek idatzitako liburuetan bi sexuek antzeko aktibotasuna erakusten dute eta gizonezkoek idatzitako liburuetan, orohar, mutil aktiboak askoz presentzia handiago du neska aktiboak baino. Honen salbuespena liburu saridunetan ikusten dugu, non neska aktibo gehiago agertzen diren mutilak baino.

Bestalde, pasibotasunari dagokionez, esan dezakegu emakumeek idatzitako liburuetan neska pasiboaren presentzia gero eta urriagoa den bitartean, gizonezkoek idatzitako 1980ko hamarkadako liburuetan eta 2013an idatzitako liburuen erditik gora mantentzen dela. Hala ere, gizonezkoek idatzitako liburu saridunetan emakumeek idatzitako liburuetan baino askoz presentzia txikiagoa du neska pasiboak.

Bai emakumeek idatzitako hiru multzoetako liburuetan zein gizonek idatzitako hiru multzoetako liburuetan mutil pasiboaren presentzia neska pasiboarena baino askoz txikiagoa da. Laburbilduz, esan dezakegu emakumeek idazten dutenean aktibotasunak eta parekidetasunak presentzia parekideagoa dutela.

5.4 hipotesian etxeko ardurei erreparatu zaio, bertan esan dugu idazlea emakumea denean etxeko lanen eta zaintza familiarren banaketa parekideagoa izango dela.

Etxeko lanei dagokienez, 1980ko hamarkadan ez da aldaketa aipagarririk topatzen, izan ere, emakumeek eta gizonek idatzitako liburuetan datuak nahiko antzekoak dira; neskak gehiago ageri dira etxeko lanak egiten mutilak baino, gainera, emakumeek idatzitako liburuetan pisu handiagoa dute etxeko lanek gizonezkoek idatzitakoetan baino.

2013an emakume idazleek mutil gehiago agertzen dituzte etxeko lanak egiten neskak baino, hala ere, ez da desberdintasun esanguratsurik ikusten. Gizona idazlea denean, ordea, askoz neska gehiago ageri dira etxeko lanak egiten mutilak baino.

Emakumeek eta gizonek idatzitako liburu saridunetan etxeko lanen ardura neskei atxikitzen zaie gehiago, eta hau oraindik nabarmenagoa da emakumeek idatzitako liburuetan.

Emakume idazleen kasuan esan dezakegu liburu saridunetako liburuetako datuak eta 1980ko hamarkadakoak nahiko antzekoak direla; neska nagusi etxeko lanak egiten agertzen da eta 2013an datuak nahiko parekideak dira. Gizonek hiru multzoetan idatzitako liburuetan neska ageri da nagusi etxeko lanak egiten. Beraz, emakumeek etxeko lanak gizonek baino gehiago parekatzen dituzten arren, ez dago berdintasunik.

Zaintza familiarrei dagokienez, 1980ko hamarkadan emakume idazleak gizon idazleak baino gehiagotan irudikatzen du neska zaintza familiarren ardura betetzen. 2013an datuek berdintasunerantz eboluzionatzen duten arren, oraindik gizonek eta emakumeek idatzitako liburuetan nagusi dira zaintza familiarrak betetzen dituzten neskak, dena den, datuak nahiko antzekoak dira egilearen sexuari erreparatzen badiogu. Azkenik, liburu saridunetan parekidetasunetik urrundu egiten gara neska eta mutilen arteko diferentzia berriro handitu egiten delako. Hau gizonek eta emakumeek idatzitako liburuetan gertatzen da.

Hau guztia dela eta, idazlea emakumea edo gizona izan zaintza familiarren banaketa nahiko antzekoa dela esan genezake; bi sexuek gehiagotan kokatzen

dute ardura hau nesken esku, beraz, baiezta genezake egoera hau bi sexuetan ez dela bat ere parekidea.

Orokorrean, etxeko ardurak diren etxeko lanak eta zaintza familiarrak egilearen bi sexuek gehiagotan kokatzen dituzte nesken ardurapean. Emakumeek idatzitako liburuetan zaintzak familiarrek eta etxeko lanek presentzia handiagoa duten arren, ez da ezberdintasun esanguratsurik ikusten. Dena den, ardura hauen banaketarik parekideena 2013an emakumeek idatzitako liburuetan ikus genezake.

5.5 hipotesian uste genuen emakumeen lanetan boterearen banaketak parekidetasunerantz eboluzionatu duela.

1980ko hamarkadan emakumeek idatzitako liburuetan ez da neska boteredunik identifikatu eta mutil boteredunak liburuen erdian. Gizonek idatzitako liburuetan, ordea, gutxi izan badira ere bai identifikatu egin direla neska boteredunak, hala ere, mutil boteredunak nagusi dira.

2013an emakumeek idatzitako liburuen neska boteredunak agertzen dira eta mutil boteredunen presentzia asko murrizten da. Gainera, gizonek idatzitako lanetan neska boteredunen presentzia handiagoa da. Beraz, urte honetan gizonezkoek boterea era parekatuagoan banatzen dute, baina ez da berdintasunik ikusten. Emakumeek idatzitako liburu saridunetan berriz ere ez da neska boteredunik identifikatu, baina ezta mutil boteredunik ere. Gizonek idatzitako liburu saridunetan mutil boteredunen presentzia handiagoa da neskena baino. Horrexegatik, emakumeen eta gizonezkoen lanetan eboluzioak berdintasunerantz jo duen arren, oraindik ez da erabateko parekidetasunik lortu.

5.6 hipotesian uste dugu idazlea emakumea denean espazio publiko eta pribatuen banaketa nahiko parekideagoa izango dela eta datuek hau berretsi egiten dute.

Ondorioz, esan genezake espazio publikoan agertzeari dagokionez parekidetasuna nagusi dela eta desberdintasun handiena emakumeek idatzitako liburu saridunetan ikusten dela, multzo honetan liburu gehiagotan ageri da neska espazio publikoan mutilak baino.

Espazio pribatuari erreparatuz, 1980ko hamarkadan emakumeek idatzitako liburu gehiagotan neskak ageri dira espazio pribatuan mutilak baino. Gizonek idatzitako liburuetan joera berdina da, baina datuak parekatuagoak dira. Hortaz, desberdintasun handiagoa dago emakumea idazlea denean gizona denean baino, hala ere, desberdintasuna ez da bat ere ez esanguratsua. 2013.urtean datuak parekatuagoak dira. Emakumeek idatzitako liburu saridun guztietan neskak ageri dira espazio pribatuan eta mutilak liburuen erdian. Gizonek idatzitako liburu sarituetan espazio pribatuaren presentzia txikiagoa da eta bi sexuen arteko ezberdintasuna ere handia da.

Horrexegatik esan genezake espazio publikoak espazio pribatuak baino presentzia handiago duela eta egilearen sexuei erreparatuz ez da desberdintasun esanguratsurik ikusten. Idazlea emakumea izan edo gizona izan espazioen banaketa nahiko parekidea dela ikus daiteke. Hala ere, idazlearen bi sexuetan neskek mutilek baino presentzia handiago dute espazio pribatuetan eta mutilek espazio publikoetan.

5.7. hipotesian esaten genuen idazlea emakumea denean sinbologia sexistak (maletina, amantala, kolore arrosa eta urdina) presentzia txikiagoa izango duela eta parekideagoa izango dela.

Kolore urdinari dagokionez, esan genezake nesketan kolore urdinak espazioa irabazi duela eta hau emakumea idazlea denean areagotzen dela. Kolore arrosari dagokionez, emakumeek idatzitako liburuetan oraindik ere kolore arrosa nagusi da nesketan.

Horrenbestez, kolore arrosaren agerpena hazi egin dela ondorioztatu dezakegu, eta egilearen bi sexuek nagusiki neskekin lotzen duten kolorea izaten jarraitzen duela. Gainera, idazlearen bi sexuetan kolore urdinaren erabilera parekideagoa da.

Amantalaren erabilerak gora-beherak izan dituen arren, aztertutako hiru multzoetan idazlearen bi sexuei erreparatuz, amantala neskari atxikitzen zaion objektua dela egiaztatu izan dugu, nahiz eta mutilei ezarritako kasu guztietan-gutxi horietan- emakumeak izan idazleak.

Maletinaren erabilerari dagokionez, ordea, esan genezake idazlearen sexuak eragina duela eta erabilerak eboluzionatu egin duela. Modu horretan, 1980ko hamarkadan bi sexueta maletina nagusi zen mutiletan, baina gaur egun bai 2013. urtean eta baita liburu saridunetan ere emakumeek idatzitako liburu gehiagotan ageri da neska maletinarekin eta gizonek idatzitako liburu gehiagotan ageri da maletina mutilekin. Hortaz, amantalaren erabilera mutiletan apenas ez den agertzen bitartean, maletinak pisu handiagoa hartu du nesketan.

Honen ondorioz idazlea emakumea denean sinbologia sexistak presentzia txikiagoa duela esan dezakegu eta bidez batez, parekideagoa dela, hala ere, lortutako datuetan egileen bi sexuen ez da desberdintasun esanguratsurik ikusten.

5.8 hipotesian esaten dugu emakumeek idatzitako lanetan aisialdia (lagunekin ibiltzea eta kirola) parekideagoa dela. Lagunekin egoteari dagokionez egilearen sexuari erreparatzen badiogu datuek parekidetasunerantz eboluzionatu dutela esan dezakegu; gaur egun gizonek eta emakumeek idatzitako liburuetan mutilak eta neskak lagunekin era parekidean agertzen direlako.

Kirolari dagokionez, esan genezake gaur egun emakume idazleek beraien lanetan parekidetasuna erakusten dutela eta gizonezko idazleek ere eboluzionatu duten arren, gehiagotan erakusten dute mutila kirola praktikatzen neska baino.

Hau guztia dela eta, guk uste bezala, datuek berretsi egin dute idazlea emakumea denean mutilei eta neskei dagokion irudia parekideagoa da. Hala ere, aldea ez da bat ere ez esanguratsua.

Urteetan zehar zenbait ikerketak (Etxaniz, 1999; Turin, 1995 eta Colomer, 1999) ipuinetan emakumeen presentzia txikia eta emakumeei estereotipo sexistak esleitzen zaizkiela salatu izan dute, ikerketa honetan aurrerapausoak ikusi dira: emakumeen presentzia handiagoa da eta gainera, egileen aldetik estereotipoak gainditzeko eta sexismoa gutxitzeko esfortzua nabaritzen da. Egia da, oraindik euskal haur eta gazte literatura modernoak ez duela berdintasunaz gozatzeko aukerarik.

Gizarteak parekidetasunerantz astiro bada ere aurrera egiten duen bitartean, euskal haur eta gazte literatura modernoak ere antzeko ibilbidea duela esan dezakegu. Badirudi liburuak errealitate baten isla dela, alegia, gaur egun kontzientzia handiagoa dagoela berdintasunean bizitzeko, baina oraindik ez dela nahikoa. Hori bai esan genezake gaur atzo baino hurbilago gaudela eta bihar baino urrunago.

Horrexegatik euskal letrak sexismoarekin apurtzeko joera eta gogoia du. Ikerlan honen zehar ikusi izan dugu kuantitatiboki eta kualitatiboki ere aurrera egin dela eta euskal umeei euskal letretan eredu gehiago eta parekideagoak topatzeko parada dute. Hala ere, sexismoarekin eta genero-sistemak ezarritako estereotipoekin apurtzeko aurretik lan asko dagoela. Ez dugu ahaztu behar liburuek emakume eta gizon izateari esanahi bat ematen diotela, beraz, garrantzitsua da eredu horiek ahalik eta anitzenak eta parekideenak izatea.

Dena den, kontuan izan behar da zer irakurtzen den garrantzitsua bada ere, nola irakurtzen den horrek asko lagundu dezakeela eta nahiz eta umeei sexismoz zipriztinduta dagoen liburu bat topatzen badute eta irakurketa kritika bat egin, irakurketa kritiko horrek ere lagundu dezake umea berdintasunean hezten eta hazten. Honek esan nahi du ez direla ipuin sexistak berez baztertu behar, tresna gisa erabili daitezkeelako eta bestelako baloreak eta balioak izan.

Laburbilduz, hauek dira euskal haur eta gazte literatura modernoan ateratako ondorio nagusiak:

- Emakumeen presentzia gero eta ugariagoa eta ondorioz anitzagoa da (1980ko hamarkadan % 15.7an protagonista nagusia emakumea, 2013an liburuen % 32.7an eta liburu saridunen % 57.9an).
- Mutilei eta neskei eredu berriak eta anitzagoak eskaintzen zaizkie.
- Euskal haur eta gazte literatura modernoan gero eta sexismo gutxiago detektatu den arren, oraindik ere sexismoa nabaritzen da edertasunaren eta indarraren presentzian, aberastasunaren banaketan, amantalaren erabileran, ospearen presentzian...

- Irudikapen estereotipatuari dagokionez aurrerapausoak eman diren arren, neska ederraren eta mutil indartsuaren estereotipoarekin oraindik ez da apurtu euskal letretan.
- Emakumea gero eta aktiboagoa, ausartagoa eta jakintsuagoa da
- Etxeko ardurak (zaintza familiarrak eta etxeko lanak) bien betebeharrak diren arren, nagusiki emakumeei loturik agertzen dira (2013an etxeko lanak agertzen diren liburuen % 83an emakumeak agertzen dira ardura hori betetzen eta gizonak liburu horien erdian gutxi gorabehera (% 42).
- Gero eta emakume boteretsuago topa daitezke, baina oraindik boterea gizonen esku dago.
- Espazioen banaketa nahiko parekidea da; gizonak/mutilak eta emakumeak/neskak espazioa publikoa eta pribatua betetzen agertzen dira.
- Kolore urdina bi sexuetan erabiltzen bada ere, kolore arrosa oraindik ere neskei bideratutako kolorea da, mutilei kolore hori beraiena ez dela adieraziz, aukerak kenduz.
- Sinbologia sexista ia desagertzeaz dagoen arren, oraindik ere ageri da; 2013ko liburu bakarrean ageri da gizona amantala jantzirik eta emakumea zazpi liburutan.
- Emakumeen aisialdia eta gizonen aisialdia nahiko parekoa da, nahiz eta emakumea kirola praktikatzen gutxi ageri.
- Etxean aitak, amak, semeak eta alabak duten presentzia bermatuta dago, hau da, etxea ez dela amaren eta alabaren esparrua izan behar.
- Ospea ere gero eta parekatuago dago, hala ere, euskal letretan duen pisua nahiko txikia da.
- Lanbideei dagokionez aurrera egin den arren, gabezia ikusten dugu; liburuetan orokorrean gizonak lan anitzagoak eta garrantzitsuagoak betetzen dituzte.

- Idazleek egiten dituzten deskribapenak osoagoak dira, nahiz eta faltan botatzen diren emakumeen trebetasunak gehiagotan goraiatzea.
- Gizona ez da salbatzaile bakarra, edo autonomia den bakarra, edo indarkeria erabiltzen duena eta erabakiak hartzen dituen bakarra, izan ere, emakumeak rol hauek ere bereganatu ditu. Dena den, bada garaia emakume dependentearekin bukatzeko.
- Txirotasunaren banaketa parekatuagoa agertzen den moduan, aberastasuna oraindik ez.
- Emakume idazleen liburuetan mutilen eta nesken irudiak parekideagoak diren arren, ez da aldaketa esanguratsurik somatzen.

Azken finean, liburuak neurri batean errealitate soziokulturalaren isla dira. Liburuak ez dira neutroak mezuen eta irudien bitartez egileek beraien munduaren errealitatearen interpretazioa zabaltzen dute edo munduaren errealitatea nolako izatea gustatuko litzaioketen erakusten dute. Ikerketa honetan bezala liburuak bere osotasunean, hitzak eta marrazkiak, aztertu egin behar dira eta hauen irakurketa kritikoa egin. Izan ere, ikusi ahal izan dugun bezala hainbat arlotan aurrerapenak egin badira ere, eta beste batzuetan ia ezer ez, asko dago hobetzeko.

Aurrerapen handiak egon diren arren, sexismoak presente egoten jarraitzen du eta hau arazo bat da ez dituelako desberdintasun sozialekin amaitzen. Gainera, kasu batzuetan badirudi berdintasun irudi bat eskaini nahi dela nesketan tradizionalki mutilen estereotipoak eta ezaugarriak izan direnak islatuz eta ez da prozesu berdina antzeman mutiletan, esate baterako, normatzat jotzen da neskek urdina erabiltzea, baina ez da oso ohikoa mutilek arrosa erabiltzea. Beraz, modu batean edo bestean oraindik hitzek eta irudiek estereotipo maskulinoak eta femeninoak transmititzen jarraitzen dituzte. Lan literarioek, helarazten duten ideologia eta balioekin batera, gure haurren eragin negatiboa izan dezakete. Diskriminazioari eta desberdintasun ezari aurre egiteko liburuetakoa sexismoa ikustaraztea beharrezkoa litzateke. Besteak beste, interesgarria litzateke bi sexuentzat lanbide mota guztiak, desberdinak eta anitzak eskaintzen dituen literatura izatea hurren eskura; gizonezko erizainak eta emakumezko medikuak, gizonezko garbitzaileak eta emakumezko epaileak.

Baita lan-eremuan arrakastatsuak eta boteredunak diren emakumeak ere beharrezkoak lirateke. Beste gizon eredu batzuk jasotzen dituzten liburuak ere beharrezkoak dira, esate baterako, etxeko lanak eta zainketa lanak burutzen dituzten gizonak islatzea, kolore arrosa erabiltzen dutenak edo sentikorrek direnak. Lan honek erakutsi du nahiko zaila dela gizartean oso erroturik dauden aurreiritzi, estereotipo, ohiturak edo usteak aldatzea, baina bestalde ikerketa lan honek ere erakutsi du posiblea dela gaur egungo ikasleei, hau da, etorkizuneko belaunaldiei gizon-emakumeen arteko parekidetasuna lortzeko ahalegina egiteak merezi duela.

Argi geratu da euskal haur eta gazte literatura modernoan emakumearen irudiak eboluzioa izan duela eta orokorrean gaur egungo literatura ez dela 1980ko hamarkada bezain sexista; 1980ko hamarkadan gaur egun baino jarrera sexistagoak zeuden, emakumeen eta gizonen irudiaren artean desoreka handiagoa zegoen eta ondorioz parekidetasunetik urrunago geunden. Hala ere, honek ez du adierazi nahi gaur egungo haur eta gazte literatura sexismorik gabe parekidea denik, ezta gutxiago ere; izan ere, gizartean oraindik erroturik dauden hainbat ezaugarri literaturan islatzen dira, adibidez, etxeko lanen eta zaintza familiarren banaketa oraindik ez da parekidea, gizonen lanbideak anitzagoak, boteretsuagoak eta prestigiotsuagoak dira, emakume indartsu, ospetsu eta aberats gutxi ageri dira eta amantala janzten duten mutil gutxi. Bestalde, beste arlo batzuetan aurrerapausuak eman dira: emakume gehiago daude, neskak ausartagoak dira, neska aktiboen eta heroien presentzia handiagoa da, emakumeak espazio publikoa eta pribatua betetzen ditu, emakumeek kolore urdinaren erabilera nabarmen handitu da, sinbologia sexistaren erabilera ia-ia desagertu da, emakumearen aisialdia aberatsagoa da, emakume salbatzailea, autonomia, arazoak gainditzen dituen eta indarkeria erabiltzen duenaren presentzia handitu da neska irakurleei eredu berriak eta anitzagoak eskainiz. Hau guztia dela eta, euskal haur eta gazte literaturaren egoera, berdintasunaren ikuspuntutik, hobea da.

Bukatzeko, ikerketa lan honek etorkizunerako beste ikerketa ildo batzuk zabaltzen dituela uste dugu. Horien artean gure uste apalean hauek izango lirateke interesgarrienak eta garrantzitsuenak, hona hemen guk proposatzen ditugunak: lehenengoa, liburu saridun guztiak aztertzea, ikerketa horrek aukera

emango liguke liburu irabazleen ezaugarrien erradiografia egiteko eta baieztatzeko edo ezeztatzeko epaimahaikoek sexismoan eta berdintasunean arreta ipintzen duten edo ez esateko. Beste ikerketa posible bat izango litzateke liburu sexistak eta ez-sexistak alderatzea berdintasunak eta ezberdintasunak antzemateko, eta azkenik, modu kualitatibo batean idazleekin eta umeekin elkarrizketa sakonak egitea idazleen ideologiak umeengan nolako eragina duten ikusteko. Horrela egileen feminismoak zenbaterainoko jarrera kritikoa izatea ahalbidetzen duen frogatu ahalko genukeelako. Espero dut etorkizunean zabalduko diren bide hauek norbaitengan bide berri hauek jorratzeko gogoia piztea.

Ikerketa lan hau egitea aberasgarritzat jotzen dugu ikerketa mundua ezagutzeko aukera eman digulako, baina bereziki, Euskal Herriko umeek eta nerabeek irakurtzen dituzten liburuek eskaintzen dituzten gizonen eta emakumeen irudiak eta ereduak ezagutzeko aukera eman digulako. Oraindik lan asko egiteko dagoen arren, ikerketa lan honek sexismoarekin bukatzeko eta bide batez, berdintasunerantz pittin bat hurbilduko gaituelakoan, munduan zehar feministek, ikerlariak, irakasleak, egileak... berdintasuna bizitzeko egin duten lan luzea, zaila eta ordainezina eskertuko nahiko genuke, plazer bat izan da zuen ekarpen guztiak irakurtzea eta tesi lan honetan horietaz baliatzea aurrera egin ahal izateko.

Berdintasunerako oztopoz beteriko bide luzean denon partaidetza beharrezkoa da sexismoarekin bukatzeko.

ERREFERENTZIAK

- Aguiar e Silva, V. M. (1972). *Teoría de la literatura*. Madril: Gredos.
- Alberdi, I. eta Rojas, L. (2005). *Violencia: Tolerancia cero*. Barcelona: Fundación La Caixa.
- Aldekoa, I. (2004). *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein.
- Aldekoa, I., Gabilondo, J., eta Apaolaza, X. (2008). *Postmodernitatea eta globalizazioa*. Bilbo: Hiru. Erroteta.
- Aldekoa, I. (2012). Una mirada a la literatura vasca y a la postmodernidad. *Oihenart*, 27, 9-25.
- Alvarez, A. (2004). *Euskara sexista al da?* erabili.com. 2014-6-16an hartuta hemendik: http://www.erabili.eus/zer_berri/muinetik/1078235452/
- Alvarez, A. (2005). Euskal emakume idazleen lekua literaturaren historian. *Jakin*, 148, 37-74.
- Álvarez, A. (2011). *Genero eta nazio identitateak Katalina Eleizegiren antzelanetan*. Bilbo: UPV/EHU.
- Álvarez, A., eta Lasarte, G. (2012). *Gorputza eta generoa: Euskal kulturen eta literaturan*. Bilbo: UPV/EHU.
- Álvarez, S. (2001). Diferencia y teoría feminista. Hemen: E. Beltrán, (editorea.), *Feminismos: Debates teóricos contemporáneos*. (243.-280. or.). Madril: Alianza.

- Álvarez, M., eta Jurado, C. (2011). *Desarrollo Socioafectivo e intervención con familias*. Malaga: Innova.
- Altable, C. (1998). *Penélope o las trampas del amor*. Valencia: Nau Llibres.
- Altable, R. (1993). El currículum oculto: La coeducación sentimental. *Educación y género: Una propuesta pedagógica*. Santiago: La Morada/Mineduc.
- Alzola, N. (2004). *Propuestas éticas en libros-álbum de literatura Infantil. Diseño y aplicación de un modelo para el análisis de valores*. (Doktore tesia). Bilbo: UPV/EHU.
- Alzola, N. (2007). Literatura infantil y educación ética: Analisis de un libro. *Revista de Psicodidáctica*, 22, 153-166.
- Amonarriz, K. (2013). *Tribuaren berbak* (programa) Donostia: EITB.
- Amorós, C., Beneria, L., Delphy, C., Rose, H., eta Stolcke, V. (1985). *Mujeres: Ciencia y práctica política*. Madril: Debate.
- Amorós, C. (1991). *Hacia una crítica de la razón patriarcal*. Bartzelona: Anthropos Editorial.
- Amorós, C. (1997). *Tiempo de feminismo: Sobre feminismo, proyecto ilustrado y postmodernidad [ie postmodernidad]*. Valentzia: Universitat de Valencia.
- Andersen, M. (1988). *Thinking about women*. New York: Macmillan Publishing Company.

- Andrés, R. (2000). La teoría" queer" y el activismo social. Hemen: M. Segarra eta A. Carabi (editoreak.), *Feminismo y crítica literaria* (143.-158. or.). Bartzelona: Icaria.
- Association européenne du côté des filles, (1998). *¿Qué modelos para las niñas? Una investigación sobre los libros ilustrados*. Paris: Du Côté des Filles.
- Association européenne du côté des filles, (1998). *¿Qué ven los niños en los libros de imágenes? Respuesta sobre los estereotipos*. París: Du Côté des Filles
- Arnal, J. I. (2011). *El tratamiento de la muerte en el álbum infantil. Obras publicadas en castellano (1980-2008)* (Doktore tesia). Gasteiz: UPV/EHU. Ikusgai: <https://addi.ehu.es/bitstream/10810/7663/1/ArnalGil.pdf>.
- Arnot, M. (1980). Socio-cultural reproduction and women's education. Hemen: R. Deem (editorea.), *Schooling for women's work*. Londres: Routledge eta Kegan Paul.
- Apple, M. (1986). *Ideología y currículo*. Madril: Ed. Akal.
- Atxaga, M. (1997). *Euskal emakume idazleak (1908-1936)*, Bidegileak. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Azkarate, M. (1993). Emakumea eta euskara. Hemen: J. Arrizabalaga eta A. Carbonell (editoreak.), *Emakumea: sexua ala generoa*, 69-78. Bilbo: UEU.
- Azurmendi, N. (1987). Emakume idazleak euskal literaturan. *Jakin*, 45, 25-36.
- Barquín, A. (2008). *Euskararen erabilera ez sexista*. Gasteiz: Emakunde.

- Barragán, F. (1989). Conocimiento social, sexismo y literatura infantil. *Cuadernos de literatura infantil y juvenil*, 11, 8-12.
- Barrett, M. (1980). *Women's oppression today: Problems in marxist-feminist analysis*. London: New Left Books and Verso.
- Barrett, M., eta McIntosh, M. (1985). Ethnocentrism and socialist-feminist theory. *Feminist Review*, 20(1), 23-47.
- Baudrillard, J. (1994). *Simulacra and simulation*. Michigan: University of Michigan press.
- Belsey, C. (2002). *Critical Practice*. 1980. London and New York: Routledge.
- Benería, L. (1987). ¿Patriarcado o sistema económico? Una discusión sobre dualismos metodológicos. Hemen: C. Amorós, L. Beneria, C. Delphy, H. Rose eta V. Stolcke (editoreak.), *Mujeres. ciencia y práctica política* (39.-54. or.). Madril: Debate.
- Benhabib, S. (1990). El otro generalizado y el otro concreto: Controversia Kolhberg-Gilligan y la teoría feminista. Hemen: S. Benhabib eta D. Cornell (editoreak.), *Teoría feminista y teoría crítica*. Valentzia: Alfons el Magnànim.
- Benstock, S., Ferriss, S. eta Woods, S. (2002). *A handbook of literary feminisms*. New York: Oxford University Press.
- Berge, A. (1981). *¿Con qué mundo se enfrentan nuestros hijos?* Madril: Narcea.
- Berger, P., eta Luckmann, T. (1986). *La construcción social de la realidad*. Buenos Aires: Amorrortu.

- Bettelheim, B. (1997). *Psicoanálisis de los cuentos de hadas*. Madril: Editorial Crítica.
- Bilbao, B. (2002). *Kultura erreferenteak oinarritzko hezkuntzako curriculumea*. Bilbo: UPV/EHU.
- Bilbao B. (2006). Hezkuntzarako eskubidea genero ikuspegitik: Emakumeen rolak testuliburuetakako ikonografian. Hemen: LM, Naya eta P. Dávila (editoreak.), *El derecho a la educación en un mundo globalizado*, 2, 87-98. Donostia: Erein.
- Bisaria, S. (1985). *Identification and elimination of sex stereotypes in and from education programmes and school textbooks: some suggestions for action in Asia and the Pacific*. Paris: Unesco.
- Blanco, N. (2001). *Educar en femenino y en masculino*. Madril: Akal.
- Bonino, L. (1991). Varones y abuso doméstico. Hemen: AEN (editorea.), *Salud mental y ley*. Madril: AEN.
- Bonino, L. (1995). *Los micromachismos en la vida conyugal*. Buenos Aires: Paidós.
- Borda, I. (1984). *Hogeigarren mendeko emakumeak idazle*. Donostia:Txertoa.
- Borda, I. (1984). *Emakumeak idazle*. Donostia: Txertoa.
- Borras, L. (2000). Introducción a la crítica literaria feminista. Hemen: M. Sagarra (editorea.), *Feminismo y crítica literaria*. Bartzelona: Icaria.
- Bortolussi, M. (1987). *Análisis teórico del cuento infantil*. Madril: Editorial Alhambra.

- Bourdieu, P. (1977). Sur le pouvoir symbolique. *Annales*, 3, 405-411.
- Bowles, S. eta Gintis, H. (1985). *La instrucción escolar en la América capitalista*.
Madrid: Siglo XXI.
- Braithwaite, V. A., Makkai, T., eta Pittelkow, Y. (1996). Inglehart's materialism-postmaterialism concept: Clarifying the dimensionality debate through Rokeach's model of social values. *Journal of Applied Social Psychology*, 26, 1536-1555.
- Bravo-Villasante, C. (1978). *Literatura infantil universal* (2 tomo). Madrid: Almena.
- Bravo-Villasante, C. (1983). *Historia de la literatura infantil española*. Madrid: Doncel.
- Bravo-Villasante, C. (1987). *Historia de la literatura infantil Iberoamericana* (2 tomos). Leon: Everest.
- Brugilles, C. (2002). Les représentations du masculin et du féminin dans les albums illustrés ou comment la littérature enfantine contribue à élaborer le genre. *Population* 2(57), 261- 292.
- Butler, J. (1993). *Bodies that matter*. New York: Routledge.
- Butler, J. (2011). *Gender trouble: Feminism and the subversion of identity*.
London: Routledge.
- Cabo, F., eta Rabade, M. C. (2006). *Manual de teoría de la literatura*. Madrid: Castalia.
- Chafetz, S. (1984). *Sex and advantage: a comparative macro-structure theory of sex stratification*. New Jersey: Rowman eta Allanheld.

- Cala, M. J., eta de la Mata, M. L. (2006). Escenarios de actividad e identificación de género: Un estudio de grupos de discusión en educación de personas adultas. Hemen: M. A. Rebollo (editorea.), *Género e Interculturalidad: Educar para la igualdad*, 197-214. Madril: La Muralla.
- Calleja, S. (1990). *La literatura infantil vasca y su contexto histórico europeo*. Bilbo: Lumaki.
- Calleja, S. (1994) *Haur literatura euskaraz. Lehenengo irakurgaietatik 1986ra arte*. Bilbo: Labayru Ikastegia- Bilbao Bizkaia Kutxa.
- Calleja, S., eta Monasterio, X. (1988). *La literatura infantil vasca: Estudio histórico de los libros infantiles en Euskara: (1985-1986)*. Bilbo: Universidad de Deusto.
- Callinicos, A. (1998). *Contra el postmodernismo*. Bartzelona: Ancora.
- Cañamares-Torrijos, C. (2004). Algunos roles sexistas en los álbumes ilustrados infantiles: ¿Un nuevo sexismo?. In *Valores y lectura: Estudios multidisciplinares* (147.-172. or.). Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.
- Cañellas, A. (1975). Los roles sexuales de la literatura infantil. *Cuadernos de pedagogía*, 53. 19-22.
- Carbonell, N. (2000). Feminismo y postestructuralismo. Hemen: M. Sagarra eta A. Carabi (editoreak.), *Feminismo y crítica literaria* (31.-43. or.). Bartzelona: Icaria.
- Carreño, L. M. (2012). La ilustración infantil, una cuestión de entender a los niños. *Revista SCHEMA*, 1 (7), 7-19.

- Cashdan, S. (2000). *La Bruja debe morir. De qué modo los cuentos de hadas influyen en los niños*. Madril: Debate.
- Catalán, M. A. R. (2006). *Género e interculturalidad: Educar para la igualdad*. Madril: Editorial La Muralla.
- Cear-Euskadi, (2009). *Asiloari buruzko hiztegia*. 2014-11.23an hemendik hartuta: <http://cear-euskadi.org/diccionario/eu/identidad-de-genero/>
- Cendán-Pazos, F. (1986). *Medio siglo de libros infantiles y juveniles en España (1935-1985)*. Madril: Fundación Germán Sanchez Ruiperez/ Pirámide.
- Cerrillo, P. C. (2007). *Literatura infantil y juvenil y educación literaria: Hacia una nueva enseñanza de la literatura*. Bartzelona: Octaedro.
- Cervera, J. (1982). *Historia crítica del teatro infantil español*. Madril: Nacional.
- Cervera, J. (1984), *La literatura infantil en la educación básica*, Madril: Cincel-Kapelusz.
- Cervera, J. (1991). *Teoría de la literatura infantil*. Bilbo: Universidad Deusto.
- Cervera, J. (1997). *La creación literaria para niños*. Bilbo: Mensajero.
- Cixous, H. (1995). *La risa de la medusa*. Bartzelona: Anthropos Editorial.
- Cobo-Bedia, R. (2005). El género en las ciencias sociales. *Cuadernos de Trabajo Social*, 18, 249-258.
- Colomer, T. (1994). A favor de las niñas. El sexismo en la literatura infantil. *Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil*, 57, 7-24.
- Colomer, T. (1998). *La formación del lector literario. Narrativa infantil y juvenil actual*. Madril: Fundación Germán Sánchez Ruipérez.

- Colomer, T. (1999). *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Madril: Síntesis.
- Colomer, T. (2002). Una nueva crítica para el nuevo siglo. *Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil*, 145, 7-17.
- Colomer, T. (2010). *Introducción a la literatura infantil y juvenil actual*. Madril: Síntesis.
- Contreras, J. (2014). *Análisis de libros escolares desde una perspectiva de derechos humanos. Por una educación inclusiva y no discriminatoria*. Buenos Aires: INADI.
- Crawford, M., eta Chaffin, R. (1997). The meanings of difference: Cognition in social and cultural context. Hemen. P. J. Caplan, M. Crawford, J. S. Hyde eta J. T. Richardson (editoreak.), *Gender differences in human cognition*, (81.-130. or.). New York: Oxford University Press.
- Crawford, M. (2006). *Transformations. Women, gender and psychology*. Boston: McGraw Hill.
- Creswell, J. W. eta Plano Clark, V. L. (2007). *Designing and conducting mixed methods research*. Thousand Oaks: Sage.
- Cromer, S., eta Turin, A. (1996). *Quels modèles pour les filles?: Une recherche sur les albums illustrés*. Paris: Association européenne Du Côté des filles.
- Davies, B. (1994). *Sapos y culebras y cuentos feministas: Los niños de preescolar y el género*. Madril: Cátedra.
- De Barbieri, T. (1992). *Sobre la categoría de género: Una introducción teórico-metodológica*. Santiago de Chile: Isis Internacional.

- De Beauvoir, S. (1941). *Le deuxième sexe*. Paris: Gallimard.
- De Beauvoir, S. (1981). *El segundo sexo*. Madril: Aguilar.
- Defis, O., eta Casals, E. (1999). Educar en valores en la escuela infantil. *Aula de Innovación Educativa*, 8(79), 6-8.
- De la Cruz, C. (1998). Genero ikuspegia garapen proiektu eta programetan barneratzeko gida metodologikoan. Gasteiz: Emakunde.
- Deleuze, G. (1988). *Diferencia y repetición*. Madril: Júcar.
- Del Valle, T. (2002). *Modelos emergentes en los sistemas y las relaciones de género*, 27. Madril: Narcea Ediciones.
- Derrida, J. (1967). La structure, le signe et le jeu dans le discours des sciences humaines. *L'écriture et la différence*, 409-428.
- De Saussure, F. (1980). *Curso de lingüística general*. Madril: Akal.
- Durkheim, E. (1975). *Educación y sociología*. Bartzelona: Península.
- Eagleton, T., eta Calderón, J. E. (1988). *Una introducción a la teoría literaria*. Madril: Fondo de Cultura económica.
- Eagleton, M. (1991). *Feminist literary criticism*. New York: Longman.
- Elizondo, A. (1997). *Mujeres en política: Análisis y práctica*. Bartzelona: Ariel.
- Ellmann, M. (1968). *Thinking about women*. New York: Harvest/HBJ Book.
- Emakunde, (1993). *Emakumeak eta hezkuntza euskal autonomi elkartean- mujeres y educación en la comunidad autónoma de euskadi*. Gasteiz: Emakunde.

Emakunde, (1998). *Emakumeen kontrako diskriminazio era guztiak ezabatzeko konbentzioa eta gomendioak*. Gasteiz: Emakunde.

Emakunde, (2009). *Cuentos infantiles y roles de género*. Gasteiz: Emakunde.

Emakunde, (2016). *2015eko Zifrak– Emakumeak eta gizonak Euskadin*. [on-line]
[kontsulta: 2016-09-27]. URL helbidea:
http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio_cifras/eu_emakunde/adjuntos/zifrak_2015.pdf

Errea, I. (2003). *Literatura eta harrikoa: hamaika pauso hitzen urmaeletik bizitzaren harraskara*. Iruñea: Pamiela.

Erro, A. (2000). La ilustración en la literatura infantil. *Rilce*, 16, 501-511.

Escarpit, D. (1986). *La literatura infantil y juvenil en Europa*. Mexico: Fondo de Cultura Económica.

Escámez, J., eta García, R. (2005). *Educar para la ciudadanía. La prevención escolar contra la violencia de género*. Valentzia: Brief.

Espinosa-Bayal, M. A. (2005). Generoa eta ereduak familian. Hemen: SARE.
Nazioarteko Kongresua: Egungo neskek, etorkizuneko emakumeak (31.-40.or). Donostia: Emakunde.

Esteban, M. L. (1998). Antropologia eta feminismoa. *Uztaro*, 24, 3-17.

Esteban, M. L., Medina, R. eta Távora, A. (2005). ¿Por qué analizar el amor? Nuevas posibilidades para el estudio de las desigualdades de género. Hemen. C. Díez-Mintegui eta C. Gregorio-Gil (editoreak.), *Cambios culturales y desigualdades de género en el marco local-global actual*

(207.-223. or.). X Congreso de Antropología. Sevilla: FAAEE-Fundación El Monte-ASANA.

Estébanez, D. (1995). *Diccionario de términos literarios*. Madril: Alianza.

Etkin, J. (1993). *La doble moral de las organizaciones*. Madril: Ed. McGraw-Hill.

Etxaniz, X. (1996). *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Bilbo: UPV/EHU.

Etxaniz, X. (1999). Líneas de investigación en literatura infantil y juvenil. *Revista de Psicodidáctica*, 185(8), 5-16.

Etxaniz, X. (2003). Mariasun Landa: Hasi zen eta hazi da. *Behinola: Haur eta Gazte Literatura Aldizkaria*, 9, 19-20.

Etxaniz, X. (2004). La ideología en la literatura infantil y juvenil. *Cauce. Revista de Filología y su Didáctica*, 27, 83-96.

Etxaniz, X. (2007). *Literatura eta ideologia*. Donostia: Utriusque Vasconiae.

Etxaniz, X. (2008). Investigación en torno a la literatura infantil y juvenil. *Revista de Psicodidáctica*, 13(2). 97-109.

Etxaniz, X. (2011). Gure arteko haur eta gazte literatura. *Tantak*, 33. 89-101.

Eusko Jaurlaritza. (1992). *Oinarrizko Curriculum Diseinua. Lehen Hezkuntza*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.

Eusko Jaurlaritza. (2010). *Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila*. 2015-10-19an hartuta hemendik: http://www.gizartelan.ejgv.euskadi.eus/r45-berdqtra/eu/contenidos/informacion/identidad_de_genero/eu_transexu/ransexualidad.html

Eusko Jaurlaritzak. (2011). *Segurtasun Saila*. 2015-09-15an hartuta hemendik:

http://www.interior.ejgv.euskadi.eus/r42-100/es/contenidos/informacion/ez_isildu/es_01/de_principes_y_princesas.html

Eusko Jaurlaritzak. (2013). *Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta kultura Saila*.

Hezkuntza-sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida Plana. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren argitalpen zerbitzu nagusia. 2015-09-28an hartuta hemendik:

http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dig_publicaciones_innovacion/eu_conviven/adjuntos/coeducacion/920006e_Pub_EJ_hezkidetzak_plana_e.pdf

Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT). (2011). *Euskal familien diru-sarrerak*

aldatu egiten dira, hartzaile nagusia gizon edo emakume izan. 2014. [on-line] [kontsulta: 2016-09-27]. URL helbidea:

http://eu.eustat.eus/elementos/ele0011400/ti_Euskal_familien_diru-sarrerak_aldatu_egiten_dira_hartzaile_nagusia_gizon_edo_emakume_izan/0011404_e.html#axzz4PXRS0YqU

Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT). (2016). *Euskal AEko landunak,*

egunean etxeko lanetan emandako ordu kopuruari jarraiki, ezaugarri soziodemografikoen arabera (batez bestekoa). 2015. [on-line] [kontsulta: 2016-09-27]. URL helbidea:

http://eu.eustat.eus/elementos/ele0007500/ti_Poblacion_ocupada_de_la_CA_de_Euskadi_por_horas_diarias_dedicadas_a_actividades_del_trabajo_domestico_segun_caracteristicas_sociodemograficas_Media_2015/tbl0007580_e.html#axzz4LTXKRyxe

- Even-Zohar, I. (1990). Polysystem theory. *Poetics Today*, 11(1), 9-26.
- FINNIDA (Ministry of Foreign Affairs), (1995). *Guidelines on gender analysis*. Helsinki: Ministry of Foreign Affairs.
- Fortún, J. M. (2002). *Literatura infantil: Teoría y práctica*. Granada: Grupo Editorial Universitario.
- Freedman, Estelle B. (2002): *No Turning Back: The History of Feminism and the Future of Women*. Nueva York: Ballantine.
- Freixas, A., García, E., Jiménez, J. R., Sánchez, J. L., eta Santos, M. A. (1993). *La coeducación, un compromiso social*. Sevilla: Instituto Andaluz de la Mujer.
- Friedan, B. (1963). *The feminist mystique*. London: Penguin.
- Froufe, S. (1995). El protagonismo de la familia ante la transmisión de los valores sociales. *Documentación social*, 98, 61-72.
- Fuss, D. (2013). *Essentially speaking: Feminism, nature and difference*. London: Routledge.
- Gabiria, J. (2009). Haur literaturako rolak eta gizarte. *Emakunde*, 75, 12-15.
- Gabiria, J. (2010). *Gaztea.Euskonews*. 2014-03-19an hartuta hemendik: <http://gaztea.euskonews.com/0536zbk/elkar536.html>
- Gabiria, J. (2014). Haur literatura eta sexu rolak. *GAUR* 8. 385. 17-22.
- Gabilondo, J. (2006). *Nazioaren hondarrak. Euskal literatura garaikidearen historia postnazional baterako hastapenak*. Bilbo: UPV/EHU.

- Gabilondo, J. (2013). Literatur kritika eta teoria kritikoak: Beraun historia eta arkeologia. *Anuario del Seminario de Filología Vasca, "Julio de Urquijo"*, 24(1), 21-51.
- Gárate, A. (1997). Niños, niñas y libros. *Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil*, 10(95), 7-18.
- García, J. (1992). *Libros y literatura para niños en la España contemporánea*. Madrid: Fundación Germán Sanchez Ruiperez/ Pirámide.
- Garralón, A. (1990). Literatura con valores. *CLIJ*, (13), 26-29.
- Gallardo, E. (2011). *Sobre poética. Blog sobre Teoría de la Literatura*. Kонтсultа- data: 2016ko uztailaren 9an <https://peripoietikes.hypotheses.org/568>
- Garcia, A. (1988). *Lenguaje y discriminación sexual*. Bartzelona: Montesinos.
- Gervilla, E. (2003). Educadores del futuro, valores de hoy. *Revista de educación de la Universidad de Granada*, 15, 7-25.
- Gilbert, S. M., eta Gubar, S. (1980). *The madwoman in the attic: The woman writer and the nineteenth-century literary imagination*. Yale: Yale University Press.
- Goiburu, E., Urdangarin, G, eta Ugarteburu, O. (2011). Ipuinen funtzio pedagogikoak. [Udako Ikastaroa]. Eibar: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Golubov, N. (2012). *La crítica literaria feminista: Una introducción práctica*. Mexiko Hiria: Universidad Nacional Autónoma de México.

- Gómez, G. (2004). *Grimm anaien "Kinder-und hausmärchen" euskaraz, itzulpenen eta egokitzapeen azterketa*. (Dokotrego tesia). Bilbo: UPV/EHU.
- Gomez del Manzano, M. (1986). *Cómo hacer a un niño lector*. Madril: Narcea.
- González, F. (1990). *Educación en valores y diseño curricular*. Madril: Alhambra.
- Gouveia, V. V. (1998). *La naturaleza de los valores descriptores del individualismo y del colectivismo: una comparación intra e intercultural*. (Argitaratu gabeko dokotrego-tesia). Madril: Universidad Complutense de Madril.
- Gouveia, V., Santos, S., Milfont, L., Fischer, R., Clemente, M. eta Espinosa, P. (2010). Teoría funcionalista de los valores humanos en España: Comprobación de las hipótesis de contenido y estructura. *Revista Interamericana de Psicología*, 44(2), 213-224.
- Green, R. L. (1962). *Tellers of tales. Children's books and their authors from 1800-1968*. Norwich: Kaye and Ward.
- Gurrutxaga, M. (2011). *Berria*. 2015-02-25an hemendik hartuta: http://www.berria.eus/paperekoa/1635/039/001/2011-02-15/marrazkiak_ez_dira_dekorazio_soil_bat_indarra_ematen_diote_testuari.htm
- Hassan, I. (1987). *The postmodern turn essays in postmodern theory and culture*. Ohio: Ohio State University Press.
- Harvey, D. (1998). *La condición de la posmodernidad. Investigación sobre los orígenes del cambio cultural*. Buenos Aires: Amorrortu.

- Hik Hasi aldizkaria. (2006). Euskal curriculumua herritarren ikuspegitik. *Hikhasi aldizkaria*, 105. 8-15.
- Hofstede, G. (1984). *Culture's consequences: International differences. In word-related values*. Newbury Park: Sage.
- Hofstede, G. (1991). *Culture and organizations: Software of the mind*. London: McGraw-Hill.
- Humm, M. (1994). *A reader's guide to contemporary feminist literary criticism*. New York: Harvester Wheatsheaf.
- Hunt, P. (1996). *International companion encyclopedia of children's literature*. London-New York: Routledge.
- Hürlimann, B. (1968). *Tres siglos de literatura infantil europea*. Bartzelona: Juventud.
- Ibáñez, R. (1976). *Valores, objetivos y actitudes en educación*. Valladolid: Miñón.
- Ibarrola, B. (2003). *Cuentos para sentir: Educar las emociones*. Madril: Ediciones SM.
- INADI. (2005). *Análisis de libros escolares desde una perspectiva de derechos humanos*. Buenos Aires: INADI.
- Instituto de la Mujer. (2000). *La transmisión de los modelos femenino y masculino en los libros de la enseñanza obligatoria* (Vol. 64). Madril: Instituto de la Mujer.

Instituto de la Mujer. (2008). *Guía de coeducación síntesis sobre la educación para la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombre*. Madrid: Instituto de la Mujer.

Irastorza, T. (1984). Emakumea eta literatura I eta II. 2015eko irailaren 5ean lortua hemendik: <http://andima.armiarma.eus/ttut/ttut0306.htm>

Irigaray, L. (1974). *Speculum de l'autre femme*. Paris: Éd. de Minuit.

Irigaray, L. (1992). *Sexos y géneros lingüísticos. Yo, tú, nosotras*. Madrid: Cátedra.

Iztueta, P. (2003). Identitate kulturala eta boterea. *Uztaro*, 47, 97-110.

Jameson, F. (1991). *El posmodernismo o la lógica cultural del capitalismo avanzado*. Bartzelona: Paidós.

Jameson, F. (1996). *Teoría de la posmodernidad*. Madrid: Trotta.

Janer, G. (1995). *Literatura infantil i experiència cognitiva*. Bartzelona: Pirene.

Kincheloe, J. eta Steinberg, S. 1997. *Changing multiculturalism*. London: Open University Press.

Kluckhohn, C. (1951). Values and value-orientations in the theory of action. Hemen: T. Parsons eta E. Shils (editoreak.), *Toward a general theory of action*, (388.-433. or.). Cambridge: Harvard University Press.

Kolodny, A. (1980). A map for rereading: Or, gender and the interpretation of literary texts. *New Literary History*, 11(3), 451-467.

Johnson, B. eta Onwuegbuzie, A. (2004). Mixed methods research: A research paradigm whose time has come. *Educational Researcher*, 33(7), 14-26.

- Juanena, A. (1991). Hizkuntza sexismoa eta euskara. *Jakin*, 65, 97-110.
- Kortazar, J. (1979). Zergatik panpox. *Jakin*, 12, 152-158.
- Kortazar, J. (2000). *Euskal literatura XX mendean*. Zaragoza: Las Tres Sorores.
- Kortazar, J. (2007). *Postmodernitatea euskal kontagintzan*. Donostia: Utriusque Vasconiae.
- Kortazar, J. (2011). *Egungo euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Bilbo: UPV/EHU.
- Kortazar, J., Etxaniz, X. eta Lopez Gaseni, M. (2002). *Egungo euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Bilbo: EHU Argitalpen zerbitzua.
- Kristeva, J. (1984). *Revolution in poetic language*. Columbia: Columbia University Press.
- Lagarde, M. (1996). *Identidad de género y derechos humanos. La construcción de las humanas. Estudios básicos de derechos humanos IV*. San Jose: Instituto Interamericano de Derechos Humanos.
- Laffitte, M., eta de Campo Alange, C. (1964). *La mujer en España. Cien años*. Madril: Aguilar.
- Larrinaga, A., Usategi, E., Amurrio, M., eta del Valle Loroño, A. I. (2012). Bigarren eta unibertsitateko hezkuntzako ikasleen genero-estereotipoak: Eskolari eta bestelako sozializazio guneei begirada. *Tantak*, 23(1), 7-28.
- Lasarte, G. (2006). Martzelina, Iholdi, Teresa...: Pertsonaia femeninoa euskal eleberrigintza garaikidean (1975-2000). *Jakin*, 155, 61-84.

- Lasarte, G. (2012). *Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskal narratiba garaikidean*. Bilbo: UPV/EHU.
- Lasarte, G. (2013). Feminización en el hábito lector. *Revista de Estudios sobre Lectura OCNOS*, 9, 53-68.
- Leclerc, A. (1974). *Parole de femme*. Paris: Grasset.
- Lertxundi, A. (1982). *Haur literaturaz*. Donostia: Erein.
- Lluch, G. (1996): La literatura de adolescentes: La psicoliteratura. *Textos* 9, 21-28.
- Lluch, G. (2003). *Análisis de narrativas infantiles y juveniles*. Cuenca: Universidad de Castilla La Mancha.
- Lluch, G. (2010). *Cómo seleccionar libros para niños y jóvenes. Los comités de valoración en las bibliotecas escolares y públicas*. Gijón: Trea.
- Lomas, C. (2004). *Los chicos también lloran: Identidades masculinas, igualdad entre los sexos y coeducación*. Barcelona: Paidós Ibérica.
- López, J. M. (2000). *Euskarara itzultitako haur eta gazte literatura: Funtzioak eraginak eta itzulpen-estrategiak*. Bilbo: UPV/EHU.
- Lopez, J. M (2006). *Literaturak umeei begiratu zienean*. Iruña: Pamiela.
- Lopez, J. M. (2010). Haur eta gazte literatura helduei azalduta (2): Baina zer gertatzen da (HGLko) euskal sortzaileekin? *Eibar.org*. 2016-01-30ean hemendik hartuta: <http://eibar.org/blogak/volga/haur-eta-gazte-literatura-helduei-azalduta-2-baina-zer-gertatzen-da-hglko-euskal-sortzaileekin>
- Liotard, J. F. (2004). *La condición postmoderna*. Madrid: Cátedra.

- Lomas, C. (2004). *Los chicos también lloran: Identidades masculinas, igualdad entre los sexos y coeducación*. Bartzelona: Paidós Ibérica.
- Lurie, A. (1998). *Don't tell the grown-ups: the subversive power of children's literature*. New York: Back Bay Books.
- Lujambio, L. U. (2015). *La percepción de valores en personajes televisivos y los hábitos televisivos en adolescentes: Un estudio transcultural* (Doktorego tesia). Donostia: UPV/EHU.
- Magda, R. M. R. (1994). *Femenino fin de siglo: La seducción de la diferencia* (Vol. 2). Bartzelona: Anthropos Editorial.
- Manila, G. J. (1995). *Literatura infantil i experiència cognitiva*. Bartzelona: Pardos.
- Marín, R. (1993). *Los valores, objetivos y actitudes en educación*. Valladolid: Miñon.
- Marini, M. (1993). El lugar de las mujeres en la producción cultural: el ejemplo de Francia. *Historia de las mujeres en Occidente*. (323-348 or.). Bartzelona: Taurus Ediciones.
- Martin, E. (1998). *Euskal haurtzaroaren asmakuntza 1976-1990 urte bitarteko ipuingintzan isladatu denez* (Argitaratu gabeko tesia). EHU.
- Martinez, J. (2012). La construcción de los espacios públicos y privados en la literatura infantil vasca. *Investigaciones Feministas*, 3, 99-115.
- Martinez, J. (2013). *Emakumeen kontrako biolentzia sinbolikoa euskal haur ipuinetan*. *Inguruak: Soziologia eta zientzia politikoaren euskal aldizkaria*, 55, 1328-1353.

- Martín-Sampedro, E. (2000). Descripción del personaje femenino en la cuentística moderna para el lector infantil euskaldun. Hemen M. Zavala (editorea.), *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua castellana)* (347.-369. or.). Puerto Rico: Universidad de Puerto Rico.
- Martínez, T. C., eta Mendiguren, I. (2011). Haur-literatura: gutxiengo bat literaturaren barruan. *Behinola: Haur eta Gazte Literatura Aldizkaria*, 23, 13-26.
- Mateos, A., eta Sasiain, I. (2006). *Contar cuentos cuenta en femenino y en masculino*. Madril: Instituto de la Mujer.
- Meer, F. (1994). *Poverty in the 1990's: The responses of urban women*. Paris: Unesco.
- Mendoza, A., Cerrillo, P., eta García, J. (1999). Literatura infantil y su didáctica. *Función de la literatura infantil y juvenil en la formación de la competencia literaria*. Cuenca: Universidad Castilla-La Mancha.
- Meza, C. (2000). *La utopía feminista. Quehacer literario de cuatro narradoras mexicanas contemporáneas*. Aguascalientes: Universidad Autónoma de Aguascalientes.
- Michel, A. (1987). *Fuera moldes*. Barcelona: Editorial La Sal-UNESCO.
- Miller, P., Bernzweig, J., Eisenberg, N., eta Fabes, R. (1995). El desarrollo y la socialización de la conducta prosocial. Hemen: R. Hinde eta J. Groebe (editoreak.), *Cooperación y conducta social* (119-138. or.). Madril: Ed. Visor.

- Millet, K. (1995). *Política sexual. Prólogo a la edición española de Amparo Moreno*. Madril: Cátedra.
- Minh-Ha, T. T. (1989). *Woman, native, other. Writing postcoloniality and feminism*. Bloomington: Indiana University.
- Mintegi, L. (1987). Emakume-literatura: Zer da eta zertan da. *Jakin*, 45, 7-23.
- Mintegi, L. (2014). Emakumea eta literaturaren kontzeptuaz jirabiraka. *Hegats: Literatur Aldizkaria*, 52, 9-26.
- Mitxelena, K. (1988). *Historia de la literatura vasca*. Donostia: Erein.
- Montes, G. (2006). *La gran ocasión: La escuela como sociedad de lectura*. Buenos Aires: Ministerio de Educación, Ciencia y Tecnología de la Nación.
- Moi, T. (1988). *Teoría literaria feminista*. Madril: Cátedra.
- Moreno, A. (1998). *Literatura infantil: Introducción en su problemática, su historia y su didáctica*. Cádiz: Universidad de Cádiz.
- Moreno, H. (1994). Crítica literaria feminista. *Debate feminista*, 9, 107-112.
- Moreno, M. (1986). *Cómo se enseña a ser niña: El sexismo en la escuela*. Bartzelona: Icaria editorial.
- Mugarik Gabe, (2014). *Emakumeen Eskubideen Auzitegia. Viena+20, Euskal Herria 2013*. Bilbo: Mugarik Gabe.
- Murgibe S. L. (2009). *Altsasuko udaleko berdintasun gaitegia*. 2015-10-3an hartuta
hemendik:
<http://www.alsasua.net/upload/docs/11.berdintasun%20gaitegia.pdf>

- Muruaga, B. (1998). Euskal literatura eta androzentrismoa. *Jakin*, 106, 99-104.
- Nash, M., eta Tavera, S. (1994). *Experiencias desiguales. Conflictos sociales y experiencias colectivas (siglo XIX)*. Madril: Síntesis.
- Nasr, J. A. eta Batrouni, Z. (1994). *El sexismo en los cuentos infantiles árabes. 24º Congreso Internacional del IBBY (115.-121. or.)*. Madril: OEPLI.
- Nobile, A. (1992). *Literatura infantil y juvenil*. Madril: Morata.
- Núñez, M. (2001). *Género y construcción nacional en las escritoras vascas*. Missouri: University of Missouri-Columbia.
- Obiols, N. (1998). *Cómo desarrollar los valores a partir de la literatura*. Bartzelona: CEAC.
- Olaziregi, M. J. (1999). Intimismoaz haraindi: Emakumezkoek idatzitako euskal literatura. *Oihenart*, 17, 1-75.
- Olaziregi, M. J. (2002). Euskal kritikaren argiak eta itzalak. *Oihenart*, 19, 27-48.
- Olaziregi, M. J. (2002). *Euskal eleberriaren historia*. Amorebieta: Labayru.
- Olaziregi, M. J. (2003). Bizenta Mogel (1782-1854), edo euskal tradizio literario androzentrikoa pitzatu zenekoa. *IKER*, 14, 203-221.
- Olaziregi, M. J. (2005). Evolución y actualidad de la literatura infantil y juvenil en lengua vasca. *Lapurdum. Euskal Ikerketen Aldizkaria*, 10, 137-152.
- Olaziregi, M. J. (2009). Literatura infantil e ideología: Propuesta de análisis. *Caplletra*, 46, 207-218.
- Oraá, J., eta Isa, F. G. (2009). *Giza eskubideen aldarrikapen unibertsala*. Bilbo: Universidad de Deusto.

- Orquín, F. (1989). La nueva imagen de la mujer. *Cuadernos de Literatura Infantil y Juvenil*, 2(11), 14-19.
- Orquin, F. (1995) Estereotipos en los libros no sexistas. 24° Congreso Internacional del IBBY (106.-108. or.). Madril: OEPLI.
- Otegi, K. (1976). *Pertsonaia euskal nobelagintzan*. Bilbo: Mensajero.
- Parra, J. (2009). *Educación en valores y no sexista*. Castilla La Mancha: Instituto de la Mujer.
- Parsons, T. (1990). El aula como sistema social: Algunas de sus funciones en la sociedad americana. *Educación y Sociedad*, 6, 173-195.
- Perez, C. eta Gargallo, B. (2008). Sexismo y estereotipos de género en los textos escolares. Hemen: Universitat Autònoma de Barcelona (editorea.), XXVI Seminario Interuniversitario de Teoría de la Educación. *Lectura y educación* (627.-636. or.). Bartzelona: UAB.
- Perez, K. (2003). *Zientzia, teknologia eta lanbideen agerpena Euskal Herriko testuliburuetan*. Bilbo: EHU.
- Perrot, J. (1993): *Culture, texte et jeune lecteur*. Paris: Presse Universitaires de Nancy.
- Piaget, J. (1969). *The child's conception of time*. London: Routledge.
- Piaget, J. (1977). *The development of thought: Equilibration of cognitive structures*. New York: Viking.
- Piaget, J. (1977). *The language and thought of the child*. London: Routledge eta kegan Paul.

- Popkewitz, T. H. (1988). *Paradigma e ideología en educación educativa*. Madril: Mondadori.
- Puleo, A. (1995). Patriarcado. Hemen: C. Amorós (ediotrea.), *Diez palabras clave sobre mujer* (21.-54. or.). Madril: Verdo divino.
- Ramos, J. (1993). *El camino hacia una escuela coeducativa*. Madril: Movimiento Cooperativo de Escuela Popular.
- Register, C., eta Koppelman, S. (1972). *Images of women in fiction: Feminist perspectives*. Bowling Green (Ohio): Bowling Green State Univ Popular.
- Retolaza, I., eta Kortazar, J. (2007). *Egungo euskal eleberriaren historia*. Bilbo: EHU.
- Rich, A. (1985). Heterosexualidad obligatoria y existencia lesbiana. *Revista Feminista*, 3, 3-36.
- Rincón, A. (1988). *Hizkuntza, hitzak baino zeozer gehiago. Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako proposamenak*. Gasteiz: Emakunde.
- Rincón, A. (1996). *Euskadi autonomi elkarteko emakumeentzako ekintza positiboen II. planak*. Gasteiz: Emakunde.
- Riquer, M. D., eta Valverde, J. M. (2007). *Historia de la literatura universal*. Madril: Gredos.
- Rodari, G. (2004). La imaginación en la literatura infantil. *Imaginaria: revista de literatura infantil y juvenil*. Buenos Aires. Hartuta hemendik: <http://www.imaginaria.com.ar/12/5/rodari2.htm>

- Rodríguez, O. (1999). *Formación de valores desde la literatura infantil y juvenil*. Bogota: Taller de talleres.
- Roig, B. A. (1996). *A literatura galega infantil. Perspectiva diacrónica, descripción e análise da actualidade*. (Doktorego tesia). Santiago de Compostela: Universidade de Santiago de Compostela,.
- Roig, B. A. (2008). *A literatura infantil e xuvenil no século XXI. Seis chaves para entendela mellor*. Madril/Santiago de Compostela: Asociación Española de Amigos del Libro/Xunta de Galicia.
- Rokeach, (1973). *The nature of human values*. New York: Free Press.
- Romero, D. (2011). Identidad de género en personajes de ficción infantil y hacia una ruptura de los estereotipos juvenil. *Acciones e Investigaciónes Sociales*, 29, 173-200.
- Ronen, S. (1994). An underlying structure of motivational need taxionomies: A crosscultural confirmation. Hemen: H. C. Triandis, M. D. Dunnette, eta I. M. Hough (editoreak.), *Handbook of industrial and organizational psychology 4*, (241.-269. or.). Palo Alto: Consulting Psychologists Press.
- Rosell, J. F. (1995). La crítica de literatura infantil: Un oficio de centauros y sirenas. *Amigos del libro*, 29, 23-35.
- Rovira, T. eta Ribé, M. C. (1972). *Bibliografía histórica del libro infantil en catalán*. Madril: Asociación Nacional de Bibliotecarios, Archiveros y Arqueólogos.
- Rovira, T. (1988). La literatura infantil y juvenil. Hemen: J. Molas (editorea.), *Apèndix a història de la literatura catalana* (421.-471. or.). Bartzelona: Ariel.

- Ruiz, K. (2003). Didaktismoa, pedagogia eta eduki ideologikoen eragina 90eko hamarkadako haur literaturan. *Behinola: Haur eta Gazte Literatura Aldizkaria*, 9, 31-40.
- Ruiz, K. (2002). *Análisis de narraciones infantiles para niños de 6-12 años, escritas en castellano entre 1990-98*. (Doktorego tesia). Bilbo: EHU.
- Salaberria, G. (2011). *La construcción narrativa de la ética: Contextos sociales y valores en la literatura infantil y juvenil*. (Doktorego tesia). Bilbo: EHU.
- Salmerón, P. (2004). *Transmisión de los valores a través de los cuentos clásicos infantiles* (Doktorego tesia). Granada: Universidad de Granada.
- Santos-Guerra, M. A. (1994). *Entre bastidores. El lado oculto de la organización escolar*. Archidona: Aljibe.
- Sau, V. (1981). *Diccionario ideológico feminista*. Bartzelona: Icaria.
- Sau, V. (2000). *Diccionario ideológico feminista*. Bartzelona: Icaria.
- Schaeffer, H. R. (1994). *Interacción y socialización*. Madril: Visor.
- Schwartz, S. H., eta Bilsky, W. (1987). Toward a universal psychological structure of human values. *Journal of Personality and Social Psychology*, 53, 550-562.
- Schwartz, S. (1992). Universals in the content and structure of values: Theoretical advances and empirical test in 20 countries. En M. Zanna (Ed.) *Advances in experimental social psychology* (1.-65. or.). New York: Academic Press.

- Schwartz, S. H. (2005). Validity and applicability of the theory of values. Hemen: A. Tamayo eta J. B. Porto (editoreak.), *Valores e comportamentos nas organizações* (56.-95. or.). Petrópolis: Vozes
- Schwarzer, A. (1984). *After The Second Sex: Conversations with Simone DeBeauvoir*. New York: Pantheon.
- Schweickart, P. (1999). Leyéndonos a nosotras mismas: Hacia una teoría feminista de la lectura. Hemen: M. Fe (editorea.), *Otramente: lectura y escritura feministas* (112-151 or.). Mexiko: UNAM.
- Scribano, A. O. (2007). *El proceso de investigación social cualitativo*. Buenos Aires: Prometeo Libros.
- Sedgwick, E. K. (1990). *Epistemology of the closet*. California: University of California Press.
- Segarra, M. (2000). *Feminismo y crítica literaria*. Bartzelona: Icaria.
- Showalter, E. (1981). Feminist criticism in the wilderness. *Critical inquiry*, 8(2), 179-205.
- Showalter, E. (1985). *The new feminist criticism: Essays on women, literature, and theory*. New York: Pantheon Books.
- Showalter, E. (1986). Towards a Feminist Poetics. Hemen: E. Showalter (editorea.), *The New feminist Criticism. Essays on Women, Literature and Theory* (25.-143. or.). London: Virago.
- Showalter, E. (1989). *Speaking of gender*. New York: Routledge.

- Simon, M. E. (1999). *Democracia vital: Mujeres y hombres hacia la plena ciudadanía*. Madril: Narcea.
- Slama, B. (1981). De la «littérature féminine» à «l'écrire-femme»: Différence et institution. *Littérature*, 44(4), 51-71.
- Soriano, M. (1995). *La literatura para niños y jóvenes. Guía de exploración de sus grandes temas*. Buenos Aires: Colihue.
- Sousa, S. (2012). *Los valores en narraciones infantiles y juveniles escritas en castellano y publicadas entre los años 2000-2007* (Argitaratu gabeko tesia). Donostia: UPV/EHU.
- Spivak, G. C. (1981). French feminism in an international frame. *Yale French Studies*, 62, 154-184.
- Suárez B. (2000). La segunda ola feminista: Teorías y críticas literarias feministas. Hemen: B. Suárez, M. B. Martín eta M. J. Fariña (editoreak.), *Escribir en femenino: Poéticas y políticas* (25.-39. or.). Bartzelona: Icaria.
- Subirats, M., eta Brullet, C. (1988). *Rosa y Azul. La transmisión de los géneros en el sistema educativo*. Madril: Ministerio de Cultura.
- Subirats, M. (1993). *El sexismo en los libros de texto: Análisis y propuesta de un sistema de indicadores*. Madril: Instituto de la Mujer.
- Suzane, W., Janet, S., eta Adelina, M. (1997). *Manual de capacitación en género de OXFAM. Edición adaptada para América Latina y el Caribe, 1*. Lima: Flora Tristán.
- Taberner, J. (2008). *Sociología y educación. El sistema educativo en sociedades modernas. Funciones, cambios y conflictos*. Madril: Tecnos

- Tomé, A. (2001). La construcción de las identidades masculinas y femeninas en la escuela. Hemen: N. Blanco (editorea.), *Educación en femenino y en masculino* (87.-98. or.). Madril: Akal.
- Torrado, M. R. (2007). Antropología feminista en la escuela y teoría antropológica feminista. *Uztaro*, 63, 11-19.
- Torrealdai, J. M. (1993). *XX. mendeko euskal liburuen katalogoa*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Torrealdai, J. M. (2007). *30 urte liburugintzan*. Donostia: Jakin.
- Torres, J. (1991). *El currículum oculto*. Madril: Morata.
- Trigon, J. (1950). *Histoire de la littérature enfantine: de ma mère l'Oie au Roi Babar*. Paris: Hachette.
- Tucker, N. (1985). *El niño y el libro*. México: Fondo de Cultura Económica.
- Turín, A. (1995). *Los cuentos siguen contando. Algunas reflexiones sobre los estereotipos*. Madril: Horas y Horas.
- Unesco Etxea (2008). *Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala*. Bilbo: Unesco Etxea.
- Urkaregi, A. (2015). *Berria*. 2015-09-26an hemendik hartuta: http://www.berria.eus/paperekoa/1905/033/469576/2015-03-08/feminismoa_zehar_lerroa.htm
- Urkiza, A. (2006). *Zortzi unibertso. Zortzi idazle*. Irun: Alberdania.
- Urkulo, I. (2012). Euskal narratiba XXI. mendean: Emakumeak idazle. *Oihenart*, 27, 201-233.

- Uria, E. (1999). Zenbait gogoeta haur eta gazte literaturako ilustraziogintzaren historiari ekiteko: Euskal Herriko ilustraziogintzarako hurbilketa. *Behinola: Haur eta Gazte Literatura Aldizkaria*, 1, 17-32.
- Urtxintxa eskola (2006). *Ipuinak ez sexistak izateko gida. Gomendioak eta adibide praktikoak*. Bilbo: Urtxintxa eskola.
- Yubero, S., Larrañaga, E. eta Cerrillo, P. (2004). *Valores y lectura. Estudios multidisciplinares*. Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla La Mancha.
- Valcárcel, A. (2004). *La política de las mujeres (Vol. 38)*. Madril: Catedra.
- Valriu i Llinas, C. (1994). *Història de la literatura infantil y juvenil catalana*. Barcelona: Pirene.
- Valriu i Llinas C. (1998). *Influència de les rondalles en la literatura infantil y juvenil catalana actual*. Pallma de Mallorca: Moll.
- Valverde, J. M.(1982). *La literatura*. Bartzelona: Montesinos.
- Vattimo, G. (1994). *En torno a la posmodernidad*. Bartzelona: Anthropos.
- Vazquez, C. (2010). *Dialogos intertextuales 3: En busca de la voz femenina*. Berna: Peter Lang GmbH.
- Vieytez, E. J. R. (2011). *Juntos pero no revueltos: Sobre diversidad cultural, democracia y derechos humanos*. Madril: Maia Editores.
- Vigotsky, L. S. (1979). *El desarrollo de los procesos psicológicos superiores*. Bartzelona: Crítica.

- Villalpando, W., Feierstein, D., Fernández, N., González, A., Ravenna, H., Sonderéguer, M., eta Cassino, M. (2005). *Hacia un plan nacional contra la discriminación: la discriminación en Argentina*. Buenos Aires: INADI.
- Villasante, L. (1976). Emakumea euskal literaturan. *Euskera*, 21, 146-152.
- White, L. (1996). *Emakumeen hitzak: Basque women writres of the the twentieth century*. (Doktorego tesia). Reno: University of Nevada.
- West, C., eta Zimmerman, D. H. (1987). Doing gender. *Gender eta society*, 1, (125.-151. or.). New York: Sage publications.
- Wollstonecraft, M. (2004). *A Vindication of the Rights of Woman*. London: Penguin.
- Yubero, S., Larrañaga, E., eta Cerrillo, P. (2004). *Valores y lectura. Estudios multidisciplinares*. Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha.
- Zavala, I. (1993). *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua castellana)* (Vol. 6). Bartzelona: Anthropos Editorial.
- Zavala, I. (2000). *Breve historia feminista de la literatura española (en lengua catalana, gallega y vasca)* vol. VI. Bartzelona: Anthropos Editorial.
- Zima, P. V. (1982). *L'indifférence Romanesque Sartre, Moravia, Camus*. Paris: Sycomore.
- Zohar, S. (1986). Poetics of children's literature. *Athens and London. The University of Georgia Press*, 22, 1-4.

Zubillaga, N. (2013). *Alemanetik euskaratutako haur-eta gazte-literatura: Zuzeneko nahiz zeharkako itzulpenen azterketa corpus baten bidez*. (Doktorego tesia). Gasteiz: UPV/EHU.

Zubizarreta, P. (2008). 15 tesela haur eta gazte literaturaren mosaiko baterako. *Sancho el sabio: Revista de Cultura e Investigación Vasca*, 28, 77-108.

LEGEGINTZA

1990eko Hezkuntzari buruzko 1/1990 Lege Organikoan, urriaren 3koa, *Ordenación General del Sistema Educativo. (LOGSE)*. BOE 238. zenb., 1990eko urriak 4.

4/2005 legea, otsailaren 18koa, *Emakumeen eta gizonen berdintasunerakoa, EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VI.Plana*. EHAA 42. zenb., 2005eko martxoak 2.

2006ko Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoan, maiatzaren 3koa, *Ley Orgánica de Educación*. BOE 106. zenb., 2006ko maiatzak 4.

2007ko 175/2007 Dekretua, urriaren 16koa, *Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzekoa*. EHAA 218. zenb., 2007ko azaroak 13.

2010eko 97/2010 Dekretua, martxoaren 30ekoa, *Euskal Autonomia Erkidegoan Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko den Dekretua aldatzen duena*. EHAA 72. zenb., 2010eko apirilak 20.

2014ko Hezkuntzako 126/2014 Errege Dekretuan, otsailaren 28koa, *Mejora de la Calidad Educativa*. BOE. 52. zenb., 2014ko martxoak 1.

ERANSKINAK

I. ERANSKINA. Liburuak aztertzeko genero analisirako fitxa

Izenburua:**Egilea/Ilustratzailea:****Itzultzailea:****Protagonista nagusia**

	BAKARRA	TALDE BAT
Mutila/ Gizona		
Neska/ Emakumea		
Neska-mutilak		

	ANIMALIA	OBJETUA
Zehaztu gabea		

Bestelako protagonistak

	BAKARRA	TALDE BAT
Mutila/ Gizona		
Neska/ Emakumea		
Neska-mutilak		

	ANIMALIA	OBJETUA
Zehaztu gabea		

Deskribapenak

	Neskak	Mutilak
Ezaugarri fisikoak		
Ezaugarri psikologikoak (izaera)		
Trebetasunak/gaitasunak		

Nortasuna

	Neskak	Mutilak
Salbatzailea/ Konpontzailea/ Heroia		
Arazoak gainditzen ditu		
Dependentzia		
Autonomia		
Erabakiak hartzen ditu		
Indarkeriaren erabilera		

Ezaugarri fisikoak

	Neskak	Mutilak
Indartsuak		
Ahulak		
Ederrak		
Itsusiak		

Ezaugarri psikologikoak (izaera)

	Neskak	Mutilak
Aktiboak		
Pasiboak		
Menderatzaileak		
Mantsoak (men egitea)		
Lehiakorrak		
Alferrak		
Sentikorrak		
Ausartak		
Zitalak		
Lotsatiak		
Ahulak		
Sortzaileak/abenturazaleak		
Ameslariak		
Heroiak		
Jakintsuak		

Etxeko ardurak/ lanbideak /espazioa

	Neskak	Mutilak
Etxeko lanak		
Zaintza familiarrak		
Lan ordainduak		
Boteredunak (karguak)		
Etxe kanpoan /esfera publikoa/ gizartea		
Etxe barruan / esfera pribatua		
Ospea ematen duena		
Diru asko ematea		
Diru gutxi ematea		

Nor ageri da etxean?

	Aita	Ama	Biak	Semea	Alaba	Beste familiarrak

Nor ageri da etxean						
---------------------	--	--	--	--	--	--

Lanbideak

Neskak / emakumeak:

Mutilak / gizonak:

Tresnak, objektuak, jostailuak, arropak, koloreak

	Neskak	Mutilak
Maletina		
Betaurrekoak		
Egunkaria		
Amantala		
Txakurra		
Katua		
Urdina		
Arrosa		
Etxeko tresnekin		
Kaleko tresnekin		

Aisialdia

	Neskak	Mutilak
Lagunekin paseatu		
Kirola egin		
Irakurri		
Telebista ikusi		
Abenturak		
Zinemara joan		
Museora joan		
Zoora joan		
Etxetik kanpo jolastu		
Etxe barruan jolastu		
Ikasi		
Bidaiatu		

Sexismoaren ikuspegitik esaldi eta irudi aipagarriak

II. ERANSKINA. Lanbideak

Multzo bakoitzean identifikatu diren lanbideak sexuaren arabera banaturik, azpimarraturik **goi- ikasketak behar dutenak**.

1980ko hamarkadako liburuak

Emakumea: erregina, dendaria, etxeoandrea, tailerreko langilea, komeriantea, pandero-jolea, **erizaina**, azafata, saltzailea, banatzailea, taxista, poeta, moja, asistente soziala, etxalzaina, propaganda banatzailea, neskamea, sukaldaria, abeslaria, zerbitzaria, aironeska, **ikertzailea**, dendaren jabea, baserritarra, garbitzailea, kamera, **astronauta**, **kazetaria**, **zientzialaria**, **esploratzailea**, baserritarra, tabernaria, ostatuko jabea, laguntzailea, musikaria, **telebistako aurkezlea**, gaztaina erretzailea, **zuzendaria**, idazkaria, gida turistikoa, **irakaslea**, hoteleko langilea, estankokoa, aktrizia, belardiaren jabea, kamioilaria, argi-jartzailea, langilea, erretiratua, segurtasun langilea, kamareroa, txarteldegian, nekazaria eta **banketxeko langilea**.

Gizona: **Abokatua**, **medikua**, koronela, lapurra, morroia, erregea, ugazaba, abeltzaintza, arrantzalea, esklabua, apaiza, soldadua, **botikaria**, aberatsa, **albaitaria**, tabernaria, baserritarra, bitartekaria, gidaria, jauntxo, arotza, pirata, marinela, polizia, kapitaina, dendaren jabea, idazlea, agintaria, **delineatzailea**, alkatea, komeriantea, funtzionarioa, politikaria, trenbide-gizona, zapataria, zoologiko zaintzailea, buruzagia, musikaria, jokia, gobernaria, sekretarioa, artzaina, dantzaria, negozio zikinak, langilea, kostazaina, **zientzialaria**, polizia burua, aberatsa, argazkilaria, lorezaina, **kazetaria**, kamera, teknikaria, komisarioa, mudantza langilea, harakina, zerbitzaria, zirkuaren jabea, aurkezlea, gotzaina, irudigilea, **irakaslea**, postaria, langilea (eraikuntza), ertzaintza, **erizaina**, elektrikaria, militarra, **ikertzailea (buruzagia)**, pintorea, iturgina, garbitzailea, zalduna, **eskolako zuzendaria**, udaltzaina, lantegiko langilea, garraiolaria, entrenatzailea, lantegi bateko jabea, tailer bateko jabea, bulegaria, akrobata, kontrabando zalea, langilea, errementaria, **orkestra zuzendaria**, **ingeniaria**, igeltseroa, geltokiko langilea, boxeolaria, gotzaina, merkataria, **astronauta**, pilotua, **esploratzailea**, sukaldari laguntzailea, zuzendaria, pilotaria, aktorea, **bankaria**, zaintzailea, ostatuko jabea, parrokoa, abadea, **katedratikoa**, saltzailea, lantegi jabea, munduko aberatsena, ehiztaria, **arkitektoa**, generala, kontablea, nekazaria, taxista, eski-txapelduna, magoa, **doktorea**, laguntzailea, txoferra, autobus-gidaria, sindikalista, edaritegiko nagusia, inprimategiaren jabea, bidai

arduraduna, **zoologoa, zoo zuzendaria**, trafikozaina, pailazoa, geltokiko buruzagia, txirrindularia, gida turistikoa, argitaletxe bateko langilea, jubilatua, zirkoko zuzendaria, ostalaria, labirintoaren jabea, historia kontatzailea, **hegazkin pilotua**, pianojolea, enterradorea, tabernaren jabea, dendaria, kontrabandista, Tsarra, polizien buruzagi nagusia, mandataria, postazaina, telegrafetxeko arduraduna, dorrezaina, begiralea, **inspektorea**, ministroa, gimnasia zuzendaria, monitoreak, hoteleko langilea, ofiziala, negozio gizona, presidentea, treneko kobratzailea, gobernadorea, **enpresa handi bateko zuzendaria, telebistako aurkezlea, produktorea**, kontsula, filmak egiten dituen, tailerreko langilea, azukre kainaberen ekoizlea, **lege-gizona, erretorea**, jatetxeko nagusia, eskribaua, udaltzaingo-burua, gudaria, telefonista, aizkolaria, gauzaina, printzea, guardia, baroi, kantziler, **epailea**, errekaudatzailea, futbolaria, kobratzailea, enperadorea, **lehen ministroa**, tren gidaria, suhiltzailea, gasolinera baten jabea, auto lantegi bateko langilea, segurtasun langilea, txarteldegian, artista, atezaina, nagusia, larrugilea, okina, ferratzailea, alguazila, sukaldaria, noblezia, Aita Santua, kardinalak, **banketxeko zuzendaria**, barrakeroa, zaindaria eta zine-zaindaria.

2013an idatzitako liburuak

Emakumea: presidentea, udaltzaingoa (telefonista), tabernaria, neskamea, **enpresaria**, harakina, errezepzionista, erregina, ostatuko ugazabandrea, artista (abeslaria), kamareroa, **arkeologoa, erizaina**, dendaria, **irakaslea, abokatua**, printzesa, zerbitzaria, zinegotzia, **kazetaria**, ertzaina, **eskolako zuzendaria, psikiatra**, aztia (gaiztoa), baserritarra, Tsarina, prostituta, konpainia dama, **psikologoa, erizaina**, emakume bizarduna, pailazoa, musikaria, sendagile naturala, langilea, **unibertsitateko irakaslea**, lorezaina-burua, agirizaina, arrain lantegiko langilea, azafata, **antropologoa**, etxekoandrea, zalditegiaren jabea, **zientzialaria**, garbitzailea, idazkaria eta sukaldaria.

Gizona: Udaltzain-burua, **medikua**, alkatea, tabernaria, **Unibertsitateko irakaslea, museoko zuzendaria**, pintorea, **arkeologoa**, mekanikoa, zaindaria, errezepzionista, poeta, **enpresaria**, marinela, antzerki-gizona, bizkartzaina, presidentea, zerbitzaria, polizia, iturgina, **zirujaua**, autobus gidaria, landetxearen jabea (artzaina), erregea, errementaria, soldadua, asmatzailea, **arkitektoa**, artzaina, ile-moztatzailea, saltzailea, politikaria (sailburua), ertzaina, **kazetaria**, arotza, jostuna, **irakaslea, suhiltzaile kapitaina**, sarrailagile, **inspektore, psikiatra**, diputatua, administratzailea, **arkitektoa**, ministroa, artista, enbaxadorea, politikaria, apaiza, tsar, militarra, enperadorea, bedela, printzea, zalduna, aztia, lorezaina, idazlea, zirkuaren jabea, bala-gizona, indartsua, basozaina, pailazoa, pirata, merkataria, musikaria, boxeolaria, dendaria, **bankaria**, entrenatzailea, **epailea**, garraiolaria, esklaboa, **historialaria**, agintaria, elektrikaria, lantegiko langilea, nekazaria, **euskara teknikaria**, eskribaua, errabinoa, harakina, errotaria,

morroia, mailegu dendaria, mekanikaria, hoteleko harreran, gidaria, sukaldaria, antropologoa, katedraduna, taxilaria, aireportuko langilea, eltzegilea, artisaua, lantegiko langilea, aguazila, ostalaria, maiordomoa, ostatuko nagusia, urpekaria, zientzialaria, arrantzalea, Ezezagunaren Ikerketa Agentziaren zuzendaria, magoa pilotua, ehiztaria, salmenta-agentea, pilotua, laguntzailea (igeltseroa), langilea, udaltzaingoa eta baserritarra.

Liburu saridunak

Emakumea: Polizia tenientea, forensea, idazkaria, polizia, saltzailea, ballet irakaslea, garbitzailea, prostituta, sukaldean laguntzailea, ileapaindegia, artista (diseinu grafikoa enpresa batean), ONCE kupoi saltzailea, saregilea, abokatu, okina, musikaria, kritikaria, irakaslea, baroisa, etxeandrea, erizaina eta dendaria

Gizona: Soldadua, polizia, kamareroa, enpresario exekutiboa, zientzialaria, irakaslea, kamioilaria, ingeniaria, aktorea, idazlea, supermerkatuko langilea, postaria, egunkari saltzailea, txarteldegian, suhiltzailea, garraiolaria, ipuin-kontalaria, kirolaria, merkataria, farozaina, marinela, arrantzalea, tren-geltokiko langilea eta ikuskaria (billeteak eskatzen dituen), musikaria, boxeolaria, dendaria, kale-garbitzailea, aizkolaria, pintatzailea, farmazeutikoa, medikua, artzaina, kazetaria, abokatu, zurgina, baroia, ministroa, mezularia, kardinala eta taxilaria.

III.ERANSKINA. Lanbideen maiztasuna

1980ko hamarkadan idatzitako liburuak

Emakumea: erregina, dendaria, etxeoandrea, tabernaria, tailerreko langilea, komeriantea, etxeoandrea, pandero-jolea, erizaina, andereñoa, azafata, saltzailea, banatzailea, taxista, poeta, andereñoa, moja, asistente soziala, etxalzaina, propaganda banatzailea, erregina, etxeoandrea, neskamea, sukaldaria, bahitzailea, abeslaria, zerbitzaria, ikaslea, aroneska, etxeoandrea, azafata, ikertzailea, maistra, gaztaina-saltzailea, irakaslea, erizaina, denda baten jabea, irakaslea, etxeoandrea, baserritarra, neskamea, maistra, garbitzailea, kamera, astronauta, kazetaria, zientzialaria, esploratzailea, andereñoa, baserritarra, idazkaria, neskamea, tabernaria, ostatuko jabea, etxeoandrea, moja, laguntzailea, musikaria, telebistako aurkezlea, gaztaina erretzailea, andereñoa, zuzendaria, andereñoa, erizaina, idazkaria, gozoki saltzailea, gida turistikoa, sorgina, neskamea, tabernaria, andereñoa, neskamea, azafata, erizaina, moja, sorgina, neskamea, moja, irakaslea, andereñoa, hoteleko langilea, etxeo lanak (ordaindu gabeak), andereñoa, dendaria (lore-saltzailea eta estankoa), etxeo lanak (ordaindu gabeak), andereñoa, andereñoa, kazetaria, etxeoandrea, idazkaria, neskamea, aktriza, erizaina, azafata, irakaslea, etxeoandrea, neskamea, belardiaren jabea, kamioilaria, argi-jartzailea, langilea, dendaria, erretiratua, etxeoandrea, andereñoa, idazkaria, tabernaria, telefonikako langilea, andereñoa, erregina, neskamea, etxeoandrea, andereñoa, dendaria, erizaina, segurtasun langilea, kamareroa, dendaria (hipermerkatuan), txarteldegian, tabernaria, andereñoa, saltzailea, neskamea, moja, etxeoandrea, laguntzailea, nekazaria, banketxeko langilea eta andereñoa.

Gizona: Abokatua, medikua, koronela, lapurra, morroia, erregea, ugazaba, abeltzaintza, arrantzalea, esklabua, apaiza, soldadua, botikaria, aberatsa, al baitaria, tabernaria, baserritarra, bitartekaria, gidaria, ugazaba, legegizona, jauntxoa, arrantzalea, arotza, maisua, pirata, marinela, polizia, kapitaina, dendaren jabea, idazlea, agintaria, delineatzailea, alkatea, komeriantea, fabrika bateko langilea, funtzionarioa, politikaria, trenbidegizona, zapataria, zoologiko zaintzailea, soldadua, buruzagia, agintaria, musikaria, polizia, jokia, gobernaria, medikua, maisua, sekretarioa, artzaina, dantzaria, negozio zikinak, langilea, kostazaina, zientzialaria, arrantzalea, polizia burua, aberatsa, bahitzailea, argazkilaria, lorezaina, kazetaria, kamera, teknikaria, musikaria, sendagilea, komisarioa, mudantza langilea, harakina, kapitaina, zerbitzaria, zirkuaren jabea, aurkezlea, marinela, obispoa, irudigilea, maisua, irakaslea, ikaslea, postaria, apaiza, langilea (eraikuntza), ertzaintza, erizaina, alkatea, elektrikaria, sendagilea, baserritarra, militarra, polizia, arrantzalea, fabrikako langilea, ikertzailea (buruzagia), polizia, pintorea, iturgina, garbitzailea, alkatea, tabernaria, gerlaria, maisua, zalduna, zientzigizona, eskolako zuzendaria, alkatea, zientzialaria, apaiza, morroia, agintaria, irakaslea, udaltzaina, lantegiko langilea, transportista, entrenatzailea, harakina, eskolako zuzendaria, prailea, lantegi bateko jabea, tailer bateko jabea, denda bateko jabea, bulegari, alkatea, marinela, aurkezlea (akrobata), kontrabandozalea, apaiza, langilea, errementaria, lapurra, polizia, dendaria, agintaria, transportista, maisua, orkestra zuzendaria, ingeniaria, igeltseroa, ugazaba, medikua, ehiztaria, militarra, tabernaria, komeriantea, morroia, txiroa, geltokiko langilea, boxeolaria, gotzaina, merkataria, bankuan enplegatua, zientzialaria, kazetaria, astronauta, pilotua, musikaria, kamera, esploratzailea, gidaria, sukaldari laguntzailea, zuzendaria, irakaslea, arrantzalea, pilotaria, aktorea, marinela, bankaria, dendaria, apaiza, zalduna, artzaina, zaintzailea, baserritarra, ehiztaria, ostatuko jabea, parrokoa, abadea, katedratikoa, tabernaria, maisua, artzaina, zaintzailea, lapurra, soldadua, saltzailea, kazetaria, lantegi jabea, alkatea, munduko aberatsena, ehiztaria, arkitektoa, generala, kontablea, artzaina, nekazaria, taxista, eski-txapelduna, magoa, doktorea, laguntzailea, irakaslea, zientzialaria, medikua, arrantzalea, fabrikako langilea, txoferra, globo saltzailea, apaiza, alkatea, harakina, marinela, autobus-gidaria, sindikalista,

globo saltzailea, edaritegiko nagusia, dendaria, medikua, inprimategiaren jabea, apaiza, dendaria, bidai arduraduna, gidaria, zoologoa, zoo zuzendaria, artzaina, trafikozaina, pailasoa, musikaria, aktorea, sendagilea, apaiza, musikaria, geltokiko buruzagia, gidaria, txirrindularia, gida turistikoa, argitaletxe bateko langilea, jubilatua, polizia, gidaria, alkatea, apaiza, arrantzalea, zirkoko zuzendaria, udaltzaingoa, morroia, ostalaria, artzaina, labirintoaren jabea, soldadua, historia kontatzailea, aberatsa, morroia, hegazkin pilotua, pianojolea, alkatea, lapurra, txoferra, laguntzailea, enterradorea, tabernaria, tabernaren jabea, dendaria, kontrabandista, Tsarra, jenerala, saltzailea, berriemailea, idazlea, polizien buruzagi nagusia, mandataria, sendagilea, militarra, artzaina, marinela, apaiza, postazaina, ehiztaria, telegrafetxeko arduraduna. kazetaria, tabernaria, ehiztaria, eskalea, irakaslea, arrantzalea, kapitaina, langilea, dorrezaina, marinela soldadua, pirata, arotza, argazkilaria, medikua, begiralea, polizia, zuzendaria, inspektorea, ministroa, dendaria (gozotegia eta jostailu denda), aberatsa, gimnasia irakaslea, gidaria, zuzendaria, buruzagia, monitorea, arrantzalea, aberatsa, marinela, janari denda baten jabea, hoteleko langilea, sendagilea, alkatea, baserritarra, lantegiko langilea, kazetaria, ofiziala, maisua, aktorea, negozio gizona, presidentea, trenko kobratzailea, abokatua, gobernadorea, enpresa handi bateko zuzendaria, telebistako aurkezlea, produktorea, soldadua, ministroa, kontsula, filmak egiten dituenak, irakaslea, tailerreko langilea, obretako langileak, azukre kainaberak ekoizlea, udaltzaingoa, kazetaria, baserritarra, artzaina, apaiza, lege-gizona, erretorea, merkataria, jatetxeko nagusia, alaitaria, eskribaua, aberatsa, jantzi dendaren jabea, udaltzaingo-burua, alkatea, kazetaria, gudaria, baserritarra, pianista, apaiza, arotza, telefonista, aizkolaria, ertzaintza, errementeria, medikua, taxista, gauzaina, baserritarra, medikua, behartsua, erregea, printzea, guardia, maisua, baroia, morroia, zalduna, kantzilerra, agintaria, epailea, soldadua, apaiza, bulegaria, begiralea, medikua, zuzendaria, merkataria, goardia, polizia, kazetaria, errekaudatzailea, futbolaria, soldadua, dendaria, aberatsa, txoferra, medikua, apaiza, epailea, abokatua, igeltsaria, kobratzailea, morroia, jubilatua, arrantzalea, enperadorea, lehen ministroa, gidaria, tren gidatzailea, nekazaria, suhiltzailea, soldadua, tabernaria, ertzaintza, magoa, alkatea, langilea, gasolinera baten jabea, biolontxelo irakaslea, auto lantegi

bateko langilea, segurtasun langilea, garbitzailea, dendaria (hipermerkatuan), txarteldegian, gidaria, dendaria, udaltzaingoa, globo saltzailea, tabernaria, argazkilaria, artista, atezaina, merkataria, nagusia, larrugilea, okina, zalduna, jauntxoa, ferratzailea, arotza, alkatea, alguazila, apaiza, sukaldaria, ostalaria, nekazaria, lapurra, erretore, erregea, noblezia, Aita Santua, obispoa, kardinala, nekazaria, ehiztaria, morroia, alkatea, Udaltzain-burua, irakaslea, atezaina, banketxeko zuzendaria, apaiza, jostailu dendaren jabea, funtzionarioa, sendagilea, maisua, musikaria, barrakeroa, polizia, zaindaria, pilotua, aktorea, zine-zaindaria, abadea, dendaria eta ehiztaria.

2013an idatzitako liburuak

Emakumeak: presidentea, udaltzaingoa (telefonista), tabernaria EHUko irakaslea, neskamea, enpresaria, harakina, errezepzionista, erregina, ostatuko ugazabandrea, artista (abeslaria), kamareroa, arkeologoa, erizaina, neskamea, dendaria, andereñoa, abokatua, jainkosa, printzesa, sorgina, zerbitzaria, zinegotzia, kazetaria, ertzaina, andereñoa, eskolako zuzendaria, tabernaria, presidentea, psikologoa, kazetaria, psikiatra, andereñoa, aztia (gaiztoa), baserritarra, Tsarina, prostituta, konpainia dama, neskamea, zerbitzaria, printzesa, psikologoa, irakaslea, erregina, erizaina, emakume bizarduna, andereñoa, pailazoa, prostituta, musikaria, sendagile naturala, kazetaria, langilea, unibertsitateko irakaslea, langilea, lorezaina-burua, andereñoa, agirizaina, andereñoa, arrain lantegiko langilea, ingeles irakaslea, azafata, antropologoa, etxekoandrea, neskamea, kazetaria, zalditegiaren jabea, irakaslea, tabernaria, tabernaria, zientzialaria, garbitzailea, idazkaria, irakaslea, sukaldaria, andereñoa, etxetresna elektriko dendaria.

Gizonak: Alkatea, udaltzain-burua, medikua, alkatea, udaltzaingoa (kaboa), tabernaria, unibertsitateko historia irakaslea, museoko zuzendaria, pintorea, arkeologoa, mekanikoa, zaindaria, errezepzionista, poeta, gidaria, enpresaria, marinela, antzerki-gizona, bizkartzaina, presidentea, arotza, zerbitzaria, polizia, arkeologoa, enpresaria, iturgina, zirujaua, medikua, autobus gidaria, landetxearen jabea (artzaina), erregea, jainkoa, errementaria, soldadua, asmatzailea, gerlaria, arkitektoa, artzaina, ile-moztatzailea, saltzailea, zerbitzaria, politikaria (sailburua) ertzaintza,

bizkartzaina, kazetaria, zerbitzaria, alkatea, arotza, jostuna, txiroa, irakaslea, alkatea, suhiltzaile kapitaina, gidaria, kazetaria, sarrailagile, tabernaria, inspektorea, psikiatra, ertzaintza, erregea, printzea, zerbitzaria, diputatua, administratzailea, arkitektoa, ministroa, artista, enbaxadorea, idazlea, politikaria, apaiza, tsar, militarra, gidaria, enperadorea, sendatzailea, printzea, medikua, alkatea, langilea, bedela, artzaina, erregea, printzea, zalduna, aztia, sendagilea, lorezaina, idazlea, zirkuaren jabea, bala-gizona, indartsua, basozaina, polizia, pailazoa, pirata, eskalea, merkataria, musikaria, boxeolaria, dendaria, zerbitzaria, bankaria, eskalea, medikua, entrenatzailea, polizia, epailea, garraiolaria, esklaboa, historialaria, eskalea, saltzailea, dendaria, gerlaria, agintaria, langilea, alkatea, elektrikaria, lantegiko langilea, irakaslea, nekazaria, apaiza, euskara teknikaria, eskribaua, alkatea, errabinoa, zaindaria, harakina, errotaria, morroia, erregea, mailegu dendaria, soldadua, idazlea, erregea, artzaina, ehiztari, mekanikaria, hoteleko harreran, gidaria, sukaldaria, arkeologoa, antropologoa, soldadua, maisua, zuzendaria, katedraduna, taxilaria, aireportuko langilea, eltzegilea, artisaua, zerbitzaria, arrantzalea, lantegiko langilea, kazetaria, alkatea, basozaina, aguazila, apaiza, irakaslea, polizia, ostalaria, soldadua, enpresario-gizona, maiordomoa, ostatuko nagusia, urpekaria, alkatea, zientzialaria, arrantzalea, Ezezagunaren Ikerketa Agentziaren zuzendaria, magoa (irakaslea), basozaina, baserritarra, pilotua, ehiztaria, salmenta-agentea, pilotua, laguntzailea (igeltseroa), langilea, zientzialaria, irakaslea, tabernaria, udaltzaingoa, gidaria, irakaslea, baserritarra.

Liburu saridunak


Emakumeak: Polizia tenientea, forensea, idazkaria, polizia, bazkari saltzailea, ballet irakaslea, garbitzailea, prostituta, sukaldean laguntzailea, ileapaindegia, artista (diseinu grafikoa enpresa batean), ONCE kupoi saltzailea, andereñoa, garbitzailea, andereñoa, fruta saltzailea, lapurra, maistra, saregilea, abokatua, okina, andereñoa, musikaria, kritikaria, irakasle, baroisa, etxekoandrea, erizaina, dendaria.

Gizonak: Soldadua, polizia, komiki-dendaria, kamareroa, enpresario exekutiboa, zientzialaria, maisua, kamioilaria, ingeniaria, aktorea, idazlea,

supermerkatuan (produktuak kokatzen), soldadua, postaria egunkari saltzailea, musikaria, txarteldegian, suhiltzailea, garraiolaria, ipuin-kontalaria, kirolaria, merkataria, farozaina, marinela, arrantzalea, tren-geltokiko langilea eta ikuskaria (billeteak eskatzen dituen), maisua, zientzialaria, musikaria, boxeolaria, dendaria, kale-garbitzailea, aizkolaria, pintatzailea, farmazeutikoa, medikua, artzaina, kazetaria, abokatu, zurgina, baroia, ministroa, musikaria, medikua, mezularia, kardinala, taxilaria eta soldadua.



eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea